

08

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

**KG****k**

# Euskadiko gazteak 2012



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA





COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA 08

**KGk**

# Euskadiko gazteak 2012

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SALA  
Gazteria eta Kirol  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA, LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Dirección de Juventud  
y Deportes

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

**Argitaraldia:** 1.a 2014ko apirila

**Ale-kopurua:** 500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

**Internet:** [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz

**Egileak:** Miren Bilbao Gaztañaga, Oskar Longo Imatz eta Nieves Corcuera Bilbao

**Itzulpena:** IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

**Bildumaren diseinua:** Canaldirecto • [www.canal-directo.com](http://www.canal-directo.com)

**Maketazioa,  
fotokonposaketa eta  
inprimaketa:** ONA Industria Gráfica, S.A.

**ISBN:** 978-84-457-3342-4

**D. L.:** VI 189-2014

# Aurkibidea

<b>AURKEZPENA</b> .....	11
<b>HITZAURREA</b> .....	13
<b>1. FAMILIAREN ETA OKUPAZIOAREN EGOERA</b> .....	<b>15</b>
<b>1.1. Sarrera</b> .....	<b>17</b>
<b>1.2. Gazteen okupazio nagusia</b> .....	<b>18</b>
<b>1.3. Ikasketak</b> .....	<b>21</b>
1.3.1. Bukatutako ikasketa-maila .....	21
1.3.2. Lanbide-orientazioa ikastetxean .....	23
1.3.3. Ingeles-maila .....	24
1.3.4. Etengabeko ikaskuntza .....	27
<b>1.4. Familiaren eta bizilekuaren egoera</b> .....	<b>28</b>
<b>1.5. Maila soziala</b> .....	<b>32</b>
<b>1.6. Ondorioak</b> .....	<b>35</b>
<b>2. NORBERAREN ETA GIZARTEAREN EGOERA BALIOESTEA</b> .....	<b>37</b>
<b>2.1. Sarrera</b> .....	<b>39</b>
<b>2.2. Norberaren egoera balioestea</b> .....	<b>40</b>
<b>2.3. Arazo pertsonalak</b> .....	<b>42</b>
<b>2.4. Gazteen egoera orokorra balioestea</b> .....	<b>46</b>
<b>2.5. Administrazioek gazteen arloan egiten duten jarduna balioestea</b> .....	<b>48</b>
<b>2.6. Euskal Autonomia Erkidegoko egoera balioestea</b> .....	<b>51</b>
<b>2.7. Aldaketa soziala</b> .....	<b>53</b>
<b>2.8. Ondorioak</b> .....	<b>55</b>
<b>3. PARTAIDETZA ETA JARRERA POLITIKOAK</b> .....	<b>57</b>
<b>3.1. Sarrera</b> .....	<b>59</b>

3.2. Politikarekiko interesa . . . . .	60
3.3. Gai politikoetan parte hartu nahi izatea . . . . .	62
3.4. Nortasun-sentimendua . . . . .	65
3.5. Jarrera ideologikoa: ezkerra versus eskuina . . . . .	69
3.6. Atxikimendu handiena eragiten duen alderdi politikoa . . . . .	72
3.7. M-15 mugimenduaren mobilizazioekiko begikotasuna eta partaidetza . . . . .	75
3.8. Elkartegintza . . . . .	82
3.9. Boluntariora . . . . .	89
3.10. Ondorioak . . . . .	92
<b>4. BALIO ETA JARRERA SOZIALAK . . . . .</b>	<b>93</b>
4.1. Sarrera . . . . .	95
4.2. Erlijio-arloko sinesmenak eta praktika . . . . .	96
4.3. Balio sozialak . . . . .	102
4.3.1. Erlijioa irakastea ikastetxeetan . . . . .	102
4.3.2. Eutanasia . . . . .	105
4.3.3. Abortu libre eta borondatezkoa . . . . .	107
4.3.4. Heriotza-zigorra . . . . .	109
4.3.5. Ideia politiko edo erlijiosoak indarraren bidez defendatzea . . . . .	112
4.3.6. Hutsik dauden etxebizitzak okupatzea . . . . .	113
4.3.7. Kanabis legeztatzea . . . . .	115
4.3.8. Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza . . . . .	117
4.3.9. Sexu-aldaketa legala . . . . .	120
4.4. Auzokideekiko tolerantzia . . . . .	122
4.5. Tolerantzia ideologikoa . . . . .	127
4.6. Immigrazioarekiko jarrerak . . . . .	128
4.7. Kontsumo eta mugikortasun jasangarria . . . . .	133
4.8. Ondorioak . . . . .	141
<b>5. AISIALDIA, KULTURA ETA EUSKARA . . . . .</b>	<b>143</b>
5.1. Sarrera . . . . .	145

5.2. Aisialdia .....	145
5.3. Aisialdiko jarduerak .....	147
5.4. Jarduera artistiko edo kulturalak .....	154
5.5. Ikuskizunetara joatea .....	157
5.6. Irakurmena .....	159
5.7. Internet eta gizarte-sareak .....	165
5.8. Euskara .....	170
5.9. Ondorioak .....	184
<b>6. BERDINTASUNIK EZA ETA SEXISMOA .....</b>	<b>187</b>
6.1. Sarrera .....	189
6.2. Berdintasunik eza lana lortzean .....	190
6.3. Berdintasunik eza etxeko lanak banatzean .....	194
6.4. Zaintza-lanari buruzko iritzia ordaindutako lanaren aldean .....	196
6.5. Auzoan edo herrian gauzez ibiltzeko beldurra .....	198
6.6. Emakumeen aurkako hainbat indarkeria motaren larritasuna .....	201
6.6.1. Sexu-harremanak izatera behartzea .....	204
6.6.2. Etxetik irtetea debekatzea .....	204
6.6.3. Mehatxatzea .....	205
6.6.4. Mespretxuak egitea .....	206
6.6.5. Gauzak erabakitzen ez uztea .....	207
6.6.6. Iraintzea .....	208
6.7. Ondorioak .....	209
<b>7. OSASUNA .....</b>	<b>211</b>
7.1. Sarrera .....	213
7.2. Osasun-egoera .....	213
7.2.1. Gaixotasun kronikoak edo desgaitasunak .....	214
7.2.2. Arazo psikologikoak azken 12 hilabeteetan .....	215
7.2.3. Osasunaren pertzepzio subjektiboa .....	217
7.3. Ohitura osasungarriak .....	221
7.3.1. Elikadura orekatua .....	222



7.3.2. Bizimodu aktiboa .....	223
7.3.3. Kirola egitea.....	226
<b>7.4. Jokabide arriskutsuak .....</b>	<b>232</b>
7.4.1. Tabakoa .....	232
7.4.2. Alkohola .....	233
7.4.3. Legez kanpoko drogak.....	235
<b>7.5. Ondorioak .....</b>	<b>235</b>
<b>8. SEXUALITATEA .....</b>	<b>237</b>
<b>8.1. Sarrera .....</b>	<b>239</b>
<b>8.2. Sexualitatearen garrantzia .....</b>	<b>240</b>
<b>8.3. Sexualitateari buruzko informazio-iturria .....</b>	<b>242</b>
<b>8.4. Sexualitateari buruzko ideiak .....</b>	<b>246</b>
8.4.1. Sexualitatea eta norberaren oreka .....	246
8.4.2. Maitasuna eta sexua .....	248
8.4.3. Aukera sexuala aldatzea bizitzan zehar .....	250
8.4.4. Gizonek emakumeek baino desio sexual gehiago al dute? .....	252
8.4.5. Homosexualitatea gaixotasuntzat hartzea .....	254
<b>8.5. Esperientzia sexuala.....</b>	<b>256</b>
<b>8.6. Harreman sexual arriskutsuak .....</b>	<b>259</b>
<b>8.7. Ondorioak .....</b>	<b>260</b>
<b>ONDORIOAK.....</b>	<b>263</b>
<b>METODOLOGIA .....</b>	<b>279</b>
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>283</b>
<b>AURKIBIDEAK.....</b>	<b>291</b>
<b>Taulen aurkibidea .....</b>	<b>293</b>
<b>Grafikoen aurkibidea .....</b>	<b>303</b>
<b>ERANSKINA: ERABILITAKO GALDERA-SORTA.....</b>	<b>309</b>





# Aurkezpena


Duela hamarkada bat baino gehiago hasitako Euskadiko gazteak seriearen laugarren alea da *Euskadiko gazteak 2012* argitalpen hau. Gazteen Euskal Behatokiak Euskadin bizi diren gazteei buruzko informazioa aldiro emango duen azterlan soziologiko bat eskaintzearen konpromisoa betetzera dator argitalpen hau. 2000ko, 2004ko eta 2008ko edizioen kasuan bezala, *Euskadiko gazteak 2012* honen helburua gure gizarteko biztanle gazteak dimentsio ugari ikuspegi batetik ezagutzeko premiari erantzutea da, bizitzaren aldi horretan gertatzen diren zirkunstantzia guztiak barne hartuko dituen ikuspegi batetik, eta, hartara, gazteen premien, kezken eta jarreraren inguruko informazioa ematea bai herri-administrazioei, bai gazteekin lan egiten duten erakunde guztiei ere.

2008az geroztik Europa zeharkatu duen krisia gehien pairatu duen adin-estratueta-ko bat gazteena da. Gazteen etorkizuna kolokan dagoela dirudi, oraintsuko iraganean inoiz egon ez den bezalako egoeran. Enplegua aurkitzeko zailtasunak, laneko prekaritatea, etxebizitza eskuratzeko eta emantzipatzeko zailtasunak, nazioarteko mugikortasuna, familia-bizikidetzarako eredu aldaketa, teknologia berriak eta etengabe aldakuntzan dagoen mundu baten ondorioei aurre egin beharra... guztiak eskatzen dizkie ahalegin handiagoak egungo gazteei, aurreko belaunaldiei baino. Ikerketa honek erakusten dizkigun gazteak prest daude, gaituta eta gogotsu, bizi duen mundua diseinatzeko garaian subjektu aktibo izateko.

Ikerketa honen argitalpenari esker, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailetik Euskadiko gazteak hobeto ezagutzeko bidea eman nahi dugu, gazteon errealitatea hobetuko duten politikak diseinatzeko, bai eta, aldi berean, politika horien jarraipena egitekoa eta euren eraginkortasuna neurtzekoa ere.

***Cristina Uriarte Toledo***

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA



# Hitzaurrea

*Euskadiko gazteak 2012* izen horrekin Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin egiten duen ikerketa soziologikoaren laugarren zenbakia da.

Ikerketa-sortari 2000. urtean eman zitzaion hasiera, eta, beraz, laugarrena da oraingo hau; hamarkada bat baino gehiago biztanleriaren sektore bat, gazteak, aztertzen. Izan ere, ezaugarri bereizgarriak dituzte gazteek, eta, horrenbestez, instituzioen berariazko arreta behar dute. Gazteen Euskal Behatokiaren egitekoetako bat gizarteari gazteen egoerari buruzko diagnostiko eguneratu eta jarraitua ematea da, eta horretarako tresna da Euskadiko Gazteak azterketa.

Ikerketaren oinarria gazteen lagin adierazgarri bati egiten zaion etxez etxeko inkesta da, eta gazteen iritziak eta jarrerak biltzen ditu hainbat alderdiri buruz; besteak beste: familia, jardun nagusia, prestakuntza, euskararen ezagutza eta erabilera, jarrera eta iritzi politikoak, gizarteko parte-hartzea, aisiaren erabilera, erlijio-sinesmenak, zenbait balioerakiko iritzia, osasuna, eta sexualitatea bizitzeko modua.

Ikerketa honek, aurrekoek bezala, 15 eta 29 urteko pertsonak jotzen ditu gaztetzat, inguruko tes-tuinguru hurbiletan egiten den antzera, adibidez, Espainian. Datuek aukera ematen badute, hango datuekin alderatzen dira.

Ikerketaren azterketa garrantzitsuenetako bat gazteen iritzien eta jarreraren bilakaerari buruzkoa da. Atal guztietan, informazioa aldagaitan banatuta ematen da. Oinarrizkoenen artean daude, besteak beste, sexua, adina, bizi diren lurralde historikoa eta elkarrizketatutako pertsonaren jatorria. Eta ahal den guztietan, iritziak eta jarrerak EAEko biztanleria osoarekin alderatzen dira.

Edizio honen berrikuntza moduan, aipatu behar dugu aurreko ikerketetan aztertu ez ziren zenbait alderdi sartzen direla oraingoan —adibidez, osasuna—, eta orain artean gainetik soilik aztertzen ziren beste batzuk sakon aztertzen direla —adibidez, genero-desberdintasuna eta sexualitatea—.

Eta beste edizio batzuetan ez bezala, *Euskadiko gazteak 2012* ikerlanean gutxiago sakontzen dira lanarekin eta etxebizitzarekin lotutako alderdiak. Badago arrazoi bat horretarako: 2011. urtetik aurrera Gazteen Euskal Behatokiak ikerketa-sorta berri bat jarri zuen abian emantzipazioarekin zuzenenean lotuta dauden alderdiak aztertzeke. Horrela jokatu, gazteen errealitateari buruzko arlo gehiago aztertu daitezke sakonago, eta, horrez gain, gehiagotan egiten zaizkie kontsultak gazteei.

Ikerketa hau, hedabideetan sarri-sarri agertzen den bezala, hainbat eta hainbat pertsonaren bi-zi-kalitatean eragina izaten ari den krisitik irteteko ahalegina egiten ari garen unean burutu da. Eta, horren haritik, *Euskadiko gazteak 2012* lanak erakutsiko digu krisi-egoera hori gazteengan aldaketak eragiten ari den ala ez.

*Euskadiko gazteak 2012* ikerketak, beraz, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen portaerak, iritziak, balioak eta jarrerak adierazten dituen gai-sorta zabala eskaintzen digu; eta gazteen arazo eta kezka nagusien diagnostikoa eskaintzen die, bai euskal gizarteari, bai gazteen arloan ardura politikoak eta teknikoak dituztenei, bai gazteei beraiei ere.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

# 1. Familiaren eta okupazioaren egoera







# 1

## Familiaren eta okupazioaren egoera

### 1.1. SARRERA

Lehen kapitulu honetan, EAEko gazteen eguneroko egoera zein den deskribatuko dugu, hau da, besteak beste, non bizi diren, norekin eta zertan jarduten duten.

Baina horretan hasi aurretik, datu bat gogorarazi nahi dugu: inkesta egin den unean (2012ko lehen hiruhilekoan), gazteen (16-29 urte) langabezia-tasa % 23,2 da, hau da, lan egiteko prest eta lana modu aktiboan bilatzen ari diren gazteen ia laurden batek ez du lanik. Langabezia-tasa hori 2008. urtean kolektibo horrek zuen tasaren (% 7,3) hirukoitza da eta lagungarri izan dakiguke *Euskadiko gazteak* serie honetako datuetan 2008tik 2012ra bitarte izan den bilakaera ulertzeko.

Gero eta gazte gehiago dago langabezian; horretaz gain, lana badutenen behin-behinekotasunaren tasak ere oso handiak dira. Hori horrela izanik, 2012. urtean 16-29 urteko soldatapeko gazteen % 50,6k aldi baterako kontratua du eta % 47,1ek kontratu mugagabea.<sup>1</sup>

Aldi berean, gazteen bizilekuaren egoera aztertzeko, zera aipatuko dugu, Etxebizitzako Behatokiak argitaratutako 2012ko lehen hiruhilekoari dagokion Eskaintza Immobiliarioaren Estatistikaren datuei jarraiki<sup>2</sup>, eredu-etxebizitza berri baten (alegia, erregimen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskaintzen duena, akabera-maila arruntarekin eta 60-90 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duena) metro koadroaren prezioa 3.425 eurokoa da; horrek esan nahi du 60 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berri batek 205.500 euro balio duela batez beste. Etxebizitza erabilien kasuan, metro koadroaren prezioa 3.837 eurora igotzen da eta, horren arabera, 60 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza erabili batek 230.220 euro balio du.

---

<sup>1</sup> Aipatu ditugun langabeziaren eta behin-behinekotasunaren tasak Gazteen Euskal Behatokiak eman ditu EUSTAT Euskal Estatistika Erakundearen datuetan oinarrituta eta Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan kontsulta daitezke [linean]. <http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-7650x/eu/estatistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta: 2013/09/25].

<sup>2</sup> Etxebizitzako Behatokia = Observatorio Vasco de la Vivienda. *Eskaintza Immobiliarioaren Estatistika: 2012ko 1. hiruhilekoa* [linean]. (Eusko Jauriaritzak egiten duen Eskaintza Immobiliarioaren Inkestatik ateratako datuak) [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse01/es/contenidos/informe\\_estudio/ovv\\_sectorvivienda\\_oi\\_2012/es\\_ovv\\_sevi/adjuntos/Informe\\_Oferta\\_Inmobiliara\\_I\\_Trimestre\\_2012.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse01/es/contenidos/informe_estudio/ovv_sectorvivienda_oi_2012/es_ovv_sevi/adjuntos/Informe_Oferta_Inmobiliara_I_Trimestre_2012.pdf) [Kontsulta: 2013/09/25]

Alokairuari dagokionez, Etxebizitzako Behatokiaren arabera aldi berean (2012ko lehen hiruhilekoa) eta iturri berari jarraiki (Eskaintza Immobiliararioaren Inkesta), gure autonomia-erkidegoan alokairu librearen batez besteko prezioa hilean 895 eurokoa da.

Bestalde, finantza-erakundeek hipoteka-kredituak emateko baldintzak gogortu dituzte: eskatzai-leari dokumentazio gehiago eskatzen zaio (lan-bizitza, enpresan duen antzintasuna...), kredituaren indarreko urteak mugatzen dira, bai eta kredituaren zenbatekoa ere eta, zenbait kasutan, kreditua ukatu ere egiten da, banku-erakundearen etxebizitza-parkeko etxebizitza bat erosteko ez bada.

Horren guztiaren ondorioz, Euskadin gauzatutako hipoteken kopurua nabarmen murriztu da (2012. urtean 2009an baino 10.000 hipoteka gutxiago<sup>3</sup>).

Laburbilduta, langabeziaren eta behin-behinekotasunaren tasak oso handiak dira, etxebizitza oso garestia da (bai alokatzeko, bai erosteko) eta banku-kredituak lortzeko zailtasun handiak izaten dira; egoera horretan, gazteek etorkizunari eta emantzipatzeko proiektuei begira ez dute inolako ziurtasunik eta egonkortasunik. 2011. urtean, EAEn batez beste 30 urterekin emantzipatzen da<sup>4</sup>.

## 1.2. GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA

Gazteek inkestan emandako erantzunen arabera, 15-29 urteko gazteen % 41ek ikasi egiten du, ez besterik.

Alabaina, zenbateko horiek asko aldatzen dira adinarekin; izan ere, 20 urte bete gabe dituztenen artean soilik ikasi egiten dutenen ehunekoa % 87 da eta 25-29 urtekoetan, aldiz, % 8ra jaisten da.

Gazteen % 6k ikasi eta lan egiten du, batera. Datu horien argitara, ondoriozta dezakegu gazteen ia erdiaren (% 47) lanbide nagusia ikastea dela.

Bestalde, % 28k soilik lan egiten du eta % 4 zerbait ikasten ari da lan egiten duen bitartean; horiek, guztira, gazteen % 32 dira, hau da, 15-29 urteko gazteen heren batek lan egiten du.

Soilik edo bereziki lan egiten dutenen ehunekoetan alde handiak daude adinaren arabera: 20 urtetik beherakoen % 3k baino ez du lan egiten eta 24 urtetik gorakoen artean, % 55 dira.

---

<sup>3</sup> (Etxebizitzako Behatokia = Observatorio Vasco de la Vivienda. *EAEko etxebizitzaren merkatuko adierazleak* (2012. urtea), [linean] [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse04/eu/contenidos/informacion/ovv\\_sv\\_cm13/eu\\_ovv\\_sevi/ovv\\_sectorvivienda226\\_eu.html](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse04/eu/contenidos/informacion/ovv_sv_cm13/eu_ovv_sevi/ovv_sectorvivienda226_eu.html)) [Kontsulta:2013/09/25]

<sup>4</sup> EAEn emantzipatzeko batez besteko adinaren bilakaera Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan kontsulta daiteke [linean]. <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7650x/eu/estatistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta: 2013/09/25] eta Gazteen Behatokiak berak kalkulatu du Eustaten Demografi Inkestako datuetan oinarrituta.

Landunen ehunekoa askoz handiagoa da 25-29 urtekoen artean, 24 urtera bitarteko artean baino, baina hala ere, azken bost urteotan zenbateko horrek jaitsiera handia izan du. 2008. urtean, krisialdia hasi baino lehentxeago, lanean ari ziren 25-29 urteko gazteak (lanean eta ikasten batera ari zirenak alde batera utzita) % 71 ziren (*Euskadiko gazteak 2008*) eta gaur egun % 55 direnez, 16 puntuko jaitsiera izan da.

Okupazioari buruzko datuak sexuaren arabera bereiziz gero, soilik edo bereziki lan egiten duten emakume gazteen ehunekoa (% 36) gizon gazte landunena baino handiagoa dela ikusiko dugu (% 28).

EAEko gazteen guztizkotik langabezian daudenak % 18 dira. Enplegurik ezak eragin handiagoa du gizonengan emakumeengan baino, eta langabeen bolumenak gora egiten du adinean aurrera egin ahala, ikasle kopuruak behera egitearekin batera. Lurraldearen arabera, langabezia zertxobait handiagoa da Arabako eta Bizkaiko gazteen artean (% 19, bi kasuetan), Gipuzkoako gazteen kasuan baino (% 16).

Gazte langabeen zenbatekoak nabarmen handitu dira aurreko urteekin alderatuta: 2000. urtean inkesta erantzun zuten gazteen % 7k esan zuen langabezian zegoela eta 2012an, aldiz, % 18ra iritsi dira.

### 1. taula

OKUPAZIO NAGUSIA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

GAUR EGUN, EGOERA HAUETATIK, ZEINETAN ZAUDE?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMA-KUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Ikasten	41	43	39	87	45	8
Nagusiki, ikasten, eta, gainera, lan egiten	6	5	7	5	7	6
Nagusiki, lan egiten, eta, gainera, ikasten	4	3	5	1	4	6
Lanean	28	25	31	2	22	49
Langabezian	18	22	13	4	18	26
Etxeko lanetan	1	0	3	0	1	2
Beste egoera batean	2	2	2	1	3	3
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

## 2. taula

OKUPAZIO NAGUSIAREN BILAKAERA (%)

GAUR EGUN, EGOERA HAUETATIK, ZEINETAN ZAUDE?				
(%)	2000	2004	2008	2012
Ikasten	43	43	39	41
Ikasten eta lanean	8	14	10	10
Lanean	41	38	41	28
Langabezian	7	4	8	18
Etxeko lanetan	1	1	2	1
Beste egoera batean	0	1	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1364</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Azkenik, EAEko gazteen artean % 1ek soilik jarduten du etxeko lanetan okupazio nagusi gisa, baina egoera hori emakumeen artean baino ez da agertzen (emakumeen % 3), eta ehuneko hori bikoiztu egiten da emakume atzerritarren kasuan (% 6).

Datu horiek Espainiako Estatuko gazte guztien datuekin alderatuz gero<sup>5</sup>, alde nabarmenena zera dela ikusiko dugu, Euskadin soilik ikasten jarduten duten gazteen ehunekoa Espainiakoa baino sei puntu handiagoa dela eta, aldiz, langabezian daudenek zazpi puntu gehiago dituztela Espainian, EAEn baino.

## 3. taula

EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN OKUPAZIO  
NAGUSIAREN KONPARAZIOA (%)

GAUR EGUN, EGOERA HAUETATIK, ZEINETAN ZAUDE?		
(%)	EAE-KO GAZTEAK	ESPAINIAKO GAZTEAK*
Ikasten	41	35
Ikasten eta lanean	10	11
Lanean	28	27
Langabezian	18	25
Etxeko lanetan	1	2
Beste egoera batean	2	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1437</b>

\* Espainiari dagozkion datuen iturria: Injuve (Jóvenes y emprendimiento, EJ161 azterlana, 2012)


<sup>5</sup> Espainiako Gaztearen Institutua. *Jóvenes y emprendimiento: estudio EJ161* [linean], Madril: Injuve, 2012. Cifras jóvenes. Sondeo de opinión; 2012.1) <http://www.injuve.es/sites/default/files/2013/09/publicaciones/logoSondeo%202012-1b.pdf> [Kontsulta: 2013/09/25]

Gaur egungo egoera edo okupazioa alde batera utzita, EAEko gazteen % 40k dio lana bilatzen ari dela.

Logikari jarraiki, langabezian daudenak dira lana bilatzen ari direla gehien diotenak (% 90), baina ez dira bakarrik: gaur egun soilik lan egiten dutenen artean, ia laurden batek (% 23) lana aldatu nahi du edo bere lan-kontratua epe motzera amaituko dela aurreikusten du eta beste lan bat bilatzen ari da. Soilik ikasten ari direnen kasuan ere, % 28 lana bilatzen ari da eta lanean eta ikasten batera ari direnei dagokienez, ehuneko hori % 39ra igotzen da.

### 1. grafikoa

LANA BILATZEA, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)



Langabezia-mailarik handiena zuten kolektiboetan, kideen gehiengoa lana bilatzen ari da; izan ere, 20 urtetik gorakoen artean % 47 lana bilatzen ari da, 15-19 urtekoen artean % 20, eta Araban eta Bizkaian lana bilatzen ari diren gazteak % 44 eta % 41 dira, hurrenez hurren (Gipuzkoan % 37).

## 1.3. IKASKETAK

Atal honetan batik bat lau alderdi aztertuko ditugu, laurak ere heziketarekin eta heziketak gazteen laneko etorkizunean duen eraginarekin loturik: bukatutako ikasketa-maila, ikastetxean jasotako lanbide-orientazioa, ingeles-maila eta etengabeko ikaskuntza.

### 1.3.1. Bukatutako ikasketa-maila

Bukatutako ikasketa-mailari erreparatuta, konturatuko gara gazteen % 38 derrigorrezko ikasketak egiten ari dela edo amaituta dituela, % 31k bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu dituela, hau da, Batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-ziklo bat (Lanbide Heziketako modulua), eta gainerako % 31k goi-mailako ikasketak dituela: goi-mailako heziketa-ziklo bat edo unibertsitateko ikasketak.

Goi-mailako ikasketak dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoa handiagoa da Euskadin (% 31) Espainia osoan baino (% 25)<sup>6</sup>.

Bukatutako ikasketetan, adinak eragindako alde logikoez gain, gizon eta emakume gazteen artean eten handia dago: goi-mailako ikasketak dituzten neskek askoz gehiago dira mutilak baino (% 36 eta % 26, hurrenez hurren).

Ikasketa-mailaren arabera baino gehiago, ikasketa motaren arabera aztertuz gero aldea, (erdi- edo goi-mailako) heziketa-zikloak ikastea ohikoagoa da mutilen artean nesken artean baino; erdi- edo goi-mailako heziketa-zikloak bukatu dituztela diote mutilen % 29k eta nesken % 20k.

#### 4. taula

BUKATUTAKO IKASKETA-MAILA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

ZEIN IKASKETA DUZU AMAITUTA?	ZEIN IKASKETA DUZU AMAITUTA?					
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMA-KUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Lehen hezkuntza edo azpikoa	13	14	12	31	6	7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) edo baliokideak	25	27	22	46	19	15
Derrigorrezko Hezkuntzaren ondorengo Bigarren Hezkuntza (Goi Batxilergoa edo baliokideak)	20	19	23	17	31	14
Erdi-mailako Heziketa Zikloa (LH-I)	11	14	7	5	13	12
Goi-mailako Heziketa Zikloa (LH-II)	14	15	13	1	14	22
Ziklo laburreko unibertsitate-hezkuntza (diplomatura, ingeniari- eta teknikoak)	10	5	14	0	11	15
Ziklo luzeko unibertsitate-hezkuntza (lizentziatura, goi-ingeniari- eta...)	6	5	7	0	4	12
Graduondoko ikasketak (masterra, doktoretza...)	1	1	2	0	2	3
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

25-29 urtekoen taldean, erdiak baino gehiagok (% 52) goi-mailako ikasketak egin ditu. Baina goi-mailako ikasketak izateak laguntzen al du lana lortzen? Adinaren eragina neutralizatzeko, 25-29 urtekoen taldea soilik hartu dugu kontuan eta konturatu gara goi-mailako ikasketak (unibertsitatekoak edo goi-

<sup>6</sup> Ibid.

mailako heziketa-zikloak) dituztenen artean % 62 lanean ari dela (soilik edo bereziki lanean); derrigorrezko ikasketen osteko bigarren hezkuntzako ikasketak (batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloa) dituztenen artean, lana duten gazteen ehunekoa txikixeagoa dela (% 56), eta, azkenik, derrigorrezko ikasketak bukatu dituzten 25-29 urteko gazteen kasuan, lanean ari direnak (% 37) gutxiago direla langabeak baino (% 45). Beraz, ikasketa-maila handiagoa izateak lan-merkatuan txertatzeko maila handiagoa ematen duela ondoriozta dezakegu.

### 1.3.2. Lanbide-orientazioa ikastetxean

Ikastetxean lanbide-etorkizunerako aukeren gaineko informaziorik eta orientaziorik jaso duten edo jaso ote zuten galdetu diegu gazteei, eta lautik hiruk baietz erantzun dute (% 74).

Lanbide-heziketako ikasketak egin dituztenek lan-orientazio handiagoa jaso dute ikastetxean (% 82), unibertsitateko ikasketak egin dituztenekin alderatuta (% 71).

Era berean, ikastetxean aholkuak jaso dituztela dioten datuen bilakaera aztertuz gero, gaur egungo datuak 2004ko eta 2008ko datuen antzekoak direla ikusiko dugu (% 72 eta % 76, hurrenez hurren).

#### 5. taula

IKASTETXEAN EMANDAKO LANBIDE-ORIENTAZIOAREN BILAKAERA (%)

JASO AL DUZU EDO JASO AL ZENUEN ZURE IKASTETXEAN ZURE ETORKIZUN PROFESIONALAREN AUKEREI BURUZKO INFORMAZIOARIK EDO ORIENTAZIOARIK?			
(%)	2004	2008	2012
Bai	72	76	74
Ez	25	22	23
Ed/Ee	3	2	3
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)


Bestalde, EAeko hezkuntza-sistemari buruz, oro har, zer pentsatzen duten galdetu diegu gazteei. EAeko hamar gaztetatik seik (% 59) gure autonomia-erkidegoko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela uste dute. Aldiz, % 8k oso txarra edo nahiko txarra dela esan dute.

Gure hezkuntza-sistemari buruzko iritzi positiboak ohikoak dira azken urteotan.



## 2. grafikoa

EAE-KO HEZKUNTZA-SISTEMAREN BALIOESPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

EAEko hezkuntza-sistemaren balioespen positiboa orokorra eta antzekoa da kolektibo guztietan, gazteen ikasketa-maila edozein izanik ere: derrigorrezko ikasketak dituztenen artean, oso ona edo nahiko ona dela diote % 57k; derrigorrezko ikasketen ondoko bigarren mailako ikasketak dituztenen artean % 59k, heziketa-zikloak ikasi dituztenen artean % 61ek, eta unibertsitateko ikasketak dituztenen artean % 59k. Azken kolektibo horretan, unibertsitateko ikasketak dituzten gazteen % 10ek uste du gure hezkuntza-sistema oso txarra edo nahiko txarra dela. Unibertsitate-eremuan laneko etorkizunerako orientazioa txikiagoa izatea izan daiteke hezkuntza-sistemari buruzko iritzirik negatiboa eragiten duen arrazoi bat. Izan ere, EAEko hezkuntza-sistemaren balioespenetan bada alderik ikastetxean lanbide-etorkizunerako informazioa eta orientazioa jaso dutenen eta jaso ez dutenen artean: jaso dutenen kasuan, EAEko hezkuntza-sistemaren balioespen positiboa egin du % 61ek eta jaso ez dutenen kasuan, berriz, % 51k baino ez.

### 1.3.3. Ingeles-maila

Gure ekonomia gero eta nazioartekotuagoa dagoenez, lana bilatzeko garaian atzerriko hizkuntzak jakitea oso garrantzitsua da.

Gure autonomia-erkidegoan, ingelesa nahikoa ondo edo oso ondo hitz egiten dutela dioten gazteak % 30 dira. Ehunekoek gora egiten dute ingelesezko idazmen-mailari buruz galdetuz gero (% 31k dio nahikoa ondo edo oso ondo idazten duela ingelesez); idatzitakoaren ulermenaren kasuan, % 36k, edo ahozko ulermenaren kasuan, % 37k. Baina, nolana ere, zenbateko horiek ez dira iristen mundu globalizatu batean lortu beharko liratekeen mailak.

Gazteen % 39k dio badakiela ingelesez pixka bat hitz egiten, baina hori ez da nahikoa atzerrian lan egiteko edo atzerritarrekin lan-harremanak izateko, eta datu negatibo bat nabarmentzearren, gure gazteen ia heren batek (% 31) ez daki ia ingelesik edo hitzen bat edo beste baino ez daki.

Neskek ehuneko handiagoak dituzte mutilek baino ingelesezko hizkuntza-gaitasun guztietan (ahozko eta idatzizko ulermena, mintzamina eta idazmena). Halaber, 25 urtetik beherakoen ingeles-maila handiagoa da 25-29 urtekoena baino, hizkuntza-trebetasun guztietan. Ingelesa jakiteko premiaz gero eta gehiago jabetzen dira gazteak eta, horregatik, aurrekoek baino prestakuntza hobea izaten dute

## 6. taula

INGELES-MAILA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

ZEIN DA ZURE INGELESAREN EZAGUTZA-MAILA?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMA-KUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
<b>ULERTZEN DUZU</b>						
Oso Ongi	10	8	11	11	12	8
Nahikoa ongi	27	25	29	31	28	23
Zertxobait	39	40	39	42	38	38
Hitz batzuk bakarrik	14	15	12	9	12	17
Bat ere ez	11	12	9	7	9	14
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
<b>HITZ EGITEN DUZU</b>						
Oso Ongi	9	7	10	8	11	7
Nahikoa ongi	21	20	23	25	21	19
Zertxobait	39	37	42	45	40	35
Hitz batzuk bakarrik	18	21	14	13	16	22
Bat ere ez	13	15	11	9	12	17
Ed/Ee	0	1	0	0	1	0
<b>IRAKURTZEN DUZU</b>						
Oso Ongi	10	9	11	10	12	7
Nahikoa ongi	26	23	29	30	27	23
Zertxobait	35	36	35	39	36	32
Hitz batzuk bakarrik	14	15	13	9	13	17
Bat ere ez	15	17	13	11	13	20
Ed/Ee	0	1	0	0	1	0
<b>IDAZTEN DUZU</b>						
Oso Ongi	9	8	10	9	11	7
Nahikoa ongi	22	21	23	26	22	21
Zertxobait	38	35	41	43	40	33
Hitz batzuk bakarrik	15	17	13	11	13	19
Bat ere ez	16	18	13	11	14	21
Ed/Ee	0	1	0	0	1	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

### 1.3.4. Etengabeko ikaskuntza

Etengabeko ikaskuntza edo bizi osoko ikaskuntza (*lifelong learning*) Europako hezkuntzaren arloko politikaren zutabeetako bat da eta etengabeko prestakuntza du xede, lanera bideratuta edo ez. Europako Batzordeak honela definitu du: ikuspegi pertsonal, zibiko, sozial edo enpleguari lotutako ikuspegitik begiratuta, kualifikazioak, jakintzak eta gaitasunak hobetzeko helburuarekin bizitza osoan egindako ikasteko jardueraren oro. Definizio zabal horretan pertsonaren bizitza osoko ikaskuntzari ematen zaio garrantzia eta ikaskuntza formala, ez-formala eta informala biltzen ditu.

EAEko gazteen etengabeko ikaskuntzaren nondik norakoa aztertzeko, azken hamabi hilabeteetan ikastaro edo prestakuntzako jardueraren bat egin ote duten galdetu diegu gazteei, ikasketak zabaltzearekin, aisialdiarekin, kirolarekin eta abarrekin loturik (baina ikasketa-planetan sartzen ez dena, ikasleen kasuan).

Gazteen %41ek dio azken urtean horrelako prestakuntza-jardueraren bat egin duela. Ehuneko hori handiagoa da 18 urte eta gehiagoko biztanleriari, oro har, dagokiona baino (2011. urtean %34<sup>7</sup>).

20-24 urteko gazteek eta Bizkaian bizi diren gazteek egiten dituzte prestakuntza-jardueraren osagarri gehien (%45, bi kasuetan).

Soilik lan egiten dutenen heren batek (%34) eta langabezia dauden gazteen ia erdiak (%43) aipatu dute azken urtean lanarekin, ikasketak zabaltzearekin edo aisialdiarekin loturiko prestakuntza-jardueraren bat egin dutela.

---

<sup>7</sup> Datu horiek Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako azterlan batetik atera ditugu: *Bizialdi osoko ikaskuntza: 2011ko iraila* [linean]. [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/o\\_11tef3/eu\\_11tef3/adjuntos/11tef3\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_11tef3/eu_11tef3/adjuntos/11tef3_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/09/26]

## 7. taula

PRESTAKUNTZA-JARDUERAK EGITEA, ADIN-TALDEAREN,  
BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

PENTSA EZAZU ORAIN BAI LANAREKIN, IKASKETAK SAKONTZEAREKIN, ASTIALDIAREKIN, OSASUNAREKIN, KIROLAREKIN ETA ABARREKIN LOTUTAKO IKASTAROETAN ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERETAN ETA ESAN: EGIN AL DUZU AZKEN 12 HILABETEOTAN IKASTARORIK EDO PRESTAKUNTZA-JARDUERARIK? (IKASLEA BAZARA, ZURE OHIKO IKASKETEZ APARTE)											
(%)	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			LURRALDEA			JARDUN NAGUSIA			
		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	IKASTEA	IKASTEIA ETA LAN EGITEA	LAN EGITEA	LANGABE- ZIAN
Bai	41	36	45	43	36	45	39	41	60	34	43
Ez	57	62	53	56	63	54	59	57	38	64	53
Ed/Ee	2	2	2	1	1	2	2	1	2	2	4
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>647</b>	<b>150</b>	<b>392</b>	<b>257</b>

## 1.4. FAMILIAREN ETA BIZILEKUAREN EGOERA

Jarraian, Euskadin bizi diren gazteen familiaren eta bizilekuaren egoera deskribatuko dugu, hau da, non eta norekin bizi diren gure autonomia-erkidegoko gazteak.

Gazteen % 73 gurasoekin bizi da. Astean zehar ikasleen egoitza batean edo gurasoena ez den beste etxebizitza batean (ikasle-pisua...) bizi direlarik, asteburutan eta oporretan familiarekin bizi direnak (% 2) ere gehituz gero, EAeko lau gaztetatik hiru (% 75) aitaren eta/edo amaren mende bizi direla konturatuko gara.


Aldiz, % 22k dio gurasoen etxea ez den beste etxebizitza batean bizi direla modu jarraituan. Horiek har ditzakegu emantzipatutzat.

Gainerako % 3a beste egoera batean dago edo ez dio galderari erantzun.

Gazte emantzipatuak gutxiengoa dira oraindik ere, baina azken urteotan gora egin dute: 2004an % 14 ziren, 2008an % 19 eta 2012an % 22.

## 3. grafikoa

## GAZTE EMANTZIPATUEN EHUNekoAREN BILAKAERA



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Hainbat faktorek eragin dezakete zuzenean gazteen emantzipazio-ehunekoetan: alde batetik, 2009. urtea baino lehenago goraldi ekonomikoa zegoen eta agian hainbat gaztek emantzipazio-proiektuak gauzatzeko aukera izan zuen, enplegu-tasak oso handiak zirelako eta hipoteka edo alokairua ordain zezaketelako; gainera, hipoteketarako erreferentziako interes-tasa (euriborra) txikia zen eta finantza-erakundeek erraztasun handiak ematen zituzten epe luzerako hipoteka-kredituak sinatzeko. Bestalde, eta nahiz eta ez den eredu berria, ez eta une honetako eskusiboa ere, badirudi azken urteotan alokairu bidezko emantzipazioak gora egin duela<sup>8</sup> eta lagunekin edo kideekin pisua partekatzea krisialdiari lasaitasun handiagoz aurre egiteko aukera edo estrategia izaten da, banako kostuak txikiagoak direlako; halaber, ezin dugu ahaztu gure autonomia-erkidegoan gazte atzerritarren kopurua ere nabarmen handitu dela (2001ean gazteen % 2,4 ziren eta 2012an % 14,4 izatera iritsi dira), hau da, biztanlerian gero eta garrantzi handiagoa dute, eta sektore horrek gazteen batez bestekoak baino emantzipazio-tasa handiagoak ditu (2012an, atzerrian jaiotako gazteen % 48 emantzipatuta bizi da); bestela esateko, atzerriko gazteak gutxiengoa diren arren, emantzipazio-tasa handiagoak dituztenez EAEko gazteak emantzipatzeko batez bestekoan nolabait eragiten ari dira.

Gazte emantzipatuen ehunekoa gero eta handiagoa da adinean gora egin ahala (logikari jarraiki): 20 urtetik beherakoen artean emantzipatuak % 2 dira, 20-24 urtekoen artean % 13 eta 25-29 urtekoen artean % 43. Nolanahi ere, 25-29 urteko gazteen erdia baino gutxiago emantzipatu dela nabarmendu behar da.

Adinaz gain, kolektiboen artean alde nabarmenak eragiten dituen beste faktore bat sexua da: mutil emantzipatuak % 17 dira eta nesken % 28 bizi da gurasoen etxetik kanpo.

EAEko hiriburuetan bizi diren gazteen artean emantzipazio-ehunekoak handixeagoak dira (% 26), baina horrek ez du esan nahi hiriburuetan gazte gehiago emantzipatzen denik; izan ere, batzuetan herri ertain edo txikiak gazteak hiriburuetara joaten dira emantzipatzean, hirietan etxebizitza mota gehia-

<sup>8</sup> Alokairuan bizi direnei dagokionez, 18-34 urteko gazte emantzipatuen % 9 ziren 1991. urtean eta 2011an % 31 izatera iritsi dira, Gazteen Euskal Behatokiak egindako kalkuluen arabera (Inkesta demografikotik Eustatek ateratako datuetan oinarrituta).

go eta prezioen aukera handiagoa izaten delako, eta, horren ondorioz, ehuneko hori handiagoa da hiriburuetan.


Gazteen okupazio nagusiari erreparatuta, lanean ari direnen kasuan gazte emantzipatuak % 42 dira eta ikasleen kasuan % 5. Hori logikoa da; izan ere, hilerio soldata bat izateak diru gehiago izateko aukera ematen du eta hori ezinbestekoa da emantzipatzeko. Horretaz gain, hilean 600 euro baino gehiago izaten dituztenen artean emantzipatuak % 40tik gora dira.

EAEko gazteen eta Espainiako gazteen (Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren Emantzipazio Behatokia emandako datuetan oinarrituta) datuak alderatuz gero<sup>9</sup>, ia berdinak direla esan dezakegu: 2013ko lehen hiruhilekoan jatorrizko etxetik at bizi diren 16-29 urteko gazte espainiarrak % 22,1 ziren.

Bestalde, eta non bizi diren alde batera utzita, EAEko gazteen % 86 ezkongabea da eta ez da bikotekidearekin bizi. Gazteen % 13k bikotekidearekin bizi dela dio, ezkontuta (soilik % 5) edo ezkontu gabe (gainerako % 8a), eta gazteen % 1 bananduta edo dibortziatuta dago.

#### 4. grafikoa

GAZTEEN EGOERA ZIBILA (%)



Ezkontuta edo bikotekidearekin bizi diren gazteen zenbatekoak handiagoak dira adinean gora egin ahala (25-29 urtekoen artean % 25) eta horietako gehientsuenak (% 81) euren etxean bizi dira, baina bada jatorrizko familiarekin batera bizi den % 13 bat ere, dela etxea lortzeko zailtasunak dituelako, dela gurasoak zaintzeagatik, dela bestelako arrazoiren batengatik.

Edonola ere, lege ezkontuta dauden gazteen ehunekoa txikiagoa da adin-talde guztietan, ezkontu gabe bikotekidearekin bizi direnena baino; 25-29 urtekoen artean, adibidez, % 10 ezkontuta dago eta beste % 15 bikotekidearekin bizi da, paperik sinatu gabe.

<sup>9</sup> Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren Emantzipazio Behatokia. *España: primer trimestre de 2013* [linean]. <http://www.cje.org/descargas/cje3670.pdf> [Kontsulta: 2013/09/26]

Bikotekidearekin bizi diren (ezkonduta edo ezkondu gabe) nesken bolumena egoera bereko mutilena baino askoz handiagoa da: % 18 eta % 8, hurrenez hurren. Eta emakume gazteen emantzipazio-tasak ere handiagoak direnez, badirudi neskak bikotekide zaharragoekin emantzipatzen direla, kasu askotan.

Gazteak non bizi diren aztertu dugunean bezalaxe, kasu honetan ere alde handia dago EAEn bizi diren gazteen guztizkoaren eta gazte atzerritarren artean. Atzerritarren artean, bikotekidearekin bizi direnak % 28 dira, hau da, batez bestekoaren bikoitza. Legez ezkonduta dauden gazteei erreparatuz gero, ehunekoak hirukoiztu egiten dira: EAEn bizi diren gazte guztien % 5 ezkonduta dago eta gazte atzerritarren kolektiboan, % 16.

Bikotekidearekin (ezkonduta edo ezkondu gabe) bizi diren gazteen bolumenak 2008ko maila berdintsuari eutsi dio (% 13), baina 2000. urtearekin alderatuta (% 5) nabarmen handitu da, bai eta 2004. urtearekin alderatuta ere (% 10).

Aurreko datuak ikusita, pentsa dezakegu ezkonduta edo bikotekidearekin bizi diren gazteen ehunekoaren hazkundean ere gazte atzerritarren garrantzi erlatiboa handitzeak eragina izan dezakeela.

Espainiako gazteekin alderatuta<sup>10</sup>, Espainia osoan legez ezkonduta dauden gazteen ehunekoak (% 7) Euskadikoa baino zertxobait handiagoa da (% 5).

Bestalde, Euskadin bizi diren gazteen % 7k seme edo alabaren bat du eta, ohiko moduan, 30 urtetik beherakoan artean gehienez ere bakarra izaten da (% 5ek).

Adinaren arabera aldeei dagokienez, 20 urtetik behera haurrak izatea oso arraroa da; 20-24 urtekoen artean gazteen % 3k seme edo alabaren bat du, eta 25-29 urtekoen artean, % 15ek dituzte seme-alabak.

30 urte bete aurretik ama edo aita izatea fenomeno minoritarioa da, baina nesken artean ohikoa da (% 11), mutilen artean baino (% 3).

---

<sup>10</sup> Espainiako Gazteriaren Institutua. *Informe Juventud en España 2012: tablas por sexo y grupos de edades: estudio Injuve EJ155* [linean]. Madril: Injuve, 2012 (Cifras Jóvenes). <http://www.injuve.es/sites/default/files/2013/37/publicaciones/EJ155%20-%20Tablas%20SexoyEdades3.pdf> [Kontsulta: 2013/09/26]



## 8. taula

SEME-ALABAK IZATEA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

(%)	BADUZU SEME-ALABARIK? ZENBAT?					
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Bat ere ez	93	97	89	100	97	86
Seme-alaba bat	5	2	7	0	3	9
Bi seme-alaba	2	1	3	0	0	5
Hiru seme-alaba edo gehiago	0	0	1	0	0	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

Eta aita edo ama izatea maizago gertatzen da jatorriz atzerritarrak diren gazteen kasuan; izan ere, ia laurden batek (% 24k) badu seme edo alabaren bat 30 urte bete aurretik. Gainera, atzerrian jaiotako gazteen % 10ek bi haur edo gehiago izaten ditu, eta EAEko gazteen artean ehuneko hori ez da % 1era iristen.

Seme-alabak dituzten 30 urtetik beherakoen garrantzi erlatiboa areagotzen ari da gazteen multzoan: 2000. urtean % 3 baino ez ziren, 2004an % 4, 2008an % 6 eta 2012an % 7; bestela esateko, hamabi urte hauetan bikoiztu egin dira. Jatorri atzerritarreko gazteak guraso izatea ohikoagoa dela ikusita, pentsa dezakegu gazte etorkinen hazkundera gazteen jaiotza-tasa igotzea eragin duela.

Berriz ere, Espainiako gazteekin alderatuz gero, EAEko gazteen artean ama edo aita izatea ez da hain ohikoa (% 7), Espainiako gazteen aldean (% 9)<sup>11</sup>.


## 1.5. MAILA SOZIALA

Gazte gehienek (% 71) erdi-mailakotzat hartzen dute beren burua, beste % 21ek dio behe-mailan edo erdi-behe mailan dagoela eta % 7ren ustez bera goi-mailakoa edo erdi-goi mailakoa da.

<sup>11</sup> Espainiako Gazteriaren Institutua. *Informe Juventud en España 2012* [linean]. Madril: Injuve, 2012 [http://www.injuve.es/sites/default/files/2013/26/publicaciones/IJE2012\\_0.pdf](http://www.injuve.es/sites/default/files/2013/26/publicaciones/IJE2012_0.pdf) [Kontsulta: 2013/09/26]

## 5. grafikoa

GAZTEEN MAILA SOZIALA (%)



Atzerrian jaiotako gazteen artean, goi-mailako edo erdi-goi mailako klase sozialekoa dela dio % 3k, baina beheko edo erdi-beheko klase sozialtzat dute euren burua % 38k.

Hilean eskura duten diruari dagokionez, gazteen ia laurden batek (% 23) batez beste hilean 60 euro baino gutxiago izaten ditu. Gazteen % 32k 60 eurotik 300 eurora bitarte izaten ditu hilean. Beraz, gazteen erdiak (% 55) hilean gehienez 300 euro izaten dituela esan dezakegu. Kontrako muturrean, soilik gazteen % 3k du hilean 1500 euro baino gehiago.

Bikotekidearekin bizi diren gazteen kasuan, guztizko diru-sarrerak zatitzeko eskatu diegu, zeren diru-sarrerarik ez duen pertsonak bere bikotekidearen dirua eskura izan baitezake.

Logikari jarraiki, hilean eskuragarri duten dirua gehien baldintzatzen duen aldagaia okupazio nagusia da (baina beti izaten da salbuespenik). Soilik lan egiten dutenek izaten dute diru gehien (% 47k hilean 900 euro baino gehiago). Dena den, lanean ari arren hilean 900 euro baino gutxiago izaten dituztenak ere beste horrenbeste dira (% 45); beraz, gazteen soldatak oso txikiak direla pentsa dezakegu.

Kontrako muturrean, lanik egiten ez duten ikasleen artean, hamarretik bederatzik hilean 300 euro baino gutxiago izaten dituzte. Langabeen artean ere erdiak baino gehiagok (% 54) hilean gehienez 300 euro izaten ditu.

Lehen ere ikusi dugunez, zenbat eta urte gehiago, orduan eta gazte gehiago ari da lanean. Horregatik, adinaren arabera ere oso nabarmenak dira: 20 urte bete ez dituztenen kasuan, erdiak baino gehiagok hilean 60 euro baino gutxiago izaten ditu eta % 90ek hilean 300 euro baino gutxiago; aitzitik, 24 urtetik gorako kasuan, laurden batek (% 26) hilean 300 euro baino gutxiago izaten ditu. Nolanahi ere, azken kolektibo horretan soilik heren batek (% 35) izaten du hilean 900 euro baino gehiago.

Azken hamabi urteotan gazteek izaten duten diru kopuruaren bilakaera aztertzen badugu, 2000. urtetik 2008. urtera kopuruak gora egin zuen baina 2012an behera egin du; egoera hori argi ikusten da

hilean 900 euro baino gehiago dituzten gazteen ehunekoan izan den beherakadari erreparatuta, eta horrekin batera, hilean 60 euro baino gutxiago dutenak gero eta gehiago dira.

### 9. taula

HILEAN ESKURA DUTEN DIRUA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

ZENBAT DIRU IZATEN DUZU HILEAN?										
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA			
		GIZONAK	EMA-KUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	IKASTEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LAN EGITEA	LANGABEZIAN
60 euro baino gutxiago	23	25	21	55	17	6	43	6	2	20
60 eta 300 euro bitarte	32	33	30	35	44	20	45	29	11	34
301 eta 600 euro bitarte	11	10	12	3	14	14	4	21	12	17
601 eta 900 euro bitarte	11	8	13	1	11	17	2	14	20	12
901 eta 1200 euro bitarte	10	10	11	1	5	21	1	17	25	6
1201 eta 1500 euro bitarte	4	4	5	0	3	9	0	4	13	3
1501 eta 2000 euro bitarte	2	2	3	0	1	5	0	3	7	0
2000 euro baino gehiago	1	1	1	0	0	1	0	0	2	0
Ed/Ee	6	7	6	5	6	7	5	6	8	8
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<b>Maiztasun absolutuak</b>	1500	750	750	450	450	600	647	150	392	257

**10. taula**

HILEAN ESKURAGARRI IZATEN DEN DIRU KOPURUAREN BILAKAERA (%)

ZENBAT DIRU IZATEN DUZU HILEAN?				
(%)	2000	2004	2008	2012
60 euro baino gutxiago	23	15	17	23
60 eta 300 euro bitarte	31	37	31	32
301 eta 600 euro bitarte	14	14	13	11
601 eta 900 euro bitarte	17	15	13	11
900 euro baino gehiago	9	15	22	17
Ed/Ee	6	4	4	6
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1364</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

**1.6. ONDORIOAK**

Gazteen okupazioaren eta bizilekuaren egoerari buruzko lehen kapitulu honen ondorio gisa zera esan dezakegu, gaur egungo gazteak ongi prestatuta daudela (ia heren batek goi-mailako ikasketak ditu eta, 25-29 urtekoen taldean, erdiak baino gehiagok), prestakuntza jasotzen jarraitzeko interesa dutela (hamarretik lauk prestakuntza-jardueraren bat egin du azken urtean, ikasleen kasuan ohiko ikasketak alde batera utzita), baina lan-merkatuan gutxi txertatuta daude (25-29 urtekoen taldean, % 55entzat lana da dedikazio nagusia eta beste % 26 langabezian dago).

Horren ondorioz, EAeko gazteen erdiak baino gehiagok hilean 300 euro baino gutxiago izaten ditu eta soilik % 17k izaten du hilean 900 euro baino gehiago.

Hori horrela izanik, gazte emantzipatuak ez dira laurden bat ere (% 22), baina horien garrantzi erlatiboak gora egin du aurreko urteekin alderatuta.

Emantzipatzen direnak ez dira soilik bikotekidearekin bizitzen hasten, orain arte gure gizartean ohikoa zenari jarraiki. Ezkonduta eta bikotekidearekin bizitzen ari diren gazteen kopuruak (% 13) txikiagoak dira gazte emantzipatuenak baino (% 22). Eta legez ezkonduta daudenei erreparatuz gero, % 5 baino ez dira.

30 urtetik beherako gazteen % 7k seme edo alabaren bat du eta 2000. urteko zifrak bikoiztu egin dira (% 3).


Gazte emantzipatuen eta seme edo alabaren bat dutenen gorakadan eragina izan dezake, agian, jatorriz atzerritarrak diren gazteen presentzia handitu izanak; izan ere, atzerritarren artean emantzipazioaren eta haurrak izatearen aldagaietako zenbatekoak handiagoak baitira, EAEn jaiotako gazteen artean baino.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

## 2. Norberaren eta gizartearen egoera balioestea





# 2

## Norberaren eta gizartearen egoera balioestea

### 2.1. SARRERA

Gazteek beren egoera eta beren inguruko egoera nola ikusten duten aztertzeko garaian, inkesta zein testuingurutan egin den kontuan izan behar da (2012ko martxoa). Horretarako, gazteei kontsulta egin aurretik, bitartean eta gero jazotako gertakari garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

Aurreko urtean, 2011n, udaletako eta Batzar Nagusietako hauteskundeak izan ziren eta lurralde historiko bakoitzean egoera politiko desberdina geratu zen: PP alderdiak Arabako Foru Aldundia eta Vitoria-Gasteizko alkatetza lortu zituen; EAJk Bizkaiko Foru Aldundian eta Bilboko alkatetzan jarraitu zuen; eta Bildu koalizioak (Eusko Alkartasunaren eta ezker abertzalearen artean) Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako alkatetza lortu zituen. Aldiz, Eusko Jaurlaritzan PSE-EE alderdia zen buru.

Urte hartako urrian, ETAk indarkeria armatua behin betiko utziko zuela iragarri zuen.

Eta azaroan Estatuko hauteskunde orokorrak izan ziren eta Partido Popular alderdiak gehiengo osoa lortu zuenez, gobernuko presidentetzan PSOERI lekua kendu zion.

2012ko urtarrilean Gobernu zentralak murrizketa-neurrien lehen paketea aurkeztu zuen eta, besteak beste, PFEZ eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak igo zituen 2012. eta 2013. urteetarako, bai eta Emantzipaziorako Oinarrizko Errenta ezabatu ere.

Otsailaren 10ean Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko 3/2012 Errege Lege Dekretua onartu zen. Erreforma horrek aldaketa garrantzitsuak eragin zituen kontratuen baldintzetan eta kaleratzea merkatu zuen.

Aurreko kapituluan aipatu dugunez, ez dugu ahaztu behar 2012ko lehen hiruhilekoan EAeko 16-29 urteko gazteen langabezia-tasa % 23,2 dela (2008ko tasen hirukoitza) eta adin horietako soldatapeko gazteen behin-behinekotasunaren tasa ere handia dela (% 50,6).



Lan-erreformak kritika asko jasan zituen gizarte-eragile guztien aldetik eta 2012ko martxoaren 29an greba orokorra izan zen erreformaren aurka, sindikatu guztiek batera deituta.

Nazioarteko eremuan, otsailean, EBk eta NMFk ezarritako austeritate-neurriak onartu zituen Greziako parlamentuak, bigarren erreskate ekonomikoaren truke baina kalean mobilizazio eta istilu ugari egon ziren horren kontra. Balizko erreskate baten eta erreskate horrek eragingo lituzkeen baldintza sozioekonomikoen beldurra Espainiara ere iritsi zen.

## 2.2. NORBERAREN EGOERA BALIOESTEA


Egun bizitzen ari garen egoera orokorra bereziki kritikoa da ekonomiari dagokionez; hala ere, sarreran aipatu dugunez, gure gazteak beren egoera pertsonalarekin gustura daudela nabarmendu behar dugu: EAEko lau gaztetatik hiruk (% 73) 2012an egoera pertsonalarekin pozik daudela diote. Bestalde, % 19 ez dago ez pozik, ez atsekabetuta une honetan bizi duen egoerarekin, eta % 7k dio atsekabetuta dagoela uneko egoerarekin. Gainerako % 1ak ez du erantzun.

Egoera pertsonalarekin pozik daudenak gehiengoa izateaz gain, 2000. urtearekin alderatuta ia hamar puntu egin dute gora. Kasuan kasu egon litezkeen mugak muga, egia da gazte gehienek aisialdian eta teknologia berrietan nolabaiteko gastu-maila bati eusten diotela, bidaiatu egiten dute, toki eta jende berriak ezagutzen dituzte... eta horrek, hein handi batean, euren bizi-esperientzia eta euren errealitatearen pertzepzioa eratzten du. Pertzepzio hori beste eremu geografiko batzuetako, beste talde sozial batzuetako edo, besterik gabe, helduen pertzepzioarekin alderatzen badute, baliteke euren egoera pertsonala besteena baino hobea dela ulertzea, funtsean, haiek baino egoera txarragoan daudenekin alderatzen dutelako.

20 urtetik beherako gazteak dira, egoera pertsonalarekin gustura, pozik daudela hein handianean diotenak (% 82). Adinean aurrera egin ahala, pozik daudela diotenen ehunekoak nagusi diren arren, txikitu egiten dira (20-24 urtekoen artean % 74, eta 24 urtetik gorakoen artean % 67). Horren arabera, badirudi gazteak ikastetxetik atera eta lan-merkatuan txertatzen hasten diren heinean, hau da, errealitatearekin kontaktu handiagoa izaten dutenean, emantzipatzeko zailtasunak izaten dituztenean, erantzukizunak hartu behar izaten dituztenean..., azken batean, gurasoen etxetik atera eta heldu bihurtu behar izaten dutenean gogobetetze-mailak behera egiten duela.

## 6. grafikoa

EGOERA PERTSONALAREKIKO GOGOBEETETZEAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Neskak gusturago daude mutilak baino (% 76 eta % 71, hurrenez hurren).

Atzerrian jaiotako gazteen artean, gogobetetze-ehunekoa % 63ra jaisten da eta, aldi berean, % 15ek dio uneko egoerarekin gustura edo pozik ez dagoela.

Alabaina, langabezian dauden gazteen kolektiboan ikusten dira egoera pertsonalarekin pozik daudenen ehuneko txikienak (% 51).


Egoera pertsonalarekiko adierazitako gogobetetze-mailarekin koherente izanik, 0-10 bitarteko eskala batean bizitza nola doakien balioesteko eskatu diegunean, batez bestekoa 7,2 atera da.

Batez besteko hori 2000. eta 2004. urtekoak baino puntu-erdi handiagoa da, baita EAeko 18 urtetik gorako biztanleriari dagokiona baino puntu bat handiagoa ere.

Bitxia dirudien arren, 2012an gazteen egoera pertsonalaren balioespena hobea da baina, aldi berean, biztanleria osoak egiten duen balioespenak zertxobait behera egin du. Ziurrenik familiaren babesagatik krisialdiak ez du hainbesteko eraginik gazteengan, oraingoz behintzat.

## 7. grafikoa

EGOERA PERTSONALAREN 0-10 BITARTEKO ESKALAKO KALIFIKAZIOAREN BILAKAERA



Iturria: gazteei buruzko datuei dagokienez, Gazteen Euskal Behatokia (Gazteen argazkiak seriea) eta, 18 urte eta gehiagoko biztanleen datuei dagokienez, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Gogobetetze-maila adierazi dutenean bezalaxe, gaur egun bizitza nola doakien puntuatu behar dutenean 20 urtetik beherakoek ematen dute puntuazio handiena (batez beste 7,6 puntu). Aitzitik, puntuazio txikiena langabezia dauzen gazteek eman dute (6,5).

### 2.3. ARAZO PERTSONALAK

Gazteei zein arazo edo kezka pertsonal nagusi duten galdetu diegu eta lau gaztetatik ia hiruk lan-merkatuarekin loturiko arazoak aipatu dituzte (beren kabuz, hau da, erantzunik iradoki gabe): langabezia, prekarietatea, laneko segurtasunik eza, soldata txikia, lan-istripuak, lan-erreforma, eta abar (% 72).

Arazo ekonomikoak (dirurik eza, bizitza garesti izatea...) aipatu dituzte bigarren postuan, gazteen heren batek aipatu baititu (% 32).


Hirugarren arazoa etxebizitza izan da: garestia dela, etxebizitzarik ez dutela, bankuan kredituak edo abalak lortzeko zailtasunak dituztela... (% 18).

Eta horien atzetik ikasketak (azterketak izatea, ez gainditzea, ikasi nahi ez izatea...) eta osasuna datoz (% 15 eta % 11, hurrenez hurren).

Gazteen % 10ek baino gutxiagok aipatu ditu familia (% 8), politika (% 7) edo etorkizuna (% 5) kezka nagusien artean; eta % 5ek baino gutxiagok drogak (% 3), immigrazioa (% 3), maitasuna (% 3), lagunak (% 2), ekologia (% 2), delinkuentzia (% 2), genero-indarkeria (% 1), laguntzak eta bekak (% 1) edo terrorismoa (% 1). Gainerako arazoak (aisialdiko eskaintza, euskara, azpiegiturak, alkohola, eta abar) aipatzen dituzten gazteak ez dira % 1era ere iristen.

## 8. grafikoa

GAZTEEN ARAZO EDO KEZKA NAGUSIAK (%)



Datu horiek aurreko urteetako datuekin alderatzen baditugu, konturatuko gara lan-merkatuarekin loturiko arazoak gehiagotan aipatzen direla 2012an, 2008an baino; hain zuzen ere, gazteen % 10 gehiagok aipatu dituzte. Eta hori ez da harrizkekoa, zeren gazteen langabezia-tasak hiru aldiz handiagoak baitira 2012an 2008an baino, eta 2012. urtean kaleratzea ahalbidetu eta merkatu duen lan-erreforma ere onartu baita.

Bestalde, arazo ekonomikoak ere gehiagotan aipatu dira: 2000. urtean % 10ek aipatu zituzten, 2008an % 19k eta 2012an % 32k. Langabeziak gora egin du eta horrek esan nahi du gazte langabeek diru gutxiago izango dutela; gainera, Kontsumoko Prezioen Indizea (KPIa) igo egin da EAEn (2011n oinarria 100 zen): 2004an 83,2, 2008an 95,1 eta 2012an 102,3<sup>12</sup>.

Aitzitik, etxebizitzaren aipamenetan jaitsiera ikusgarria izan da 2008tik 2012ra: 15-29 urteko gazteen % 67k aipatu zituen 2008an eta 2012an % 18ra murriztu da kezka nagusien artean aipatu duten gazteen ehunekoa. Aurreko urteetan goranzko joera izan zuen eta 2008an gazteen kezka nagusia zen. 2012ko jaitsieraren arrazoia ez da gazteak jada ez direla kezkatzen etxebizitzarekin, baizik eta lan-merkatuarekin loturiko arazoek eta arazo ekonomikoek askoz ere garrantzi handiagoa hartu dutela eta, horren ondorioz, gainerako gaiak bigarren maila batean geratu dira.

Bestalde, politika, terrorismoa eta drogak jada ez dira garrantzitsuak gazteen bizitzan eta, aitzitik, osasunak edo familiak lehen baino garrantzi erlatibo handiagoa dute.

<sup>12</sup> Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko datuak EIN Estatistikako Institutu Nazionalen kontsultatu ditugu. *Kontsumoko Prezioen Indizea*. [linean], <http://www.ine.es/jaxiBD/tabla.do?per=12&type=db&divi=IPC&idtab=127> [Kontsulta: 2013/09/26]

## 11. taula

GAZTEEN ARAZO NAGUSIEN BILAKAERA (%)

ZEINTZUK DIRA, GEHIEN KEZKATZEN ZAITUZTEN HIRU ARAZOAK? (BAT-BATEKO ERANTZUNA)				
(%)	2000	2004	2008	2012
Lan-merkatuari lotutako arazoak	64	61	62	72
Arazo ekonomikoak	10	14	19	32
Etxebizitza	31	59	67	18
Ikasketak	12	12	15	15
Osasuna	7	5	3	11
Familia	4	3	4	8
Politika	15	8	9	7
Etorkizuna	3	3	6	5
Drogak	10	6	5	3
Terrorismoa	19	9	8	1
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1364</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

Baturaren emaitza % 100 baino gehiago da, hiru erantzun eman baitzitezkeen.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

EAEko 18 urtetik gorako biztanleria orokorrari zein arazo pertsonal nagusi dituzten galdetzean ere ikusten da joera hori. Lan-merkatuarekin loturiko arazoak areagotu egin dira: 2008ko % 35etik 2012ko % 54ra; arazo ekonomikoak maila bertsuan daude bi urteetan (2008. urtean % 31 eta 2012. urtean % 29) eta etxebizitzaren aipamenak 2008ko % 24tik 2012ko % 10era jaitsi dira, terrorismoaren aipamenak bezalaxe (2008an % 8 eta 2012an % 1)<sup>13</sup>.

2012. urteari erreparatuta eta gazteen arazoak 18 urteko eta gehiagoko biztanleriaren arazoekin alderatzen baditugu, ehunekoetan aldeak dauden arren, konturatuko gara bi kolektiboetan gehien aipatzen diren arazoak lan-merkatuarekin loturikoak eta arazo ekonomikoak direla.

Gazteen artean lan-merkatuarekin loturiko arazoak gehiago aipatzea, ziurrenik, langabeziaren eragin handiagoarengatik izango da, lanaren behin-behinekotasunarengatik eta gazteen lan-prekarietatearengatik.

<sup>13</sup> Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: 48. *Euskal Soziometroa: terrorismoaren amaiera (2012ko martxoa)* [linean] [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/sociometro\\_vasco\\_48/eu\\_soc48/adjuntos/12sv48\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/sociometro_vasco_48/eu_soc48/adjuntos/12sv48_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

## 12. taula

EAE-KO GAZTEEN ETA BIZTANLERIA  
OROKORRAREN ARAZO NAGUSIEN ARTEKO KONPARAZIOA, 2012AN (%)

ZEINTZUK DIRA GEHIEN KEZKATZEN ZAITUZTEN HIRU ARAZOAK? (BAT-BATEKO ERANTZUNA)		
(%)	GAZTEAK 15-29 URTE	18 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA*
Lan-merkatuari lotutako arazoak	72	54
Arazo ekonomikoak	32	29
Etxebizitza	18	10
Ikasketak	15	5
Osasuna	11	14
Familia	8	7
Politika	7	5
Terrorismoa	1	1
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>2254</b>

Baturaren emaitza % 100 baino gehiago da, hiru erantzun eman baitzitezkeen.

\* 18 urte eta gehiagoko biztanleen datuen oinarria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (48. Euskal Soziometroa, 2012ko martxoa)

Jarraian, EAeko gazteei dagokienez, multzo horretan sartzen diren hainbat kolektiboren arteko aldeak nabarmenduko ditugu.

Lan-merkatuarekin loturiko arazoen kezka gora egiten du nabarmen adinean gora egin ahala eta, bereziki, langabezia daudenen artean (% 88).

Adinean aurrera egin ahala etxebizitza gehiagotan aipatzen da, baina lanean ari direnek aipatzen dute gehienbat (% 29). Etxebizitza bat eskuratzeko, baliabide ekonomikoak behar dira eta, ohiko moduan, lan-jardueraren baten ondorioz lortzen dira baliabide horiek; beraz, etxebizitza bat eskuratzeko gazte ororen helburu izan daitekeen arren, lana baduen kolektiboak egin dezake, epe motzera, etxebizitza bat erosteko edo alokatzeko plana eta, horregatik, gertuago bizi dituz horrek dakartzan zailtasun eta kezka. Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago aipatzen dute etxebizitza, baina ez dugu ahaztu behar neskek emantzipatzeko batez besteko adina mutilena baino zertxobait txikiagoa izaten dela; alegia, aztergai dugun adin-tartean emantzipatzeko prozesuan dauden neska gehiago egongo dira, ziurrenik, mutilak baino. Horrek ez du esan nahi emakume gazteek bakarrik edo lagunekin emantzipatzea erabakitzen dutenik, baizik eta bikotekidearekin emantzipatzen direla baina ohiko moduan gizonezko bikotekidea zaharragoa izaten dela, eta, horregatik, gu aztertzen ari garen taldetik at geratzen da.

Herri txiki edo ertainetan bizi diren gazteek ere gehiagotan aipatzen dute etxebizitza (% 21, bi kasuetan), hiriburuetan bizi direnek baino (% 13); hiriburuetan etxebizitza-eskaintza handiagoa izaten da eta, agian, ez hain kezkarria. Halaber, Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteengan ehunekoa handiagoa da (% 19 bi lurraldeetan), Arabakoengan baino. Izan ere, besteak beste, Araban, biztanle bakoitzeko etxebizitza berri babestuen kopurua handiagoa da gainerako lurralde historikoetan baino eta, beraz,

gazte arabar batentzat errazagoa da etxebizitza babestu bat eskuratzea, gipuzkoar edo bizkaitar batentzat baino<sup>14</sup>.

Kezka edo arazotzat hartuta, ikasketen aipamena soilik ikasi egiten dutenek egiten dute, logikoa denez. 20 urtetik beherako kolektiboan ere gehiago agertzen da (% 33), ikasleen proportzioa handiagoa den heinean, eta adinean gora egin ahala, intentsitatea txikiagotu egiten da.

Bestalde, arazo ekonomikoak antzeko ehunekoetan aipatzen dituzte aztertu ditugun kolektibo guztiek.

### 13. taula

GAZTEEN ARAZOAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

Guztira (%)	ZEINTZUK DIRA GEHIEN KEZKATZEN ZAITUZTEN HIRU ARAZOAK?									
	GUZ-TIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			IKASTEAK	JARDUN NAGUSIA		
		GIZONAK	EMA-KUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE		IKASTEAK ETA LAN EGITEAK	LAN EGITEAK	LANGA-BEZIAK
Lan-merkatuari lotutako arazoak	72	71	74	49	79	82	59	75	80	88
Arazo ekonomikoak	32	31	32	29	35	31	30	30	33	33
Etxebizitza	18	16	21	6	17	27	9	20	29	22
Ikasketak	15	15	16	33	14	5	30	11	4	3
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>647</b>	<b>150</b>	<b>392</b>	<b>257</b>

Baturaren emaitza % 100 baino gehiago da, hiru erantzun eman baitzitezkeen.

Gainera, seme-alabak dituzten gazteek haurrik gabekoek baino gehiago aipatzen dituzte arazo ekonomikoak (% 41 eta % 31, hurrenez hurren) eta familiarengatik gehiago arduratzen dira (% 18 eta % 7, hurrenez hurren).

## 2.4. GAZTEEN EGOERA OROKORRA BALIOESTEA

Gazteen egoera orokorra balioesten dutenean gazteek, balioespena negatiboa izaten da, positiboa baino gehiago: % 13k dio gazteen egoera ona dela, % 48k dio hala moduzkoa dela, hau da, gauza batzuetan ona eta besteetan txarra, eta % 38k dio egoera, oro har, txarra dela (gainerako % 1ak ez daki edo ez du erantzunik eman).


<sup>14</sup> Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak argitaratu dituen 2011. urteari eta 2012ko lehen hiruhilekoari buruzko estatistiken arabera: *Eskaintza Immobiliarioen Inkesta* [linean]. [https://www.euskadi.net/r41-ovse01/eu/contenidos/estadistica/ovv\\_v\\_oi\\_te\\_2012\\_1/eu\\_ovv\\_sevi/adjuntos/Eskaintza\\_immobiliaria\\_1hiru\\_2012\\_eu.xls](https://www.euskadi.net/r41-ovse01/eu/contenidos/estadistica/ovv_v_oi_te_2012_1/eu_ovv_sevi/adjuntos/Eskaintza_immobiliaria_1hiru_2012_eu.xls) [Kontsulta: 2013/09/27]

Gazteen egoeraren balioespenak okerrera egin du aurreko urteekin alderatuta: egoera ona edo hala moduzkoa dela uste dutenen ehunekoak behera egin du eta egoera txarra dela diotenak gero eta gehiago dira; 2008tik 2012ra bitarte 17 puntuko aldea dago.

Egoera pertsonalarekin gustura daudenak gehiago izanik eta ehuneko hori handitzen ari dela kontuan hartzen badugu, bitxia da gazteen egoera, oro har, negatibotzat hartzea eta aurreko urteekin alderatuta okerrera egitea. Gazteak jabetzen dira krisialdiaren ondorioez, jakin badakite (beren kabuz ez bada ere, bai komunikabideen edo gizarte-sareen bitartez iristen zaien informazioari esker) gazteen langabezia-tasa oso handia dela eta egoera oso txarrean dauden gazteen kasuak ezagutzen dituzte: lanik gabe, atzerrira joatea beste aukerarik izan ez dutenak... eta gazteriaren egoerari buruz duten pertzepzioak okerrera egiten du.

### 9. grafikoa

GAZTEEN EGOERA OROKORRAREN BALIOESPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Mutilak kritikoagoak dira neskek baino, oro har, gazteen egoerarekin; izan ere, mutilen % 42k egoera txarra dela dio eta nesken artean, % 35ek pentsatzen du hori (bi kasuetan, egoera ona dela diote % 13k).

Urteak bete ahala, gazteen egoeraren pertzepzio positiboak murriztu egiten dira eta negatiboak areagotu.

Gipuzkoako gazteak dira gazteen egoera okerren ikusten dutenak; egoera txartzat jotzen dutenak % 42 dira Gipuzkoan, % 37 Bizkaian eta % 35 Araban.



## 14. taula

GAZTEEN EGOERA OROKORRAREN BALIOESPENA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

OROKORREAN, NOLAKOA DA, ZURE USTEZ, GAZTEEN EGOERA GAUR EGUN?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Ona	13	13	13	24	8	9
Erdipurdikoa, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra	48	44	51	53	49	43
Txarra	38	42	35	22	41	47
Ed/Ee	1	2	1	1	2	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

Baina, zalantzarik gabe, gazteen egoera okerren balioesten dutenak langabeak dira; kolektibo horretan, erdiak baino gehiagok (% 55) uste du gazteen egoera, orokorrean, txarra dela.

## 2.5. ADMINISTRAZIOEK GAZTEEN ARLOAN EGITEN DUTEN JARDUNA BALIOESTEIA

Gazteak ez daude oso gustura EAEko administrazioek gazteen arloan egiten duten jardunarekin.


Udalek baino ez dute lortu gazteen onespina; izan ere, udalek gazteen gaietan egindako lanari puntuazioa emateko eskatu diegu eta batez beste 5,0 puntu lortu dituzte.

Foru Aldundien batez besteko puntuazioa 4,6 da eta Eusko Jaurlaritzarena 4,5.

Balioespen horien bilakaera aztertuz gero, udalek lortutako puntuazioa hobetu egin da aurreko urteekin alderatuta baina ez da alde handirik ikusten Foru Aldundien edo Eusko Jaurlaritzaren kasuetan.

## 10. grafikoa

ADMINISTRAZIOEK GAZTEEN ARLOAN EGITEN DUTEN  
JARDUNAREN BALIOESPENAREN BILAKAERA (0-10)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Foru Aldundiek ez dute «nahikoa» ere lortu batez besteko orokorrean, baina lurralde bakoitzeko gazteek euren foru-aldundiak egindako lanari emandako puntuazioa aztertzen badugu, honako hau ikusiko dugu: Arabako Foru Aldundiak 5,0 puntu, Bizkaikoak 4,6 eta Gipuzkoakoak 4,5 puntu lortu dituela.

Udalei dagokienez, hiriburuetako udalek hiriburuetan bizi diren gazteengandik puntuazio handiagoa (5,3) lortu dute herri txiki (4,9) edo ertainetan (4,8) bizi direnengandik baino (4,9).

Sexuari eta adinari erreparatuta, neskek eta 20 urtetik beherakoek eman dituzte puntuazio handienak administrazioek egindako lanari dagokionez.

**15. taula**

ADMINISTRAZIOEK GAZTEEN ARLOAN EGITEN DUTEN  
JARDUNA BALIOESTEA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (0-10)

OTIK 10ERAKO ESKALA BATEAN, NOLA BALORATZEN DUZU ZURE UDALA GAZTERIAREN ALORREAN EGITEN ARI DEN LANA? ETA ZURE ALDUNDIA? ETA EUSKO JAURLARITZA?						
BATEZBESTEKOA (0-10)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Udalak	5,0	4,8	5,1	5,1	4,9	4,9
Aldundiak	4,6	4,5	4,8	4,9	4,6	4,5
Eusko Jaurlaritza	4,5	4,3	4,8	5,0	4,6	4,3
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

Gazteen % 73k uste du erakundeek ez dutela gazteen iritzia aintzat hartzen. Soilik % 17k dio gazteen iritzia jaramon egiten diotela.

Horri dagokionez ez da alderik sumatzen nesken eta mutilen artean, baina 20 urtetik gorako gazteak kritikoagoak dira adin horretatik beherakoak baino (erakundeek gazteen iritzia aintzat hartzen dutela diotenak % 69 dira 15-19 urtekoen artean, % 76 dira 20-24 urtekoen artean eta % 74, aldiz, 25-29 urtekoen artean).

Araban eta hiriburuetan bizi diren gazteak gainerakoak baino hein handiagoan ados daude erakundeek gazteen iritzia jaramon egiten dioten ideiarekin.

**16. taula**

ERAKUNDEEK GAZTEEN IRITZIAK AINTZAT HARTZEARI BURUZKO IRITZIAK,  
LURRALDE HISTORIKOAREN ETA BIZIDEN UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

ORO HAR, ZURE USTEZ, ERAKUNDEEK GAZTEEN IRITZIAK AINTZAT HARTZEN DITUZTE?							
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			UDALERRIAREN TAMAINA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
Bai	17	23	16	15	12	14	22
Ez	73	68	75	72	73	76	70
Ed/Ee	10	9	9	13	15	10	8
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>240</b>	<b>660</b>	<b>600</b>

Datu horiek 2000. urtekoekin<sup>15</sup> alderatuta, zera ikusiko dugu, gazteen iritziari emandako arretaren gaineko ezkortasunak gora egin duela azken urteotan; 2000. urtean 15-29 urteko gazteen % 23k zioen erakundeek gazteen iritzia aintzat hartzen zutela eta orain, ehuneko hori sei puntu murriztu da (% 17ra).

## 2.6 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOERA BALIOESTEA

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dugun egoera ere modu negatiboan balioesten dute: gazteen % 16k soilik dio egoera ona dela eta % 53k hala moduzkoa, hau da, gauza batzuetan ona eta besteetan txarra; beste % 28k egoera txartzat jotzen du.

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2012ko lehen sei hilkoari dagozkion 48.<sup>16</sup> eta 49.<sup>17</sup> Euskal Soziometroan argitaratutako datuen arabera, gazteek negatiboki balioesten dute EAEko egoera ekonomikoa (eta aurreko urteetan baino okerrago), baina ETAK indarkeria utzi duelako baikor daude. Datu horiekin hobeto uler daiteke gazteen erdiak baino gehiagok zergatik uste duen gure autonomia-erkidegoaren egoera ona dela gauza batzuetan eta txarra beste batzuetan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren egoeraren balioespen orokorra txarragoa da aurreko urteetan baino eta egoera ona dela diotenak 2008an % 29 ziren baina 2012an % 16ra murriztu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren egoeraren balioespen negatiboa areagotu egiten da gazteen adinak gora egiten duen heinean; izan ere, 20 urtetik beherako gazteen artean egoera ona dela pentsatzen dutenak gehiago dira egoera txarra dela uste dutenak baino. 25-29 urtekoen artean, egoera txartzat hartzen du guztizkoaren heren batek eta balioespen positiboa egiten dutenak baino askoz gehiago dira.

---


<sup>15</sup> Datu horiek Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2000. urtean egindako azterlan honetatik atera dira: *EAEko gazteria eta erakundeak* [linean] [http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-7651x/es/contenidos/informacion/beste\\_argitalpen\\_batzuk/es\\_liburuak/adjuntos/juventud\\_CAPV\\_e\\_instituciones\\_marzo\\_2000\\_c.pdf](http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-7651x/es/contenidos/informacion/beste_argitalpen_batzuk/es_liburuak/adjuntos/juventud_CAPV_e_instituciones_marzo_2000_c.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

<sup>16</sup> Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: 48. *Euskal Soziometroa: terrorismoaren amaiera (2012ko martxoa)* [linean] [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/sociometro\\_vasco\\_48/eu\\_soc48/adjuntos/12sv48\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/sociometro_vasco_48/eu_soc48/adjuntos/12sv48_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

<sup>17</sup> Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: 49. *Euskal Soziometroa: Egoera soziopolitikoaren pertzepzioa: 2012ko ekaina* [linean]. [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/sociometro\\_vasco\\_49/eu\\_soc49/adjuntos/12sv49\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/sociometro_vasco_49/eu_soc49/adjuntos/12sv49_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

## 11. grafikoa

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EGOERA  
OROKORRAREN BALIOESPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea)

Arabako gazteek balioesten dute hobekien EAEko egoera orokorra eta, gainera, egoera ona dela diotenak (% 24) txartzat hartzen dutenak baino gehiago dira (% 20).

## 17. taula

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EGOERA OROKORRAREN BALIOESPENA,  
ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ZER-NOLAKOA IRUDITZEN ZAIZU EUSKADIREN EGOERA, OROKORREAN?							
(%)	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Ona	16	22	13	13	24	12	17
Erdipurdikoa, alderdi batzuetan ona eta beste batzuetan txarra	53	56	56	51	55	55	51
Txarra	28	18	29	33	20	29	30
Ed/Ee	3	4	2	3	1	4	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Nolanahi ere, langabezian dauden gazteek egiten dituzte balioespen negatiboak: % 40k uste du EAEn egoera txarra dela.


## 2.7. ALDAKETA SOZIALA

Gure gaur egungo gizarteari dagokionez, gazteen % 47k uste du aldaketa edo erreforma sakonak behar dituela eta beste % 18k dio zeharo aldatu behar dela; beraz, gazteen % 65ek gure gizarte-ereduan aldaketa nabarmena gertatzea eskatzen du. Bestalde, % 30en ustez aldaketa txiki batzuk eginez hobetu daiteke eta soilik % 2k esan du dagoen moduan ondo dagoela.

25-29 urteko gazteak dira zeharo aldatu behar dela hein handienean diotenak (% 22) eta, aitzitik, 20 urte bete ez dituztenak dira aldaketa sozial sakona gutxien eskatzen dutenak (horien artean % 40k dio gure gizartea hobetu daitekeela aldaketa txikiak eginez, eta % 5ek uste du dagoen moduan ondo dagoela).

### 12. grafikoa

GAZTEEN IRITZIA GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZ, ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)



Gizon gazteek, emakume gazteek baino gehiago uste dute zeharo aldatu beharko litzatekeela (% 21 eta % 14, hurrenez hurren).

Langabezian dauden gazteen laurden batek baino gehiagok (% 28) gure gizartea zeharo aldatu behar dela dio.

Aldaketa sakonak behar direla diote, batik bat, Bizkaian eta Gipuzkoan bizi diren gazteek, eta gazte horiek dira, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera okerren balioesten dutenak.

Oro har, gazteen egoerari edo Euskal Autonomia Erkidegoaren egoerari buruzko pertzepzioa zenbat eta negatiboagoa izan, orduan eta gehiago eskatzen dute gure gizartea zeharo aldatu behar dela; izan ere, gazteen egoera txarra dela uste dutenen artean, % 28k gizartea zeharo aldatu behar dela dio, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera txarra dela diotenen artean, % 31k.

### 18. taula

GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN, GAZTEEN EGOERAREN BALIOESPENAREN ETA EUSKADIREN EGOERAREN BALIOESPENAREN ARABERA (%)

GURE GIZARTEARI BURUZKO LAU IRITZI HAUETAKO ZEINEKIN ZAUDE KONFORMEAGO?										
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			GAZTEEN EGOERAREN BALORAZIOA			EUSKADIREN EGOERAREN BALORAZIOA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ONA	ERDIPUR-DIKOA	TXARRA	ONA	ERDIPUR-DIKOA	TXARRA
Ondo dago, dagoen moduan	2	3	2	2	8	2	1	7	1	1
Hobe daiteke, aldaketa txikiak eginda	30	37	28	29	45	35	19	38	33	19
Erreforma sakonak behar ditu	47	39	48	48	30	49	50	36	51	47
Errotik aldatu behar da	18	19	18	17	9	12	28	13	13	31
Ed/Ee	3	2	4	3	7	2	2	6	2	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>201</b>	<b>717</b>	<b>564</b>	<b>260</b>	<b>805</b>	<b>397</b>

EAEko gazteen datuak Espainiako gazteen datuekin alderatzen baditugu, Espainian gazte gehiagok uste du aldaketa sakonak beharrezkoak direla, EAEn baino.

**19. taula**GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIA. EAE-KO  
ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)

<b>GURE GIZARTEARI BURUZKO LAU IRITZI HAUETAKO ZEINEKIN ZAUDE KONFORMEAGO?</b>		
<b>(%)</b>	<b>EAE-KO GAZTEAK</b>	<b>ESPAINIAKO GAZTEAK*</b>
Ondo dago, dagoen moduan	2	2
Hobe daiteke, aldaketa txikiak eginda	30	24
Erreforma sakonak behar ditu	47	55
Errotik aldatu behar da	18	17
Ed/Ee	3	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1432</b>

\* Espainiako datuen iturria: Injuve (Jóvenes, participación y cultura política, 2011)

Iritzi horiei erreparatuz gero, argi dago gazteak ez daudela batere gustura gaur egungo egoerarekin.

**2.8. ONDORIOAK**

EAEko gazteen ustez, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera hala moduzkoa da, hau da, gauza batzuetan ona eta besteetan txarra, eta egoera ona dela diotenak txarra dela diotenekin alderatuz gero, bigarrenak dira nagusi.

Beste horrenbeste gertatzen da, oro har, gazteen egoera balioestean; gazte gehienek ustez egoera hala moduzkoa da baina egoera txartzat hartzen dutenak gehiago dira ona dela uste dutenak baino.

Horretaz gain, gazteek hala moduz balioesten dute erakundeek gazteen arloan egiten duten lana (0-10 eskalan, 4 eta 5 arteko batez bestekoak atera dituzte) eta, gainera, gazteen iritzia aintzat ez hartzea leporatzen diete erakundeei.

Gazteak bereziki kezkatuta daude lan-merkatuarekin loturiko arazoengatik eta, horien atzetik, arazo ekonomikoak datoz. Krisialdi ekonomikoaren ondorioz, azken hamabi urteotako mailarik handienara iritsi dira arazo horiek eta etxebizitzaren gaia hirugarren postura jaitsi da.

Gazteen ustez, gure gizarte-eredua aldatu egin behar da; gazteek diotenez, gaur egungo gizarteak aldaketa sakonak behar ditu edo, gutxienez, aldaketa txikiak; bost gaztetatik batek dio zeharo aldatu beharko litzatekeela.




Hala eta guztiz ere, gazte gehienak gustura daude egun bizi duten egoera pertsonalarekin. Gazteek egoera orokorra negatibotzat balioesten dute; bestalde, krisia jende askorengan eragina izaten ari dela uste dute, bai eta inguru hurbilean ere. Faktore horien guztien ondorioz, orain arte bizimodua gehiegi aldatu behar izan ez duten gazteek ere beren egoera erlatibizatu dute, haiek baino egoera txarragoan daudenekin alderatuta, eta, beraz, badutena gehiago balioesten dute, hau da, haiek baino egoera txarragoan daudenekin egiten dutenez konparazioa, beren egoera pertsonala positiboagotzat balioesten dute.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

### 3. Partaidetza eta jarrera politikoak





# 3

## Partaidetza eta jarrera politikoak

### 3.1. SARRERA

Garateen jarrera politikoak eta partaidetza politiko eta/edo sozialaren maila aztertzeke garaian, unean uneko egoera soziopolitikoak kontuan izan behar da. Horretarako, inkesta egin aurreko aldiari jatzotako zenbait gertaera garrantzitsu denboran kokatuko ditugu, garateen iritzian eta ideietan agian eragina izan dezaketelako.

2011ko maiatzean udaletako eta Batzar Nagusietako hauteskundeak izan ziren eta lurralde historiko bakoitzean egoera politiko desberdina geratu zen: PPK Araban gehiengoak lortu zuen, EAJK Bizkaian eta Bildu koalizioak (Eusko Alkartasunak eta ezker abertzaleak osatu zuten koalizioa eta lehen aldiz aurkeztu zen hauteskundeetan) Gipuzkoan.

2011ko urriari, ETAk armen indarkeria behin betiko utziko zuela iragarri zuen.

Urte hartako azaroan, hauteskunde orokorrak izan ziren Espainian eta PPK gehiengo osoa eskuratu zuen. EAEn, EAJ izan zen bozka gehien jaso zituen alderdia eta Amaiur (ezker abertzalea, Eusko Alkartasuna eta Aralar biltzen dituen alderdi politikoak) bigarren indar politikoak izan zen; Amaiurrek botoen % 24,1 lortu zuen eta Estatuan presentzia izatera iritsi zen, ezker abertzalea 15 urtez Diputatuen Kongresuan ordezkariarik gabe egon ostean<sup>18</sup>.

Halaber, 2011. urtean, euren buruari «hiritar haserretuak» esaten zioten kolektiboaren eta Maiatzaren 15eko mugimenduaren mobilizazioak gertatu ziren<sup>19</sup> une hartako egoerarengatik (krisialdi ekonomikoa, gero eta langabezia gehiago, murrizketa sozialak...) eta sistema politikoaren funtzionamenduarengatik protesta egiteko eta «benetako demokrazia» aldarrikatzeko. Mobilizazio horietan parte hartu zutenen ustez, alderdi politikoetatik eta elkarte formaletatik at gizaratean eta politikan parte hartzeke modu bat ziren mobilizazio horiek. 2012. urtean batzarrak eta mobilizazioak egiten jarraitu zuten hainbat udalerritan, baina ez zuten lortu 2011n lortu zuten asistentzia-maila.

---

<sup>18</sup> 1996ko hauteskunde orokorretan Herri Batasunak bi diputatu lortu zituen baina ez zuten kargua hartu.

<sup>19</sup> Maiatzaren 15eko mugimendua Bilbon nolakoa izan zen jakiteke, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko argitalpen hau kontsulta daiteke: Arellano Yanguas, Javier. *M-15 Bilbo. M-15ren Bilboko mobilizazioen inguruko gizarte-dinamiken azterketa*. Vitoria-Gasteiz, 2012.


### 3.2. POLITIKAREKIKO INTERESA

Gazteei ez zaie politika interesatzen, ez behintzat politika ohiko moduan ulertzen den bezala. Ondorio hori ateratzen da hasieran, behintzat, honako datu hauek ikusita: lau gaztetatik bakarrak (% 23) adierazi du interes handia edo nahikoa politikarekiko. Aitzitik, batere interesik ez dutenak askoz gehiago dira (% 43).

Egoera hori ez da berria; gazteek politikarekiko interesik ez izatea urtez urte errepikatu izan da azken urteotan. 2005. urtera bitarte, politikarekiko interesaren maila egonkor egon zen, gutxi gorabehera, baina jaisten hasi zen eta 2009. urtean mailarik txikienera iritsi zen (% 18); gaur egun, badirudi berriz ere gorantz hasi dela, arian-arian.

13. grafikoa

EAE-KO GAZTEEK POLITIKAREKIKO DUTEN INTERESAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2000tik 2010era bitarteko datuen iturria, Gazteen argazkiak seriea; 2012ko datuen iturria, Euskadiko gazteak 2012)

EAEko biztanleria orokorrean ere joera berdina ikusten da, baina mailarik txikiena 2010. urtearen amaieran eta 2011ko hasieran izan zen, ez 2009an (ikus 48. Euskal Soziometroa<sup>20</sup>). Nolanahi ere, 18 urte eta gehiagoko biztanleek adierazi duten interesa txikia den arren (% 28), gazteek adierazi dutena baino zertxobait handiagoa da.

<sup>20</sup> Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: 48. *Euskal Soziometroa: terrorismoaren amaiera (2012ko martxoa)* [linean] [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/sociometro\\_vasco\\_48/eu\\_soc48/adjuntos/12sv48\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/sociometro_vasco_48/eu_soc48/adjuntos/12sv48_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

Bestalde, EAEko gazteen eta Espainiako gazteen erantzunak alderatuz gero, EAEko gazteek interes txikiagoa adierazi dute politikarekiko Espainiakoek baino (Espainian, gazteen % 31k badu politikarekiko interesik).

### 20. taula

POLITIKAREKIKO INTERESA. EAE-KO BIZTANLERIA OROKORREKIN ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN KONPARATZEA (%)

ORO HAR, NOLAKO INTERESA DUZU POLITIKAN?			
(%)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE	18 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA EAE *	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA **
Interes handia	6	6	7
Nahikoa interes	17	22	24
Interes gutxi	32	37	39
Batere interesik ez	43	35	29
Ed/Ee	2	1	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>2254</b>	<b>1432</b>

\* 18 urte eta gehiagoko biztanleei dagozkien datuen iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Euskal Soziometroa 48, 2012ko martxoa)

\*\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: INJUVE (Jóvenes, participación y cultura política, 2011.)

EAEra itzulita, Gipuzkoan bizi diren gazteek agertu dute politikarekiko interes handiena (% 28); aitzitik, Bizkaikoek txikiena (% 20). Mutilek neskek baino interes handiagoa dutela diote eta interesak, oro har, gora egiten du adinean aurrera egin ahala.

### 21. taula


POLITIKAREKIKO INTERESA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ORO HAR, NOLAKO INTERESA DUZU POLITIKAN?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONAK	EMA-KUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Interes handia	6	6	5	3	6	7	7	4	7
Nahikoa interes	17	19	15	13	17	20	15	16	21
Interes gutxi	32	30	34	27	30	36	32	34	27
Batere interesik ez	43	43	44	55	45	35	45	43	43
Ed/Ee	2	2	2	2	2	2	1	3	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Gai politikoekiko interes handia edo nahikoa dutela dioten gazteak kritikoagoak dira gure gaur egungo gizartearekin, gai horiekiko interes gutxi edo batere interesik ez dutela diotenak baino. Interes handia edo nahikoa dutenen taldean, % 25ek dio gure gizartea zeharo aldatu behar dela, eta beste % 52k uste du aldaketa sakonak behar dituela.

#### 14. grafikoa

GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIA, POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)




### 3.3. GAI POLITIKOETAN PARTE HARTU NAHI IZATEA

Bestalde, gai politikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi izateari dagokionez, politikarekiko adierazitako interesari buruzko zifrak baino handiagoak ikusiko ditugu (% 42k dio modu aktiboagoan parte hartu nahiko lukeela eta beste % 7k uste du jada nahikoa parte hartzen duela); horrek zera esan nahi du, gazteek politika egin nahi dutela baina ez gaur egungo eredu edo ikuspegietatik abiatuta.

Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi luketela dioten gazteen ehunekoa nabarmen handitu da aurreko urteekin alderatuta.

## 15. grafikoa

GAI PUBLIKOETAN MODU AKTIBOAGOAN PARTE HARTZEKO NAHIAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi dutela diote politikarekiko interes handia edo nahikoa agertzen duten gazteek; kolektibo horretan, % 65ek gehiago parte hartu nahi luke eta % 8k jada nahikoa parte hartzen duela dio.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar politikarekiko interes gutxi edo batere interesik ez adierazi dutenen heren batek baino gehiagok (% 35) gai publikoetan gehiago parte hartu nahiko lukeela. Ehuneko horri erreparatuta, badirudi badagoela gazte talde garrantzitsu bat politikarekiko interesik agertzen ez duena baina, hala ere, politika bera ez duena gaitzesten, politika egiteko modu jakin bat baizik, hau da, ustelkeriarekin eta, herritarren interesei lehentasuna eman beharrean, finantza-arlokoiei eta botere-«lobby»enei ematearekin loturiko modua, kanpotik ezarritako neurriak ezer egin gabe onartzen dituen.

Halaber, gure gizartea zeharo aldatu beharko litzatekeela uste duten gazteek diote, gehienbat (% 48), politikan gehiago parte hartu nahi luketela. Gizartean nahiko luketen aldaketa-maila zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa da gai publikoetan parte hartzeko nahia. Alegia, egungo gizarte-erduarekiko atsekabea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gogo gehiago adierazten dute gai publikoetan parte hartzeko, aldaketa soziala eragiteko. Baina pentsa dezakegu nahi duten partaidetza mota ezin dela ohiko bideetatik bideratu, horrek gaur egungo egoera betikotzea eragin lezakeelako, lortu nahi duten aldaketa ahalbidetu beharrean.

Ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, 20-24 urteko taldeak (% 46) adierazi du gai publikoetan parte hartzeko interes handiena. Neskek ere mutilek baino gogo handiagoa dutela adierazi dute (% 45 eta % 39, hurrenez hurren).



## 22. taula

GAI PUBLIKOETAN PARTE HARTZEKO NAHIA, SEXUAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIAREN ARABERA (%)

GUSTATUKO LITZAIZUKE GAI PUBLIKOETAN GEHIAGO PARTE HARTZEA?										
GAI PUBLIKOETAN PARTE HARTZEKO NAHIA (%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIA			
		GIZONAK	EMA-KUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ONDO DAGO, DAGOEN MODUAN	HOBE DAITEKE, ALDAKETA TXIKIAK EGINDA	ERREFORMA SAKONAK BEHAR DITU	ERROTIK ALDATU BEHAR DA
Bai, gehiago parte hartu nahiko luke	42	39	45	38	46	42	14	41	44	48
Uste du nahikoa parte hartzen duela	7	8	5	5	6	8	20	8	6	6
Ez litzaioke gustatuko	42	45	40	43	42	42	51	44	43	38
Ed/Ee	9	8	10	14	6	8	15	7	7	8
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>38</b>	<b>467</b>	<b>682</b>	<b>266</b>

EAEko gazteen elkartegintzari buruzko liburu zurian adierazten denez<sup>21</sup>, gazteek politika publikoen diseinuan parte hartzeko lau baldintza bete behar dira: lehen, gazteak motibatuta egotea parte hartzeko, hau da, parte hartu nahi izan behar dute eta, horretarako, euren partaidetza aintzat hartuko dutela eta parte-hartze horrek egintza erreal eta zehatzak eragingo dituela pentsatu behar dute; bigarrena, partaidetzarako bide egokiak ahalbidetzea; hirugarrena, gazteek partaidetzarako bide horietarako sarbidea lortzeko eta horietan parte hartzeko beharrezkoak diren jakintza, trebetasun eta baliabideak eskuratzeko; eta laugarrena, botere publikoek partaidetzako gune horietan ezarritako neurri edo ekimenak onartzeko eta ezartzeko borondatea izatea. Baldintza horiek ez badira betetzen, oso zaila da gazteek gai publikoetan parte hartzea.

<sup>21</sup> Eusko Jauriaritza: *EAEko gazte-elkartegintzaren liburu zuria* [linean] Vitoria-Gasteiz, 2003. [http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-801/eu/contenidos/informacion/gazte\\_plana\\_argitalpenak/eu\\_5560/adjuntos/AsociacionismojuvenilE.pdf](http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-801/eu/contenidos/informacion/gazte_plana_argitalpenak/eu_5560/adjuntos/AsociacionismojuvenilE.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

### 3.4. NORTASUN-SENTIMENDUA

Euskal herritar-espainiar nortasun-ardatz klasikoan euren burua kokatzeko eskatu diegu gazteei eta, argi eta garbi, euskal herritar izatearen sentimendua da nagusi, soilik euskal herritar edo partekatua. Gazteen % 40 soilik euskal herritar sentitzen da, % 17 euskal herritarra espainiarra baino gehiago, eta % 24 euskal herritar bezain espainiar. Beste muturrean, % 6 espainiarra da euskal herritarra baino gehiago, edo soilik espainiarra.


Bestalde, % 7k dio beste nortasun-sentimendu bat duela. 2012. urtera bitarte erantzun hori ez zen agertzen galdesortetan, baina gero eta jende gehiagok ez zekienez bere burua kokatzen edo ez ziotenez galderari erantzuten, eta horretaz gain, gazte etorkin gehiago zeudenez, euskal herritar-espainiar ardatzean ez kokatzearen arrazoia ardatzaren bi muturretatik urrun egotea zela pentsatzen hasi ginen. Horregatik, 2012an erantzun hori aukeren artean sartu da, baina modu naturalean, hau da, ez da zuzenean eskaini baina beste nortasun bat dutela diotenen erantzunak bildu dira eta, esan bezala, % 7 izan dira.

Azkenik, gazteen gainerako % 7ak ez du aukeran zituen erantzunetako bat bera ere hautatu.

2012an ez euskal herritarra, ez espainiarra ez den nortasun-sentimendua dutenak (% 7) eta aukerako erantzunik hautatzen ez dutenak (% 7) batuta, 2008. urtean ardatz honetan kokatu ez zirenen antzeko emaitza ateratzen da. 1996-2008 aldian «ez daki/ez du erantzun» aukerak gora egin zuen eta, ziurrenik, jaioterriarekin identifikatzen diren gazte etorkinen hazkundearen ondorio izango da hori.

16. grafikoa

EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZEAN KOKATZEA (%)



Hortaz, aukerako bi erantzun horiek («beste nortasun bat» eta «ez daki/ez du erantzun») batera aztertzen baditugu, gainerako aukerak 2012an txertatutako erantzun berriaren interferentziarik gabe azter ditzakegu.

Bilakaeraren taulari erreparatuta, konturatuko gara muturreko erantzunak (soilik euskal herritarra edo euskal herritarra, espainiarra baino gehiago; eta soilik espainiarra edo espainiarra, euskal herritarra baino gehiago) gutxi gorabehera bere horretan geratu direla urte hauetan guztietan; aldiz, tarteko posizioa (euskal herritar bezain espainiar direnak) indarra galtzen ari da.

### 23. taula

EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZEAN IZANDAKO KOKAPENAREN BILAKAERA (%)

<b>EUSKAL HERRITARRA EDO ESPAINIARRA SENTITZEAREN ARTEAN, NOLAKOTZAT JOTZEN DUZU ZEURE BURUA?</b>					
<b>(%)</b>	<b>1996</b>	<b>2000</b>	<b>2004</b>	<b>2008</b>	<b>2012</b>
Euskal herritarra bakarrik	39	38	37	37	40
Euskal herritarra, espainiarra baino gehiago	17	18	15	18	17
Euskal herritarra bezain espainiarra (berdin, parean)	34	31	33	27	24
Espainiarra, euskal herritarra baino gehiago	2	2	3	2	3
Espainiarra bakarrik	4	3	3	2	3
Beste nortasuna*	-	-	-	-	7
Ed/Ee	3	8	11	13	7
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutak</b>	<b>1799</b>	<b>1364</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

\* Erantzuteko aukera hau 2012an baino ez da eman  
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Gipuzkoan, gehienbat euskal herritar izatearen sentimendua (soilik euskal herritarra edo euskal herritarra, espainiarra baino gehiago) handiagoa da gainerako lurralde historikoetan baino. Bestalde, beste nortasun batekin identifikatzen diren gazteen ehuneko handiena Araban dago.

Adinean behera egin ahala, ardatzaren euskal herritar eta espainiar muturretako kokapenak area-gotu egiten dira.

## 24. taula

EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZEAN KOKATZEA,  
ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

EUSKAL HERRITARRA EDO ESPAINIARRA SENTITZEAREN ARTEAN, NOLAKOTZAT JOTZEN DUZU ZEURE BURUA?							
(%)	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Euskal herritarra bakarrik	40	45	41	36	32	34	53
Euskal herritarra, espainiarra baino gehiago	17	17	17	18	17	20	13
Euskal herritarra bezain espainiarra (berdin, parean)	24	19	24	26	28	26	18
Espainiarra, euskal herritarra baino gehiago	3	3	3	2	2	4	1
Espainiarra bakarrik	3	4	3	3	4	3	2
Beste nortasuna	7	6	6	8	11	6	7
Ed/Ee	7	6	6	7	6	7	6
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Bestalde, europar-sentimenduari buruzko galdera ere egin diegu gazteei, eta EAeko gazteen erdiak baino gutxiagok (% 39) sentitzen du oso edo nahikoa europarra dela. Heren bat (% 33) ez da oso europarra eta % 19 batere europarra ez. Gainerako % 9ak ez du iritzirik agertu.

Oso edo nahikoa europartzat definitzen zirenen ehunekoak goranzko joera zuen 2000. urtetik 2008. urtera bitarte, baina 2012an behera egin du. Baliteke krisialdi ekonomikoaren ondorioz Europatik ezarritako politika ekonomikoekiko gaitzespena izatea horren arrazoi, herritarrengan, oro har, eta gazteengan, bereziki, Europako ideietatik urruntzea eragin baitute.

## 25. taula

SENTIMENDU EUROPARRAREN BILAKAERA (%)

ZENBATERAINO SENTITZEN DUZU ZEURE BURUA EUROPAR?				
(%)	2000	2004	2008	2012
Oso europarra	8	7	11	10
Nahikoa europarra	25	29	33	29
<b>EUOPAR SENTIMENDUA (Oso + Nahikoa)</b>	<b>33</b>	<b>36</b>	<b>44</b>	<b>39</b>
Ez oso europarra	37	40	30	33
Batere europarra ez	21	15	19	19
Ed/Ee	9	9	7	9
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1437</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Sentimendu europarra barneratuagoa dago gazteenen artean eta adinean aurrera egin ahala, gero eta txikiagoa da.

Aldiz, politikarekiko interesak ez du eragiten sentimendu europar handiagoa edo txikiagoa izatean.

## 26. taula

SENTIMENDU EUROPARRA, ADIN-TALDEAREN ETA POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)

ZENBATERAINO SENTITZEN DUZU ZEURE BURUA EUROPAR?						
(%)	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			POLITIKARAKO INTERESA	
		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	HANDIA + NAHIKOA	GUTXI + BATERE EZ
Oso europarra	10	13	9	9	12	10
Nahikoa europarra	29	32	29	27	29	30
<b>EUOPAR SENTIMENDUA (Oso + Nahikoa)</b>	<b>39</b>	<b>45</b>	<b>38</b>	<b>36</b>	<b>41</b>	<b>40</b>
Ez oso europarra	33	25	37	34	34	33
Batere europarra ez	19	17	17	22	21	18
Ed/Ee	9	13	8	8	4	9
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>341</b>	<b>1127</b>


### 3.5. JARRERA IDEOLOGIKOA: EZKERRA VERSUS ESQUINA

Ezkerren eta eskuinaren arteko ideologia-bereizketa klasikoa ez da biltzen gazte askoren parametroetan; izan ere, hamar gaztetatik lauk (% 40) ez du bere burua ardatz horretan kokatzen.

Gainerakoen artean, asko dira euren burua ezkerrekotzat hartzen dutenak (zentro ezkerrekoa, ezkerrekoa edo oso ezkerrekoa), eskuinekotzat (zentro eskuinekoa, eskuinekoa edo oso eskuinekoa) edo zentrokotzat hartzen dutenak baino gehiago.

17. grafikoa

EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZ IDEOLOGIKOAN KOKATZEA (%)




EAEko gazteen artean zehaztugabetasun-maila handia dago ardatz horri dagokionez, aurreko ikerketetan egiaztatuta geratu denez. Ezkerrekoak direla dioten gazteen ehunekoak 2008ko antzeko mailetan daude oraindik ere, baina eskuinekoak edo zentrokoak direla dioten ehunekoak, aldiz, zertxobait gora egin du 2004ko eta 2008ko mailekin alderatuta, eta 2000. urteko mailara iritsi da.

Mutilek ardatzaren ezker aldean kokatzen dute beren burua, neskek baino gehiago (% 47 eta % 41, hurrenez hurren). Horrek ez du esan nahi neskak mutilak baino eskuinekoagoak direnik, baizik eta erantzun ez dutenen ehuneko handiagoak dituztela (% 43 nesketan eta % 38 mutiletan).

## 18. grafikoa

EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZ IDEOLOGIKOAN IZANDAKO KOKAPENAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Antzeko zerbait gertatzen da adinaren arabera aldeak aztertzean; izan ere, adinean gora egin ahala, gero eta gazte gehiagok dio ezkerrekoa dela eta gero eta gutxiago dira ardatzean kokatzen ez direnak. Bestalde, ez da alde nabarmenik sumatzen eskuineko kokapenetan.

Gazteak bizi diren lurralde historikoaren arabera, badira aldeak ardatzeko kokapenari dagokionez: Zentrokoak direla gehien diotenak arabarrak dira (% 21), ezkerrekoak direla neurri handienean diotenak gipuzkoarrak dira (% 51) eta ardatzean gutxien kokatzen direnak bizkaitarrak dira (% 45).

## 27. taula

EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEAN KOKATzea, SEXUAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)


ESKUINEKO ETA EZKERREKO IZATEAREN ARTEAN, NOLA DEFINITZEN DUZU ZEURE BURUA?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONAK	EMA-KUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Eskuin muturrekoa	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Eskuinekoa	3	2	3	4	3	2	3	3	2
Zentro-eskuinekoa	1	2	2	0	2	2	1	2	0
<b>ESKUINA (eskuin muturra + eskuina + zentro-eskuina)</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>2</b>
Zentrokoa	11	12	11	9	13	11	21	10	9
Zentro-ezkerrekoa	5	6	4	3	5	6	7	5	3
Ezkerrekoa	36	38	35	29	37	41	34	33	44
Ezker muturrekoa	3	3	2	3	2	3	2	2	4
<b>EZKERRA (zentro-ezkerra + ezkerrekoa + ezker muturra)</b>	<b>44</b>	<b>47</b>	<b>41</b>	<b>35</b>	<b>44</b>	<b>50</b>	<b>43</b>	<b>41</b>	<b>51</b>
Ed/Ee	40	38	43	52	38	35	32	45	38
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Politikarekiko interesak gora egiten duen heinean, ardatz ideologikoan definitzen ez direnak gero eta gutxiago dira eta, bereziki, beren burua ezkerrekotzat hartzen dutenen ehunekoak handitu egiten dira, bai eta eskuinekotzat hartzen dutenenak ere.



## 19. grafikoa

EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZ IDEOLOGIKOAN KOKATzea,  
POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)



### 3.6. ATXIKIMENDU HANDIENA ERAGITEN DUEN ALDERDI POLITIKOA

Euren pentsaeratik gertuen dagoen alderdi politikoa zein den galdetu diegu gazteei eta erdiak baino gehiagok (% 53) honako hau erantzun dute beren kabuz (hau da, erantzunik iradoki gabe): «batere ez».

% 16k Bildu, Amaiur, Batasuna, Aralar edo, oro har, ezker abertzalea aipatu ditu (EA eta Alternatiba bakarrik ez dira aipatu).

% 5ek EAJ aipatu du, % 4k PSE-EE, % 1ek PP, beste % 1ek Ezker Batua edo Ezker Anitza (batuta) eta beste % 1ek Equo. Beste % 1ek alderdi abertzaleak, oro har, aipatu ditu eta beste % 1ek beste alderdi batzuk aipatu ditu; besteak beste, UPyD alderdia, baina bakarrik ez du aipamenen % 1 ere lortu. Gainerako % 16ak ez dio galderari erantzun.

Atxikimendu politikoak aldatu egiten dira lurraldez lurralde: euren ideietatik gertuen dagoen alderdirik ez dagoela diotenen portzentajerik handienak Araban jaso dira eta PSE-EE alderdiak lurralde horretan lortu ditu atxikimendu gehien; Bizkaian EAJ aipatu da gehien eta Gipuzkoan Bildutik daude hurbilen gazteak.

Politikarekiko interesa zenbat eta handiagoa izan, ezein alderdi politiko begiko ez dutenen ehu-nekoa orduan eta txikiagoa da: gai politikokoekiko inolako interesik ez dutenen artean % 74 dira eta interes handia edo nahikoa dutenen artean % 25. Interesa areagotzen den heinean, alderdi politikokoekiko begikotasuna ere areagotu egiten da, batez ere Bildu koalizioarekiko.

## 28. taula

ATXIKIMENDU HANDIENA ERAGITEN DUEN ALDERDI POLITIKOA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN, POLITIKAREKIKO INTERESAREN, EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ETA BATIK BAT EUSKAL HERRITAR NORTASUN-SENTIMENDUAREN ARABERA (%)

ZEIN ALDERDI POLITIKO DAGO ZURE PENTSAERATIK GERTUEN? (GALDERA IREKIA)												
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			POLITIKARAKO INTERESA			EZKER-ESKUIN ARDATZA			BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTIMENDUA	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	HANDIA + NAHIKOA	GUTXI	BATERE EZ	EZKE-RREKOA	ESKUINEKOA+ ZENTROKOA	ED/EE	BAI	EZ
Bat ere ez	53	61	48	57	25	45	74	37	58	70	42	67
Bildu (Amaiur, Batasuna, Aralar eta, oro har, ezker abertzalea hartzen du barne)	16	13	14	22	40	17	4	33	4	3	27	2
EAJ	5	2	8	1	7	8	2	4	15	2	7	2
PSE-EE	4	8	5	1	5	8	1	7	3	1	1	8
PP	1	2	1	0	2	1	0	0	5	0	1	1
Ezker Anitza + Ezker Batua	1	2	1	1	3	1	0	2	1	0	1	2
Equo	1	1	1	0	1	1	0	1	1	1	0	1
UPyD	0	1	1	0	0	1	0	0	1	0	0	1
Abertzaleak, oro har	1	0	1	1	1	1	0	2	0	0	1	0
Ezkerrekoak, oro har	0	0	1	1	1	0	0	1	0	0	0	0
Beste batzuk	1	1	1	0	3	0	0	2	0	0	1	1
Ed/Ee	16	10	18	16	11	17	18	12	12	23	18	15
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>341</b>	<b>467</b>	<b>660</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>	<b>851</b>	<b>649</b>

Eskuinekoak edo zentrokoak direla dioten gazteen eta ezkerrekoak direla dioten gazteen arteko aldeei erreparatuz gero, lehenengo multzoan ezein alderdi begiko ez dutela diotenak gehiago direla ikusiko dugu eta EAJ eta PP alderdiek ere aipamen gehien talde horretan lortu dute. Ezkerrekoak direla diotenen artean, Bildu/Amaiur eta PSE-EE alderdiak aipatu dira. Ardatz honetan kokatu ez direnen artean, gehienek ez dute alderdirik gogoko (% 70) eta beste % 23k ez dio galderari erantzun.

Azkenik, gehienbat euskal herritar nortasun-sentimendua dutenen artean, hau da, soilik euskal herritarra edo euskal herritarra espainiarra baino gehiago direla diotenen artean Bildu/Amaiur eta EAJ alderdiekin identifikatzen direnen ehunekoak handiak dira. Euskal herritar nortasun-sentimendu hori ez dutenen artean, bi herenak ez du ezein alderdi begiko eta alderdiren bat aipatzen dutenean PSE-EE aipatzen dute gehien.

Emaizta horiek aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu, zera ikusiko dugu, euren ideietatik hurbil dagoen alderdi politikorik ez dagoela diotenen ehunekoak handitzen ari direla arian-arian, gehien-goaren erantzun bihurtu arte.

### 29. taula

ATXIKIMENDU HANDIENA ERAGITEN DUEN ALDERDI POLITIKOAREN BILAKAERA (%)

ZEIN ALDERDI POLITIKO DAGO ZURE PENTSAERATIK GERTUEN? (GALDERA IREKIA)				
	2000	2004	2008	2012
Bat ere ez	38	43	50	53
Bildu (Amaiur, Batasuna, Aralar eta, oro har, ezker abertzalea hartzen du barne)	15	14	12	16
EAJ	12	8	5	5
PSE-EE	4	6	7	4
PP	2	1	1	1
Ezker Anitza + Ezker Batua	4	7	3	1
Equo	-	-	-	1
UPyD	-	-	0	0
Abertzaleak, oro har	-	-	-	1
Ezkerrekoak, oro har	-	-	-	0
Beste batzuk	1	1	2	1
Ed/Ee	25	21	19	16
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1364</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

2008tik 2012ra, Bildu markapean biltzen diren alderdi politikoen aipamenak areagotu egin dira, eta PSE-EE eta Ezker Batua alderdienak murriztu. EAJ alderdia 2008an bezainbeste aipatu da 2012an, baina jada izan zuen jaitsiera nabarmena 2000tik 2008ra bitarte.

Bestalde, gazteen erantzunak eta 18 urteko eta gehiagoko herritarrenak alderatuz gero<sup>22</sup>, gazteen artean ezin alderdi begiko ez dutenen ehunekoak bikoitzak dira biztanleria orokorraren ehunekoaren aldean (% 53 eta % 25, hurrenez hurren), eta Bildu izan ezik (bi kolektiboetan antzera aipatzen baita), aukera guztiek aipamen gutxiago lortzen dituzte gazteen artean, 18 urteko eta gehiagoko herritarren artean baino.

<sup>22</sup> Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2012. urtean egindako *Kultura demokratikoa* [linean] azterlanaren emaitzak hartu ditugu oinarritzat: [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/o\\_12cultura\\_democratica/eu\\_12culdem/adjuntos/12cultura\\_democratica\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_12cultura_democratica/eu_12culdem/adjuntos/12cultura_democratica_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

**30. taula**

ATXIKIMENDU HANDIENA ERAGITEN DUEN ALDERDI POLITIKOA.  
EAE-KO GAZTEEN ETA BIZTANLERIA OROKORRAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)

<b>ZEIN ALDERDI POLITIKO DAGO ZURE PENTSAERATIK GERTUEN? (GALDERA IREKIA)</b>		
	<b>GAZTEAK 15-29 URTE</b>	<b>18 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA *</b>
Bat ere ez	53	25
Bildu (Amaiur, Batasuna, Aralar eta, oro har, ezker abertzalea hartzen du barne)	16	16
EAJ	5	18
PSE-EE	4	11
PP	1	5
Ezker Anitza	1	3
Ezker Batua	0	2
Equo	1	-
UPyD	0	1
Abertzaleak, oro har	1	-
Ezkerrekoak, oro har	0	-
Beste batzuk	1	1
Guztiak	-	5
Ed/Ee	16	13
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>2501</b>

\* 18 urte eta gehiagoko biztanleriari dagozkion datuen iturria:


Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Kultura demokratikoa, 2012)

### 3.7. M-15 MUGIMENDUAREN MOBILIZAZIOEKIKO BEGIKOTASUNA ETA PARTAIDETZA

Gazteen gehiengoak alderdi politikoak begiko ez dituztela ikusita, baina gazte askok gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi duela kontuan izanik, gizartean parte hartzeko beste modu batzuk gogoko ote dituzten galdetu diegu; esate baterako, bereziki, 2011ko maiatzean gertatu ziren M-15 mugimenduko mobilizazioak.

Herritar asko haserre zeuden klase politikoak boterea nola gauzatzen zuen ikusita eta sumindura hori adierazteko mobilizatu ziren 2011n. Mobilizazio horiek hasi eta urtebetera, M-15 mugimendua gogoko ote duten galdetu diegu gazteei, bai eta mugimendu horrek antolatutako mobilizazioetan parte hartu ote zuten ere.

Inkestaren datuei jarraiki, 15-29 urteko kolektiboaren erdiak (% 50) oso edo nahikoa gogoko ditu M-15eko mobilizazioak eta % 38k ez oso gogoko edo batere gogoko ez; gainerako % 12ak ez du iritzirik adierazi horri buruz.



M-15 mugimenduko mobilizazioak gogoko dituztenen portzentajeak handiagoak dira Araban (arabar gazteen % 57k oso gogoko edo nahikoa gogoko dituzte) eta txikiagoak, aldiz, Gipuzkoan (% 47)<sup>23</sup>.

Adinarekin batera handitzen da gogoko izatearen maila: 20 urtetik beherakoen artean % 40k ditu gogoko mobilizazio horiek eta 25 urtetik gorakoen artean, % 55ek. Alabaina, horrek ez du esan nahi gazteek mugimendu hori begitan hartuta dutenik, baizik eta zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago direla ez dakitenak edo galderari erantzun ez diotenak.

Adinaren gorakadarekin bat etorrira, bukatutako ikasketa-mailak gora egin ahala M-15 mugimendua gogoko dutenen maila handitu egiten da.

<sup>23</sup> Horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar ezker abertzalearekin loturiko elkarte eta mugimenduek (ikusitako dugunez, Gipuzkoan dituzte jarraitzaile gehien) M-15 mugimenduarekiko mesfidantza adierazi zutela, elkarte eta mugimendu horien ustez beraiek aspalditik ari zirelako gai horiek lantzen eta M-15 mugimenduak ez zuelako haien lana aintzat hartu.

**31. taula**

M-15 MUGIMENDUA GOGOKO IZATEA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

ZENBATERAINO DITUZU GOGOKO POLITIKAN PARTE HARTZEKO BESTE ADIERAZPEN BATZUK, HALA NOLA M15MREN MOBILIZAZIOAK?										
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	DERRIGO- RREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI- MAILAKOA
Oso gogoko	18	22	18	16	14	19	20	15	20	21
Nahikoa gogoko	32	35	32	31	26	32	35	24	34	39
Ez oso gogoko	18	15	17	21	16	18	19	18	14	21
Batere gogoko ez	20	20	20	20	23	21	18	25	20	14
Ed/Ee	12	8	13	12	21	10	8	18	12	5
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>

Begikotasuna handiagoa da politikarekiko interes handia edo nahikoa dutela diotenen artean (% 69) eta behera egiten du interesa ere gutxitzen den heinean.

Ideologikoki ezkerrekoak direla diotenek M-15 mugimendua gehiago dute begiko, eskuineko edo zentrokoak direla diotenek baino (% 63 eta % 47, hurrenez hurren), eta azken horiek, aldi berean, ezkerreko-eskuineko ardatzean kokatzen ez direnek baino begikotasun handiagoa dutela diote (% 37ko begikotasuna).

Azkenik, gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela edo zeharo aldatu behar dela uste dutenek agertu dute begikotasun handiena M-15 mugimenduarekiko (% 57 eta % 60, hurrenez hurren).

## 32. taula

M-15 MUGIMENDUA GOGOKO IZATEA, POLITIKAREKIKO INTERESAREN, EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ETA GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIAREN ARABERA (%)

ZENBATERAINO DITUZU GOGOKO POLITIKAN PARTE HARTZEKO BESTE ADIERAZPEN BATZUK, HALA NOLA M15MREN MOBILIZAZIOAK?											
(%)	POLITIKARAKO INTERESA				EZKER-ESKUIIN ARDATZA			GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIA			
	GUZTIRA	HANDIA + NAHIKOA	GUTXI	BAT ERE EZ	EZKERREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE	ONDO DAGO, DAGOEN MODUAN	HOBE DAITEKE, ALDAKETA TXIKIAK EGINDA	ERREFORMA SAKONAK BEHAR DITU	ERROTIK ALDATU BEHAR DA
Oso gogoko	18	29	18	13	23	21	12	12	12	19	28
Nahikoa gogoko	32	40	41	22	40	26	25	28	25	38	32
Ez oso gogoko	18	15	20	18	19	20	16	17	19	19	13
Batere gogoko ez	20	11	13	30	12	20	29	29	29	15	16
Ed/Ee	12	5	8	17	6	13	18	14	15	9	11
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>341</b>	<b>467</b>	<b>660</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>	<b>38</b>	<b>467</b>	<b>682</b>	<b>266</b>

M-15 mugimenduak deitutako mobilizazioetan parte hartzeari dagokionez, EAEko gazteen % 14k dio mobilizazioen batean (edo batzuetan) parte hartu duela.

Espainia osoan, M-15 mugimenduak deitutako manifestazio eta kontzentrazioetan parte hartu dutenak apur bat gehiago dira (% 17)<sup>24</sup>. Dena den, M-15 mugimenduko mobilizazioak handiagoak eta jendetsuagoak izan ziren estatuan EAEn baino, eta nazioartean *Spanish revolution* deitu izan zaio mugimenduari.

EAEko datuei erreparatuta, zera ikusiko dugu, Bizkaian edo Araban bizi diren gazteek parte hartu dutela gehien M-15 mugimenduen mobilizazioetan (% 18 eta % 15, hurrenez hurren). 20 urtetik gorakoek ere gazteagoak baino zertxobait gehiago parte hartu dute mobilizazio horietan. Eta, hein batean adinarekin loturik, ikasketa-mailak gora egiten duen heinean parte hartzen duten gazteen ehunekoak ere gora egiten duela konturatu gara (% 19 goi-mailako ikasketak dituztenen artean).

<sup>24</sup> Gazteen Euskal Behatokiak kalkulatu du datu hori, INJUVE Espainiako Gazteriaren Institutuak 2011ko azaroan egindako EJ153 azterlanean oinarrituta: *Jóvenes, participación y cultura política*. [linean] [http://www.injuve.es/sites/default/files/2012/24/publicaciones/Sondeo%202011-3b\\_0.pdf](http://www.injuve.es/sites/default/files/2012/24/publicaciones/Sondeo%202011-3b_0.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

## 33. taula

M-15 MUGIMENDUAK DEITUTAKO MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTZEA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN, ADIN-TALDEAREN ETA BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

PARTE HARTU DUZU M15MREN MOBILIZAZIOEN BATEAN?										
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			ADIN-TALDEAK			IKASKETA-MAILA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	
Bai	14	15	18	6	10	16	15	9	15	19
Ez	81	79	77	90	83	80	81	84	80	80
Ed/Ee	5	6	5	4	7	4	4	7	5	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>

Mobilizazio horietako partaidetza handiagoa izan da, halaber, politikarekiko interes handia edo nahikoa dutela diotenen artean (% 25) eta parte-hartzaileen kopurua murriztu egiten da gai politikoe-kiko interesa gutxitzen den heinean.

Ezkerrekoak direla dioten gazteek eskuineko edo zentrokoak direla diotenen baino gehiago parte hartu dute M-15 mugimenduko ekitaldietan (% 18 eta % 13, hurrenez hurren) eta, eskuineko edo zentroko gazteek, aldiz, ezkerreko-eskuineko ardatzean kokatzen ez direnek baino gehiago (% 9).

Gizartean zenbat eta aldaketa handiagoa eskatu, orduan eta gehiago parte hartzen da M-15eko mobilizazioetan; izan ere, gure gizartea zeharo aldatu behar dela uste dutenen % 19k parte hartu du mobilizazio horietan eta gure gizartea dagoen moduan ongi dagoela uste dutenen artean, parte-hartzaileak % 7 izan dira.



## 34. taula

M-15 MUGIMENDUAK DEITUTAKO MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTZEA, POLITIKAREKIKO INTERESAREN, EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ETA GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIAREN ARABERA (%)

Guztira (%)	PARTE HARTU DUZU M15MREN MOBILIZAZIOEN BATEAN?										
	POLITIKARAKO INTERESA				EZKER-ESKUIN ARDATZA			GAUR EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIA			
	HANDIA + NAHIKOA	GUTXI	BAT ERE EZ	EZKERREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE	ONDO DAGO, DAGOEN MODUAN	HOBE DAITEKE, ALDAKETA TXIKIAK EGINDA	ERREFORMA SAKONAK BEHAR DITU	ERROTIK ALDATU BEHAR DA	
Bai	14	25	14	8	18	13	9	7	9	16	19
Ez	81	73	82	87	79	83	83	87	86	80	76
Ed/Ee	5	2	4	5	3	4	7	6	6	4	5
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>341</b>	<b>467</b>	<b>660</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>	<b>38</b>	<b>467</b>	<b>682</b>	<b>266</b>

M-15eko mobilizazioen batean edo batzuetan parte hartu duten gazteen profila osatzeko garaian, kolektiboa hau mugimendua gogoko dutenekin eta EAEko gazteria osoarekin konparatu ditugu eta taldeen arteko aldeak kontuan izan ditugu, baina soilik adierazgarrienak direnak nabarmenduko ditugu.

Oro har, M-15 mugimendua gogoko dutenek badituzte hainbat alderdi gazteria orokorretik be-  
reizen dituztenak, eta alderdi horiek ageriago geratzen dira mugimendua deitutako mobilizazioetan parte hartu dutenak aipatzen direnean. Hori horrela izanik, M-15eko mobilizazioetan parte hartu dutenen artean batez bestekoan baino presentzia handiagoa dute honako kolektibo hauetako gazteek:

- goi-mailako ikasketak (unibertsitateko ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak) dituzten gazteek
- ikasleen elkarte eta/edo sindikaturen bateko kide direnek edo izan direnek
- boluntariotzako jarduerak egiten dituztenek edo egin izan dituztenek
- politikarekiko interes handia edo nahikoa dutenek
- politikoki ezkerrekoak direla diotenek
- gure gizartean aldaketa sakonak behar direla edo zeharo aldatu behar dela uste dutenek
- erakundeek gazteen iritzia aintzat hartzen ez dutela uste dutenek
- gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahiko luketenen.

Horrek zera esan nahi du, M-15eko mobilizazioetan parte hartu duten gazteak gazte prestatuak direla, gure gizarte-ereduarekin kritikoak direnak, gai publikoekiko interesa agertzen dutenak eta bizitza komunitarioan inplikaturik daudenak.

### 35. taula

M-15 MUGIMENDUAK DEITUTAKO MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTU DUTENEN,  
M-15 MUGIMENDUA GOGOKO DUTENEN ETA GAZTERIA OSOAREN PROFILA (%)

(%)	M15-EKO MOBILIZAZIOETAKO PARTAIDEAK	M15 GOGOKO DUTENAK	GAZTERIA OSOA
<b>Amaitutako ikasketa-maila</b>			
Derrigorrezkoa	24	29	38
Derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo Bigarren Hezkuntza	33	33	31
Goi-mailakoa	42	37	31
<b>Ikasleen elkarteetan parte hartzea</b>			
Kide da	6	5	4
Kide izan da, jada ez	15	10	7
Ez da inoiz kide izan	79	84	88
Ed/Ee	1	1	1
<b>Elkarte sindikaletan parte hartzea</b>			
Kide da	5	3	2
Kide izan da, orain ez	5	2	2
Ez da inoiz kide izan	89	94	95
Ed/Ee	1	1	1
<b>Boluntario-jarduerak gauzatzea</b>			
Orain egiten du	9	7	6
Lehen egiten zuen, baina orain ez	25	20	15
Ez du inoiz egin	62	70	77
Ed/Ee	4	3	2
<b>Politikarako interesa</b>			
Handia	8	7	5
Nahikoa	33	24	15
Gutxi	32	37	32
Bat ere ez	26	31	47
Ed/Ee	2	1	1

(.../...)

(.../...)

<b>Ezker-eskuin ardatza</b>			
Ezkerrekoa	59	56	44
Zentrokoa	11	11	11
Eskuinekoa	3	3	4
Ed/Ee	27	29	40
<b>Gaur egungo gizarteari buruzko iritzia</b>			
Ondo dago, dagoen moduan	1	2	2
Hobe daiteke, aldaketa txikiak eginda	18	22	30
Erreforma sakonak behar ditu	55	54	47
Errotik aldatu behar da	25	21	18
Ed/Ee	1	1	3
<b>Erakundeek gazteen iritziak aintzat hartzen ote dituzten</b>			
Bai	12	15	17
Ez	83	77	73
Ed/Ee	5	8	10
<b>Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia</b>			
Gehiago parte hartu nahiko luke	58	52	42
Uste du nahikoa parte hartzen duela	8	7	7
Ez litzaioke gustatuko	25	33	42
Ed/Ee	8	8	9
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>199</b>	<b>751</b>	<b>1500</b>

### 3.8. ELKARTEGINTZA

Gizartean parte hartzeko beste modu garrantzitsu bat elkartegintza edo elkarteetan parte hartzea da. Partaidetza horren xedeak ez du zertan izan aldaketa edo hobekuntza sozialak lortzea, baizik eta jarduera bat elkarrekin garatzeko bide bat izan daiteke (elkarte motaren arabera), gizartean harremanak izateko modu bat (antolaketa-maila handiagoarekin edo txikiagoarekin).

EAEko gazteen heren bat (% 34) elkarteren bateko kide da (gutxienez batekoa). Beste % 21 ez da ezein elkarteko kide baina iraganean izan zela esan duzuen.

Gaur egun, gazteen artean kide gehien dituzten elkarteak kirol-elkarateak dira (gazteen % 15ek dio kirol- edo mendi-elkarteren bateko kide dela). Horretaz gain, beste % 14k esan du lehenago horrelako elkarteren bateko kide izan zela nahiz eta gaur egun ez den.

EAEko gazteen % 8 txoko edo aisialdiko elkarteren bateko kide da: konpartsak, peñak, blusak... (eta beste % 4 kide izan zen iraganean).

% 5ek musika-talde, banda edo kororen batean parte hartzen du. Eta % 9k iraganean parte hartu zuen.

Gazteen % 4 kultura-elkarte edo elkarte artistikoren bateko kide da eta beste % 4 ikasleen elkar-terren batekoa. Bi kasuetan, iraganean kide izandakoak gehiago dira gaur egun kide direnak baino (% 8 eta % 7, hurrenez hurren).

% 2 gazteen klub (scout-ak...) bateko kide da eta horrelako elkarteren bateko izandakoak % 8 dira.

Beste % 2k dio Hirugarren Munduari garatzen laguntzeko elkarteren bateko kide dela gaur egun; halaber, % 2 euskara indartzeko edo defendatzeko elkarteren bateko partaide da eta beste % 2k sindi-katuren batean parte hartzen du.

Erljioarekin, politikarekin, ekologiarekin, osasunarekin edo desgaitasunekin, giza eskubideekin, etorki-nekin, emakumeekin loturiko elkarteek edo lanbide-elkarteek gazteen % 1 baino ez dute biltzen, kasuan kasu.

21. grafikoa

ELKARTEETAKO KIDE IZATEA (%)



Estatu osoan, gaur egun elkarteren bateko kide diren gazteak gutxiago dira (% 22).

Gaur egun elkarte motaren bateko kide direnen ehunekoak alderatuz gero, Espainiako gazteak ere kirol-elkarte eta aisialdiko elkarteetako kide izaten dira ohiko moduan (% 16 eta % 10)<sup>25</sup>.

Oro har, gaur egun elkarte mota bakoitzeko kide direnen ehunekoak antzekoak dira EAEko gazteen eta Espainia osoko gazteen artean, baina erlijio-elkarteen kasuan, gazte espainiarren partaidetza (% 4) handiagoa da EAEko gazteena baino (% 1).

## 22. grafikoa

ELKARTEETAKO KIDE IZATEA, ELKARTE MOTAREN ARABERA.  
EAEKO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: Injuve (Juventud en España 2012).

\*\* Espainian aisialdi-elkarteez eta gizarte-klubez galdetzen zen.

Alderaketa egiteko, "aisialdi-elkarteak" eta "gazte-klubak" aukerak batu egin dira.

<sup>25</sup> Espainiako gazteei buruzko datuak Injuve-k egindako txosten honetatik atera ditugu: *Informe Juventud en España 2012*. [linean] <http://www.injuve.es/observatorio/demografia-e-informacion-general/informe-de-la-juventud-en-espana-2012> [Kontsulta: 2013/09/27]

Bereiz hartuta, elkarte mota bakoitzeko kideen ehunekoak antzekoak dira EAEn eta Espainian, baina elkarteren bateko (edozeinetako) kide diren gazteen datu bateratuak gure autonomia-erkidegoan handiagoak direnez estatu osoan baino, pentsa dezakegu Espainian pertsona bera elkarte bateko baino gehiagoko kide izango dela aldi berean.

EAEko gazteak elkarteetako kide izatearen bilakaerari erreparatzen badiogu, zera ikusiko dugu, azken urteotan, partaidetza horrek behera egin duela: 2000. urtean % 42 zen, 2008an % 41 eta 2012an % 34.

Elkarteren bateko kide diren gazteen ehunekoaren jaitsiera horren zati bat, bederen, kirol-elkar-teetako (gazteen artean ohikoenak baitira) kide direla diotenen gazteen beherakadaren ondorio izan daiteke. 2008. urtean gazteen % 22k zioen kirol-elkarteren bateko kide zela eta beste % 3k mendi-tal-deren bateko kide, baina 2012an % 15 baino ez da kirol- edo mendi-elkarte edo –talde bateko kide.

### 36. taula

ELKARTEETAKO KIDE IZATEAREN BILAKAERA (%)

ELKARTEETAKO KIDE IZATEAREN BILAKAERA			
(ELKARTE MOTA BAKOITZEKO KIDE DIRENEN %)	2000	2008	2012
<b>Elkarteren bateko kide da</b>	<b>42</b>	<b>41</b>	<b>34</b>
Kirol edo mendizale elkarteak edo klubak *	20	25	15
Txokoak edo aisialdi-elkarteak (lagunarteak, konpartsak, blusak...)	10	7	8
Musika-bandak, musika-taldeak, abesbatzak	—	4	5
Elkarte kultural edo artistikoak	8	6	4
Ikasle-elkarteak	4	3	4
Eskautak, gazte-klubak	4	2	2
Hirugarren munduaren garapenerako lankidetzari lotutakoak	3	2	2
Euskararen aldeko taldeak	4	2	2
Sindikatuak	3	3	2
Erlujiosak	—	1	1
Politikoak	3	1	1
Ekologistak	3	1	1
Osasunarekin edo ezintasunekin lotura dutenak *	5	3	1
Giza eskubideen aldekoak	2	1	1
Immigranteei laguntzeko elkarteak	—	—	1
Emakumeekin lotura dutenak	1	1	1
Profesionalak	—	1	1
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1364</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

\* 2008an, kirol-elkarteak eta mendizaleen taldeak bereizten ziren. Taulan, datu horiek batu egin dira, 2012koekin alderaketa egin ahal izateko. Gauza bera gertatu da osasunarekin edo ezintasunekin lotutako elkartei dagokienez, hau da, orain arte (2000n eta 2008an) bereizi egiten ziren.

Gainerako elkarte motetan ez da alde handirik sumatzen 2008tik 2012ra.

Bestalde, gazteak elkarteetako kide izateari dagokionez, EAeko 18 urteko eta gehiagoko biztanleria orokorraren kasuan (% 44) baino ehuneko txikiagoak agertzen dira<sup>26</sup>.

Jarraian, honako alderdi hau aztertuko dugu: gazteen zein kolektibok dituzten elkarteetako kide izatearen ehuneko handienak (gaur egun).

Mutilak neskak baino gehiago izaten dira elkarteetako kide (% 38 eta % 30, hurrenez hurren). Funtsean, kirol-elkarteetako kideen arteko aldeak eragiten du desberdintasun hori; izan ere, gizon gazteen kopurua emakume gazteen kopuruaren bikoitza da kirol-elkarteetan.

Araban dago elkarteetako kide diren gazteen ehuneko handiena (% 47) eta atzetik Gipuzkoa dator kio (% 42); aldiz, Bizkaian, elkarteren bateko kide diren gazteen ehunekoa askoz txikiagoa da (% 26).

Udalerria zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da elkarteetako kide diren gazteen ehunekoa: hiriburuetan % 28, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan % 34, eta 10.000 biztanletik beherako udalerrietan % 48.

Seme-alabarik ez dutenen artean, elkarteetako kide direnak askoz gehiago dira seme-alabaren bat dutenen artean baino (% 36 eta % 16, hurrenez hurren). Denbora libre izateak argi eta garbi eragiten du elkarteetako kide izatean.

Adinak ez du alde adierazgarrikerik eragiten, baina bai bukatutako ikasketak; beraz, derrigorrezko ikasketak soilik dituztenen kasuan, elkarteetako kide dira % 30 baina derrigorrezko ikasketen ondoko bigarren mailako ikasketak edo goragokoak dituztenen kasuan, % 37 ere badira. Izan ere, ikasketak mailak gora egiten duen heinean elkarte hauetako partaidetza ere handitu egiten baita: sindikatuak, politikaren, lanbidearen, kulturaren edo artearen arloko elkarteak, giza eskubideen aldekoak, feministak, ekologistak, euskararen aldekoak eta osasunarekin loturikoak.

---

<sup>26</sup> 18 urteko eta gehiagoko biztanleria orokorraren datu-iturria: Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Kultura demokratikoa: 2012ko abendua*. [linean] [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/o\\_12cultura\\_democratica/eu\\_12culdem/adjuntos/12cultura\\_democratica\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_12cultura_democratica/eu_12culdem/adjuntos/12cultura_democratica_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

## 37. taula

ELKARTEETAKO KIDE IZATEA, SEXUAREN, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN  
ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

ESANGO DIDAZU ELKARTE EDO ERAKUNDE HAUETAKOREN BATEKO KIDE ZAREN?									
(ELKARTE-MOTA BAKOITZEKO KIDE DIRENEN %)	GUZTIRA	SEXUA		LURRALDEA			UDALERRIAREN TAMAINA		
		GIZONAK	EMA- KUMEAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
<b>Elkarteren bateko kide da</b>	<b>34</b>	<b>38</b>	<b>30</b>	<b>47</b>	<b>26</b>	<b>42</b>	<b>48</b>	<b>34</b>	<b>28</b>
Kirol edo mendizale elkarteak edo klubak	15	21	9	24	9	20	21	15	13
Txokoak edo aisialdi-elkarteak (lagunarteak, konpartsak, blusak...)	8	10	7	13	7	9	16	8	6
Musika-bandak, musika- taldeak, abesbatzak	5	6	4	5	4	6	10	5	3
Elkarte kultural edo artistikoak	5	5	5	5	5	5	9	5	3
Ikasle-elkarteak	4	4	5	3	4	6	6	5	3
Eskautak, gazte-klubak	2	2	2	2	2	2	2	2	3
Hirugarren munduaren garapenerako lankidetzari lotutakoak	2	1	3	2	1	4	0	3	1
Euskararen aldeko taldeak	2	2	3	3	2	3	4	2	2
Sindikatuak	2	3	2	4	2	2	5	2	2
Erljiosoak	1	1	1	3	1	0	0	1	2
Politikoak	2	1	2	2	1	3	2	1	2
Ekologistak	1	1	1	1	1	2	1	1	1
Osasunarekin edo ezintasunekin lotura dutenak	2	2	1	3	1	2	2	1	2
Giza eskubideen aldekoak	1	1	2	1	1	2	1	2	1
Immigranteei laguntzeko elkarteak	1	1	1	3	1	2	1	1	1
Emakumeekin lotura dutenak	1	1	2	1	1	2	1	1	1
Profesionalak	1	1	1	2	1	1	1	1	1
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>240</b>	<b>660</b>	<b>600</b>



## 38. taula

ELKARTEETAKO KIDE IZATEA, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ETA POLITIKAREKIKO INTERESAREN ARABERA (%)

ESANGO DIDAZU ELKARTE EDO ERAKUNDE HAUETAKOREN BATEKO KIDE ZAREN?							
(ELKARTE-MOTA BAKOITZEKO KIDE DIRENEN %)	GUZTIRA	IKASKETA-MAILA			POLITIKARAKO INTERESA		
		DERRIGORREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	HANDIA + NAHIKOA	GUTXI	BAT ERE EZ
<b>Elkarteren bateko kide da</b>	<b>34</b>	<b>30</b>	<b>37</b>	<b>37</b>	<b>46</b>	<b>33</b>	<b>29</b>
Kirol edo mendizale elkarteak edo klubak	15	14	15	16	19	15	14
Txokoak edo aisialdi-elkarteak (lagunarteak, konpartsak, blusak...)	8	6	9	11	11	10	6
Musika-bandak, musika-taldeak, abesbatzak	5	5	5	5	8	5	4
Elkarte kultural edo artistikoak	5	4	4	7	9	5	3
Ikasle-elkarteak	4	4	7	3	6	4	4
Eskautak, gazte-klubak	2	3	2	1	2	4	1
Hirugarren munduaren garapenerako lankidetzan lotutakoak	2	2	2	2	4	3	0
Euskararen aldeko taldeak	2	1	2	4	7	2	1
Sindikatuak	2	1	3	3	3	3	1
Erljiosoak	1	1	1	1	1	1	1
Politikoak	2	1	1	3	6	0	0
Ekologistak	1	1	1	2	3	1	0
Osasunarekin edo ezintasunekin lotura dutenak	2	0	2	3	3	1	1
Giza eskubideen aldekoak	1	1	1	3	4	0	1
Immigranteei laguntzeko elkarteak	1	1	1	2	2	1	1
Emakumeekin lotura dutenak	1	1	1	2	3	1	1
Profesionalak	1	0	1	2	2	1	1
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>341</b>	<b>467</b>	<b>660</b>

Azkenik, politikarekiko zenbat eta interes handiagoa izan, orduan eta handiagoa da elkarteetako kide direnen kopurua: batere interesik ez dutenen artean, elkarteren bateko kide dira % 29; interes txikia dutenen artean, % 33 eta politikarekiko interes handia edo nahikoa dutenen artean, % 46. Politikarekiko interes handia edo nahikoa dutenen kolektibo horretan elkarte mota gehienetako kide direnen ehune-

koak handienak dira baina, batik bat, euskararen aldeko edo euskara sustatzeko elkarteak, talde politikoak eta giza eskubideen aldeko elkarte edo taldeak nabarmentzen dira. Beraz, baliteke politikarekiko interesa zenbat eta handiagoa den, orduan eta joera handiagoa izatea gizarte-bizitzan eta komunitatearen gai publikoetan inplikatzeko, besteak beste, elkarteen bidez.

### 3.9. BOLUNTARIOTZA

Gizartean parte hartzeko beste modu bat ere bada, eta elkarte bateko kide izatea baino inplikazio handiagoa eskatzen du gainera: boluntario-lanak egitea.

Horregatik, horrelako jarduerak egiten ote dituzten galdetu diegu EAEko gazteei baina betiere, boluntariotza honako hau dela ulertuta: beste pertsona batzuei edo komunitateari laguntzeko norberaren borondatez egiten diren ordaindu gabeko lanak, astean gutxienez ordubeteko dedikazioa eskaintzea eskatzen dutela<sup>27</sup>.

Definizio horretan hainbat jarduera biltzen dira; hala nola, monitore edo begirale izatea aisialdiko jarduera edo irteeretan, artearekin edo kulturarekin loturiko jardueretan, kirol-taldeetan entrenatzaile izatea... edo GKEei (DYA, Gurutze Gorria...) laguntzea, desgaitasunak dituztenei edo etorkinei laguntzea eta abar, baina beti ordainsaririk jaso gabe. Beraz, beste hainbat lan alde batera geratzen dira; esate baterako, jaiak edo jaialdiak antolatzea eta abar, unean uneko jardunak baitira, eta finkatutako definizioari jarraiki, jarduerak jarraitutasunez egin behar dira. Aitzitik, denbora-tarte labur batean baina dedikazio eskusiboz edo ia eskusiboz egiten diren boluntario-jarduerak bai sartzen dira definizio horretan: auzolandegietan edo atzerriko boluntario-lanetan parte hartzea.

EAEko 15-29 urteko gazteek emandako erantzunen arabera, gazteen % 7k boluntario-lanak egiten ditu gaur egun. Gaur egun ez, baina iraganean boluntario-lanak egin zituzten gazteak (% 16) gehitzen badizkiogu kolektibo horri, EAEko gazteen ia laurden batek (% 23) badu eskarmenturik boluntariotzan.

Datu horiek duela lau urtekoekin alderatuz gero, zenbatekoak zertxobait igo direla ikusiko dugu: 2008an % 6k esan zuen boluntario-lanak egin zituela eta % 20k horretan ibilia zela.

Gaur egun, neskek gehiago parte hartzen dute boluntario-lanetan mutilek baino (% 8 eta % 5, hurrenez hurren). Horrelako ekintzetan izandako esperientziari erreparatuta (hau da, orain eta iraganean boluntariotzan jardun dutenak batuta), aldeak handiagoak direla ikusiko dugu: horrelako jardueraren bat inoiz egin izan dute nesken artean % 28k eta mutilen artean % 18k.


20-24 urteko gazteak dira boluntario-lanetan gehien parte hartzen dutenak.

---

<sup>27</sup> Gazteen Euskal Behatokiak finkatu du definizio hori inkesta egiteko garaian, boluntariotzako jarduerak zer diren mugatzearen.

## 23. grafikoa

BOLUNTARIOTZAN IZANDAKO ESPERIENTZIA, ADIN-TALDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (%)



Azkenik, gazte gipuzkoarrek egiten dituzte boluntario-lan gehien (% 9), eta bizkaitarrek gutxien (% 5).

Goi-mailako ikasketak dituztenek egiten dituzte (% 9) eta egin izan dituzte (% 20) boluntario-jarduera gehien. Ikasketa-mailak behera egiten duen heinean, boluntariotzan gaur egun eta iraganean izandako esperientziak ere behera egiten du.

Ezkerrekoak direla diotenek eskuineko edo zentrokoak direla diotenek baino edo ardatz ideologiko horretan kokatzen ez direnek baino gehiago parte hartzen dute boluntario-lanetan.

Politikarekiko interesa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da, halaber, boluntariotzako jardueretako parte-hartzea; hori horrela izanik, politikarekiko interes handia edo nahikoa dutela adierazi dutenen artean, heren batek baino gehiagok badu eskarmenturik boluntariotzan: % 12k boluntario-lanak egiten ditu gaur egun eta beste % 25ek iraganean egin dituela dio.

Bestalde, gai publikoetan gehiago parte hartu nahiko luketenek eta jada nahikoa parte hartzen dutela diotenek ehuneko handiagoak dituzte boluntariotzako jarduerak egiteari dagokionez, gai publikoetan parte hartu nahi ez dutenek baino.

## 39. taula


BOLUNTARIOTZA-JARDUERAK EGITEA, POLITIKAREKIKO INTERESAREN, EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ETA GAI PUBLIKOETAN MODU AKTIBOAGOAN PARTE HARTZEKO NAHIAREN ARABERA (%)

ESANGO AL DIDAZU ORAIN BOLUNTARIO GISA LANIK EDO JARDUERARIK EGITEN DUZUN, LEHEN EGITEN ZENUEN BAINA ORAIN EZ EDO EZ DUZUN INOIZ EGIN?										
(%)	GUZTIRA	POLITIKARAKO INTERESA			EZKER-ESKUIN ARDATZA			GAI PUBLIKOETAN MODU AKTIBOAGOAN PARTE HARTZEKO NAHIA		
		HANDIA + NAHIKOA	GUTXI	BAT ERE EZ	EZKERREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE	GEHIAGO PARTE HARTU NAHIKO LUKE	USTE DU NAHIKOA PARTE HARTZEN DUELA	EZ LITZAIROKE GUSTATUKO
Orain egiten du	7	12	6	5	9	4	5	11	11	3
Lehen egiten zuen, baina orain ez	16	25	15	12	20	14	13	21	23	10
Ez du inoiz egin	75	61	77	81	69	80	80	66	66	86
Ed/Ee	2	1	2	3	2	2	2	2	0	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>341</b>	<b>467</b>	<b>660</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>	<b>638</b>	<b>86</b>	<b>647</b>

Bukatzeko, boluntariotzaren eta elkartegintzaren arteko lotura aipatu behar dugu; izan ere, gaur egun elkarteren bateko kide diren gazteek ehuneko handiagoak dituzte boluntario-lanak egiteari dagokionez, bai iraganean, bai orain. Eta hori logikoa ere bada, boluntario-lanak elkarteren baten esparruan egiten baitira gehienetan.

## 24. grafikoa

BOLUNTARIOTZAN IZANDAKO ESPERIENTZIA, ELKARTEETAKO KIDE IZATEAREN ARABERA (%)



### 3.10. ONDORIOAK

Gazteei politika ez zaie askorik interesatzen. Politikarekiko interes handia edo nahikoa dutela dioten gazteak ez dira laurden bat ere eta, aitzitik, politikarekiko batere interesik ez dutenak horien ia bikoitzak dira.

Ezkerrekoen eta eskuinekoen artean egin ohi den banaketa ere ez da sartzen gazte askoren parametroetan: hamar gaztetatik lauk ez du bere burua ardatz horretan kokatu. Baina euren burua definitu dutenen artean, ezkerreko direnak eskuineko edo zentrokoak baino hiru aldiz gehiago dira.

Gazteek ez dituzte alderdi politikoak gogoko; erdiak baino gehiagok dio ez dagoela alderdi bat bera ere bere ideietatik hurbil, eta politikarekiko interes handia edo nahikoa dutela dioten gazteen laurden batek ere esan du ez dagoela alderdi politiko bat bera ere bere pentsaeratik gertu. Elkarte edo erakunde politikoetako kideak % 6 baino ez dira politikarekiko interes handia edo nahikoa dutela diotenen artean (eta % 1 gazte guztien artean).

Gazteek alderdi politikoak oso urrunekotzat hartzen dituzte, 18 urteko eta gehiagoko biztanleria orokorraren kasuan halako bi, hain zuzen.

Aitzitik, politikan eta gizartean parte hartzeko beste modu batzuekiko (esate baterako, M-15 mugimenduak deitutako mobilizazioekiko) begikotasuna zabalduago dago gazteen artean; erdiak dio oso edo nahikoa gogoko duela mugimendu hori eta, politikarekiko interes handia edo nahikoa duten gazteen kasuan, M-15 mugimendua gogoko dute hamarretik zazpi. Politikarekiko interes handia edo nahikoa duten gazteen multzo horretan, lau gaztetatik batek esan du M-15 mugimenduak deitutako mobilizazio edo kontzentrazioren batean parte hartu duela.

Edozein motatako elkarteetako partaidetzak behera egin du gazteen artean eta heren batek baino ez du esan elkarteren bateko kide dela. Boluntario-lanak egiten dituztenak ez dira gutxitu baina, nolahi ere, gutxiengo dira (gazteriaren guztizkoaren % 7).

Alabaina, horrek ez du esan nahi gazteek utzikieriaz edo apatiaz jokutzen dutenik. Gero eta gazte gehiagok modu aktiboagoan parte hartu nahi du gai publikoetan.

Politika eta alderdi politikoak urrun ikusten dituzte gazteek; elkarte eta taldeetan afiliazioak behera egin du, eta gizartean eta politikan aldaketak aldarrikatzen dituzten beste gizarte-mobilizazio mota batzuk gogoko dituzte. Hiru faktore horiek kontuan izanik, gazteen parte-hartzea ahalbidetuko duten bide berriak bilatu behar direla esan dezakegu.


Edonola ere, gazteak inplikatzeko zaila izango da ez badute argi ikusten parte-hartze horrekin errealitatea aldatzea lortuko dutenik. Beraz, parte hartzeko mekanismoetan gazteek hartutako erabakiak (hein batean, bederen) aintzat hartzea ezinbestekoa da. Parte hartzeko motibatu egin behar da, parte hartzen irakatsi behar zaie, eta gazteen parte-hartzearen ondoriozko ekimenak onartzeko eta gauzatzeko borondatea izatea ere behar-beharrezkoa da.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

## 4. Balio eta jarrera sozialak





# 4

## Balio eta jarrera sozialak

### 4.1. SARRERA

Gazteen balioak, jarrerak eta portaerak arian-arian aldatu egiten dira eta inguruko aldaketa sozialek baldintzatu egiten dituzte, bai eta aldaketa horien gaineko pertzepzioek ere, edo aldaketarik ez badago, sentitzen den aldaketa-premiak.

Kapitulu honetan, askotariko gaiak landuko ditugu, hala nola, erlijio-sinesmenak, immigrazioarekiko jarrerak, gizarte-kolektibo jakin batzuekiko diskriminazioa, jasangarritasuna eta inpaktu ekologiko txikiena lortzera bideratutako portaerak eta beste hainbat kontu, gazteen iritziak nola aldatu diren aztertzeko eta EAEko biztanleria orokorrarekin edo Estatu osoko gazteekin zer nolako aldeak dauden ikusteko.

Gazteen jarrerak eta portaerak nola aldatu diren balioesteko garaian, azken urteotan jazo diren hainbat gertaera edo egoera aintzat hartu behar ditugu, kapitulu honetako gaiekin zuzen-zuzenean loturik baitaude. Atal zehatz bakoitzean, landuko den gaiari buruzko gertaera garrantzitsuenak aipatuko ditugu.



## 4.2. ERLIJO-ARLOKO SINESMENAK ETA PRAKTIKA

2012an, EAEko 15-29 urteko gazteen heren batek (% 34) katolikoa dela dio baina katoliko elizkoi edo praktikanteak % 4 baino ez dira.

Katoliko direla diotenen gazteen ehunekoa nabarmen murriztu da azken urteotan: 1998an<sup>28</sup> EAEko 15-29 urteko gazteen % 59k katolikoa zela esan zuen; 2008an, zenbateko hori % 46ra murriztu zen eta 2012an % 34 baino ez da.

Beste horrenbeste gertatzen da katoliko elizkoi direla diotenak aztertzen baditugu: 1998an % 14 ziren, 2008an % 8 eta 2012an % 4.

Gazte katolikoaren beherakadaren beste alderdia gazte ateo, agnostiko edo indiferenteen hazkundea da. 1998an % 31 ziren, 2008an % 43 eta 2012an % 54 dira.

Bestalde, beste erlijio batzuetako sinestun diren gazteen ehunekoa handitzen ari da arian-arian: 1998an % 1 ziren, 2008an % 3 eta 2012an % 5. Beste erlijio batzuetan sinesten duten gazteen hazkundea hori immigrazioaren gorakadarekin batera gertatu da (ez dugu ahaztu behar gazte etorkinak EAEko gazteriarren % 2,4 zirela 2001ean baina 2008an % 11,2ra eta 2012an % 14,4 izatera iritsi direla<sup>29</sup>). Datu hori berresteko datu bat: atzerrian jaio diren eta inkesta erantzun duten gazteen artean, beste erlijio batean sinesten dutenak % 34 dira (EAEn jaiotakoaren artean, ordea, % 1). Gazte etorkinengan katoliko direla diotenen ehunekoak handiagoak dira EAEn jaiotakoaren baino (% 41 eta % 34, hurrenez hurren) eta ateo, agnostiko edo indiferenteen zenbatekoak ere askoz txikiagoak dira (% 13 gazte etorkinen artean eta % 59 EAEn jaiotako gazteen artean).

Azkenik, Jainkoarengan bai baina erlijioetan sinesten ez dutenak gutxiago dira orain: 1998an % 7 ziren, 2008an % 5 eta 2012an % 4.


---

<sup>28</sup> 1998ko datuak Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako *Gazteen argazkiak* – 3 [linean] azterlanetik atera ditugu. [http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/es/contenidos/informacion/gazteen\\_argazkiak\\_bilduma/es\\_5561/adjuntos/Retratos\\_Juventud\\_3\\_\(1998-1999\)M.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/es/contenidos/informacion/gazteen_argazkiak_bilduma/es_5561/adjuntos/Retratos_Juventud_3_(1998-1999)M.pdf) [Kontsulta: 2013/09/27]

<sup>29</sup> Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak. [linean] <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7650x/eu/estatistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta: 2013/09/27]

## 25. grafikoa

GAZTEEK ERLIJIIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN BILAKAERA (%)



\* 2008ko datuen iturria: Euskadiko gazteak 2008


\*\* 1998ko datuen iturria: Gazteen argazkiak 3

2012. urteari dagokionez, EAEko gazteen datuak eta 30 urteko eta gehiagoko biztanleen datuak alderatzen baditugu<sup>30</sup>, bigarren multzoan katolikoek ehuneko bat gutxiago erakusten dute (71% eta 34%, hurrenez hurren). Aitzitik, gazteen artean ateo edo agnostikoen bolumena (% 54) 29 urtetik gorakoek baino askoz handiagoa da, bikoitza, hain zuzen (% 23).

<sup>30</sup> EAEko 30 urteko eta gehiagoko biztanleriarekin konparazioa egin ahal izan dugu Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (guk eskatuta) eman dizkigun datuei esker.

## 26. grafikoa

ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERA. GAZTEEN  
ETA 30 URTEKO ETA GEHIAGOKO HERRITARREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* 30 urtekoiei eta gehiagokoei ez zitzaien erantzuteko aukera hori eskaini.


\*\* 30 urteko eta gehiagoko biztanleei dagozkien datuen iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Espainiako gazteekin konparatzen badugu<sup>31</sup> EAEko gazteak laikoagoak direla nabarmendu behar dugu. Espainiako gazteen % 56k bere burua katolikotzat jotzen du (praktikantea izan zein ez) eta % 36k ateo, agnostiko, ez-sinestun edo indiferentetzat. EAEko gazteen artean zenbatekoak alderantzikatu egiten dira: % 34k dio katolikoa dela, eta euren burua ez-sinestun, ateo, agnostiko edo indiferentetzat jotzen dutenak % 54 dira.

<sup>31</sup> Espainiako gazteei buruzko datuak INJUVE Espainiako Gazteriaren Institutuak 2011. urtean egindako *Jóvenes, participación y cultura política* [linean] azterlanean oinarritzen dira: <http://www.injuve.es/observatorio/valores-actitudes-y-participacion/jovenes-participacion-y-cultura-politica-0> [Kontsulta: 2013/09/27]

## 27. grafikoa

ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERA.  
EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Espainiako gazteei ez zitzaien erantzuteko aukera hori eskaini.

\*\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: Injuve (Jóvenes, participación y cultura política, 2011)

EAEko gazteen datuak aztertzean, gazteen kolektiboak aintzat hartuz gero, 20 urtetik beherakoen artean katolikoen ehunekoa handiagoa dela ikusiko dugu (% 41) adin horretatik gorakoen artean baino (20-24 urtekoen artean % 29 eta 25-29 urtekoen artean % 33).

Katoliko direla diotenen ehunekoa handiagoa da nesken kasuan, mutilen kasuan baino (% 37 eta % 31, hurrenez hurren).

Eta gazteak bizi diren lurralde historikoaren arabera, gazte bizkaitarren artean daude katoliko gehien (% 38), eta bigarren postuan arabarrak daude (% 36); aldiz, Gipuzkoan daude gazte katoliko gutxiak (% 26) eta ez-sinestun edo ateo gehien (% 49). Beste erlijio bateko sinestun direla dioten gazte gehiago dago Araban (%10) beste lurraldeetan baino. Kontuan hartu behar da gazte etorkinen bolumenaren ehunekoa ere lurralde horretan da handiena.

## 40. taula

ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERA, SEXUAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ERLIJIO GAJETAN, NOLA DEFINITZEN DUZU ZEURE BURUA?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONAK	EMAK- UMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Mezetara joaten den katolikoa	4	2	6	5	2	5	6	4	2
Mezetara joaten ez den katolikoa	30	29	31	36	27	28	30	34	24
Beste erlijio bateko sinestuna	5	5	4	4	4	6	10	3	4
Jainkoarengan sinesten du, erlijioetan ez	4	4	4	4	3	4	7	3	2
Ez zaio interesatzen, agnostikoa	15	16	14	11	15	17	10	16	15
Ez du sinesten, ateo	39	40	37	36	43	37	36	33	49
Ed/Ee	4	5	4	4	5	4	1	6	3
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Katoliko elizkoi edo beste erlijioetako sinestun direla dioten (inkesta erantzun duten gazte guztien % 9 dira) gazteen erlijio-praktikari dagokionez, % 12 elizara edo otoitz-lekura egunero edo ia egunero joaten da; beste % 12 ez da egunero joaten, baina bai astean behin baino gehiago; % 27 astean behin joaten da eta % 34 astean behin baino gutxiago joaten da. Gainerako % 14ak ez du erantzun.

Datu horiek EAEko gazteen guztizkora eramanez gero, zera ikusiko dugu, EAEko gazteen % 5 elizara edo otoitz-lekura astean behin gutxienez joaten dela. Ehuneko hori 2008koaren (% 5) berdina da eta 1998. urtekoa baino txikiagoa (% 8).

Zenbateko absolututan zifrak txikiak diren arren, beste erlijioetako gazte sinestunak askoz gehiago joaten dira elizara edo otoitz-lekura katoliko elizkoi direla diotenak baino: azken horien kasuan, elizara egunero edo ia egunero joaten denik ez dagoela esan dezakegu baina beste erlijioetako sinestunen ia laurden bat (% 22) egunero joaten da otoitz-lekura.

## 41. taula

GAZTE ERLIJIOSOEN (KATOLIKO ELIZKOIEN EDO BESTE ERLIJIO BATEKO SINESTUNEN) ERLIJIO-PRAKTIKA (%)

(%)	ZEIN MAIZTASUNEZ JOATEN ZARA ELIZARA EDO OTOITZ-LEKURA?			
	GAZTEAK GUZTIRA	GAZTE ERLIJIOSOAK	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA	
			MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATEKO KIDEA
Egunero edo ia egunero	1	12	0	22
Astean behin baino gehiagotan	1	12	8	16
Astean behin	3	27	37	19
Astean behin baino gutxiagotan	3	34	44	27
Ed/Ee	1	14	11	16
Gainerakoak (katoliko ez-praktikatzailerak, ez sinestunak, agnostikoak eta ateoak)	91			
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>145</b>	<b>62</b>	<b>83</b>

Erljioarekiko eta erlijio-praktikarekiko urruntze hori azaltzeko, gazteak erlijioarekiko eszeptiko bihurtzen ari direla esan dezakegu; izan ere, gazteen ia erdiak (% 48) uste du oso egia gutxi dagoela edozein erlijiotan.

Beste % 25ek dio oinarritzko egiak daudela erlijio askotan. Eta % 9ren ustez bakarrik erlijio bat da benetakoa. Gainerako % 17ak ez du iritzirik eman.

Ehuneko horiek eta 2008ak berdintsuak dira; urte hartan, gazte guztien % 48k esan zuen oso egia gutxi dagoela edozein erlijiotan, % 27k uste zuen oinarritzko egiak daudela erlijio askotan, % 8ren ustez bakarrik erlijio bat da benetakoa eta % 17k ez zuen ezer esan.

Erljioetan oso egia gutxi dagoen ideia bereziki zabaldua dago ateo edo ez-sinestun direnen artean (% 70), bai eta indiferente edo agnostiko direla dioten artean ere (% 59).

Erljio askotan oinarritzko egiak dauden ideiarekin bat datoz, batez ere, Jainkoarengan bai baina erlijioetan sinesten ez dutenak (% 48k uste du hori).

Azkenik, bakarrik erlijio bat benetakoa dela uste dute gehien katoliko elizkoi edo praktikanteek (% 40) eta are gehiago beste erlijio batzuetako sinestunek (% 48).

## 42. taula

ERLIJIOEI BURUZKO IRITZIA, ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)

ESALDI HAUETATIK, ZEIN DAGO ZURE IDEIETATIK GERTUEN?							
(%)	GUZTIRA	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
		MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	MEZETARA JOATEN EZ DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATEKO SINESTUNA	JAINKOARENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	EZ ZAIO INTERESATZEN, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Edozein erlijiotan oso egia gutxi dago	48	10	34	4	24	59	70
Erljio askoren baitan funtsezko egiak daude	25	34	36	40	48	24	15
Erljio bakar bat da egiazkoa	9	40	13	47	15	1	1
Ed/Ee	17	16	17	9	13	16	15
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>62</b>	<b>443</b>	<b>83</b>	<b>60</b>	<b>209</b>	<b>585</b>

Erljioa, beraz, ez da elementu garrantzitsua EAEko gazteen artean; gazte gutxi dira sinestunak eta are gutxiago elizkoiak: erdiak baino gutxiagok (% 43) erlijioen bati jarraitzen diola esan du edo erlijio jakinik izan gabe, Jainkoarengan sinesten duela; soilik % 5 joaten da maiz (gutxienez astean behin) elizara edo otoitz-lekura. Horretaz gain, gazteen ia erdia (% 48) eszeptikoa da erlijioen egiei eta dogmei dagokienez.

### 4.3. BALIO SOZIALAK

Jarraian, hainbat egoera azalduko ditugu eta gazteek egoera horien aurrean aldeko edo kontrako jarrera hartzen ote duten aztertuko dugu. Horri esker, EAEko gazteen artean gaur egun zein balio diren nagusi ikusiko dugu eta azken urteotan zer nolako bilakaera izan duten.

#### 4.3.1. Erljioa irakastea ikastetxeetan

1978ko Konstituzioaren arabera<sup>32</sup>, Espainia herrialde akonfesionala da, baina 1979. urtean Vatikanorekin hainbat akordio sinatu ziren hezkuntza-sistema osoan erljioa irakatsiko zela bermatzeko. Gaur egun, derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publikoetan «erljioa» ikasgaia ala aukerako beste ikasgai bat hauta daiteke; beste ikasgai hori ikastetxeak zehazten du, parametro jakin batzuen barruan

<sup>32</sup> 1978ko Espainiako Konstituzioa [linean]: <http://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1978-31229> [Kontsulta: 2013/09/27]

betiere. Zenbait mugimendu edo elkartek erlijioa ikastetxe publikoetatik desagertzea nahi du, familia-  
ren edo parrokiaren esparrura soilik mugatzeko; EAEn, *Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar* plataforma  
aipatu behar dugu. Plataforma horretako kideak ez daude ados erlijioa ikasi nahi ez duten ikasleek bes-  
te ikasgai bat nahitaez ikasi behar izatearekin.

EAEko gazteak ikastetxeetan erlijioa irakastearen kontra daudela esan dezakegu, alde baino  
gehiago, baina ez dago iritzi nagusi bat: % 48 kontra dago eta % 38 alde, eta gainerako % 14ak ez daki  
edo ez du erantzun. Eta ez da harritzekoa, gazteak erlijioarekin loturiko sinesmen eta praktikatik zein  
urrun dauden ikusita.

Ikastetxeetan erlijioa irakastearen kontrako jarrera indartu egin da azken urteotan: 2008an % 42  
ziren eta 2012an % 48.

Hala ere, Espainiako gazteak EAEkoak baino kritikoagoak dira ikastetxeetan erlijioa irakasteari  
dagokionez. Izan ere, horren kontra dauden gazteen ehunekoak bi kolektiboetan antzekoak izan arren  
(% 49 Espainian eta % 48 EAEn), ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde dauden ehunekoak apur bat  
txikiagoak dira gazte espainiarren artean (% 31 eta % 38, hurrenez hurren).

#### 43. taula

IKASTETXEETAN ERLIJIJOA IRAKASTEARI BURUZKO IRITZIA.  
BILAKAERA ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN KONPARATZEA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, IKASTETXEETAN ERLIJIJOA IRAKASTEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN			
(%)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2008*	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2012**
Alde	38	40	31
Kontra	48	42	49
Ed/Ee	14	17	20
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>5000</b>

\* EAEko gazteei dagozkien 2008ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2008)

\*\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: INJUVE (Juventud en España 2012)

Sexua, adina edo lurralde historikoa ez dira faktore erabakigarriak kolektiboen arteko iritzi-des-  
berdintasunei dagokienez. Baina badira eraginik baduten aldagaiak: egindako ikasketak, hartutako ja-  
rrera ideologikoa edo erlijioari dagokionez norberaren burua nola definitzen den.

Ikasketa-maila handiagoa den heinean, ikastetxeetan erlijioa irakastearen kontra daudenak  
gehiago dira: horren kontra dauden gazteak % 43 dira derrigorrezko ikasketak egin dituztenen artean  
baina % 52ra iristen dira goi-mailako ikasketak egin dituztenen kasuan.



Politikan eskuineko edo zentrokoak direla diotenen artean, ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde daudenak kontra daudenak adina dira (% 42 bi kasuetan). Aldiz, ezkerreko gazteen artean kontra daudenak (% 60) ikastetxeetan erlijioa irakastearen alde daudenak baino bi aldiz gehiago dira (% 29).

#### 44. taula

IKASTETXEETAN ERLIJIJOA IRAKASTEARI BURUZKO IRITZIA, BUKATUTAKO  
IKASKETA-MAILAREN ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, IKASTETXEETAN ERLIJIJOA IRAKASTEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN							
(%)	IKASKETA-MAILA				EZKER-ESKUIN ARDATZA		
	GUZTIRA	DERRIGO- RREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	EZKERREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Alde	38	42	37	34	29	42	45
Kontra	48	43	50	52	60	42	37
Ed/Ee	14	15	13	14	11	16	18
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

Nolanahi ere, eragin handieneko faktorea erlijioari buruz hartutako jarrera da. Gazte katoliko eliz-koiek eta beste erlijioetako sinestunek defendatzen dute gehien ikastetxeetan erlijioa irakastea (% 73 eta % 70, hurrenez hurren). Gazte ateoek, ordea, kontrako jarrera dute gehienbat (% 69).

#### 45. taula

IKASTETXEETAN ERLIJIJOA IRAKASTEARI BURUZKO IRITZIA,  
ERLIJIJOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, IKASTETXEETAN ERLIJIJOA IRAKASTEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN							
(%)	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA						
	GUZTIRA	MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	MEZETARA JOATEN EZ DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATEKO SINESTUNA	JAINKOARENGAN SINESTEN DU, ERLIJIJOETAN EZ	EZ ZAIO INTERESATZEN, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Alde	38	73	54	70	62	36	18
Kontra	48	12	34	19	34	49	69
Ed/Ee	14	14	12	11	4	15	14
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>62</b>	<b>443</b>	<b>83</b>	<b>60</b>	<b>209</b>	<b>585</b>

### 4.3.2. Eutanasia

Espanian, legerian ez da aurreikusten, ez eta ezartzen ere eutanasiari buruzko berariazko erregulazio osaturik, eta horrelako portaerak aipatzen dituen arau-testu bakarra Zigor Kodea da; zehapen zigorgarria dagoela aipatu baino ez du egiten. Hainbat mugimendu sozial eta politikok, hain justu, eutanasia despenalizatzea eskatzen du.

Eutanasiari buruz zer pentsatzen duten galdetu diegu gazteei eta EAEko lau gaztetatik hiruk (% 73) esan du gaixo sendaezin bati hiltzen laguntzearen aldeko dela, baldin eta gaixoak eskatzen badu. % 17 kontra dago eta gainerako % 10ak ez du iritzirik eman.

Eutanasiaren aldeko jarrerak behera egin du azken urteotan: 2008an % 82 eta 2012an % 73. 2008ko inkesta hauteskunderen atariko sasoian egin zen eta gai hori (eutanasiaren despenalizazioa) eztabaida politikoan agertu zen; beraz, agian horrek gaiari buruzko hausnarketa eragin zuen gazteen artean eta 2012ko inkesta egitean ez da horrelakorik gertatu.

Bestalde, Espainiako gazteen artean gehiago dira eutanasiaren alde daudenak (% 77 Espainian eta % 73 EAEn).

#### 46. taula

EUTANASIARI BURUZKO IRITZIA. BILAKAERA ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN KONPARATZEA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, EUTANASIAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN, HAU DA, GAIKO SENDAEZINARI HILTZEN LAGUNTZEA, BERAK HALA ESKATZEN BADU			
(%)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2008*	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2012**
Alde	73	82	77
Kontra	17	9	10
Ed/Ee	10	9	13
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>5000</b>

\* EAEko gazteei dagozkien 2008ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2008)

\*\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: INJUVE (Juventud en España 2012)

Eutanasiaren alde daudenak gehiago dira mutilen artean nesken artean baino (% 76 eta % 70, hurrenez hurren).

Bukatutako ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da eutanasiaren alde daudenen ehunekoa (% 78 goi-mailako ikasketak dituztenen kasuan).

Ezkerreko direla dioten gazteek eskuineko edo zentroko direla diotenen baino gehiago defendatzen dute eutanasia (% 84 eta % 68, hurrenez hurren).

## 47. taula

EUTANASIARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN  
ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, EUTANASIAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN, HAU DA, GAIXO SENDAEZINARI HILTZEN LAGUNTZEA, BERAK HALA ESKATZEN BADU									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		IKASKETA-MAILA			EZKER-ESKUIK ARDATZA		
		GIZONAK	EMAKU- MEAK	DERRIGO- RREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	EZKE- RREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Alde	73	76	70	68	74	78	84	68	63
Kontra	17	15	18	21	15	13	9	25	21
Ed/Ee	10	9	12	11	11	9	7	7	15
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

Erligioari dagokionez hartutako jarrerak ere alde garrantzitsuak eragiten ditu eutanasiari buruz. Honako hauek eutanasiaren alde daude: gazte ateoak (% 81), Jainkoarengan bai baina erlijioetan sinesten ez dutenak (% 80), agnostikoak edo indiferenteak (% 79) eta katoliko ez-elizkoiak (% 70). Katoliko elizkoi edo praktikanteen artean, ez dago jarrera nagusi bat baina gehiago dira eutanasiaren alde daudenak (% 48), kontra daudenak baino (% 41). Azkenik, katolikoa ez den beste erlijio bateko sinestunak eutanasiaren kontra daudela esan dezakegu, alde baino gehiago (% 47 kontra eta % 37 alde).

## 48. taula

EUTANASIARI BURUZKO IRITZIA, ERLIJOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, EUTANASIAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN, HAU DA, GAIXO SENDAEZINARI HILTZEN LAGUNTZEA, BERAK HALA ESKATZEN BADU							
(%)	GUZTIRA	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
		MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	MEZETARA JOATEN EZ DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATEKO SINESTUNA	JAINKOARENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	EZ ZAIO INTERESATZEN, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Alde	73	48	70	37	80	79	81
Kontra	17	41	19	47	15	13	10
Ed/Ee	10	11	11	16	5	8	9
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>62</b>	<b>443</b>	<b>83</b>	<b>60</b>	<b>209</b>	<b>585</b>

### 4.3.3. Abortu libre eta borondatezkoa

Abortuari buruzko eztabaida behin eta berriz gertatzen ari da azken hamarkadetan. 2010. urte-tik aurrera, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoa indarrean dago. Lege horren bitartez, haurdunaldiko lehen 14 astetan eginez gero, abortua despenalizatuta dago. Aurreko legea 1985. urtekoa zen eta kasu jakin batzuetan baino ez zuen despenalizatzen abortua. Alderdi Popularrak 2011ko amaieran lortu zuen Espainiako presidentetza eta indarreko legea aldatzeko proposamena egin du, gehiago mugatzeko eta berriz ere kasu jakin batzuk ezartzeko.

Testuinguru horretan, indarreko legeriari jarraiki, abortu libre eta borondatezkoari buruz zer uste duten galdetu diegu gazteei. Gazteen % 79k alde dagoela esan du, % 14k kontra eta gainerako % 7ak ez daki edo ez du erantzun.

Beraz, EAEko gazteria abortu libre eta borondatezkoaren aldekoago da orain, duela lau urte baino (2008an % 76 zen abortuaren aldeko). Eutanasiaren gaiarekin bezalaxe, inkesta egiteko garaian gaiari buruzko eztabaida politiko eta soziala gertatzen ari zenez, gazteek abortuaren aldeko jarrera handiagoa hartu dute.

EAEko gazteak abortu librearen alde daude, Espainiakoak baino nabarmen gehiago. Estatu osoan, % 57 abortatzeko askatasun osoa izatearen alde dago eta % 26 horren kontra.

#### 49. taula

ABORTUARI BURUZKO IRITZIA. BILAKAERA ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN KONPARATZEA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, ABORTU LIBRE ETA BORONDATEZKOAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN			
(%)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2008*	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2012**
Alde	79	76	57
Kontra	14	15	26
Ed/Ee	7	9	17
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>5000</b>

\* EAEko gazteei dagozkien 2008ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2008)

\*\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: INJUVE (Juventud en España 2012). Espainian "abortatzeko askatasun osoa egotearen alde ala kontra zauden" galdetzen zen.

Abortu libre eta borondatezkoaren aldeko jarrerak nagusi dira bi sexuetako gazteen artean, baina nesken jarrera aldekoagoa da mutilena baino (% 81 eta % 77, hurrenez hurren).

Ikasketa-mailak gora egiten duen heinean, abortatzeko askatasunaren aldeko jarrerak areagotu egiten dira.

Ideologikoki ezkerrekoak direla dioten gazteek hein handiagoan defendatzen dute abortu libre, zentroko edo eskuinekoak direla diotenen baino (% 88 eta % 71, hurrenez hurren).

### 50. taula

ABORTUARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN  
ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, ABORTU LIBRE ETA BORONDATEZKOAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		IKASKETA-MAILA			EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		GIZONAK	EMAKU- MEAK	DERRIGO- RREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	EZKE- RREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Alde	79	77	81	75	78	85	88	71	73
Kontra	14	14	14	19	14	9	8	23	19
Ed/Ee	7	8	5	7	8	6	5	6	9
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

Abortuaren aldeko jarrera nagusiaren salbuespen gisa, gazte katoliko elizkoiaren artean abortuaren aldeko eta kontrako jarrerak parekatu samarrak daudela esan dezakegu. Bestalde, katolikoa ez den beste erlijio bateko sinestun gehienak abortuaren kontra daude.

## 51. taula

ABORTUARI BURUZKO IRITZIA, ERLIJIJOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, ABORTU LIBRE ETA BORONDATEZKOAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN							
(%)	GUZTIRA	AUTODEFINIZIO ERLIJIJOSOA					
		MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	MEZETARA JOATEN EZ DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATEKO SINESTUNA	JAINKOARENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	EZ ZAIO INTERESATZEN, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Alde	79	45	80	31	60	85	89
Kontra	14	44	14	62	38	6	7
Ed/Ee	7	11	6	7	1	8	4
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>62</b>	<b>443</b>	<b>83</b>	<b>60</b>	<b>209</b>	<b>585</b>

Datuak kontuan izanik eta laburpen bat egitearren, EAeko gazteak indarreko legeriarekin bat datozeela esan behar dugu, inkesta egin den unean bederen.

## 4.3.4. Heriotza-zigorra

Espanian, heriotza-zigorra ezeztatu egin zen, edozein zirkunstantziarekin, 1995. urtean, Lege Organiko baten bidez. Azken exekuzioetan ETAko bi kide eta FRAPeko hiru hilarazi zituzten, 1975eko irailaren 27an fusilatuta.

Alabaina, beste zenbait herrialdetan indarrean dago oraindik eta, beraz, heriotza-zigorraren alde edo kontra dauden galdetu diegu gazteei.

2012. urtean, EAeko gazteen % 77 heriotza-zigorraren kontra zegoen. Aitzitik, % 16 alde zegoen eta gainerako % 8ak ez du ezer esan.

Azken urteotako joerari erreparatuta, heriotza-zigorraren alde dauden gazteak gero eta gehiago direla konturatu gara eta hori kezkatzeko moduko datua da: 2008an % 9 ziren eta 2012an % 16.

## 52. taula

HERIOTZA-ZIGORRARI BURUZKO IRITZIA. BILAKAERA ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN KONPARATZEA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, HERIOTZA-ZIGORRAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN			
(%)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2008*	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2012**
Alde	16	9	43
Kontra	77	86	42
Ed/Ee	8	5	15
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>5000</b>

\* EAeko gazteei dagozkien 2008ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2008)

\*\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: INJUVE (Juventud en España 2012). Espainian, hau zen galdera zehatza: "oso delitu larriak dituztenei heriotza-zigorra aplikatzearen alde ala kontra zauden".

Estatu osoko datuak bildu ziren *Juventud en España 2012* izeneko txostenean, eta horren arabera, heriotza-zigorraren aldeko ehunekoa ikaragarria da (% 43), nahiz eta «delitu oso larriak egin dituztenei» soilik ezarri.

Gazteen sexuak edo adinak ez du eraginik heriotza-zigorraren aldeko edo kontrako jarrera izatearekin. Ikasketa-mailak, ordea, eragina du, antza: ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da heriotza-zigorraren aldeko jarrera.

Jarrera ideologikoaren arabera ere badira aldeak. Zentroko edo eskuinekoak direla dioten gazteek ezkerrekoek baino hein handiagoan defendatzen dute heriotza-zigorra, nahiz eta heriotza-zigorraren aldeko jarrerak gutxiengo diren kasu guztietan.

## 53. taula

HERIOTZA-ZIGORRARI BURUZKO IRITZIA, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN  
ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, HERIOTZA-ZIGORRAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN							
(%)	GUZTIRA	IKASKETA-MAILA			EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		DERRIGORREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	EZKERREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Alde	16	20	14	12	13	20	17
Kontra	77	73	77	81	82	70	74
Ed/Ee	8	7	9	7	5	10	9
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

Erljioari dagokionez hartutako jarrera aztertuz gero, gazte gehienak heriotza-zigorraren aurka agertu dira kolektibo guztietan, baina zigor hori aplikatzearen alde egongo lirakeenak zertxobait gehiago dira gazte katolikoan (elizkoi izan ala ez izan) artean eta Jainkoarengan bai, baina erlijioetan sinesten ez dutela diotenen artean.

## 54. taula

HERIOTZA-ZIGORRARI BURUZKO IRITZIA, ERLIJOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, HERIOTZA-ZIGORRAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN							
(%)	GUZTIRA	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
		MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	MEZETARA JOATEN EZ DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATEKO SINESTUNA	JAINKOARENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	EZ ZAIO INTERESATZEN, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Alde	16	20	20	11	34	9	13
Kontra	77	74	72	82	60	86	80
Ed/Ee	8	6	8	7	6	6	6
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>62</b>	<b>443</b>	<b>83</b>	<b>60</b>	<b>209</b>	<b>585</b>




### 4.3.5. Ideia politiko edo erlijiosoak indarraren bidez defendatzea

Ideia politiko edo erlijiosoak indarraren bidez defendatzearen aldeko jarrera ere nabarmen indartu da: 2008an % 15 eta 2012an % 26.

Datu hori bitxia dela esan dezakegu garai hartako testuinguruan, 2011ko udazkenean ETak armen indarkeria behin betiko utziko zuela iragarri baitzuen. Baina 2010. urtean herrialde arabiarretan matxinadak hasi ziren, herritarrek bizi-baldintzak hobetzea eta erregimen politiko demokratikoak eskatzen zituztelako, eta matxinada horiei buruzko informazioa eta irudiak mundu osora zabaldu zirenez, agian eragina izan zuten gazteengan, giza eskubideak eta bidezkoztat jotako helburu politikoak defendatzeko indarkeria erabiltzeari buruzko ikusmoldeetan.

Hori horrela izanik, 2012an EAEko gazteen % 26 ideia erlijioso edo politikoak defendatzeko indarra erabiltzearen alde dago. % 62 kontra dago eta gainerako % 12ak ez du ezer esan.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Ez dago alde handirik kolektiboen artean, gai horri dagokionez. Datu bat nabarmentzekotan, zera aipatuko dugu, ikasketa-mailak gora egiten duen heinean ideia politiko edo erlijiosoak indarraren bidez defendatzearen aldekoak gero eta gutxiago direla: % 29 derrigorrezko ikasketak bukatu dituztenen artean, % 26 derrigorrezko ikasketen ondoko bigarren mailako ikasketak bukatu dituztenen artean eta % 23 goi-mailako ikasketak (unibertsitateko ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak) dituztenen artean.

### 4.3.6. Hutsik dauden etxebizitzak okupatzea

2011. urtean, EAEko etxebizitzaren % 8,4 hutsik zegoen<sup>33</sup>. Aldi berean, etxebizitza erosteko arazoak areagotu egin ziren banku-erakundeek gero eta baldintza zorrotzagoak eskatzen dituztelako hipoteka-kredituak emateko eta, horren ondorioz, 2011n eta 2012an formalizatutako hipoteken kopurua nabarmen murriztu da. Alokairuaren kasuan, errentak oso garestiak dira (hilean ia 900 euro, 2012ko lehen hiruhilekoko batez bestea).

Testuinguru horretan, EAEko gazteen erdia baino gehiago (% 57) hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen alde dago.

Okupazioaren aldeko jarrera horrek behera egin du azken lau urteotan (% 64tik % 57ra). Kontraesana dela esan dezakegu; izan ere, 2012an hipoteka-mailegu bat lortzeko zailtasunak askoz ere handiagoak baitira 2008an baino, eta hipotekak ez ordaintzeagatik etxerik gabe geratutakoen kasuak ere asko areagotu dira. Baina ez dugu ahaztu behar salgai dauden etxebizitza libreen (erabiliak eta berriak) prezioa maila gorenera iritsi zela EAEn 2007an (4.284 € metro koadroa, batez beste, eta 2012ko lehen hiruhilekokoan 3.825 €, batez beste) eta etxebizitza, arazo pertsonaltzat hartuta, 2008an aipatu zutela gehien gazteek.

Nolanahi ere, hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen aldekoak gehiago dira EAEn (% 57), Espainian baino (% 41).

#### 55. taula

HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK OKUPATZEARI BURUZKO IRITZIA.  
BILAKAERA ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN KONPARATZEA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK OKUPATZEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN			
(%)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2008*	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2012**
Alde	57	64	41
Kontra	31	25	44
Ed/Ee	12	11	15
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>5000</b>

\* EAEko gazteei dagozkien 2008ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2008)

\*\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: INJUVE (Juventud en España 2012)

<sup>33</sup> Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak argitaratu zituen datu horiek prentsa-ohar batean eta hutsik dagoen etxebizitzari buruzko 2011ko estatistikei dagozkien [linean] [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse03/eu/contenidos/nota\\_prensa/ovv\\_v\\_vv\\_np\\_2011/eu\\_v\\_sd\\_sv/adjuntos/NP-EVV-2011-eu.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse03/eu/contenidos/nota_prensa/ovv_v_vv_np_2011/eu_v_sd_sv/adjuntos/NP-EVV-2011-eu.pdf) [Kontsulta: 2012/09/30]

Kolektiboen arteko aldeak aztertuz gero, gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago defendatzen dute hutsik dauden etxebizitzak okupatzea (% 60 eta % 53, hurrenez hurren). Adinean gora egin ahala, behera egiten du hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen aldeko gazteen ehunekoak: 20 urtetik beherakoen artean % 59 dira eta 25-29 urtekoen artean % 55.

Lurraldearen arabera, alde nabarmenak agertu dira gai horren inguruan. Hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen aldeko gazte gehien Gipuzkoan daude (% 63) eta Araban gutxien (% 50).

Egia da Gipuzkoan daudela etxebizitza huts kopuru handienak (% 10,2) baina ehuneko hori oso antzekoa da Araban ere (% 9,7). Xehetasunei gehiago erreparatuta, inor bizi ez den etxebizitzak hartzen baditugu (hutsik dauden etxebizitzaren multzoan sasoikakoak ere sartzen baitira), Gipuzkoan % 7,5 dira, EAEko gainerako lurraldeetan baino gehiago (% 5,4 Araban eta % 4,8 Bizkaian)<sup>34</sup>. Horretaz gain, Etxebizitza Sailak argitaratutako datuen arabera, 2011. urtean lehen etxebizitza eskuratzeko premiaren indizea (lehen etxebizitza eskuratu beharrean dauden pertsonak bizi diren etxeen unitateen ehunekoak) Gipuzkoan da handiena (10,4) eta Araban txikiena (6,6)<sup>35</sup>, eta etxebizitza babestuen eskaintza, aldiz, txikiena da Gipuzkoako lurraldean.

Hortaz, ondorio gisa zera esan dezakegu, Gipuzkoan etxebizitza-premia handiena izanik eta inor bizi ez den etxebizitzaren ehunekoak ere handiena baldin bada, ez dela harritzekoa gazte gipuzkoarrak hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen aldekoenak izatea.

### 56. taula

HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK OKUPATZEARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK OKUPATZEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Alde	57	60	53	59	57	55	50	55	63
Kontra	31	28	34	28	30	33	38	32	26
Ed/Ee	12	12	13	13	13	12	12	13	11
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

<sup>34</sup> Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2011n egindako estatistika horien arabera.

<sup>35</sup> Etxebizitzaren Euskal Behatokia. *EAEko etxebizitzaren behar eta eskariari buruzko inkesta 2011. Emaitzen txostena: 2013ko martxoa* [linean]. [https://euskadi.net/r41-ovpe01/eu/contenidos/informe\\_estudio/ovv\\_personas\\_endv11/eu\\_ovv\\_info/adjuntos/Informe\\_Necesidades\\_Vivienda\\_2011\\_eu.pdf](https://euskadi.net/r41-ovpe01/eu/contenidos/informe_estudio/ovv_personas_endv11/eu_ovv_info/adjuntos/Informe_Necesidades_Vivienda_2011_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/09/30]

Ezkerrekoak direla dioten gazteek eskuineko edo zentrokoak direla diotenen baino gehiago defendatzen dute hutsik dauden etxebizitzak okupazioa (% 68 eta % 42, hurrenez hurren). Gazteen jarrera ideologikoa aztertzen duen III. kapituluak ikus daitekeenez, Gipuzkoa da ezkerreko gazte gehien dauden lurraldea eta horrek ere eragina izan dezake, agian, gazte gipuzkoarrak etxebizitzak okupazioaren aldekoen izatean.

Aldiz, eta *a priori* besterik pentsa daitekeen arren, gazte emantzipatuen eta ez-emantzipatuen arteko bereizketak ez du alde handirik eragiten gai honi dagokionez.

### 57. taula

HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK OKUPATZEARI BURUZKO IRITZIA,  
EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKOPENAREN ETA EMANTZIPAZIOAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK OKUPATZEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN						
(%)	GUZTIRA	EZKER-ESKUIN ARDATZA			EMANTZIPAZIOA	
		EZKERREKOAK	ESKUINEKOAK + ZENTROKOAK	ED/EE	EMANTZIPATUAK	EMANTZIPATU GABEAK
Alde	57	68	42	50	58	56
Kontra	31	23	46	34	32	31
Ed/Ee	12	10	12	16	10	13
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>	<b>328</b>	<b>1138</b>

### 4.3.7. Kanabisa legeztatzea

Espanian, *kanabisaren* kontsumoa honako kasu honetan dago despenalizatua: kontsumo indibiduala denean eta pribatuan egiten denean.

2011. urtearen amaieran, Eusko Jaurlaritzak urrats bat gehiago egin nahi zuela iragarri zuen eta substantzia horren laborantza, salmenta eta kontsumoa arautu nahi zuela adierazi zuen. Proposamena bertan behera geratu zen baina komunikabideetan albiste izan zen eta gizartean ere eztabaida eragin zuen. Testuinguru horretan, gaiari buruz zer pentsatzen duten galdetu diegu gazteei.

EAEko hamar gaztetatik seik (% 61) *kanabisa* legeztatzearen alde daudela diote. Aldiz, % 26 legeztatzearen aurka dago eta gainerako % 13ak ez du erantzun.

Mutilek neskek baino gehiago defendatzen dute *kanabisa* legeztatzea (% 67 eta % 53, hurrenez hurren). Izan ere, mutilek gehiago kontsumitzen dute *kanabisa* neskek baino eta legeztatzearen datua bat dator horrekin; Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan agertzen da mutilen kontsumoa handiagoa dela neskena baino eta estatistika hori Droga-mendetasunen Euskal Behatokiak emandako

datuetan oinarrituta dago; 2010eko datuak dira eta, horien arabera, 15-29 urteko mutilen % 10,5ek eta nesken % 4,2k egunero edo, gutxienez, astean lau egunetan kontsumitzen zuen *kanabisa*<sup>36</sup>).

20-29 urteko gazteek *kanabisa* legeztatzearen aldeko jarrera handiagoa dute (% 62), 20 urte bete gabekoek baino (% 56).

Gipuzkoan, *kanabisa* legeztatzearen aldeko jarrerak (% 67) zabalduagoak daude Bizkaian (% 59) eta Araban (% 52) baino.

### 58. taula

KANABISA LEGEZTATZEARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, KANABISAREN LEGALIZAZIOAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Alde	61	67	53	56	62	62	52	59	67
Kontra	26	21	32	27	26	26	38	26	22
Ed/Ee	13	11	15	17	12	12	10	15	11
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>34</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Goi-mailako ikasketak dituzten gazteen artean legeztatzearen aldekoak gehiago dira (% 65) derrigorrezko ikasketak edo derrigorrezko ikasketen ondoko bigarren mailako ikasketak dituztenen artean baino (% 59, bi kasuetan).

Ezkerrekoak direla diotenek ere eskuineko edo zentrokoak direla diotenek baino hein handiagoan defendatzen dute *kanabisa* legeztatzea (% 70 eta % 50, hurrenez hurren).

<sup>36</sup> Gazteen Euskal Behatokia. *Estatistikak* [linean]. <http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7650x/eu/estadistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta: 2013/09/30]

## 59. taula

KANABISA LEGEZTATZEARI BURUZKO IRITZIA, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN  
ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, KANABISAREN LEGALIZAZIOAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN							
(%)	GUZTIRA	IKASKETA-MAILA			EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		DERRIGORREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	EZKERREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Alde	61	59	59	65	70	50	54
Kontra	26	27	28	23	20	39	28
Ed/Ee	13	14	13	12	10	10	18
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

Nolanahi ere, EAEko gazteen kolektibo guztietan *kanabisa* legeztatzearen aldekoak gehiago dira kontrakoak baino.

#### 4.3.8. Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza

Espanian, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza 2005. urtean legeztatu zen. Harrezkero, 2012. urtera bitarte, EAEn sexu bereko pertsonen arteko 750 ezkontza izan dira.

2012. urtean, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari buruz zer pentsatzen duten galdetu diegu EAEko gazteei eta gehien-gehienek (% 87) alde daudela esan dute, baina bat edo beste kontra ere agertu da (% 9).

Sexu bereko pertsonak ezkontzearen aldeko gazteen ehunekoa ez da aldatu 2008. urteaz geroztik (% 86).

EAEko gazteen eta Espainiako gazteen datuak alderatzen baditugu, EAEn ezkontza homosexua-laren aldeko jarrera handiagoa da Espainia osoan baino (% 78)

## 60. taula

SEXU BEREKO PERTSONEN ARTEKO EZKONTZARI BURUZKO IRITZIA.  
BILAKAERA ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN KONPARATZEA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, SEXU BEREKO PERTSONAK ELKARREKIN EZKONTZEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN			
(%)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2008*	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2012**
Alde	87	86	78
Kontra	9	9	12
Ed/Ee	4	6	10
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>5000</b>

\* EAeko gazteei dagozkien 2008ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2008)

\*\* Espainiako gazteei dagozkien datuen iturria: INJUVE (Juventud en España 2012)

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldeko jarrera zabalduago dago nesken artean, mutilen artean baino eta bi kolektiboen artean hamar puntuko aldea dago.

Adinak ez du alde handirik eragiten gai honetan, baina bai ikasketa-mailak: goi-mailako ikasketak dituztenen artean % 94 alde dago eta derrigorrezko ikasketak bukatu dituztenen artean, aldiz, % 82.

Jarrera ideologikoak ere aldeak eragiten ditu; izan ere, ezkerrekoak direla diotenek (% 94) eskuineko edo zentrokoak direla diotenek eta ardatz horretan kokatzen ez direnek (% 82, bi kasuetan) baino hein handiagoan defendatzen dute sexu bereko pertsonen arteko ezkontza.

Baina, zalantzarik gabe, kolektiboen artean alde nabarmenenak eragiten dituen aldagaia jarrera erlijiosoak da. Sinestun ez direnak, ateoak, agnostikoak edo indiferenteak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertu dira (% 90etik gora), baina katolikoa ez den beste erlijio bateko sinestunen artean, aldiz, soilik % 35. Katoliko elizkoi edo praktikanteen artean, aldeko jarrera txikiagoa da batez besteko orokorra baino, baina hala ere gehiago dira (% 71), nahiz eta eliza katolikoaren kristau-ikasbidean ez den ezkontza mota hori onartzen.

## 61. taula

SEXU BEREKO PERTSONEN ARTEKO EZKONTZARI BURUZKO IRITZIA,  
SEXUAREN, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, SEXU BEREKO PERTSONAK ELKARREKIN EZKONTZEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		IKASKETA-MAILA			EZKER-ESKUIK ARDATZA		
		GIZONAK	EMAKU- MEAK	DERRIGO- RREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORRENGO BIGARRIN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	EZKE- RREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Alde	87	82	92	82	87	94	94	82	82
Kontra	9	12	6	13	8	5	5	11	12
Ed/Ee	4	6	2	5	5	1	1	7	6
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

## 62. taula

SEXU BEREKO PERTSONEN ARTEKO EZKONTZARI BURUZKO IRITZIA,  
ERLIJIOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, SEXU BEREKO PERTSONAK ELKARREKIN EZKONTZEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN							
(%)	GUZTIRA	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
		MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	MEZETARA JOATEN EZ DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATEKO SINESTUNA	JAINKOARENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	EZ ZAIO INTERESATZEN, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Alde	87	71	88	35	84	94	93
Kontra	9	20	7	61	11	4	5
Ed/Ee	4	8	5	4	5	3	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>62</b>	<b>443</b>	<b>83</b>	<b>60</b>	<b>209</b>	<b>585</b>



### 4.3.9. Sexu-aldaketa legala

Sexu-aldaketa zera da, sexua berregokitzeko kirurgia egitea, hau da, sexu-organoak berreraikitze metodo kirurgikoak eta hormona-tratamenduak jasotzea pertsonaren itxura fisikoa haren genero psikologikoarekin bat etor dadin.

Espanian, 2007. urtean, 3/2007 Legea<sup>37</sup> onartu zen honako helburu honekin: Erregistro Zibilean sexuaren inskripzioa aldatzeko bete behar diren baldintzak arautzea, aipatutako inskripzioa eta interesatuaren genero-identitatea bat ez datozenean. Lege honek izena aldatzeko aukera ere ematen du, hain zuzen ere, eskuratu nahi den sexuari dagokion izena jarri ahal izateko aukera.

Eta 2009. urtean sexua berregokitzeko lehen ebakuntza egin zen Osakidetzako sare publikoko ospitale batean (Gurutzetan). Ordura arte, osasun publikoan tratamendu hormonola eta psikologikoa baino ez ziren sartzen, hau da, transexualen kolektiboa urte luzez eskatzen ari zen zerbitzu osoa ez zen sartzen.

Testuinguru berri horretan, aldatu ote da gazteen artean sexu-aldaketari buruzko iritzia?

2012an gazteen % 81 dago sexu-aldaketa legalaren alde, 2008an baino apur bat gehiago (% 78), eta sexu-aldaketa legez onartzearen aurkakoak % 12 dira oraindik ere.

Sexu-aldaketa legalaren alde daude aztergai ditugun kolektibo guztiak, bat izan ezik: beste erlijio batzuetako sinestunak; kasu horretan, gehiengoa sexu-aldaketaren aurka dago (% 61).

Legezko sexu-aldaketaren aldeko jarrera handiena agertzen dute emakume gazteek (% 88, gizon gazteek baino hamalau puntu gehiago), goi-mailako ikasketak dituzten gazteek (% 89), ezkerrekoak direla diotenen (% 89) eta agnostiko (% 90) edo ateoek (% 86).

---

<sup>37</sup> 3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexuari buruzko erregistro-aipamenaren zuzenketa arautzen duena [linean]. <http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/16/pdfs/A11251-11253.pdf> [Kontsulta: 2013/09/30]

## 63. taula

SEXU-ALDAKETA LEGALARI BURUZKO IRITZIA, SEXUAREN,  
BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, SEXU-ALDAKETA LEGALAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		IKASKETA-MAILA			EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		GIZONAK	EMAKU- MEAK	DERRIGO- RREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	EZKE- RREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Alde	81	74	88	74	80	89	89	72	74
Kontra	12	16	8	17	12	8	7	19	16
Ed/Ee	7	10	4	9	8	3	4	9	10
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

## 64. taula

SEXU-ALDAKETA LEGALARI BURUZKO IRITZIA, ERLIJOARI DAGOKIONEZ HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA (%)


ORAIN, ESADAZU, ZUK ZEUK EGINGO ZENUKEENA GORABEHERA, SEXU-ALDAKETA LEGALAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDEN							
(%)	GUZTIRA	AUTODEFINIZIO ERLIJIOSOA					
		MEZETARA JOATEN DEN KATOLIKOA	MEZETARA JOATEN EZ DEN KATOLIKOA	BESTE ERLIJIO BATEKO SINESTUNA	JAINKOARENGAN SINESTEN DU, ERLIJIOETAN EZ	EZ ZAIO INTERESATZEN, AGNOSTIKOA	EZ DU SINESTEN, ATEOA
Alde	81	67	81	30	73	90	86
Kontra	12	25	12	61	21	6	8
Ed/Ee	7	9	7	9	5	4	6
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>62</b>	<b>443</b>	<b>83</b>	<b>60</b>	<b>209</b>	<b>585</b>

## 4.4. AUZOKIDEEKIKO TOLERANTZIA

Auzokoen artean gizarte-kolektibo jakin batzuk izateak mesfidantza eragiten badu, gure gizartean zer nolako aurreiritziak ditugun konturatuko gara. Horregatik, hainbat kolektibo auzoko izatea axola izango ote litzaiekeen galdetu diegu gazteei.

29. grafikoa

AUZOKIDEEKIKO INTOLERANTZIA: AUZOKOEN ARTEAN HAINBAT KOLEKTIBO IZATEAREN AURKA EGOTEA (%)



EAEko gazteen arabera, gehiengoari ez zaio axola auzokoak homosexualak (gay edo lesbianak), atzerriko etorkinak, poliziak, militarrek, ezker muturrekoak edo kartzelan egon den norbait izatea. Gazteen erdiak baino gehiagok ez du arazorik auzoan prostitutak edo gigoloak, ijitoak edo drogazaleak baldin badaude. Aitzitik, gehiengoak ez luke nahi auzokoak eskuin muturrekoak edo neonaziak izatea.

Eta hain justu gizarte-talde horiek auzoan bizitzea axola zaienei erreparatuta (bestela esateko, gizarte-talde horiek gaitzesten dituztenei), talde bakoitzarekiko intolerantziaren ehunekoak aipatuko ditugu.

Gazteen artean, intolerantzia-ehunekorik (% 62) handiena eskuin muturreko edo neonazien kasuan sortzen da. Bigarren postuan drogazaleak (% 43) daude eta horien atzetik ijitoak (% 41). % 35ek ez luke nahi auzoan prostitutak edo gigoloak izatea, % 30ek militarrek, beste % 30ek kartzelan egondako norbait, % 26k ezker muturrekoak, % 24k poliziak, % 16k atzerriko etorkinak eta % 11k homosexualak.

Jarraian, azken hogeita bost urteetan auzokideekiko intolerantziak gazteengan zer nolako bilakaera izan duen aztertuko dugu (ikus 30. grafikoa).

Eskuin muturrekoen gaitzespena da, oraindik ere, zabalduena, 2000. urtetik ikus daitekeenez, eta 2004. eta 2008. urteekin alderatuta, zertxobait gora egin du baina 2000. urteko mailara iritsi gabe.

Drogazalerik nahi ez izateak ere antzeko mailari eutsi dio azken hogeita urteetan, baina gorabeherekin. Nolanahi ere, eskuin muturrekoen gaitzespenaren kasuan bezalaxe, 1986. urtean baino askoz handiagoa da orain.

Auzokoen arten ijitorik nahi ez duten gazteen ehunekoa ia berdina da denbora guztian.

Prostituta eta gigoloekiko kontrako jarrera etengabe handitzen ari da. Eta beste horrenbeste gertatzen da auzoan atzerriko etorkinik nahi ez dutenen ehunekoarekin.

Aldiz, militarren kontrako jarrera txikiagoa da orain 1986. urtean edo 1990. urtean baino, eta militarrek auzokide izatea axola zaien gazteen ehunekoa egonkor egon da azken urteotan.

Kartzelan izan direnek eta ezker muturrekoek antzeko joera izan dute. Bi kolektibo horien gaitzespen handiena 1990. urtean erregistratu zen eta txikiena, aldiz, 2004an, baina harrezkero auzoan horrelakorik nahi ez duten gazteen kopurua gora eta gora ari da etengabe.


2008tik 2012ra bitarte gora egin du auzokoen artean poliziarik nahi ez duten gazteen ehunekoak baina, oro har, kolektibo horrekiko gaitzespena azken hamabi urteotako batez bestekoan dagoela esan dezakegu.

Azkenik, homosexualei dagokienez, 2000. urtetik hona nabarmen handitu da kolektibo horrekiko gaitzespena baina 1986. eta 1990. urteotako mailara iritsi gabe betiere.

Beraz, oro har, ondorio gisa zera esan dezakegu, azken urteotan gazteen artean gora egin duela hainbat gizarte-taldeekiko mesfidantzak.

### 30. grafikoa

AUZOKIDEEKIKO INTOLERANTZIAREN BILAKAERA: AUZOKOEN ARTEAN HAINBAT KOLEKTIBO IZATEAREN AURKA EGOTEA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea)

Gazteen zer kolektibok gaitzesten du gehien talde bakoitza? (ikus 65. eta 66. taulak)

Logikari jarraiki, eskuin muturrekoekiko gaitzespena handiagoa da ezkerrekoak direla dioten gazteen artean (% 73), eskuineko edo zentrokoak direla diotenen artean baino (% 62). Euren burua ardatz horretan kokatzen ez dutenek dute arbuio-mailarik txikiena (% 51). Adinean gora egin ahala eta, batik bat, ikasketa-mailak ere gora egin ahala, eskuin muturrekoen aurkako joera gero eta handiagoa da: derrigorrezko ikasketak bukatu dituztenen kasuan % 54 eta goi-mailako titulua dutenen kasuan % 70.

Drogazaleen aurkako jarrera nesken artean zabalduegoa dago (% 48), mutilen artean baino (% 38); bai eta eskuineko edo zentrokoak direla diotenen artean (% 52) ere, ezkerrekoak direla diotenen artean baino (% 38); eta jarrera hori handitu egiten da ikasketa-mailak gora egiten duen heinean (% 48 goi-mailako ikasketak dituztenen artean eta % 40 soilik derrigorrezko ikasketak dituztenen kasuan).

Auzokoen artean drogazalerik nahi ez dutenak Araban (% 48) eta Bizkaian (% 45) dira nagusi, Gipuzkoan baino gehiago (% 38).

Ijitoak auzokide izatearen aurka daude Bizkaian (% 45), Gipuzkoan (% 38) edo Araban (% 36) baino hein handiagoan. Bukatutako ikasketa-maila ere zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da ijitoen aurkako jarrera.

Neskei mutilei baino gehiago axola zaie bizilagunen artean prostituta edo gigoloak izatea (% 39 eta % 31, hurrenez hurren). Adinean gora egin ahala gaitzespen hori gutxitu egiten da. Eskuineko edo zentrokoak direla diotenei gehiago axola zaie kolektibo hori auzoan izatea, ezkerrekoak direla diotenei baino (% 39 eta % 32, hurrenez hurren). Nolanahi ere, kolektibo horrekiko gaitzespena nabarmenagoa da katoliko elizkoiaren artean (% 49).

Militarren kasuan, ezkerrekoak direla diotenen gaitzespen-maila (% 40) handiagoa da eskuineko edo zentrokoak direla diotenen baino (% 26) edo ardatz horretan kokatzen ez direnen baino (% 22). Militarren aurkako jarrerak gora egiten du ikasketa-maila handitzen den heinean, eta Gipuzkoan (% 39) gainerako lurralde historikoetan baino handiagoa da: Bizkaian % 27 eta Araban % 25.

Kartzelan izandakoei erreparatuz gero, Bizkaian baztertzen dituzte gehien (% 35) eta Gipuzkoan gutxien (% 23). Bazterketa-mailak gora egiten du gazteen adinak behera egin ahala, eskuineko edo zentrokoak direla diotenen kasuan ere handiagoa da (% 37) ezkerrekoak direla diotenen artean baino (% 27).

Ezker muturrekoak auzokide izatearen aurkako jarrera handiagoa da Bizkaian (% 30) eta Araban (% 27), Gipuzkoan baino (% 19). Derrigorrezko ikasketen ondoko bigarren mailako ikasketak edo goragoko mailakoak dituztenek ere gehiago baztertzen dituzte soilik derrigorrezko ikasketak bukatu dituztenek baino. Logikari jarraiki, eskuineko edo zentrokoak direla dioten gazteen artean gaitzespena handiagoa da ezkerrekoak direla diotenen artean baino (% 38 eta % 22, hurrenez hurren).

Poliziaren aurkako jarrera handiena Gipuzkoan (% 29) atera da, eta txikiena Araban (% 18). Ezkerrekoak direla diotenen ere ez dituzte poliziak gogoko (% 32), eskuineko edo zentrokoak direla diotenen baino hein handiagoan (% 17). Gainerako aldagaietan ez da aipatzeko moduko alderik agertu kolektibo horri dagokionez.

## 65. taula

AUZOKIDEEKIKO INTOLERANTZIA: AUZOKOEN ARTEAN HAINBAT KOLEKTIBO IZATEAREN AURKA EGOTEA, SEXUAREN, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

(AUKERETAKO BAKOITZARI BAIEZKO ERANTZUNA EMAN DIOTENEN %)	ESADAZU, MESEDEZ, AXOLAKO LITZAIZUKEEN ALA EZ HONAKO PERTSONA HAUEK ZURE AUZOKO IZATEA								
	GUZ- TIRA	SEXUA			IKASKETA-MAILA		EZKER-ESKUIN ARDATZA		
		GIZO- NAK	EMAKU- MEAK	DERRIGO- RREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI-MAILAKOA	EZKE- RREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Neonaziak, eskuin muturreko pertsonak	62	63	62	54	65	70	73	62	51
Drogazaleak	43	38	48	40	42	48	38	52	45
Ijitoak	41	41	42	35	44	46	41	44	41
Prostitutak edo gigoloak	35	31	39	34	36	34	32	39	36
Militarrak	30	31	30	26	31	35	40	26	22
Kartzelan egondako pertsonak	30	26	26	30	29	30	27	37	31
Ezker muturreko pertsonak	26	28	32	22	28	28	22	38	25
Poliziak	24	26	22	24	23	23	32	17	18
Etorrin atzerritarrek	16	16	15	17	15	14	11	20	18
Homosexualak (gay edo lesbianak)	11	12	10	15	11	6	10	12	12
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

Atzerriko etorkinei dagokienez, eskuineko edo zentrokoak direla dioten gazteek ezkerrekoak direla diotenen baino gutxiago atsegin dituzte auzokide izateko (% 20 eta % 11, hurrenez hurren). Gazte atzerritarren artean ere, % 7k ez luke nahi beste atzerritarrik auzokoen artean.

Azkenik, homosexualatik (gay edo lesbianak) gaitzespena handiagoa da atzerrian jaiotako gazteen artean (% 24), EAEn jaiotako artean baino (% 10). Beste kultura eta herrialde batzuetan homosexualitatea ez dute hemen bezala ikusten; izan ere, zenbait herrialdetan legez kanpokatzen ere jotzen da eta horrek eragina du, nola edo hala, kolektibo horrekiko auzo-tolerantzia. Ikasketa-mailak ere aldeak eragiten ditu, baina ez hain handiak; ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da homosexualen aurkako jarrera (% 15 derrigorrezko ikasketak dituztenen artean eta % 6 goi-mailako ikasketak dituztenen artean).

Horretaz gain, beste datu bat ere aipa dezakegu: kolektibo horien aurkako jarrera handiagoa izaten da 10.000 biztanletik gorako herrietan edo hiriburuetan bizi diren gazteen artean, herri txikietan bizi

direnen artean baino. Azken kasu horretan, ziurrenik, kolektibo horietako jendea pertsonalki ezagutzera iristen da eta, horren ondorioz, aurkako jarrera hori txikiagoa da estereotipo negatiboen eraginpean dauden kasuan baino, estereotipo horiek aurreiritziak eragiten baitituzte.

### 66. taula

AUZOKIDEEKIKO INTOLERANTZIA: AUZOKOEN ARTEAN HAINBAT KOLEKTIBO IZATEAREN AURKA EGOTEA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

(AUKERETAKO BAKOITZARI BAIEZKO ERANTZUNA EMAN DIOTENEN %)	GUZ- TIRA	LURRALDEA			UDALERRIAREN TAMAINA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
Neonaziak, eskuin muturreko pertsonak	62	60	62	65	51	67	61
Drogazaleak	43	48	45	38	30	43	48
Ijitoak	41	36	45	38	34	44	41
Prostitutak edo gigoloak	35	32	40	28	18	42	32
Militarrak	30	25	27	39	27	34	26
Kartzelan egondako pertsonak	30	28	35	23	19	33	30
Ezker muturreko pertsonak	26	27	30	19	20	28	26
Poliziak	24	18	22	29	19	26	22
Etorkin atzerritarrak	16	14	17	14	8	16	18
Homosexualak (gay edo lesbianak)	11	11	12	9	5	13	11
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>240</b>	<b>660</b>	<b>600</b>

## 4.5. TOLERANTZIA IDEOLOGIKOA

Tolerantzia ideologikoak zera adierazten digu, gure ideia, sinesmen edo baloreekin bat ez datozen ideia, sinesmen eta baloreak dituen jendearekin zenbateraino gauden gustura edo deseroso. Hori dela eta, norberarenak ez bezalako pentsamoldeak dituzten pertsonekin zenbateraino dauden gustura edo deseroso galdetu diegu gazteei.

EAEko gazteen % 17k esan du oso edo nahiko deseroso egoten dela bestelako ideia, sinesmen edo baloreak dituztenekin. Kontrako muturrean, % 42k dio ez dagoela batere deseroso jende horrekin.

Bestelako pentsamoldea duten pertsonekin deseroso dauden gazteen ehunekoak gora egin du azken urteotan, eta 2000. eta 2004. urteetan % 10 bazen, 2008an % 12ra eta 2012an % 17ra iritsi da.

Intolerantzia ideologikoaren ehuneko handienak 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi diren gazteen artean atera dira (% 27). Bizkaiko gazteek gainerako lurralde historikoetako gazteek



baino deserosotasun-maila handiagoa adierazi dute norberarenak ez bezalako ideia edo balioak dituzten pertsonekin (% 20).

### 67. taula

INTOLERANTZIA IDEOLOGIKOA: NORBERARENAK EZ BEZALAKO IDEIAK, SINESMENAK EDO BALOREAK DITUZTEN PERTSONEKIN DESEROSO SENTITZEA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

ZUREAK EZ BEZALAKO IDEIAK, SINESMENAK EDO BALIOAK DITUZTENEKIN ZEIN NEURRITAN SENTITZEN ZARA DESEROSO?							
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			UDALERRIAREN TAMAINA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
Oso deseroso	5	5	7	2	14	4	3
Nahiko deseroso	12	9	13	12	13	14	9
<b>DESEROSO (Oso + Nahiko)</b>	<b>17</b>	<b>14</b>	<b>20</b>	<b>14</b>	<b>27</b>	<b>18</b>	<b>12</b>
Ez oso deseroso	33	33	32	36	24	38	31
Batere deseroso ez	42	50	37	46	46	38	46
Ed/Ee	8	3	11	4	4	7	11
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>240</b>	<b>660</b>	<b>600</b>

Atzerrian jaiotako gazteen kolektiboan, haiek ez bezala pentsatzen duen jendearekin oso edo nahiko deseroso daudela diotenak % 16 dira, hau da, EAEko gazteen batez besteko orokorraren oso antzeko maila.

## 4.6. IMMIGRAZIOAREKIKO JARRERAK


Auzokoen artean atzerriko etorkinik izan nahi ez duten gazteak eta bestelako sinesmen, ideia edo baloreak dituztenekin deseroso daudenak gero eta gehiago direla ikusita, zer nolako bilakaera izango ote du immigrazioarekiko jarrerak?

Hasteko, hona hemen datu bat: gazteen ia erdiaren ustez (% 45), EAEn kanpoko herrialdeetatik etorritako jende gehiegi bizi da. Beste % 47k asko samar daudela dio, baina ez direla gehiegi. Eta % 4k gutxi daudela esan du. Gainerako % 4ak ez du iritzirik eman.

EAEn bizi diren atzerritarrak gehiegi direla uste dutenen ehunekoa etengabe goranzko joera izaten ari da eta 2012ko maila duela hamabi urtekoa baino ia lau aldiz handiagoa da.

## 31. grafikoa

EAE-N BIZI DIREN ATZERRITARREN KOPURUAREN PERTZEPZIOAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Puntu honi dagokionez, EAEn bizi diren atzerritarren ehunekoa azken urteotan asko handitu dela esan behar dugu: 2000. urtean % 1, 2004an % 2,8, 2008an % 5,4 eta, bukatzeko, 2012an % 6,9<sup>38</sup>. Nolanahi ere, ehuneko hori Espainiakoa baino txikiagoa da, biztanleriaren gutzitzaoren % 11,2k atzerriko nazionalitatea baitu<sup>39</sup>.

Atzerrian jaiotako gazteen artean ere, heren batek (% 32) dio EAEn beste herrialde batzuetatik etorritako jende gehiegi dagoela.

EAEn atzerritar gehiegi dagoen ideia bereziki gazte arabarren artean zabaldua dago. Lurralde horretan dago, hain justu, atzerritar proportzio handiena: 2012an, Araban bizi direnen % 9,4 atzerritarra da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 6,5.

Eskuineko edo zentrokoak direla diotenen artean, EAeko atzerritarren bolumena handiegia dela diote gazte gehienek (% 61) eta ezkerrekoak direla diotenen artean hori pentsatzen dutenen ehunekoa- ren ia bikoitza osatzen dute (% 36).

<sup>38</sup> Ikuspegiak erakundeak argitaratutako datuak. *Immigrazioaren begirada*, 49. zk., 2013ko maiatza [linean]. <http://www.ikuspegi-immigracion.net/documentos/panoramicas/eus/panoramica49eus.pdf> [Kontsulta: 2013/09/30]

<sup>39</sup> INE. *Censo de población y viviendas 2011* [linean]. <http://www.ine.es/> [Kontsulta 2013/09/30]

Goi-mailako ikasketak dituztenen multzoan, atzerritar gehiegi dagoela uste dutenak gutxiago dira (% 38) eta gehiago atzerritar asko samar daudela diotenak (% 52).

### 68. taula

EAE-N BIZI DEN ATZERRITAR KOPURUAREN PERTZEPZIOA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

EUSKADIN BIZI DIREN BESTE HERRIALDE BATZUETAKO PERTSONEN KOPURUAZ ARI GARELA, ZUK ESANGO ZENUKE GEHIEGI DAUDELA, DEZENTE DAUDELA BAINA EZ GEHIEGI ALA GUTXI DAUDELA?										
Guz- Tira (%)	LURRALDEA			IKASKETA-MAILA			EZKER-ESKUIN ARDATZA			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	DERRIGO- RREZKOA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDORENGO BIGARREN HEZKUNTZA	GOI- MAILAKOA	EZKE- RREKOA	ESKUINEKOA + ZENTROKOA	ED/ EE	
Gehiegi	45	55	46	37	48	47	38	36	61	48
Dezente baina ez gehiegi	47	38	45	54	44	45	52	54	35	44
Gutxi	4	5	3	5	3	5	4	5	2	3
Ed/Ee	4	2	6	4	5	4	5	5	2	5
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>576</b>	<b>469</b>	<b>452</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>


EAEen atzerritar jatorriko jende gehiegi dagoen ustea zabaldu den bitartean, etorkinei sartzeari de-bekatuko lieketen gazteen kopuruak ere gora egin du: 2000. urtean % 3, 2008an % 6 eta 2012an % 10.

Alabaina, gehiengoaren ustez soilik lan-kontratua duten etorkinei utzi beharko litzaieke sartzeari (% 63). Bestalde %18k uste du etorkinei ahalik eta gehien erraztu beharko litzaiekeela sarrera. Gainera, % 10ak ez du iritzirik eman.

Azken hamabi urte hauetan, etorkinei sarrera ahalik eta gehien erraztu beharko litzaiekeela uste duten gazteen ehunekoak murrizteko joera izan du, oro har, baina soilik lan-kontratua duten etorkinei sartzeari utzi beharko litzaiekeela diotenak gero eta gehiago dira, bai eta etorkin gehiago sartzeari erabat debekatu beharko litzatekeela uste dutenak ere.

## 32. grafikoa

IMMIGRAZIOARI DAGOKIONEZ, EGOKIENTZAT HARTUTAKO NEURRIAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Aztergai ditugun kolektibo guztietan, soilik lan-kontratua dutenei sartzen uzteko jarrera da nagusi. Alabaina, jarrera irekiena (etorkinen sarrera ahalik eta gehien erraztea) eta jarrera itxiena (langile etorkinen sarrera debekatzea) zer gazte taldek duten aztertuko dugu jarraian.

Espero zitekeenez, jarrera irekiena atzerritar jatorriko gazteek dute (% 37), baina kolektibo horretan ere erdiak baino gehiagok mugatuko luke sarrera lan-kontratua izateko baldintzarekin (% 52).

Jarrera irekiena Gipuzkoan ikusi dugu, gazteen % 24k uste baitu ahalik eta gehien erraztu behar dela etorkinen sarrera. Bizkaitar gazteek aipatu dute gehien sarrera debekatuko luketela (% 13).

Ezkerrekoak direla dioten gazteek ere ikuspegi irekiagoa dute (% 22k ahalik eta gehien erraztuko luke sarrera) ardatz ideologikoan eskuineko edo zentroak direla diotenek baino; horien artean, sarrera erabat debekatuko luketenak (% 17) gehiago dira guztiz libre utziko luketenak baino (% 12).

## 69. taula


IMMIGRAZIOARI DAGOKIONEZ EGOKIENTZAT HARTUTAKO NEURRIA,  
BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA EZKERREKO-ESKUINEKO ARDATZEKO KOKAPENAREN ARABERA (%)

ATZERRIKO LANGILE ETORKINEN INGURUAN, JARRAIAN AIPATZEN DIRENETATIK, ZEIN NEURRI HARTU BEHARKO LITZATEKE?							
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			EZKER-ESKUIKIN ARDATZA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EZKERREKOA	ESKUIKOA + ZENTROKOA	ED/EE
Sarrera ahalik eta gehien erraztea	18	16	15	24	22	12	15
Lan-kontratua dutenei soilik sartzen uztea	63	71	63	59	61	67	63
Sarrera debekatzea	10	8	13	6	7	17	10
Ed/Ee	10	5	10	12	10	5	12
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>662</b>	<b>248</b>	<b>590</b>

EAE n atzerritar gehiegi bizi dela uste dutenak etorkinen sarrera debekatzearen aldekoagoak agertu dira, etorkin asko samar daudela, baina ez gehiegi, uste dutenak baino (etorkin gehiago sartzea debekatuko lukete % 20k eta % 2k, hurrenez hurren).

## 33. grafikoa

IMMIGRAZIOARI DAGOKIONEZ EGOKIENTZAT HARTUTAKO NEURRIA,  
EAE-N BIZI DEN ATZERRITAR KOPURUAREN PERTZEPZIOAREN ARABERA (%)



Atzerritar bolumenaren pertzepzioan eta immigrazioaren kudeaketari buruzko iritzietan eragina izan duten arrazoen artean, krisi ekonomikoaren ondorioak eta langabeziaren gorakada aipa ditzakegu, izan ere, 16-29 urteko gazteen artean azken lau urteotan langabezia ia hiru aldiz handiagoa baita.

Nolanahi ere, immigrazioari dagokionez gazteen artean horrelako intolerantzia-jarrerak ikustea kezkatzeko modukoa da.

## 4.7. KONTSUMO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA

*Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean*<sup>40</sup> txostenean irakur daitekeenez, «Produktuen erabilera bakarraren, bilgarri gehiegi erabiltzea bultzatzen duen, eta erabili eta botatzearen kulturara eta antzeko kulturara jotzen duen bizimodutik eta kontsumo-eredutik aldentzen da kontsumo iraunkorra. Kontsumo iraunkorra gauzatzeko gakoa eguneroko bizitzan kontsumoa murriztean eta ingurumena-rikiko errespetagarriagoak izango diren produktuak eta zerbitzuak erabiltzean, birziklatzean, energia aurreztean eta antzekoetan datza.»

Horregatik, kontsumo iraunkor edo jasangarriarekin loturiko bost jokabide hauek zenbateko maiztasunez betetzen dituzten galdetu diegu EAEko gazteei: euren poltsa edo orga eramaten duten erosketak egiterakoan; pakete gutxi daramaten produktuak erosten saiatzen diren; etxeko zaborrak hondakin motaren arabera banatzen dituzten, hau da, organikoa, plastikoa, papera eta abar; uraren kontsumoa murrizten saiatzen diren; eta, azkenik, garraio publiko edo kolektiboa erabiltzen duten, edota kotxea beste batzuekin batera erabiltzen duten.

Proposatutako ekintza horien artetik, gazteek etxeko zaborrak hondakin motaren arabera (hau da, organikoa, plastikoa, papera eta abar) banatzen dituzte maiztasun handienaz (ikus 70. eta 71. taulak), % 64k sarritan egiten du, % 15ek batzuetan bakarrik eta % 21ek inoiz ez edo ia inoiz ez.

Puntu honi dagokionez, ezin dugu ahaztu azkenaldian administrazioak aztarna ekologikoa murrizten saiatzen ari direla eta, horretarako, hainbat neurri ezarri dituzte, hala nola, birziklatzeko edukiontzi gehiago jarri dituzte: orain arte beira, ontzi eta plastikoak, papera eta kartoia biltzeko edukiontziak zeuden eta orain arropa eta oinetakoak biltzeko, olio erabilia biltzeko eta beste hainbat gai biltzeko edukiontziak jarri dituzte. Birziklatzeko edukiontzien sare handia izatea lagungarri da, zalantzarik gabe, birziklatzea zabaltzeko.

Neskek gehiago bereizten dute birziklatzeko mutilek baino (% 67k eta % 61ek, hurrenez hurren, sarritan egiten dute). Adinean gora egin ahala, etxeko zaborra gero eta gazte gehiagok bereizten du: 20 urtetik beherakoen artean sarritan egiten dute % 58k eta 25-29 urtekoen artean % 68k.

Etxeko hondakinak gehiago bereizten dituzte Gipuzkoako (%69) eta Arabako gazteek (%68), Bizkaikoek baino (%59). Hiriburuetan bizi diren gazteek ere gutxi bereizten dute etxeko zaborra (% 56k soilik), eta udalerrien tamaina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta gazte gehiagok bereizten du za-

---

<sup>40</sup> Longo, O., Bilbao, M., Corcuera, N. *Kontsumo arduratsua EAEko gazteen artean*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2013. Webgune honetan dago: [http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-7651x/es/contenidos/informacion/gazteen\\_joerak/es\\_liburuak/adjuntos/JOERAK\\_6.pdf](http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-7651x/es/contenidos/informacion/gazteen_joerak/es_liburuak/adjuntos/JOERAK_6.pdf) [Kontsulta: 2013/09/30]

borra; horregatik, 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi diren gazteen % 74k sarritan bereizten du.

Gazteen erdiak baino gehiagok (% 57) garraio publiko kolektiboa erabiltzen du edo kotxea partekatzen du. Gazteen % 21ek batzuetan bakarrik egiten du eta % 20k inoiz ez edo ia inoiz ez.

Garraio publikoa erabiltzea edo kotxea partekatzea ohikoagoa da nesken artean (% 64k sarritan egiten du eta mutilen kasuan % 51k), bai eta 20 urtetik beherakoen artean ere, gidabaimena oso gutxi izaten dutenez (% 65 ibiltzen da horrela sarritan baina ehuneko horrek behera egiten du adinean gora egin ahala).

Garraio publikoa erabiltzea eta kotxea beste batzuekin batera erabiltzea oso zabalduta daude Bizkaian (% 64), gainerako lurraldeetan baino gehiago; izan ere, Bizkaian metroa dute eta gainerako lurraldeetan ez. Hiriburuetan garraio publikoaren sarea handiagoa izaten da eta sarriago erabiltzen da (% 63) herri txikietan baino (% 48); herri txikietan, zenbait kasutan, ibilgailu pribatua izatea ezinbestekoa izaten da.

Uraren kontsumoa murrizten saiatzen da, sarritan, gazteen erdia baino gehiago (% 54). % 24k batzuetan bakarrik egiten du eta % 20k inoiz ez edo ia inoiz ez.

Eguneroko bizitzan uraren kontsumoa murrizten gehien saiatzen diren taldeak 25-29 urtekoak dira (% 61); izan ere, gazteek adinean gora egiten duten heinean, gero eta gehiago saiatzen dira horretan. Arabako gazteak ura ahalik eta gutxien xahutzen saiatzen dira (% 72), Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteak baino hein handiagoan (% 54 eta % 46, hurrenez hurren).

Aldiz, erosketak egiterakoan norberaren poltsa edo orga sarritan eramaten duten gazteak % 42 dira. Gazteen % 25ek batzuetan bakarrik egiten du eta % 31k inoiz ez edo ia inoiz ez.

Azken urteotan, supermerkatu askotan plastikozko poltsak doan emateari utzi diote eta horrek herritarren ohiturak aldarazi ditu erosketak egiteko garaian; ohikoa da norberak etxetik poltsa berrera-bilgarria edo erosketa-orga. Baina gazteei dagokienez, gazte askok ez du erosketa egiten ohiko moduan; hori ondorioztatu dugu, bederen, adinaren araberako aldeak ikusita: 20 urtetik beherakoen artean soilik % 31k eramaten du bere poltsa edo orga, eta 25-29 urtekoen artean, ordea, % 52k. Eta horrek eragina du erosketak egiterakoan norberaren poltsa edo orga ohiko moduan erabiltzen dutenen ehuneko orokorrean, ez baita gehiengoa.

Neskek sarritan eramaten dute poltsa edo orga, mutilek baino hein handiagoan (% 50 eta % 34, hurrenez hurren). Etxeko lanak egitean izaten diren genero-desberdintasunen ondorio izan daiteke alde hori.

Erosketak egiterakoan gazteen erdiak baino gehiagok poltsa edo orga sarritan eramaten du soilik bi kolektibotan: neskak eta 24 urtetik gorako gazteak.

Azkenik, pakete gutxi daramaten produktuak erosteko ohitura ez dago oso zabalduta EAeko gazteen artean: soilik % 19k egiten du sarritan eta % 47k inoiz ez edo ia inoiz ez. Beste % 28k batzuetan bakarrik egiten du.

Neskak (% 22) eta 25-29 urteko gazteak (% 24) saiatzen dira sarritan pakete gutxi daramaten produktuak erosten. Eta, gainera, erosketak egiterakoan norberaren poltsa edo orga eramateko ohitura duten taldeekin bat datoz; beraz, berriz ere aipatu beharko genuke agian kolektibo horiek gainerakoek baino gehiagotan egiten dituztela erosketak.

## 70. taula

KONTSUMO JASANGARRIKO JARRAIBIDEAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

KONTSUMO-OHITUREI BURUZKO GALDERA BATZUK EGINGO DIZKIZUT. ESANGO AL DIDAZU ONDOKOAK SARRITAN EGITEN DITUZUN, BATZUETAN BAKARRIK ALA EZ DITUZUN INOIZ EDO IA INOIZ EGITEN?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
<b>Etzeko zaborrak hondakin-motaren arabera banatzen dituzu, hau da, organikoa, plastikoa, papera eta abar</b>						
Sarritan	64	61	67	58	63	68
Batzuetan bakarrik	15	16	13	15	15	14
Inoiz edo ia inoiz ez	21	21	20	26	20	17
Ed/Ee	1	2	1	1	1	2
<b>Garraio publiko edo kolektiboa erabiltzen duzu, edota kotxea beste batzuekin batera erabiltzen duzu</b>						
Sarritan	57	51	64	65	59	51
Batzuetan bakarrik	21	24	19	21	22	21
Inoiz edo ia inoiz ez	20	24	16	13	18	26
Ed/Ee	1	2	1	1	1	2
<b>Uraren kontsumoa murrizten saiatzen zara</b>						
Sarritan	54	53	55	48	51	61
Batzuetan bakarrik	24	25	23	27	26	21
Inoiz edo ia inoiz ez	20	20	21	25	21	17
Ed/Ee	2	2	1	1	2	2
<b>Zure poltsa edo orga eramaten duzu erosketak egiterakoan</b>						
Sarritan	42	34	50	31	38	52
Batzuetan bakarrik	25	27	24	22	25	28
Inoiz edo ia inoiz ez	31	37	24	45	35	18
Ed/Ee	2	2	2	2	2	2
<b>Pakete gutxi daramaten produktuak erosten saiatzen zara</b>						
Sarritan	19	16	22	13	17	24
Batzuetan bakarrik	28	26	31	24	27	32
Inoiz edo ia inoiz ez	47	52	43	56	51	40
Ed/Ee	6	7	5	7	6	5
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>



## 71. taula

KONTSUMO JASANGARRIKO JARRAIBIDEAK, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN  
ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

KONTSUMO-OHITUREI BURUZKO GALDERA BATZUK EGINGO DIZKIZUT. ESANGO AL DIDAZU ONDOKOAK SARRITAN EGITEN DITUZUN, BATZUETAN BAKARRIK ALA EZ DITUZUN INOIZ EDO IA INOIZ EGITEN?							
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			UDALERRIAREN TAMAINA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
<b>Etxeko zaborrak hondakin-motaren arabera banatzen dituzu, hau da, organikoa, plastikoa, papera eta abar</b>							
Sarritan	64	68	59	69	74	66	56
Batzuetan bakarrik	15	13	17	12	9	13	20
Inoiz edo ia inoiz ez	21	19	22	18	17	20	24
Ed/Ee	1	0	2	0	0	2	1
<b>Garraio publiko edo kolektiboa erabiltzen duzu, edota kotxea beste batzuekin batera erabiltzen duzu</b>							
Sarritan	57	50	64	49	48	56	63
Batzuetan bakarrik	21	23	19	24	23	23	18
Inoiz edo ia inoiz ez	20	28	14	26	28	19	18
Ed/Ee	1	0	2	1	0	2	1
<b>Uraren kontsumoa murrizten saiatzen zara</b>							
Sarritan	54	72	54	46	58	54	53
Batzuetan bakarrik	24	13	26	27	22	26	23
Inoiz edo ia inoiz ez	20	15	18	27	20	19	23
Ed/Ee	2	0	3	1	0	2	2
<b>Zure poltsa edo orga eramaten duzu erosketak egiterakoan</b>							
Sarritan	42	47	40	43	36	39	49
Batzuetan bakarrik	25	19	27	26	37	25	21
Inoiz edo ia inoiz ez	31	34	31	29	27	32	30
Ed/Ee	2	1	3	2	0	4	0
<b>Pakete gutxi daramaten produktuak erosten saiatzen zara</b>							
Sarritan	19	18	17	21	16	20	18
Batzuetan bakarrik	28	27	28	30	44	28	21
Inoiz edo ia inoiz ez	47	49	48	45	38	45	55
Ed/Ee	6	6	7	4	2	7	5
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>		<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>240</b>	<b>660</b>	<b>600</b>


Aurreko datuak ikusita, badirudi kontsumo jasangarriko ohiturak ez daudela hain zabalduta 15-19 urteko gazteen artean, nahiz eta ikastetxeetan ingurumenaren aldeko kanpaina asko egiten diren. Kolektibo horrek garraio publikoaren erabilera izan ditu gainerakoek baino ehuneko handiagoak; izan ere, lehen ere esan dugunez, ez dutenez ibilgailurik, ez eta, kasu gehienetan, gidabaimenik ere, ez dute beste aukerarik izaten.

Kontsumo jasangarriaren indize bat kalkulatu dugu eta, horretarako, goian aipatu ditugun bost jokabide horietatik lau, gutxienez, sarritan egiteko baldintza bete beharko da. Horren arabera, EAEko gazteen % 21ek kontsumo jasangarriko jarraibideak betetzen ditu.

Indize horri jarraiki, kontsumo jasangarria zabalduago dago nesken artean, 25-29 urtekoen artean, Araban bizi direnen artean eta hiriburuetan bizi direnen artean.

### 34. grafikoa

KONTSUMO JASANGARRIAREN INDIZEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)



Bestalde, gazteen mugikortasun jasangarriko jarraibideak aztertuko ditugu. Horretarako, hainbat garraiobidetan zenbatero joaten diren galdetu diegu gazteei.

% 76k dio egunero edo ia egunero ibiltzen dela oinez nonbaitera joateko, ez paseatzeko. % 13k dio astean behin edo gehiagotan ibiltzen dela oinez; beraz, lanera, ikastetxera... joateko oinez ibiltzen diren gazteak % 89 dira.

% 37k esan du garraio publiko kolektiboa (autobusa, trena, metroa, tranbia...) hartzen duela egunero edo ia egunero. Garraio publikoa astean behin edo gehiagotan hartzen dutenak (% 25) gehituz gero, EAEko hamar gaztetatik seik maiz erabiltzen du garraio publiko kolektiboa. Aitzitik, gazteen % 15ek ez du inoiz edo ia inoiz erabiltzen.

% 27 kotxez ibiltzen da egunero edo ia egunero. Astean behin edo gehiagotan kotxea erabiltzen dutenak ere aintzat hartuta, ohiko moduan autoz ibiltzen diren gazteak % 50 dira.

Bizikleta garraiobide moduan egunero erabiltzen du gazteen % 10ek. Beste % 6k astean behin edo gehiagotan erabiltzen du. % 64k ez du inoiz edo ia inoiz erabiltzen, garraiobide moduan, bederen.

Azkenik, ohiko garraiobideen artean motoa aipatuko dugu, baina ez da asko erabiltzen. Soilik % 3k erabiltzen du egunero, eta astean behin edo gehiagotan erabiltzen dutenak % 5 dira; aitzitik, % 85ek esan du ez dela motoz mugitzen inoiz edo ia inoiz.

## 72. taula

GARRAIOBIDEAK ZENBATERO ERABILTZEN DIREN (%)

ZEIN MAIZTASUNEZ MUGITZEN ZARA...?					
(%)	OINEZ	GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOZ	AUTOZ	BIZIKLETAZ	MOTORREZ
Egunero edo ia egunero	76	37	27	10	3
Astean behin edo gehiagotan	13	25	23	6	2
Hilean behin edo gehiagotan	2	10	10	5	2
Noizean behin	5	12	17	14	6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	3	15	22	64	85
Ed/Ee	1	1	1	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>


Azken urteotan garraiobide bakoitzak izan duen bilakaerari erreparatuta, zera ikusiko dugu, bizikleta egunero erabiltzen dutenen kopurua bikoiztu egin dela 2004. eta 2008. urteekin alderatuta, urte haietan gazteen % 5ek erabiltzen baitzuen bizikleta egunero edo ia egunero alde batetik bestera joateko. Bidegorrien sarea gero eta handiagoa da eta herri askotan ere bizikletak maileguan hartzeko zerbitzu publikoa eskaintzen hasi dira; bi faktore horiek lagungarri izan daitezke garraiobide horren erabileraren sustapenean.

Garraio publiko kolektiboaren eguneroko erabilera ere areagotu egin da 2008. urtearekin alderatuta (% 33).

Bestalde, oinez egunero ibiltzen direnen maila 2004. urtekoaren (% 74) eta 2008. urtekoaren (% 77) antzekoa da.

Aldiz, kotxea egunero erabiltzen dutenen ehunekoak zertxobait murriztu dira 2004. urteko (% 33) eta 2008. urteko (% 32) datuekin alderatuta. Halaber, motozikleten erabilera ere apur bat gutxitu da gazteen artean: 2004an eta 2008an % 5, eta gaur egun % 3.

Beraz, azken urteotan ibilgailu pribatu motordunen (kotxea eta motoa) erabilerak gazteen artean behera egin duela esan dezakegu eta garraiobide jasangarriagoak erabiltzen dituztela, hala nola, garraio publiko kolektiboa edo bizikleta.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Garraio bideen eguneroko erabilera mutilen eta nesken artean alderatzen badugu, ikusiko dugu neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dutela garraio publiko kolektiboa (% 42 eta % 33, hurrenez hurren) eta, aitzitik, garraio pribatu motorduna (kotxea eta motoa) gutxiago; era berean, bizikletaz ere gutxiago ibiltzen dira (nesken % 6k eta mutilen % 13k erabiltzen dute egunero).

Adinean gora egin ahala, kotxearen erabilera ere handitu egiten da: 20 urtetik beherakoen artean % 10 da eta 25-29 urtekoen artean % 38. 25 urte baino gutxiago dituzten gazteek garraio publiko kolektiboa erabiltzen dute gehien. Eta 20 urte bete ez dituztenen kasuan, gehienak oinez ibiltzen dira.

Garraio publiko kolektiboa egunero erabiltzen dutenak Bizkaian dira nagusi (% 44) eta Araban gutxiengo (% 22). Garraio publikoaren erabileran Bizkaia buru izatea baliteke metroarekin loturik egotea; izan ere, gainerako lurralde historikoetan ez dago garraio bide hori eta, gainera, Bizkaiko herri handienetara (Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Basauri...) iristen denez, jende askok erabiltzen du. Bestalde, Bizkaiko gazteen artean soilik % 2k erabiltzen du bizikleta egunero; Gipuzkoan % 18 eta Araban % 17 dira.

Gazte gipuzkoarrek erabiltzen dute gehien egunero ibilgailu pribatu motorduna, bai kotxea (% 34), bai motoa (% 6).

## 73. taula

GARRAIOBIDEAK ZENBATERO ERABILTZEN DIREN, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN  
ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ZEIN MAIZTASUNEZ MUGITZEN ZARA...?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>Oinez (norabait joateko, ez ostera bat egiteko)</b>									
Egunero edo ia egunero	76	75	78	83	75	73	76	78	74
Astean behin edo gehiagotan	13	13	13	10	15	14	11	15	11
Hilean behin edo gehiagotan	2	2	1	1	2	2	1	1	3
Noizean behin	5	5	5	3	5	7	7	3	8
Inoiz ez edo ia inoiz ez	3	5	2	3	3	4	5	2	4
Ed/Ee	1	0	1	0	1	0	0	1	0
<b>Garraio publiko kolektiboz (autobusez, trenez, metroz, tranbiaz...)</b>									
Egunero edo ia egunero	37	33	42	42	43	30	22	44	33
Astean behin edo gehiagotan	25	25	25	27	23	25	26	27	21
Hilean behin edo gehiagotan	10	9	11	10	10	10	12	9	11
Noizean behin	12	14	10	10	11	14	16	10	14
Inoiz ez edo ia inoiz ez	15	18	11	11	12	20	25	8	21
Ed/Ee	1	1	1	1	1	0	0	1	0
<b>Autoz</b>									
Egunero edo ia egunero	27	31	22	10	26	38	22	23	34
Astean behin edo gehiagotan	23	24	22	21	23	24	23	26	19
Hilean behin edo gehiagotan	10	9	12	10	13	9	8	12	8
Noizean behin	17	15	19	26	18	12	19	16	18
Inoiz ez edo ia inoiz ez	22	20	25	33	21	17	28	22	20
Ed/Ee	1	1	1	1	1	0	0	1	0
<b>Motorrez</b>									
Egunero edo ia egunero	3	5	1	4	3	3	2	2	6
Astean behin edo gehiagotan	2	2	2	3	2	2	2	2	3
Hilean behin edo gehiagotan	2	3	1	2	2	1	2	1	2
Noizean behin	6	7	5	8	6	5	5	6	6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	85	81	89	82	84	88	91	86	81
Ed/Ee	2	2	2	2	3	1	1	3	1

(.../...)

(.../...)

<b>Bizikletaz</b>									
Egunero edo ia egunero	10	13	6	11	10	8	17	2	18
Astean behin edo gehiagotan	6	9	3	8	5	6	12	4	7
Hilean behin edo gehiagotan	5	5	4	7	4	4	4	4	6
Noizean behin	14	17	12	16	15	12	19	14	13
Inoiz ez edo ia inoiz ez	64	56	73	56	65	69	48	75	55
Ed/Ee	1	1	2	1	1	1	1	2	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>34</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Horretaz gain, udalerrria zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da kotxea egunero erabiltzen duten gazteen ehunekoa: herri txikietan % 38, ertainetan % 28 eta hiriburuetan % 20. Gazteak bizi diren herriaren tamainari erreparatuta, hori da sumatu dugun alde nabarmen bakarra.

## 4.8. ONDORIOAK

Azken urteotan, EAEko gazteen balioak aldatu egin direla ikusi dugu; alde batetik, sekularizazioa areagotu egin da eta, bestetik, zenbait balio kontserbadore indartu egin dira, hala nola, heriotza-zigorren aldeko jarrera edo immigrazioaren aurka egotea. Intolerantziak ere gora egin du, norberarenak ez bezalako ideia, sinesmen edo balioak dituztenekin deseroso daudela diotenak gero eta gehiago diren aldetik, bai eta gizarte-kolektibo jakin batzuk (eskuin edo ezker muturrekoak, homosexualak...) auzokide izatea nahi ez dutenak ere.

2012an, EAEko gazte gehienek ateok direla diote eta 30 urteko eta gehiagoko herritarren artean ateok direla dioten kopuruak bikoizten dituzte. Sinestun ez diren gazteen edo gazte indiferenteen kopuruak gora egin du, nabarmen, azken urte hauetan eta Espainiako gazteak baino askoz gehiago dira. EAEko gazteen artean joera horri eusten bazaio, orain arte erlijiozaletasun handiko kolektiboa zena zeharo aldatuko da.

EAEko gazteen gehiengoak sexu bereko pertsonak ezkontzearen alde dago, bai eta sexu-aldaketa legalaren, abortu libre eta borondatezkoaren, eutanasiaren eta *kanabisa* legeztatzearen alde ere. Hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen alde agertu da gazteen erdia baino gehiago, baina azken urteotan behera egin du. Gehiengoak heriotza-zigorren eta ideia politiko edo erlijiosoak indarraren bidez defendatzearen aurka dago, baina alde daudenak (gutxi diren arren) gero eta gehiago dira, aurreko urteekin alderatuta.

Krisialdi ekonomikoaren eta langabezia-indize handien testuinguruan, EAEn atzerritar gehiegi bizi dela pentsatzen du bertako gazte gero eta gehiagok, eta atzerriko etorkin gehiago sartzea erabat debekatuko luketen gazteen ehunekoa bikoiztu egin da. Jarrera irekiagoen aurrean, gazteen gehien-goak soilik lan-kontratua duten etorkinei utziko lieke sartzeko.

Kontsumo eta joan-etorri jasangarriari dagokienez, gero eta gazte gehiagok erabiltzen du garraio publiko kolektiboa edo bizikleta eguneroko joan-etorriak egiteko, baina oraindik ere gauza asko hobetu behar dira, bai eta kontsumo-ohituretan ere; izan ere, EAEko gazteen artean, soilik bi herenak bereizten du etxeko zaborra birziklatzeko (hondakinak birziklatzeko edukiontzi mota asko dauden arren), erdia baino gehixeago saiatzen da uraren kontsumoa murrizten eta erosketak egiteko orga edo poltsa etxetik eramaten dutenak gutxiengo dira.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

## 5. Aisialdia, kultura eta euskara







# 5

## Aisialdia, kultura eta euskara

### 5.1. SARRERA

Denbora librea honako hau da: oinarrizko premiak (elikadura, loa...) ase ondoren eta geure gizarte-arloko eta familiako betebeharrak bete ostean geratzen zaigun denbora. Aisialdia denbora libre hori betetzeko modu bat da, geure borondatez aukeratzen ditugun jarduerak (ohiko moduan atseginak izaten dira) eginez. Horri dagokionez, jarduera bera betebeharrak izan daiteke pertsona batentzat, baina aisialdiko jarduera beste batentzat, betiere norberaren borondatearen arabera eta jarduera horrekin lortzen den plazer edo gogobetetzearen arabera (adibidez, kirola egitea, sukaldean aritzea, jostea eta abar). Eta denbora librea eta aisialdia berdinak ez diren arren, antzera interpretatzeko joera dago; beraz, txosten honetan kontzeptu baliokidetzat hartuko ditugu.

Denbora librean edo aisialdian zaletasunak egin ditzakegu eta, askotan, artearekin eta kulturarekin loturik egoten dira, partaidetzarekin, boluntarioritzarekin eta abarrekin.

Kapitulu honetan, EAEko gazteek denbora librea zertan ematen duten aztertuko dugu.


### 5.2. DENBORA LIBREA

EAEko gazteen % 51k egunean lau ordu baino gehiago ditu libre, batez beste, astegunetan. Ehuneko hori bost puntu handitu da 2004. eta 2008. urteaz geroztik (% 46 bi kasuetan).

Kontrako muturrean, gazteen % 3k dio egunean ordu bat baino gutxiago izaten duela libre.

## 36. grafikoa

GAZTEEK IZATEN DUTEN DENBORA LIBREAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Mutilek neskek baino denbora libre gehiago izaten dute, batez beste: gizon gazteen % 55ek lanean egunean lau ordu baino gehiago izaten ditu, eta emakumeen kasuan % 47k. Alde horretan bi faktorek eragiten dute: alde batetik, gizonen langabezia-tasak handiagoak dira emakumeenak baino, hau da, neska gehiago ari da lanean mutilak baino eta, beraz, denbora libre gutxiago dute neskek; eta bestetik, emakumeek etxeke lanak egitera eta seme-alabak nahiz senitartekoak zaintzera denbora gehiago bideratzen dute eta, beraz, denbora libre gutxiago izaten dute.

20-29 urtekoen multzoan, denbora librearen eskalan bi muturretan dauden ehuneko handienak ikus ditzakegu: alde batetik, egunean ordu bat baino gutxiago dutenen ehuneko handiena dago eta, bestetik, egunean, batez beste, lau ordu baino gehiago dutenen kopuru handiena ere. Ez dugu ahaztu behar adinean gora egin ahala gero eta jende gehiago dagoela lanean, seme-alabak dituztenak eta abar; bestela esateko, erantzukizun gehiago dituzte, baina langabeak ere gero eta gehiago dira eta ikasleak gutxiago.

Okupazio nagusiaren arabera alde handiak ateratzen dira taldeen artean: lanean eta ikasten ari direnek izaten dute denbora libre gutxien (% 38k egunean bi ordu baino gutxiago), eta langabezian daudenek izaten dute gehien (% 86k egunean lau ordu baino gehiago) Beraz, adieraz dezakegu astialdia okupatu gabeko denboratzat ulertu dela, eta ez berariaz aisiarako denbora gisa. Soilik ikasi edo soilik lan egiten dutenen artean ez dago alde nabarmenik.

Seme-alabak dituzten gazteek dute denbora libre gutxien: % 13k dio egunean ez duela ordubate ere izaten.

## 74. taula

LIBRE DUTEN DENBORA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN,  
OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA SEME-ALABAK IZATEAREN ARABERA (%)

LANEGUNETAN, ZENBAT DENBORA LIBRE IZATEN DUZU BATEZ BESTE?												
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				BADUZU SEME-ALABARIK?	
		GIZONAK	EMAKU-MEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	IKASTEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LAN EGITEA	LANGA-BEZIAN	BAI	EZ
Ordubete baino gutxiago	3	2	4	2	3	4	2	6	4	1	13	2
Ordubete edo bi ordu	18	16	20	20	18	16	21	32	17	3	18	18
Hiru edo lau ordu	27	26	28	28	26	27	30	29	36	8	29	27
Lau ordu baino gehiago	51	55	47	48	52	52	44	31	44	86	41	52
Ed/Ee	1	1	1	2	1	1	2	2	1	1	0	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>647</b>	<b>150</b>	<b>392</b>	<b>257</b>	<b>103</b>	<b>1397</b>

## 5.3. AISIALDIKO JARDUERAK

Atal honetan, astean zehar eta asteburutan zer egiten duten galdetu diegu gazteei, betiere denbora librean.

Lanegunetan, gazteek telebista, bideoak edo filmak ikusten dituzte etxean (% 48), lagunekin edo bikotekidearekin egoten dira (% 46), musika entzuten dute (% 41) eta ordenagailuarekin aritzen dira Interneten, gizarte-sareetan, txateatzen, musika edo filmak deskargatzen... (% 35).

Horretaz gain, % 27k kirola egiten du, % 15 familiarekin egoten da, % 14 paseoan edo kalean egoten da, beste % 14k irakurri egiten du gustuko duelako (hau da, ez dira ikasketetako liburuak, baizik eta literatura, komikiak, aldizkariak, egunkariak eta abar), eta % 10 taberna edo kafetegietara joaten da.

% 10ek baino gutxiagok egiten dituzte jarduera hauek: atsedean hartzea, ezer ez egitea (% 8), kontsolekin jolastea (% 6), telefonoarekin hitz egitea edo mezuak bidaltzea (% 6), lonjan egotea (% 6), mendira joatea (% 3), dendaz denda ibiltzea (% 2), kultura-jarduera zehatz bat egitea: pinta-tzea, musika-tresna bat jotzea, dantzatzea... (% 2), joko-aretoetara joatea (% 1), diskoteketara joatea

(% 1), musika-ikuskizunetara, zinemara, antzerkia ikustera... joatea (% 1), kirol-ikuskizunetara joatea (% 1) edo elkarteetako jarduerak edo boluntario-lanak egitea (% 1).

Alegia, eguneroko aisialdia etxekoagoa da, bikotekidearekin edo lagunekin egotea eta, ohiko moduan, ez dakar gastu gehigarririk, telebista, ordenagailua, musika-aparatua eta abar izatea ez bada.

Asteburutan eta jaiegunetan, ordea, beste jarduera batzuk gailentzen dira eta etxetik atera behar izaten da (lagunekin egoteko, eremu jakin batzuetara joatea, mendira joatea), bai eta gastu gehigarriak egin ere (tabernetara, diskoteketara, ikuskizunetara joatea).

Hori horrela izanik, asteburutan eta jaiegunetan jarduera nagusia lagunekin edo bikotekidearekin egotea da (% 60), taberna edo kafetegietara joatea (% 31), telebista, bideoak edo DVDak ikustea (% 21), kirola egitea (% 21) eta diskoteketara joatea (% 19).

% 17 paseoan edo kalean ibiltzen da, % 16 familiarekin egoten da, % 15ek atsedean hartu eta ezer egin gabe egoten da, % 14k musika entzuten du eta % 13 ordenagailuarekin jarduten da. Azkenik, % 9 mendira joaten da, beste % 9k kale-zurruta edo «botelloia» egiten du (lanegunetan % 1 ere ez dira), % 8 lonja batean egoten da, % 7 zinemara, antzerkia edo kontzerturen bat ikustera joaten da, % 5ek irakurri egiten du, beste % 5 kontsolekin aritzen da, % 4 dendaz denda ibiltzen da, beste % 4 kirol-ikuskizunetara joaten da, % 3k mugikorrarekin hitz egiten edo mezuak bidaltzen ditu, % 2k kultura-jarduera zehatzen bat egiten du, % 1 joko-aretoetara joaten da eta beste % 1ek elkarteetako jarduerak edo boluntario-lanak egiten ditu.

Lanegunetatik jaiegunetara, beraz, nabarmen jaisten da denbora librean telebista ikusi, musika entzun, ordenagailuarekin denbora pasa aritzen diren edo irakurri egiten duten gazteen ehunekoak; al-diz, lagunekin edo bikotekidearekin egoten direnak askoz gehiago dira, tabernetara edo diskoteketara joaten direnak, litroak edaten dituztenak, mendira joaten direnak, ikuskizunetara joaten direnak edo, besterik, gabe, ezer egin gabe atsedean hartzen dutenak bezalaxe.

Datu horiek duela lau urtekoekin alderatuz gero, denbora librean (asteaz zehar nahiz asteburuan) ordenagailuarekin denbora pasa aritzen direnen ehunekoak handitu dela ikusiko dugu eta lonja agertzen da denbora librean betetzeko modutzat, 2008an ez bezala. Asteburutan aisialdiko jarduera nagusietako bat «litroak edatea» dela dioten gazteen ehunekoak ere zertxobait egin du gora.

Aitzitik, behera egin dute asteburutan eta jaiegunetan denbora librean ezer egiten ez dutenak, diskoteketara edo ikuskizunetara joaten direnak, dendaz denda ibiltzen direnak eta asteen zehar irakurtzen edo kontsolekin jokatzeko egoten direnak.

## 75. taula

LANEGUNETAN ETA JAIEGUNETAN EGINDAKO AISIALDIKO JARDUEREN BILAKAERA (%)

LANEGUNETAN, NAGUSIKI, ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN? ETA ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN?*				
(ERANTZUN BAKOITZA AIPATU DEN %)	LANEGUNETAN 2012	LANEGUNETAN 2008 **	ASTEBURUETAN ETA JAIEGUNETAN 2012	ASTEBURUETAN ETA JAIEGUNETAN 2008 **
Telebista, bideoa edo DVDa ikusi	48	49	21	21
Lagunekin edo bikotekidearekin egon	46	45	60	59
Musika entzun	41	42	14	16
Etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritu (Internet, gizarte-sareak, txat-ak, mezuak, musika edo filmak deskargatzea eta abar)	35	24	13	9
Kirola egin	27	26	21	22
Familiarekin egon	15	19	16	16
Paseatu, kalean egon	14	11	17	17
Irakurri (liburuak —ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak, komikiak...)	14	18	5	5
Tabernetara edo kafetegietara joan	10	10	31	33
Atsedean hartu, ezer ez egin	8	13	15	19
Bideo-jokoen kontsolekin edo ordenagailuko jokoekin aritu	6	10	5	4
Telefonoz hitz egin, mugikorrez mezuak bidali	6	9	3	4
Lonjan egon	6	-	8	-
Mendira joan	3	3	9	9
Dendetan, erosketetan ibili (ez ohiko erosketak)	2	4	4	7
Kultura jarduera jakinak (dantza, musika-tresna bat jo, pintatu...)	2	3	2	2
Joko-aretoetara joan	1	0	1	2
Diskoteka edota dantza-aretoetara joan	1	1	19	23
Ikuskizunetara joan (musika, zinema, antzerkia)	1	2	7	12
Kirol-ikuskizunetara joan	1	1	4	5
Elkarteetako edo borondatezko lanak	1	1	1	1
Kalean edan, kale-zurruta	0	1	9	6
Bestelako zaletasun edo hobbyak	2	4	2	4
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

\* Ehunekoen batura 100 baino gehiago da, lanegunetarako hiru erantzun eman zitezkeelako, eta hiru erantzun asteburuetarako eta jaiegunetarako

\*\* 2008ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2008)

Jarraian, lanegunetan aisialdiko jardueretan izaten diren alde nagusiak deskribatuko ditugu, denbora librean betetzeko hiru aldagai garrantzitsuen arabera: sexua, adina eta seme-alabak izatea edo ez izatea.

Mutilek astelehenetik ostiralera denbora librean betetzeko kirola egiten dute, kontsolekin jolasten dira eta lonjan egoten dira, hori guztia neskek baino hein handiagoan. Bestalde, neskek familiarekin egoten, paseoan edo kalean egoten, irakurtzen eta mugikorrarekin hitz egiten edo mezuak bidaltzen betetzen dute denbora librean, mutilek baino gehiago.

Adinean gora egin ahala, denbora librean musika entzuten duten gazteen ehunekoak txikiagoak da eta handiagoak, ordea, tabernetara joaten direnena. Gainera, 25-29 urteko taldean, denbora librean betetzeko telebista ikusten dutenen edo familiarekin egoten direnen ehunekoak handiagoak dira 25 urtetik beherako taldean baino, eta ordenagailuarekin, kontsolarekin edo mugikorrarekin denbora pasa egoten direnen eta lonjan egoten direnen ehunekoak, aldiz, txikiagoak dira.

Azkenik, seme-alabak dituzten gazteek gainerakoak baino ehuneko handiagoak dituzte astean zehar denbora librean betetzeko honako jardueren hauei dagokienez: familiarekin egotea, paseoan edo kalean egotea, telefonoz hitz egitea, dendaz denda ibiltzea edo, besterik gabe, atsedean hartzea. Seme-alaben erantzukizunik ez duten gazteek hein handiagoan egiten dituzte gainerako jarduerak.

## 76. taula

LANEGUNETAN EGINDAKO AISIALDIKO JARDUERAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN  
ETA SEME-ALABAK IZATEAREN ARABERA (%)

LANEGUNETAN, NAGUSIKI, ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN?*								
(ERANTZUN BAKOITZA AIPATU DEN %)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			BADUZU SEME-ALABARIK?	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	BAI	EZ
Telebista, bideoa edo DVDa ikusi	48	48	49	45	46	52	51	48
Lagunekin edo bikotekidearekin egon	46	47	46	45	48	46	33	47
Musika entzun	41	40	43	50	45	34	30	42
Etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritu (Internet, gizarte-sareak, txat-ak, mezuak, musika edo filmak deskargatzea eta abar)	35	35	34	39	39	28	16	36
Kirola egin	27	36	17	29	23	29	9	28
Familiarekin egon	15	9	22	13	13	19	56	12
Paseatu, kalean egon	14	11	17	11	14	15	24	13
Irakurri (liburuak —ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak, komikiak...)	14	11	17	14	12	16	10	15
Tabernetara edo kafetegietara joan	10	10	10	5	9	14	10	10
Atsedean hartu, ezer ez egin	8	8	9	9	6	9	14	8
Bideo-jokoen kontsolekin edo ordenagailuko jokoekin aritu	6	9	2	6	8	3	0	6
Telefonoz hitz egin, mugikorrez mezuak bidali	6	4	9	8	8	4	11	6
Lonjan egon	6	9	3	6	9	4	1	7
Mendira joan	3	5	2	3	3	4	4	3
Dendetan, erosketetan ibili (ez ohiko erosketak)	2	2	3	1	2	3	6	2
Kultura jarduera jakinak (dantza, musika-tresna bat jo, pintatu...)	2	1	2	2	2	1	1	2
Joko-aretoetara joan	1	1	1	1	1	1	0	1
Diskoteka edota dantza-aretoetara joan	1	1	1	2	1	0	0	1
Ikuskizunetara joan (musika, zinema, antzerkia)	1	0	1	0	1	0	1	0
Kirol-ikuskizunetara joan	1	1	1	1	1	1	1	1
Elkarteetako edo borondatezko lanak	1	1	1	0	1	1	0	1
Kalean edan, kale-zurruta	0	0	0	0	0	0	0	0
Bestelako zaletasun edo hobbyak	2	2	1	1	0	3	1	2
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>103</b>	<b>1397</b>

\* Ehunekoen batura 100 baino gehiago da, hiru erantzun eman baitzitezkeen



Jaiegun edo asteburutan denbora librea betetzeko moduak aztertuko ditugu jarraian; gazteen sexuaren eta adinaren arabera aldeak daudela ikusiko dugu, bai eta, bereziki, seme-alabarik duten edo ez duten arabera ere.

Asteburutan, nesken artean gutxiago aukeratzen dute denbora librean honako jarduera hauek egitea, mutilen artean baino: kirola egitea edo kirol-ikusketara joatea, kontsolekin jolastea edo lonjan egotea; aitzitik, mutilek baino ehuneko handiagoak dituzte familiarekin egoteari, paseoan edo kalean egoteari eta dendaz denda ibiltzeari dagokienez.

Asteburutako denbora librean, zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta gazte gehiago dira tabernetara joaten direnak, familiarekin egon, mendira joan, ikuskizunetara joan, telebista ikusi edo, besterik gabe, ezer egin gabe atsedean hartzen dutenak; eta orduan eta gutxiago dira lagunekin egoten direnak, ordenagailuarekin edo kontsolekin denbora pasa, musika entzun, diskoteketara joan, lonjan egon edo «litroak» edaten dituztenak.

Seme-alabak dituztenen ehunekoak handiagoak dira denbora librea betetzeko familiarekin egoten direnen kasuan, telebista ikusten, paseoan edo kalean egoten, dendaz denda ibiltzen edo ezer egin gabe atsedean hartzen egoten direnen kasuan, betiere seme-alabarik ez dutenekin alderatuta. Guraso gazteen kolektiboa seme-alabarik ez dutenen kolektiboa baino askoz gutxiago joaten da tabernetara, diskoteketara, lonjara, ikuskizunak ikustera, kirola egitera edo «litroak» edatera.

## 77. taula

JAIEGUN ETA ASTEBURUTAN EGINDAKO AISIALDIKO JARDUERAK, SEXUAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA SEME-ALABAK IZATEAREN ARABERA (%)

ETA ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN, NAGUSIKI, ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN?*								
(ERANTZUN BAKOITZA AIPATU DEN %)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			BADUZU SEME-ALABARIK?	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	BAI	EZ
Telebista, bideoa edo DVDa ikusi	21	19	22	18	18	25	41	19
Lagunekin edo bikotekidearekin egon	60	60	59	64	61	56	41	61
Musika entzun	14	14	13	17	14	11	11	14
Etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritu (Internet, gizarte-sareak, txat-ak, mezuak, musika edo filmak deskargatzea eta abar)	13	13	12	17	13	10	6	13
Kirola egin	21	30	11	23	19	21	8	22
Familiarekin egon	16	10	23	10	13	22	64	13
Paseatu, kalean egon	17	14	20	14	18	18	33	16
Irakurri (liburuak —ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak, komikiak...)	5	4	6	5	4	6	7	5
Tabernetara edo kafetegietara joan	31	29	33	20	34	36	19	32
Atsedean hartu, ezer ez egin	15	13	18	11	15	19	21	15
Bideo-jokoen kontsolekin edo ordenagailuko jokoekin aritu	5	7	1	7	4	3	0	5
Telefonoz hitz egin, mugikorrez mezuak bidali	3	2	5	4	4	3	5	3
Lonjan egon	8	11	5	12	9	5	2	9
Mendira joan	9	10	8	4	8	14	9	9
Dendetan, erosketetan ibili (ez ohiko erosketak)	4	1	8	5	5	4	8	4
Kultura jarduera jakinak (dantza, musika-tresna bat jo, pintatu...)	2	3	1	3	1	3	1	2
Joko-aretoetara joan	1	2	1	1	2	1	0	2
Diskoteka edota dantza-aretoetara joan	19	20	18	27	21	13	3	20
Ikuskizunetara joan (musika, zinema, antzerkia)	7	6	8	3	5	11	1	7
Kirol-ikuskizunetara joan	4	5	2	3	4	4	1	4
Elkarteetako edo borondatezko lanak	1	0	1	1	1	1	0	1
Kalean edan, kale-zurruta	9	9	8	15	11	3	1	9
Bestelako zaletasun edo hobbyak	2	1	2	2	2	2	0	2
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>103</b>	<b>1397</b>

\* Ehuneko batura 100 baino gehiago da, hiru erantzun eman baititezkeen

Lanegunetan eta jaiegunetan errepikatzen diren aldeei erreparatuz gero, zera aipa dezakegu, neskak denbora librean mutilak baino gehiago egoten direla familiarekin edo kalean bai astean zehar, bai asteburutan, eta mutilek baino gutxiago egiten dutela kirola, lonjan egon edo kontsolekin jolastu.

Lanegunetan eta jaiegunetan, 25-29 urteko gazteek denbora libre gehiago eskaintzen diote tabernetara joateari, familiarekin egoteari eta telebista ikusteari, eta 25 urte bete ez dituztenen kasuan, musika entzuten edo ordenagailuarekin denbora pasa aritzen direnen ehunekoak handiagoak dira.

Guraso gazteek seme-alabarik ez dutenek baino denbora gehiago ematen dute, lanegun nahiz jaiegunetan, familiarekin egoten, paseoan edo kalean egoten, denda dendaz ibiltzen edo ezer egin gabe atsedean hartzen

## 5.4. JARDUERA ARTISTIKO EDO KULTURALAK

Jarduera artistikoak eta/edo kulturalak egitea ez da denbora libre betetzeko gazteen modurik gogokoenetakoa, baina hala ere, faktore hori aztertu egingo dugu, horrelako jardueretan EAEko zenbat gaztek jarduten duten jakiteko. Horretarako, azken hamabi hilabeteetan jarduera kultural edo artistikoren bat egin ote duten galdetu diegu gazteei.

Proposamenen artean, azken urtean «amateur» mailan honako jarduera hauek gailendu dira: lehenik argazkigintza (% 19), bigarrenik idazketa (% 16), hirugarrenik margolaritza edo marrazketa (% 13) eta laugarrenik musika-tresna bat jotzea (% 10).

Gazte gutxiagok egiten du dantza edo balleta (% 9), bideogintza (% 8) edo beste ikus-entzunezkoak, hala nola, diseinu grafikoa edo web-diseinua (% 6). Gazteen % 4k abesbatza edo musika-talde batean abesten du, beste % 4k beste arte plastikoak egiten ditu, hala nola, eskultura edo zeramika, % 2k antzerkia egiten du eta % 1ek bertsolaritza.

Azken 4 urteotan, honako jarduera hauen ehunekoek gora egin dute: idazketak (% 10etik % 16ra), eta teknologia berriekin edo ikus-entzunezko gailu teknologikoekin loturiko jarduerak: argazkigintzak (% 12tik % 19ra), bideogintzak (% 4tik % 8ra) eta beste ikus-entzunezkoek, hala nola, diseinu grafikoa, web-orriak eta abar (% 2tik % 6ra)<sup>41</sup>.

Datu horiek Espainiako gazteei dagozkienekin alderatzen baditugu (Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Gazteen Euskal Behatokiari emandako 2010 eta 2011ko datuetan oinarrituta), zera ikusiko dugu, oro har, Espainia osoko gazteen artean gazte gehiagok egiten dituztela horrelako jarduerak. Proposatutako zerrendatik, EAEko gazteen artean zabalduago dauden jarduera bakarrak idazketa, dantza edo balleta egitea edo abesbatza edo musika-talde batean abestea dira.

<sup>41</sup> Duela lau urteko datuak Kulturaren Euskal Behatokiak eman dizkigu Gazteen Euskal Behatokiak eskatuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren arloko ohitura, praktika eta kontsumoari buruzko estatistiketan oinarrituta daude (2007-2008).

Aldiz, EAeko biztanleria orokorrarekin egiten badugu konparazioa<sup>42</sup>, idazketa, dantza edo balleta egitea, edo abesbatza edo musika-talde batean abestea jardueren ehunekoak gazteen artean handiagoak direla konturatuko gara, baina argazkigintza edo bideoegintza egiten dutenen ehunekoak, ordea, biztanleria orokorrean dira handiagoak.

### 78. taula

JARDUERA KULTURAL EDO ARTISTIKOAK EGITEA. BILAKAERA  
ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN ETA EAE-KO BIZTANLERIA OROKORREKIN KONPARATZEA (%)

AZKEN HAMABI HILABETEETAN, PARTE HARTU AL DUZU EKINTZA KULTURAL HAUETAN? («AMATEUR» MAILAKO JARDUERA)				
(AUKERA BAKOITZEAN ADIERAZTEN DEN JARDUERA EGIN DUTENEN %)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2007/2008 <sup>(1)</sup>	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2010/2011 <sup>(2)</sup>	BIZTANLERIA OSOA EAE 2010/2011 <sup>(3)</sup>
Argazkigintza	19	12	43	33
Idaztea	16	10	12	5
Margolaritza edo marrazketa	13	10	24	12
Musika-tresna bat jotzea	10	11	15	8
Dantza, balleta	9	7	7	4
Bideoak egitea	8	4	23	12
Bestelako ikus-entzunezko jarduerak (diseinu grafikoa, webguneak eta abar)	6	2	10 <sup>(4)</sup>	5 <sup>(4)</sup>
Abesbatza edo musika-talde batean abestea	4	3	3 <sup>(4)</sup>	2 <sup>(4)</sup>
Beste arte plastiko batzuk (zeramika, eskultura eta abar)	4	3	9	5
Antzerkia	2	2	4	2
Bertsolaritza	1	1	0 <sup>(4)</sup>	0 <sup>(4)</sup>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>887</b>	<b>7853</b>	<b>1837</b>

(1) Iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak

(2) Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako datuak

(3) Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Encuesta de Hábitos y Prácticas culturales 2010/2011)

(4) Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren inkestan webguneen diseinua eta bestelako ikus-entzunezko jarduerak bereizten ziren. Hemen datuak batu egin dira, alderaketa egin ahal izateko. Litekeena da bi aukerei baiezko erantzuna eman dion pertsona bi aldiz kontabilizatuta agertzea. Inkesta honetan abesbatzan abestearen aukera baino ez zen agertzen, ez musika-talde batean abestearena. Azkenik, bertsolaritza ez zen Ministerioako inkestan proposatutako jardueren artean agertzen, beraz, ezin da alderaketarik egin.

<sup>42</sup> Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. *Encuesta de Hábitos y Prácticas culturales 2010/2011* [linean], Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. <http://www.mcu.es/estadisticas/MC/EHC/2010/TablasResultados.html> [Kontsulta: 2013/09/30]

Azken urtean jarduera artistiko edo kulturalak egitean nesken eta mutilen arteko alde nagusia dantza eta balleta da. Neskek mutilen baino askoz gehiago egiten dute (% 14 eta % 4, hurrenez hurren). Halaber, neskek gehiago idazten, margotzen edo marrazten dute mutilek baino, beste arte plastikoak gehiago egiten dituzte (zeramika edo eskultura) eta argazkigintzan eta antzerkian ere gehiago jarduten dute. Mutilek, ordea, bideogintzan edo ikus-entzunezkoetan neskek baino gehiago jarduten dute, eta musika-tresna bat jotzen dutenen, talderen batean edo abesbatza batean abesten dutenen edo bertotan aritzen direnen ehunekoak handiagoak dira mutilen kasuan, nesken kasuan baino. Nolanahi ere, nesken eta mutilen arteko aldeak ez dira oso handiak, goian aipatu dugun dantza edo balletaren salbuespena salbuespen.

Adinean gora egin ahala, gero eta gazte gutxiagok idazten, margotzen edo marrazten du. 20 urtetik beherakoek egiten dute gehien dantza edo ballet, antzerkia edo musika-tresnaren bat jotzea.

### 79. taula

JARDUERA KULTURAL EDO ARTISTIKOAK EGITEA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

AZKEN HAMABI HILABETEETAN, PARTE HARTU AL DUZU EKINTZA KULTURAL HAUETAN? («AMATEUR» MAILAKO JARDUERA)						
(GALDEERA BAKOITZARI EMANDAKO BAIEZKO ERANTZUNEN %)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKU- MEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Argazkigintza	19	17	21	17	19	20
Idaztea	16	14	17	21	17	11
Margolaritza edo marrazketa	13	12	14	18	14	9
Musika-tresna bat jotzea	10	12	9	12	9	10
Dantza, balleta	9	4	14	13	6	9
Bideoak egitea	8	10	6	9	7	8
Bestelako ikus-entzunezko jarduerak (diseinu grafikoa, webguneak eta abar)	6	7	5	6	6	5
Abesbatza edo musika-talde batean abestea	4	5	3	4	4	4
Beste arte plastiko batzuk (zeramika, eskultura eta abar)	4	3	5	2	4	5
Antzerkia	2	1	4	4	2	2
Bertsolaritza	1	2	1	2	1	1
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

Proposatutako jardueretakoren bat egiten dutenak aintzat hartuta, 2012. urtean gazteen % 43k jarduera kultural edo artistikoren bat egiten duela esan dezakegu, hau da, duela lau urteko ehunekoa baino zertxobait gehiago (% 40).

## 5.5. IKUSKIZUNETARA JOATEA

Aisialdi kulturala izateko beste modu bat, ez hain aktiboa, ikuskizunetara joatea da. Aisialdi mota hori kontsumoarekin eta kanpo-eskaintzarekin loturik dagoenez, eskaintza hori gogoko izatearekin edo ez izatearekin baldintzatuta egoten da, alde batetik, eta bestetik, gazteen diru-baliabideekin.

Kasu honetan kirol-ikuskitzuna alde batera utzi ditugu eta artearekin eta kulturarekin loturikoak soilik izan ditugu kontuan: zinemara, antzerkia edo musika-kontzertuak ikustera edo museoetara joatea.

EAEko gazteen erdiak baino gehiagok (% 53) esan du gutxienez behin zinemara joan dela azken hiru hilabeteetan. Zinemara joateko ehuneko nabarmen murriztu da 2008. urtetik<sup>43</sup> 2012. urtera: % 72tik % 53ra. Interneten filmak deskargatzea, filmak *online* ikustea eta sarreraren prezioa garestitzea faktore erabakigarriak izan dira gazteak zinema-aretoetara hainbeste ez joateko.

Gazteen % 42 musika-kontzerturen (edozein estilotakoa) batera joan da inkesta egin aurreko hiruhilekoan. Baina kontzertuetara joan diren gazteen ehunekoak gora egin du 2008. urtearekin alderatuta (% 30).

% 20k dio inkesta erantzun aurreko hiruhilekoan museoren batera joan dela. Kasu horretan, aurreko neurketarekiko (2007/2008) ez da aldakuntza nabarmenik gertatu; izan ere, museoren batera joan ziren gazteak % 18 ziren.

Azkenik, gazteen % 13 antzerkira joan zen 2011ko abendutik 2012ko martxora bitarte. Antzerkira joaten direnak gutxiengo diren arren, 2008. urtean baino gehixeago dira (% 9).

EAEko gazteak Espainiakoak baino maiztasun txikiagoz joaten dira zinemara<sup>44</sup>, baina kontzertuetara askoz gehiago joaten dira. EAEko eta Espainiako gazteak zinemara zenbat joaten diren aztertzeko garaian, ez dugu ahaztu behar Estatuko inkesta 2010. eta 2011. urteetan egin zela eta aurreko neurketarekiko (2006) jaitsiera txiki bat gertatu zela; beraz, inkesta 2012an egin izan balitz EAEn eta Espainiaren arteko aldea agian txikiagoa izango litzateke.

Bestalde, EAEko biztanleria orokorrarekin alderatuta<sup>45</sup>, gazteak gehiago joaten dira, oro har, proposatutako kultura-jarduera guztietara. Gazteek, normalean, diru gutxiago izaten duten arren, denbora libre gehiago eta familia-erantzukizun gutxiago dutenez, gainerako herritarrek baino hein handiagoan parte hartzen dute denbora libreko ekitaldi eta jardueretan.

---

<sup>43</sup> Kulturaren Euskal Behatokiak Gazteen Euskal Behatokiari emandako datuak.

<sup>44</sup> Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Gazteen Euskal Behatokiari emandako datuak.

<sup>45</sup> Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. *Encuesta de Hábitos y Prácticas culturales 2010/2011* [linean], Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. <http://www.mcu.es/estadisticas/MC/EHC/2010/TablasResultados.html> [Kontsulta: 2013/10/08]

**80. taula**

IKUSKIZUNETARA JOATEA. BILAKAERA ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN  
ETA EAE-KO BIZTANLERIA OROKORREKIN KONPARATZEA (%)

ETA AZKEN HIRU HILABETEETAN, GUTXIENEZ BEHIN...				
(IKUSKIZUN BAKOITZARA JOAN DIRENEN %)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2007/2008 <sup>(1)</sup>	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2010/2011 <sup>(2)</sup>	BIZTANLERIA OSOA EAE 2010/2011 <sup>(3)</sup>
Joan zara zinemara?	53	72	61	30
Musika-kontzerturen batera?	42	30	27	17
Museoren batera?	20	18	18	17
Antzerkia ikustera?	13	9	10	7
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>887</b>	<b>7853</b>	<b>1837</b>

(1) Iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak

(2) Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako datuak

(3) Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Encuesta de Hábitos y Prácticas culturales 2010/2011)

Neskak zinemara eta antzerkira joaten dira mutilak baino gehiago; aldiz, mutilak kontzertuetara joaten dira, neskak baino gehiago.

Adinak ez du alde nabarmenik eragiten baina 25 urtetik beherakoak 25-29 urtekoak baino gehiago joaten dira zinemara.

Langabezian daudenak joaten dira gutxien ikuskizun mota guztietara: % 42 zinemara, % 37 kontzerturen batera, % 14 museoren batera eta % 9 antzerkia ikustera joan da.

Baina, zalantzarik gabe, bada aldagai bat alde handienak eragiten dituena, okupazioa, diru-baliabideak edo denbora librea izatea baino gehiago: seme-alabak izatea edo ez izatea. Seme-alabak dituztenak ez dituztenak baino gutxiago joaten dira ikuskizunetara.

## 81. taula

IKUSKIZUNETARA JOATEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA SEME-ALABAK IZATEAREN ARABERA (%)

ETA AZKEN HIRU HILABETEETAN, GUTXIENEZ BEHIN...								
(IKUSKIZUN BAKOITZARA JOAN DIRENEN %)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN -TALDEAK			BADUZU SEME-ALABARIK?	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	BAI	EZ
Joan zara zinemara?	53	51	55	56	56	49	28	55
Musika-kontzerturen batera?	42	46	37	40	43	41	14	44
Museoren batera?	20	19	21	21	16	23	11	21
Antzerkia ikustera?	13	10	15	13	10	14	7	13
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>103</b>	<b>1397</b>

## 5.6. IRAKURMENA

Ohiko moduan irakurtzea oso mesedegarria da: buru-azkartasuna hobetzen du, kontzentratzeko ahalmena areagotzen du, enpatia sustatzen du, neuronen konexioak ahalbidentzen ditu, estres-maila murrizten du, ikusmen-sistema aktibatzen du... Horretaz gain, aisialdiko aukera bikaina ere bada.

Aurreko atal batean ikusi dugunez, gazteen % 14k baino ez du aipatzen irakurketa astegunetan denbora libre betetzeko hiru modu nagusien artean.

Ehuneko hori (% 14) baldintzatuta dago, gehienez ere hiru erantzun aukera zitezkeelako. Muga horren eragina leuntzeko eta gazteen artean irakurzaletasuna zenbateraino dagoen zabaldua jakin nahi dugunez, inkesta egin aurreko hilabeteen libururen bat irakurri ote duten galdetu diegu gazteei, baina ikasketekin edo lanarekin loturik egon gabe.

EAEko gazteen % 54k baietz erantzun du. Horrek esan nahi du EAEko gazteen erdia baino ez dela irakurlea. Nolanahi ere, aisialdiko irakurzaletasunaren ehuneko hori duela lau urtekoa baino askoz handiagoa da (% 45<sup>46</sup>).

Lanarekin edo ikasketekin loturirik ez duen irakurketaren ehuneko nabarmen handiagoa da gazteen artean, EAEko biztanleria orokorrean baino (% 41<sup>47</sup>).

<sup>46</sup> Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak.

<sup>47</sup> Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, *ob. cit.*



EAEko gazteen eta Espainiako gazteen irakurketa-ehunekoak (Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuetan oinarrituta) alderatuz gero, EAEn gazte gehiagok esan du azken hilabeteetan aisialdiagatik libururen bat irakurri duela, Espainian baino (% 54 eta % 38, hurrenez hurren).

## 82. taula

AISIALDIKO IRAKURKETA. BILAKAERA ETA ESPAINIAKO GAZTEEKIN  
ETA EAE-KO BIZTANLERIA OROKORRAREKIN KONPARATZEA (%)

AZKEN HILEAN IRAKURRI AL DUZU LIBURURIK, EDOZEIN HIZKUNTZATAN, AISIAGATIK, HAU DA, EZ IKASKETETARAKO EDO LANERAKO BEHAR ZENUELAKO?				
(BAIEZKO ERANTZUNA EMAN DUTENEN %)	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2012	GAZTEAK 15-29 URTE EAE 2007/2008 <sup>(1)</sup>	GAZTEAK 15-29 URTE ESPAINIA 2010/2011 <sup>(2)</sup>	BIZTANLERIA OSOA EAE 2010/2011 <sup>(3)</sup>
AZKEN HILEAN AISIAGATIK IRAKURTZEA	54	45	38	41
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>887</b>	<b>7853</b>	<b>1837</b>

(1) Iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak

(2) Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako datuak

(3) Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Encuesta de Hábitos y Prácticas culturales 2010/2011)

Aisialdiko irakurketa ohikoagoa da nesken artean, mutilen artean baino. Azkenaldian, biztanleria orokorrari dagokionez, emakumeen kolektiboa jotzen da irakurzaletasun handieneko kolektibotzat eta EAEko gazteen kasuan joera hori berretsi egiten da. Mutilen % 43k esan du aisialdian libururen bat irakurri duela azken hilabeteetan eta nesken artean, % 65 ere badira.

Irakurle gazteen ehunekoa zertxobait handiagoa da Araban (% 60), gainerako lurraldeetan baino (Gipuzkoan % 56 eta Bizkaian % 50).

Aldiz, adin-taldearen arabera ez da alde adierazgarri ikusten ez alde batera, ez bestera. 15-19 urtekoen artean, % 52k esan du aisialdian libururen bat irakurri duela; 20-24 urteko eta 25-29 urtekoen artean % 54k.


Horretaz gain, bilakaerari erreparatuz gero, aisialdiko irakurzaletasunaren hazkundera handiagoa izan da emakumeen artean (duela lau urte baino hamasei puntu gehiago), gizonen artean baino (soilik hiru puntuko hazkundera).

Hazkundera orokorra izan da hiru lurraldeetan. Nolanahi ere, Gipuzkoako gazteen artean hazi da gehien irakurzaletasuna.

Adinaren arabera, hazkunde handiena kolektibo gazteenean gertatu da: 15-19 urtekoen artean % 36tik % 52ra. Gainerako adin-taldeetan ere hazkunde handiak izan dira, baina ez hainbeste (20-24 urtekoen artean % 47tik % 54ra, eta 25-29 urtekoen artean % 49tik % 54ra).

## 37. grafikoa

AISIALDIKO IRAKURKETA. BILAKAERA EAE-KO GAZTEEN ETA GAZTE KOLEKTIBOEN ARTEAN (%)



\* Iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak

Gazteentzako literaturako zenbait bilduma arrakasta handia izaten ari da azken urteotan eta, agian, horregatik handitu dira hainbeste irakurzaletasunaren ehunekoak, bereziki, gazteenen eta nesken artean. Horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar gero eta jende gehiagok duela liburu elektronikoa, gero eta eskaintza handiagoa baitago eta gero eta merkeagoak baitira, eta kasu askotan, gailu horiekin askoz errazagoa da irakurzaletasuna sustatzea, edozein lekutan irakurtzeko aukera ematen baitute, leku batetik bestera eraman daitezkeelako, paperezko euskarria baino arinagoak direlako eta hainbat bolumen euskarri bakarrean biltzeko aukera ematen dutelako.

Irakurle gazteei buruzko datuak asko murrizten dira euskarazko irakurketara mugatuz gero. Inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan, EAEko gazteen % 29k irakurri du euskarazko liburuaren bat, aisialdiatik, ikasketengatik edo lanagatik.

Euskarazko liburuaren irakurketa nabarmen handiagoa da 20 urtetik beherakoen artean (ia erdiak, hau da, % 49k euskarazko liburuaren bat irakurri du azken hiru hilabeteetan), adin horretatik gorakoaren artean baino. Aisialdiako irakurketari dagokionez adin-taldearen artean alde handirik ez zegoela kontuan hartuta, gazteenek euskarazko liburuak gehiago irakurtzearen arrazoi nagusia ikasketak izango direla pentsa

dezakegu (kolektiboaren % 87 ikaslea da, eta zaharrenean soilik % 9), euskaraz irakurtzeko ahalmen handiagoa izatearekin batera (hizkuntza-gaitasunak aztertzean aurrerago ikusiko dugunez, 15-19 urtekoen artean % 74k dio nahikoa ondo edo oso ondo irakurtzen duela euskaraz; 20-24 urtekoen artean % 68k eta 25-29 urtekoen artean, aldiz, % 52k).

Okupazio nagusiaren arabera, aurreko hipotesia berretsi egiten da: ikasleek euskaraz gehiago irakurtzen dute (% 44), gainerako gazteek baino.

Lurralde historikoaren arabera, alde adierazgarria dago alde batetik, Gipuzkoan bizi diren gazteen eta, bestetik, Araban eta Bizkaian bizi direnen artean. Euskaraz irakurtzea Gipuzkoan da ohikoena: gazteen % 35ek dio euskarazko liburu bat irakurri duela, arrazoiak arrazoi, azken hiru hilabeteetan. Bizkaian, % 25 eta Araban % 26 dira. Alde horiek zergatik sortzen diren jakiteko, lurralde historiko bakoitzeko gazteen hizkuntza-trebetasunen artean dauden aldeei erreparatu behar diegu berriro ere: Araban eta Bizkaian, euskaraz nahikoa ondo edo oso ondo irakurtzen duten gazteak % 50 eta % 56 dira, hurrenez hurren, eta Gipuzkoan % 82ra iristen dira.

### 83. taula

AZKEN 3 HILABETEETAN EUSKARAZKO LIBURUREN BAT IRAKURTZEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

AZKEN HIRU HILABETEETAN IRAKURRI AL DUZU LIBURURIK EUSKARAZ IKASKETETARAKO, LANERAKO EDO AISIAGATIK?													
(%)	GUZ-TIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				LURRALDEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	IKASTEAK	IKASTEAK ETA LAN EGITEAK	LAN EGITEAK	LANGA-BEZIAN	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Bai	29	28	30	49	25	18	44	30	15	17	26	25	35
Ez	70	71	69	49	74	81	55	68	84	81	73	73	65
Ed/Ee	1	1	1	2	1	1	1	2	1	2	1	2	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>647</b>	<b>150</b>	<b>392</b>	<b>257</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Kalkuluak egiteko garaian, euskaraz nahikoa ondo edo oso ondo irakurtzen dutenak soilik hartzen baditugu, lurraldearen araberako aldeak txikiagoak direla ikusiko dugu eta, gainera, Araban bizi diren gazte elebidunak bihurtuko lirarteke euskaraz gehien irakurtzen dutenak.

Aitzitik, euskarazko irakurketari dagokionez, adinaren eta okupazio nagusiaren araberako aldeak ez dira murrizten elebidunak soilik aintzat hartzen baditugu: gazteenek eta ikasleek (bi talde horiek bat datoz, kasu gehienetan) euskaraz gehiago irakurtzen dute zaharragoek eta ikasle ez direnek baino, nahiz eta azken horiek euskaraz nahikoa ondo edo oso ondo irakurtzeko gai izan.

## 84. taula

AZKEN 3 HILABETEETAN EUSKARAZKO LIBURUREN BAT IRAKURTZEA EUSKARAZ NAHIKO ONDO EDO OSO ONDO IRAKURTZEN DUTENEN ARTEAN, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

AZKEN HIRU HILABETEETAN IRAKURRI AL DUZU LIBURURIK EUSKARAZ IKASKETETARAKO, LANERAKO EDO AISIAGATIK?*													
(%)	GUZTI-RA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA			LURRALDEA			
		GIZO-NAK	EMAKU-MEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	IKASTEIA	IKASTEIA ETA LAN EGITEA	LAN EGITEA	LANGA-BEZIAN	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Bai	43	42	45	64	36	31	59	41	24	30	49	42	43
Ez	56	57	57	35	64	68	40	59	75	70	50	57	57
Ed/Ee	1	1	1	1	0	1	1	0	1	0	1	1	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>945</b>	<b>466</b>	<b>479</b>	<b>332</b>	<b>302</b>	<b>311</b>	<b>462</b>	<b>110</b>	<b>227</b>	<b>127</b>	<b>202</b>	<b>335</b>	<b>408</b>

\* Euskaraz ongi edo nahiko ongi irakurtzen dutela diotenei bakarrik egin zaie galdera hau.

Beraz, euskaraz irakurtzeko ohitura, gehienbat, ikasle izateak baldintzatzen du.

Euskaraz irakurtzen duten gazte elebidunen ehunekoa 2008koaren antzekoa da (% 43), betiere Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuen arabera.

Azkenik, irakurtzeko ohiturei dagokienez, inkesta egin aurreko hilabetean liburutegi edo mediateka batera zenbat gazte joan diren aztertuko dugu, baina ez diegu galdetu zergatik joan diren.

Gazteen % 39k dio liburutegi edo mediateka batera joan dela: nesken kasuan % 45 dira eta 15-19 urtekoen kasuan % 54. Adinean gora egin ahala, liburutegi eta mediateketara joateko ohitura arian-arian galdu egiten da. Izan ere, azken hilean 20-24 urteko gazteen % 42 soilik joan da, eta 25-29 urteko gazteen % 28.

Ikasleak gainerako gazteak baino gehiago joaten dira: soilik ikasi egiten dutenen artean % 58 eta beste % 58 ikasi eta lan batera egiten dutenen artean.

Eta 10.000 biztanletik gorako herrietan edo hiriburuetan, gazteek ohitura handixeagoa dute liburutegi edo mediateketara joateko, herri txikietan baino; izan ere, herri txikietan etxebizitzak sakabana-tuta egoten dira, kasu askotan, eta gerta liteke kultura-erakunde horietatik urrun bizitzea.

## 85. taula

LIBURUTEGI ETA MEDIATEKETARA JOATEA AZKEN HILEAN, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA BIZI DEN UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

JOAN AL ZARA LIBURUTEGI EDO MEDIATEKAREN BATERA AZKEN HILEAN?													
(%)	GUZ-TIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA				UDALERRIAREN TAMAINA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	IKASTEAK	IKASTEAK ETA LAN EGITEAK	LAN EGITEAK	LANGA-BEZIAN	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
Bai	39	34	45	54	42	28	58	58	18	19	35	40	40
Ez	61	66	55	46	58	72	42	42	82	80	65	60	59
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>647</b>	<b>150</b>	<b>392</b>	<b>257</b>	<b>240</b>	<b>660</b>	<b>600</b>


Azken hilean aisialdiagatik libururen bat irakurri dutenek ere ehuneko askoz handiagoak dituzte liburutegi eta mediateketara joateari dagokionez (% 52), denbora pasa lanarekin edota ikasketekin lotuta ez dagoen libururik irakurri ez dutenen aldean (% 24). Beste horrenbeste gertatzen da, arrazoiak arrazoi, azken hiruhilekoan euskarazko libururen bat irakurri dutenen artean; kolektibo hori gehiago joaten da liburutegi eta mediateketara, gainerako gazteak baino (% 58 eta % 32, hurrenez hurren).

## 86. taula

LIBURUTEGI ETA MEDIATEKETARA JOATEA AZKEN HILEAN, AISIALDIKO IRAKURKETAREN ETA EUSKARAZKO IRAKURKETAREN ARABERA (%)

JOAN AL ZARA LIBURUTEGI EDO MEDIATEKAREN BATERA AZKEN HILEAN?					
(%)	GUZTIRA	AZKEN HILEAN AISIAGATIK IRAKURRI DUTEN PERTSONAK		AZKEN HIRU HILABETEETAN EDOZEIN ARRAZOI DELA-ETA, EUSKARAZ IRAKURRI DUTEN PERTSONAK	
		BAI	EZ	BAI	EZ
Bai	39	52	24	58	32
Ez	61	48	75	42	68
Ed/Ee	0	0	1	0	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>824</b>	<b>673</b>	<b>446</b>	<b>1038</b>

Liburutegi edo mediateketara joaten diren gazteen ehunekoak gora egin du 2008. urtearekin alderatuta (% 33)<sup>48</sup>. Nesken eta mutilen artean gertatu da hazkundea, bai eta adin-talde guztietan ere.



\* Iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak

## 5.7. INTERNET ETA GIZARTE-SAREAK


Atal honetan, azken urteotan gertatu diren aurrerapen teknologikoak kontuan izan behar ditugu, bai eta Interneterako sarbidea demokratizatu izana ere. Arrazoiak arrazoi, ikastetxean, liburutegi eta mediateka publikoetan edo gailu mugikor pertsonalen bitartez, ia gazte guztiek dute Interneterako sarbidea. 2012. urtean, gazteen % 2k dio ez duela inoiz Internet erabili.

Azken urteotan, Interneten erabilera abiada bizian orokortu da. 2000. urtean gazteen erdiak baino gutxiagok (% 46) esan zuten Internet erabiltzen zuela edo erabili zuela inoiz; 2004. urtean % 82 ziren, 2008an % 94 eta 2012an % 98.

<sup>48</sup> Kulturaren Euskal Behatokiak Gazteen Euskal Behatokiari emandako datuei jarraiki.

39. grafikoa

GAZTEEK INTERNET ERABILTZEAREN BILAKAERA (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Internet erabiltzen duten gazteen kopuruak gora egitearekin batera, astean gero eta ordu gehiago egoten dira sarera konektatuta. Internet erabiltzen dutela dioten gazteak soilik hartuta, 2000. urtean Internet erabiltzen zuten gazteen ia erdiak (% 46) astean gehienez ordu-bete ematen zuen sarean eta % 3k astean hamabost ordu baino gehiago. 2012an, ordea, Interneteko erabiltzaileen % 8 konektatzen da astean gehienez ordubetez eta % 29ra iristen dira astean hamabost ordu baino gehiago konektatuta egoten direnak.

## 40. grafikoa

INTERNET ERABILTZEN DUTEN GAZTEEK ASTEAN KONEKTATUTA  
EMATEN DUTEN ORDU KOPURUAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Jarraian, gazteen kolektiboen artean alderik ba ote dagoen aztertuko dugu. Horretarako, gazte guztiak hartuko ditugu kontuan, 2012. urtean ia gazte gehienek erabiltzen baitute Internet.

Internet erabiltzeko ordui dagokienez, ez da alde handirik ikusten nesken eta mutilen artean: bi kasuetan, astean hamabost orduz baino gehiagoz konektatzen direnak % 29 dira, hau da, egunean batez beste bi ordu baino gehiago; eta astean gehienez zazpi orduz erabiltzen dute gazteen % 44k, hau da, egunean batez beste ordubete baino gutxiago.

Adin-taldearen arabera, 20-24 urteko kolektiboak egiten du erabilera handiena, % 20k astean hogeitun ordu baino gehiago ematen baititu konektatuta. Aldiz, 25 urtetik gorakoek gutxiago erabiltzen dute (% 49k astean gehienez zazpi ordu eta beste % 3k dio ez dela inoiz konektatu).



## 87. taula

INTERNET ASTEAN ZENBAT ORDUZ ERABILTZEN DEN, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

ASTEAN ZENBAT ORDUZ ERABILTZEN DUZU INTERNET?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Ez duzu inoiz Internet erabili	2	2	2	2	1	3
Ordubete baino gutxiago	8	9	7	8	6	10
Ordubetetik 7 ordura	36	35	37	34	33	39
7 ordutik 15 ordura	25	26	24	26	26	23
15 ordutik 20 ordura	12	12	11	14	12	10
20 ordu baino gehiago	17	17	18	16	20	15
Ed/Ee	0	0	1	0	1	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

Azken urteotan, gizarte-sareak ere asko zabaldu dira eta gazteen artean Facebook, Twitter edo Tuenti oso ezagunak dira. Gizarte-sare horiek komunikatzeko modu berri bat ekarri dute, gazteen artean harremanetan egoteko eta elkarreragiteko beste modu bat.

EAEko gazteen % 52k badu profila gizarte-sare batean baino gehiagotan eta % 31k gizarte-sare bakarrean; beraz, EAEko 15-29 urteko gazteen % 83k profil bat edo gehiago du gizarte-sarearen batean.

Neskek mutilek baino gehiago parte hartzen dute gizarte-sareetan: nesken % 88k badu profila gizarte-sare batean edo batzuetan, eta mutilen artean % 79 dira.

Era berean, gazteen artean gazteenek parte hartzen dute gehien gizarte-sareetan (% 92), eta ehuneko hori murriztu egiten da adinean gora egin ahala: 25-29 urtekoen artean % 77.

## 88. taula

GIZARTE-SAREREN BATEAN PROFILA IZATEA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

BADUZU PROFILIK INOLAKO SARE SOZIALETAN?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEA	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Bai, batean baino gehiagotan	52	49	55	59	58	44
Bai, sare batean	31	30	33	33	28	33
Ez, batean ere ez	14	18	10	6	13	20
Ed/Ee	1	1	0	1	1	1
Ez du inoiz Internet erabili	2	2	2	2	1	3
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

Azkenik, gizarte-sareetan parte hartzea eta Internet erabiltzea loturik daudela esan behar dugu; izan ere, gazteek zenbat eta gehiago parte hartu gizarte-sareetan, orduan eta ordu gehiago ematen dituzte konektatuta.

## 89. taula

INTERNET ASTEAN ZENBAT ORDUZ ERABILTZEN DEN, GIZARTE-SAREETAKO PROFILAREN ARABERA (%)

ASTEAN ZENBAT ORDUZ ERABILTZEN DUZU INTERNET?*				
(%)	GUZTIRA	SARE SOZIALEN BATEAN PROFILA DUTEN GAZTEAK		
		BATEAN BAINO GEHIAGOTAN	BATEAN	BATEAN ERE EZ
Ordubete baino gutxiago	8	3	9	25
Ordubetetik 7 ordura	37	27	47	48
7 ordutik 15 ordura	25	28	25	17
15 ordutik 20 ordura	12	16	9	5
20 ordu baino gehiago	17	26	10	5
Ed/Ee	0	0	1	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1469</b>	<b>780</b>	<b>477</b>	<b>203</b>

\* Internet erabiltzen dutela diotenei baino ez zaie egin galdera hau

Datuak ikusita, hausnarketa bat egin behar dugu. Emakumeak kalteberagoak dira harreman bertualetan, gauza asko kontatzen dituztelako, sentimenduak adierazten dituztelako eta bizitza pertsonalari buruzko xehetasunen berri ematen dutelako; bestalde, 20 urte bete ez dituztenak tolesgabeak, inuzenteak dira oraindik Interneten jendearekin harremanetan jartzen direnean eta ez dakite zer arrisku izan ditzaketen sareko harremanetan. Horregatik guztiagatik, oso garrantzitsua da Internet eta gizarte-sareak erabiltzearekin loturiko hezkuntza eskaintzea, kolektibo horietan sexismorik eta abusurik gerta ez dadin, zeren kalteberenak izateaz gain, gizarte-sareak gehien erabiltzen dituzten kolektiboak baitira.

## 5.8. EUSKARA

EAEko gazteen euskara-maila aztertzeko garaian, hizkuntza-trebetasunak bereizi ditugu: ahozko eta idatzitako ulermena, mintzamina eta idazmina.

Hizkuntza-trebetasunetako gaitasun-ehunekoak oso antzekoak dira: gazteen % 65ek dio nahiko ondo edo oso ondo ulertzen duela euskara; % 63 gai da euskaraz nahiko ondo edo oso ondo irakurtzeko; % 62k euskaraz nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten du eta beste % 62k euskaraz nahiko ondo edo oso ondo idazten du.

EAEEn bizi diren gazteen % 20k ez du ezer ulertzen euskaraz, edo hitz batzuk baino ez. % 22 ez da gai euskaraz hitz egiteko edo hitz batzuk baino ez. Beste % 22 ez da gai euskaraz irakurtzeko eta % 23k ez daki euskaraz idazten.

Dena den, EAEEn jaiotako gazteen artean euskaraz ez dakitenen edo hitz batzuk baino ez dakitenen ehunekoak batez bestekoa baino txikiagoak dira: % 10etik % 12ra bitartekoak. Aitzitik, atzerrian jaiotako gazteen artean, euskaraz ez dakitenen edo hitz batzuk baino ez dakitenen (ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko edo idazteko) ehunekoan sartzen dira kolektiboaren gehiengoa (% 74tik % 77ra bitarteko).

## 90. taula

EUSKARAZKO GAITASUN-MAILA HIZKUNTZA-TREBETASUN GUZTIETAN (%)

ZEIN DA ZURE EUSKARAREN EZAGUTZA-MAILA?				
(%)	GUZTIRA			
	ULERTZEN DUZU	HITZ EGITEN DUZU	IRAKURTZEN DUZU	IDAZTEN DUZU
Oso ongi	40	39	40	39
Nahikoa ongi	25	23	23	23
Zertxobait	15	16	15	15
Hitz batzuk bakarrik	10	10	9	9
Bat ere ez	10	12	13	14
Ed/Ee	0	0	0	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>	<b>1500</b>

Euskarazko gaitasun- eta ezagutza-maila antzekoa da nesken eta mutilen artean, eta ez dago aipatzeko modurik alderik euskaraz ulertu, hitz egin, idatzi edo irakurtzeko trebetasunari dagokionez.

Adinak, ordea, alde garrantzitsuak eragiten ditu. Euskaraz ulertzen dutenen ehunekoa handiagoa da gazteen artean: 15-19 urtekoen artean % 76k nahiko ondo edo oso ondo ulertzen du euskaraz, 20-24 urtekoen artean % 68k eta 25-29 urtekoen artean % 55ek.

Euskaraz hitz egiteko gaitasunari dagokionez, beste horrenbeste gertatzen da: gazteenek, hau da, 15-19 urtekoek nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten dute (% 73), baina ehunekoa % 67ra jaisten da 20-24 urtekoen artean eta % 52ra 25-29 urtekoen artean.

Euskaraz irakurtzeko eta idazteko gaitasunari dagokionez, 15-19 urteko taldeetan atera dira ehuneko handienak. Izan ere, lau hizkuntza-gaitasunak elkarri lotuta daude, hein handi batean.

EAEko hiru lurralde historikoetan gazteen hizkuntza-gaitasunak aztertzen baditugu, oso bestelako bi errealitate aterako zaizkigu. Alde batetik, Gipuzkoako gazteak eta, bestetik, Bizkaiko eta Arabako gazteak.

Gipuzkoan, gazteen % 81ek dio euskaraz nahiko ondo edo oso ondo ulertzen duela eta % 80ek nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten duela. Ehuneko horiek txikiagoak dira Araban eta Bizkaian. Araban, % 52k nahiko ondo edo oso ondo ulertzen du euskaraz eta % 46k maila horretan hitz egiten du. Bizkaian, aldiz, % 59k ulertzen du nahiko ondo edo oso ondo, eta hitz egin % 55ek.

Irakurtzeko trebetasuna ere nabarmen handiagoa da gazte gipuzkoarren artean (% 82k nahiko ondo edo oso ondo irakurtzen du euskaraz), bizkaitarren (% 5) eta arabarren (% 50) artean baino. Eta euskaraz idazteko gaitasunarekin ere berdin-berdin: Gipuzkoan ehunekoa askoz handiagoa da (% 80), Bizkaian eta Araban baino (% 55 eta % 47, hurrenez hurren).


## 91. taula

EUSKARA-MAILA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ZEIN DA ZURE EUSKARAREN EZAGUTZA-MAILA?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDE HISTORIKOAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>ULERTZEN DUZU</b>									
Oso ongi	40	39	42	48	42	33	29	28	65
Nahikoa ongi	25	25	25	28	26	22	23	31	16
Zertxobait	15	17	13	12	13	19	17	19	8
Hitz batzuk bakarrik	10	10	9	6	10	12	12	12	4
Bat ere ez	10	9	11	6	9	14	20	10	6
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>HITZ EGITEN DUZU</b>									
Oso ongi	39	38	40	46	41	33	29	26	64
Nahikoa ongi	23	24	23	27	26	19	17	29	16
Zertxobait	16	16	15	13	14	18	19	19	8
Hitz batzuk bakarrik	10	12	9	6	10	14	12	14	5
Bat ere ez	12	11	13	8	10	16	23	12	7
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>IRAKURTZEN DUZU</b>									
Oso ongi	40	39	41	48	42	33	30	28	65
Nahikoa ongi	23	23	23	26	26	19	20	28	17
Zertxobait	15	15	14	12	12	18	16	19	7
Hitz batzuk bakarrik	9	9	8	6	8	12	10	12	3
Bat ere ez	13	13	14	8	12	18	25	13	8
Ed/Ee	0	1	0	0	1	0	0	1	0
<b>IDAZTEN DUZU</b>									
Oso ongi	39	38	40	47	41	32	29	27	63
Nahikoa ongi	23	23	23	27	25	19	18	28	17
Zertxobait	15	16	15	12	14	19	18	19	8
Hitz batzuk bakarrik	9	10	8	6	8	12	11	12	4
Bat ere ez	14	13	15	8	12	19	25	14	8
Ed/Ee	0	1	0	0	1	0	0	1	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Gazteen hizkuntza-trebetasunak hobeak izan zitezkeen, EAEn euskara hizkuntza koofiziala baita eta derrigorrezko irakaskuntzan B ereduko (elebiduna) eta D ereduko (euskaraz, gaztelania irakasgai izanik) matrikulazioak nagusi direla kontuan izaten badugu; hala ere, azken urteotan egoera hobetu egin da.

Datu adierazgarri bat aipatzearen, euskaraz nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten dutela dioten gazteen ehunekoak hamalau puntu egin du gora, 2000. urteko % 48tik 2012. urteko % 62ra.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Hurrengo taulan ikusiko dugunez, EAEko gazteen hizkuntza-gaitasun guztietan hazkundea izan da 2000-2012 aldian, lurralde guztietan eta adin-talde guztietan.

Gazteen euskarazko gaikuntza biztanleriaren batez bestekoa baino handiagoa da<sup>49</sup> maila guztietan, ahozko ulermen eta adierazpenean eta idatzitako ulermen eta adierazpenean

<sup>49</sup> 15 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruzko datuak Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2010eko abenduan egindako azterlan batetik atera ditugu. *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak* [linean] [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/o\\_10tef3\\_euskera/eu\\_10tef3\\_adjuntos/10tef3\\_euskera\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_10tef3_euskera/eu_10tef3_adjuntos/10tef3_euskera_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/10/10]

## 92. taula


EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNEN BILAKAERA, ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ZEIN DA ZURE EUSKARAREN EZAGUTZA-MAILA?							
(%)	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>Oso ongi edo nahiko ongi ulertzen duzu</b>							
2000	59	69	60	50	42	51	79
2004	62	70	61	55	43	53	84
2008	63	74	65	50	51	52	83
2012	65	76	68	55	52	59	81
<b>Oso ongi edo nahiko ongi hitz egiten duzu</b>							
2000	48	59	49	40	24	43	69
2004	56	66	56	47	37	48	77
2008	56	68	58	45	44	47	80
2012	62	63	67	52	56	55	80
<b>Oso ongi edo nahiko ongi irakurtzen duzu</b>							
2000	55	66	56	44	36	49	74
2004	58	68	57	51	41	50	78
2008	59	72	61	46	48	49	79
2012	63	74	68	52	50	56	82
<b>Oso ongi edo nahiko ongi idazten duzu</b>							
2000	52	63	53	42	31	37	70
2004	57	67	56	48	40	48	77
2008	58	71	59	45	46	48	80
2012	62	74	66	51	57	55	80
<b>Maiztasun absolutuak 2000</b>	<b>1364</b>	<b>371</b>	<b>510</b>	<b>483</b>	<b>199</b>	<b>740</b>	<b>425</b>
<b>Maiztasun absolutuak 2004</b>	<b>1500</b>	<b>412</b>	<b>588</b>	<b>500</b>	<b>402</b>	<b>600</b>	<b>498</b>
<b>Maiztasun absolutuak 2008</b>	<b>1500</b>	<b>420</b>	<b>580</b>	<b>500</b>	<b>402</b>	<b>600</b>	<b>498</b>
<b>Maiztasun absolutuak 2012</b>	<b>1500</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

## 42. grafikoa

GAZTEEN ETA BIZTANLERIA OROKORRAREN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAK KONPARATZEA (%)



\* Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea  
(Euskara: erabilera, jarrerak, politikak)

Hizkuntza-gaitasunak ez ezik, EAEko gazteek euskara bi eremutan erabiltzen ote duten ere aztertu dugu; hain zuzen ere, etxean eta lagunekin. Eremu pribatu batean, hau da, etxean, eta beste eremu publikoago batean, hau da, lagunekin artean; izan ere, bigarren eremuan harremanetarako hizkuntza hautatzeko aukera handiagoa izaten da eta gurasoek, hezitzaileek... ez dute baldintzatzen.

Gazteen % 15ek dio etxean batik bat euskaraz hitz egiten duela (% 12k guztia edo ia guztia euskaraz egiten du eta beste % 3k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago). Beste % 8k dio etxean bi hizkuntzetan berdin hitz egiten duela. Bi ehuneko horiek batuta, EAEko gazteriaren laurden batek baino gutxiagok (% 23) du euskara etxeko ohiko hizkuntzatzat.

Lagunekin ere etxeko erabileraren antzekoa egiten dute: % 11k guztia edo ia guztia euskaraz hitz egiten du lagunekin dagoenean, % 3k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago eta beste % 12k bi hizkuntzetan berdin; beraz, gazteen laurden batek baino ez du euskaraz hitz egiten ohiko moduan lagunekin (% 26).

Orain arte gazteriaren guztizkoari buruzko datuak eman ditugu, baina jarraian, euskaraz nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten dutenak soilik hartuko ditugu eta euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiteko gai diren gazte elebidunek euskara zenbat erabiltzen duen ikusiko dugu. Eta, horrekin batera, kolektiboen artean zer nolako aldeak sortzen diren aztertuko dugu, erabilerari dagokionez.



Euskaraz nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten badakiten arren, % 42k gaztelaniaz baino ez du hitz egiten etxean. Puntu honetan zera aipatu behar dugu, gazte askok ezin dutela etxean euskaraz hitz egin gurasoek ez dakitelako (ez ahaztu gazteen % 73 gurasoekin bizi dela).

Gazte euskaldunen % 24k euskarari lehentasuna ematen dio etxean (guztia edo ia guztia euskaraz egiten du, edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago).

Lagunen kasuan, guztia edo ia guztia gaztelaniaz hitz egiten dutenak gutxiago dira (% 34), baina hala ere, gaztelaniari lehentasuna ematen diotenak gehiago dira euskarari ematen diotenak baino (% 56 eta % 23, hurrenez hurren). Kasu horretan, euskara eta gaztelania berdinean erabiltzen dituztenen ehunekoak gora egin du (% 19).

### 93. taula

ETXEAN ETA LAGUNEKIN OHIKO MODUAN ERABILTZEN  
DEN HIZKUNTZA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

NORMALEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ETXEAN? ETA ZURE LAGUNEKIN?							
(%)	GAZTE EUSKALDUNAK						
	GAZTEAK GUZTIRA	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
			GIZONAK	EMAKU- MEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
<b>ETXEAN</b>							
(Ia) guztia euskaraz	12	19	19	19	22	14	22
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	3	5	5	4	3	6	4
Bi hizkuntzetan berdinean	8	13	14	13	9	15	16
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	12	19	20	17	19	20	18
(Ia) guztia gaztelaniaz	26	42	41	44	44	44	40
Ed/Ee	1	2	2	2	4	1	1
EZ DAKI EUSKARAZ ONGI HITZ EGITEN*	38						
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>LAGUNARTEAN</b>							
(Ia) guztia euskaraz	11	18	17	19	17	16	20
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	3	5	5	6	6	6	4
Bi hizkuntzetan berdinean	12	19	21	17	16	17	23
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	13	22	22	21	25	21	19
(Ia) guztia gaztelaniaz	21	34	33	36	32	38	33
Ed/Ee	1	2	3	1	3	2	1
EZ DAKI EUSKARAZ ONGI HITZ EGITEN*	38						
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>927</b>	<b>456</b>	<b>471</b>	<b>325</b>	<b>296</b>	<b>306</b>

\* Erantzuteko aukera hau EAEko gazte guztiei erreferentzia egitean bakarrik aplikatu daiteke, ez gazte euskaldunei erreferentzia egiten zaienarentzat.

Etxean eta lagunekin erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, ez dago alde handirik nesken eta mutilen artean.

Guztia edo ia guztia euskaraz hitz egiten dutenak, euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten dutenak edo bi hizkuntzetan berdin egiten dutenak batera hartuta, 25-29 urteko taldea da euskara gehien erabiltzen duena bai etxean (% 42), bai lagunekin (% 47).

Baina sexuak eta adinak baino gehiago, bizilekuak baldintzatzen du euskararen erabilera gazte **euskaldunen** artean.

Gazteen hizkuntza-gaitasunak lurralde historikoaren arabera aztertu ditugunean esan dugu bi errealitate sortzen direla, bata Gipuzkoan eta bestea Bizkaian eta Araban; hori horrela izanik, errealitate hori berretsi egiten da lurralde historikoetako gazteek etxean nahiz lagunekin euskara zenbat erabiltzen duten aztertzen badugu.

Gipuzkoan, gazte euskaldunen % 33k guztia edo ia guztia euskaraz egiten du etxean; Bizkaian % 11k eta Araban % 3k.

Lagunekin, espazio publikoago batean, lurralde historikoen arteko aldeak oso handiak dira oraindik ere. Gazte gipuzkoar euskaldunen % 29k euskara erabiltzen du beti lagunekin dagoenean, baina ehuneko horiek % 12ra eta % 4ra murrizten dira Bizkaian eta Araban, hurrenez hurren.

Izan ere, etxean eta lagunekin, euskara beti erabiltzen dutenak gehiago dira Gipuzkoan, bi eremuetan beti gaztelaniaz egiten dutenak baino. Eta horrek badu loturarik lurralde horretako ezagutza-maila handiagoarekin, euskararen erabilera normalizatuagoa baitago.

EAEko hiriburuetan erabiltzen da gutxien euskara, bai etxean, bai lagun-taldean. Herri txiki edo ertainetan bizi direnen kasuan, hurrenez hurren, % 19k eta % 23k dio guztia edo ia guztia euskaraz egiten dutela etxean daudenean. Hiriburuetan bizi direnen artean, % 12 dira. Lagunekin euskaraz egiten dutenen artean aldeak are handiagoak dira. Herri txikietan % 24k dio guztia edo ia guztia euskaraz egiten duela lagunekin dagoenean eta herri ertainetan % 20k, baina hiriburuetan soilik % 8k dio lagunekin soilik euskaraz jarduten duela.

## 94. taula

ETXEAN ETA LAGUNEKIN OHIKO MODUAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA,  
BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

NORMALEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ETXEAN? ETA ZURE LAGUNEKIN?								
(%)	GAZTEAK GUZTIRA	GAZTE EUSKALDUNAK						
		GUZ- TIRA	LURRALDEA			UDALERRIAREN TAMAINA		
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
<b>ETXEAN</b>								
(Ia) guztia euskaraz	12	19	3	11	33	19	23	12
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	3	5	2	4	7	5	6	3
Bi hizkuntzetan berdin	8	13	12	12	16	18	14	9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	12	19	13	23	16	17	21	15
(Ia) guztia gaztelaniaz	26	42	70	49	27	40	35	60
Ed/Ee	1	2	0	3	1	0	2	2
EZ DAKI EUSKARAZ ONGI HITZ EGITEN*	38							
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>LAGUNARTEAN</b>								
(Ia) guztia euskaraz	11	18	4	12	29	24	20	8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	3	5	3	5	7	7	6	4
Bi hizkuntzetan berdin	12	19	20	14	24	19	20	18
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	13	22	15	27	17	25	21	20
(Ia) guztia gaztelaniaz	21	34	58	39	22	25	31	48
Ed/Ee	1	2	1	3	2	0	3	3
EZ DAKI EUSKARAZ ONGI HITZ EGITEN*	38							
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>927</b>	<b>190</b>	<b>335</b>	<b>402</b>	<b>182</b>	<b>465</b>	<b>280</b>

\* Erantzuteko aukera hau EAeko gazte guztiei erreferentzia egitean bakarrik aplika daiteke, ez gazte euskaldunei erreferentzia egiten zaienean.

Jarraian, azken urteotan euskararen erabilera izan duen bilakaera aztertuko dugu. Azterke-ta errazago egiteko, alde batetik, guztia edo ia guztia euskaraz egiten dutenak eta euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten dutenak «gehienbat euskaraz» multzoan sartu ditugu; eta, bestetik «gehienbat gaztelaniaz» multzoa sortu dugu, eta guztia edo ia guztia gaztelaniaz egiten dutenak eta gaztelaniaz euskaraz baino gehiago egiten dutenak bildu ditugu multzo horretan.

Datuen arabera honako ondorio hau atera dezakegu: ulermen-maila eta, oro har, euskarazko hizkuntza-gaitasunak gero eta handiagoak diren arren, euskararen erabilera (etxean eta lagunekin) ez da hein berean handitu, baizik eta, alderantziz, lehen baino jende gehiagok erabiltzen du gehienbat gaztelania lagunekin hitz egiteko.

## 95. taula

GAZTE EUSKALDUNEK ETXEAN ETA LAGUNEKIN OHIKO MODUAN ERABILTZEN  
DUTEN HIZKUNTZAREN BILAKAERA. GUZTIZKOAK ETA LURRALDE HISTORIKOAK (%)

NORMALEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ETXEAN? ETA ZURE LAGUNEKIN?*						
(%)	GAZTE EUSKALDUNAK GUZTIRA					
	ETXEAN			LAGUNARTEAN		
	2004**	2008**	2012	2004**	2008**	2012
<b>EAE</b>						
Batez ere euskaraz	27	23	24	27	23	23
Bi hizkuntzetan berdin	10	14	13	22	22	19
Batez ere gaztelaniaz	63	62	61	51	53	56
Ed/Ee	0	1	1	0	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>819</b>	<b>851</b>	<b>927</b>	<b>819</b>	<b>851</b>	<b>927</b>
<b>ARABA</b>						
Batez ere euskaraz	7	6	5	4	3	7
Bi hizkuntzetan berdin	5	2	12	16	15	20
Batez ere gaztelaniaz	87	92	83	79	81	73
Ed/Ee	0	0	0	0	0	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>149</b>	<b>175</b>	<b>190</b>	<b>149</b>	<b>175</b>	<b>190</b>
<b>BIZKAIA</b>						
Batez ere euskaraz	19	15	15	21	14	17
Bi hizkuntzetan berdin	11	14	12	24	20	14
Batez ere gaztelaniaz	70	69	72	57	65	66
Ed/Ee	0	2	1	0	2	3
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>285</b>	<b>280</b>	<b>335</b>	<b>285</b>	<b>280</b>	<b>335</b>
<b>GIPUZKOA</b>						
Batez ere euskaraz	39	34	40	38	36	36
Bi hizkuntzetan berdin	11	16	16	21	27	24
Batez ere gaztelaniaz	50	48	43	40	36	39
Ed/Ee	0	1	1	0	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>385</b>	<b>396</b>	<b>402</b>	<b>385</b>	<b>396</b>	<b>402</b>

\* Taula honetan gazte euskaldunei dagozkien datuak baino ez dira erakusten (euskaraz oso ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenak).


\*\* Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Arabian gehienbat gaztelaniaz hitz egiten duten gazte euskaldunak apur bat gutxiago dira eta bi hizkuntzetan berdin aritzen direnak gero eta gehiago dira. Bizkaian, gazte euskaldunen artean euskara erabiltzen dutenak gutxiago dira, bai etxean, bai lagunekin. Azkenik, Gipuzkoan etxeko erabilera areagotu da pixka bat.

Gazte euskaldunek eta 15 urteko eta gehiagoko biztanleria elebidunaren batez besteko orokorrak euskara zenbat erabiltzen duten alderatu dugu eta ezagutza-mailan izandako joeraren kontrakoa gertatu da: gazteek euskara gehiago dakite baina dakitenek biztanleriaren batez bestekoak baino gutxiago erabiltzen dute.

#### 43. grafikoa

GAZTE ELEBIDUNEN ETA BIZTANLERIA ELEBIDUN OROKORRAREN ARTEKO KONPARAZIOA, GEHIENBAT EUSKARA ERABILTZEARI DAGOKIONEZ (%)



\* Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Euskara: erabilera, jarrerak, politikak)

Orain arte euskararen ahozko erabilera aztertu dugu; orain, euskaraz nahiko ondo edo oso ondo irakurtzeko gai diren gazteek euskaraz zenbateraino irakurtzen duten ikusiko dugu, gaztelaniarekin alderatuta.

Gaztelania da nagusi irakurketan, argi eta garbi: euskaraz irakurtzeko gai diren gazteen ia laurden batek (% 23) guztia edo ia guztia gaztelaniaz irakurtzen du eta beste % 33k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago. Soilik % 17k ematen dio lehentasuna euskarari irakurgaiak hautatzeko garaian.

Euskararen ahozko erabilera aztertu dugunean bezalaxe, ez dago alde garrantzitsurik neska eta mutilen artean euskaraz edo gaztelaniaz irakurtzeari dagokionez.

Alabaina, adinaren arabera badira aldeak. Ahozko erabilera handiagoa zen gazteen adinak gora egin ahala eta, irakurmenaren kasuan, justu kontrako joera gertatu da: euskaraz irakurtzeko gai izanik beti gaztelaniaz irakurtzen duten gazteen ehunekoa hamar puntu handiagoa da 25-29 urtekoen taldean (% 27), 15-19 urteko taldean baino (% 17). Ziurrenik, ikasketak amaitzeak eta testu jakin batzuk nahitaez irakurri behar ez izateak izango du loturarik gertakari horrekin.

### 96. taula

GAZTE ELEBIDUNEK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ IRAKURTZEN DUTEN PROPORTZIOA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

ZEIN PROPORTZIOAN IRAKURTZEN DUZU EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, GUTXI GORABEHERA?							
(%)	GAZTEAK GUZTIRA	EUSKARAZ ONGI IRAKURTZEN DUTEN GAZTEAK					
		GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
			GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
(Ia) guztia euskaraz	5	8	9	8	10	8	8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	6	9	9	9	11	8	7
Bi hizkuntzetan berdin	15	24	25	22	26	23	22
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	21	33	30	36	31	35	34
(Ia) guztia gaztelaniaz	14	23	24	22	17	24	27
Ed/Ee	2	3	4	3	5	3	2
EUSKARAZ EZ DU ONGI IRAKURTZEN*	37						
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>945</b>	<b>466</b>	<b>479</b>	<b>382</b>	<b>302</b>	<b>311</b>

\* Erantzuteko aukera hau EAEko gazte guztiei erreferentzia egitean bakarrik aplikatu daiteke, ez euskaraz oso ongi edo nahiko ongi irakurtzen dutenei erreferentzia egiten zaienean.

Lurralde historikoen arabera aldeak aztertzen baditugu, berriz ere agerian geratuko da Gipuzkoan gehiago irakurtzen dela euskaraz, Bizkaian eta Araban baino: gazte elebidun gipuzkoarren % 21ek gehienbat euskaraz irakurtzen du eta Bizkaian % 17 eta Araban % 8 dira.

Udalerraren tamainaren arabera ere goian aipatu ditugun aldeak ikusiko ditugu. Herri txiki eta ertainetan, gehienbat euskaraz irakurtzen duten gazte elebidunen proportzioa handiagoa da hiriburuetan baino.

## 97. taula

GAZTE ELEBIDUNEK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ IRAKURTZEN DUTEN PROPORZIOA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

ZEIN PROPORZIOZ IRAKURTZEN DUZU EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, GUTXI GORABEHERA?								
(%)	GAZTEAK GUZTIRA	EUSKARAZ ONGI IRAKURTZEN DUTEN GAZTEAK						
		GUZTIRA	LURRALDEA			UDALERRIAREN TAMAINA		
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
(Ia) guztia euskaraz	5	8	4	6	13	11	9	5
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	6	9	4	11	8	14	8	7
Bi hizkuntzetan berdin	15	24	23	22	25	29	22	22
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	21	33	28	34	34	29	38	27
(Ia) guztia gaztelaniaz	14	23	38	23	18	17	20	34
Ed/Ee	2	3	3	4	2	1	3	5
EUSKARAZ EZ DU ONGI IRAKURTZEN*	37							
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>945</b>	<b>202</b>	<b>335</b>	<b>408</b>	<b>185</b>	<b>470</b>	<b>290</b>

\* Erantzuteko aukera hau EAEko gazte guztiei erreferentzia egitean bakarrik aplikatu daiteke, ez euskaraz oso ongi edo nahiko ongi irakurtzen dutenei erreferentzia egiten zaienean.

Euskaraz irakurtzeko gai diren EAEko gazteek euskaraz eta gaztelaniaz irakurtzeko proportzioaren bilakaeran, euskarak hazkunde txikia izan du 2008-2012 aldian, 2004tik 2008ra bitarte jaitsiera txiki bat izan ostean.

2008. urtearekiko hazkunde hori hiru lurralde historikoetan gertatu da.

## 98. taula

GAZTE ELEBIDUNEK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ IRAKURTZEKO PROPORZIOAREN BILAKAERA (%)

<b>ZEIN PROPORZIOAN IRAKURTZEN DUZU EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, GUTXI GORABEHERA?*</b>			
	<b>2004**</b>	<b>2008**</b>	<b>2012</b>
<b>EAE</b>			
Batez ere euskaraz	13	11	17
Bi hizkuntzetan berdin	25	32	24
Batez ere gaztelaniaz	60	56	56
Ed/Ee	2	2	3
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>859</b>	<b>885</b>	<b>927</b>
<b>ARABA</b>			
Batez ere euskaraz	9	4	8
Bi hizkuntzetan berdin	26	23	23
Batez ere gaztelaniaz	64	72	66
Ed/Ee	2	1	3
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>168</b>	<b>191</b>	<b>190</b>
<b>BIZKAIA</b>			
Batez ere euskaraz	12	8	17
Bi hizkuntzetan berdin	28	27	22
Batez ere gaztelaniaz	58	63	57
Ed/Ee	3	2	4
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>303</b>	<b>296</b>	<b>335</b>
<b>GIPUZKOA</b>			
Batez ere euskaraz	16	16	21
Bi hizkuntzetan berdin	20	38	25
Batez ere gaztelaniaz	62	45	52
Ed/Ee	2	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>388</b>	<b>398</b>	<b>402</b>

\* Euskaraz oso ongi edo nahikoa ongi irakurtzen dutela diotenen erantzunak baino ez dira jaso taula honetan.

\*\* Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Beraz, gazteen euskara-mailak gora egin du azken urteotan baina, hala ere, gaztelania da nagusi gazteen artean, bai harremanetarako (etxean nahiz lagunekin), bai eremu pribatu eta pertsonalagoetan ere, hala nola, irakurtzeko.



## 5.9. ONDORIOAK

EAEko gazteen erdiak egunean lau ordu baino gehiago ditu libre, batez beste, astegunetan. Ehuneko hori bost puntu handitu da 2004. eta 2008. urteaz geroztik, ziurrenik 2012an gazteen langabezia-tasa handiagoa izatearen ondorioz, denbora librea okupaturik ez dagoen denbora bezala ulertu baita.

Lanegunetan denbora librean, gazteek telebista, bideoak edo filmak ikusten dituzte etxean, lagunekin edo bikotekidearekin egoten dira, musika entzuten dute eta ordenagailuarekin aritzen dira Interneten, gizarte-sareetan, txateatzen, musika edo filmak deskargatzen.

Asteburutan eta jaiegunetan, ordea, beste jarduera batzuk gailentzen dira eta etxetik atera behar izaten da (lagunekin egoteko, eremu jakin batzuetara joateko, mendira joateko), bai eta gastu gehigarriak ere (tabernetara, diskoteketara, ikuskizunetara joateko).

Hori horrela izanik, asteburutan eta jaiegunetan jarduera nagusia lagunekin edo bikotekidearekin egotea da; taberna edo kafetegietara joatea; telebista, bideoak edo DVDak ikustea; kirola egitea eta diskoteketara joatea.

Duela lau urteko egoerarekin alderatuta, alde garrantzitsuena honako hau da: denbora librean ordenagailuarekin (edo antzeko gailuekin) aritzen diren gazteak gero eta gehiago dira gaur egun. Hazkunde hori bat dator gazteek Interneten konektatuta ematen dituzten orduen igoerarekin (orain dela lau urteko datuen aldean), bai eta teknologia berrieekin edo ikus-entzunezko gailu teknologikoekin loturiko jarduerak egiten dituzten gazteen ehunekoaren igoerarekin; hona hemen jarduera horiek: argazkigintza, bideogintza eta beste ikus-entzunezkoak, hala nola, diseinu grafikoa, web-orriak eta abar. Bestalde, gazte gehienek badute profila gizarte-sareren batean (eta gazteen erdiak sare batean baino gehiagotan), neskek mutilek baino gehiago.


Azken urteotan beste aldaketa bat ere gertatu da: asteburutan, denbora librean ikuskizunetara gero eta gazte gutxiago joaten da. Izan ere, 2012an zinemara gutxiago joan ziren 2008an baino, baina bestelako ikuskizunetara (hau da, antzerkia, musika-kontzertuak edo museoetako erakusketak) joaten direnen ehunekoa ez da murriztu. Are gehiago, musika-kontzertuen kasuan gero eta gazte gehiago joaten da ikustera. Zinemari dagokionez, Interneten filmak deskargatzea, filmak *online* ikusteko aukera izatea ordenagailu edo *tabletetan*, eta sarreren prezioa garestitzea faktore erabakigarriak izan dira gazteak zinema-aretoetara hainbeste ez joateko, baina horrek ez du esan nahi gazteek ez dutenik zinemarik kontsumitzen bestelako formatu edo euskarrietan.

Denbora librea betetzeko jarduera garrantzitsuenetako bat ez den arren, irakurketak ere gora egin du, bereziki nesken artean eta 20 urtetik beherakoen artean. Gazteentzako literaturako zenbait bilduma arrakasta handia izaten ari da azken urteotan, eta liburu elektronikoa ere gero eta zabaldiago dago; bi faktore horiek lagungarri izango ziren, ziurrenik, hazkunde hori gertatzeko. Gainera, aisialdian irakurtzea gogoko duten gazteak orain gehiago izateaz gain, Espainiako gazteek eta EAEko biztanleria orokorrak baino gehiago ere irakurtzen dute EAE gazteek.

Euskarazko liburuen irakurketa (aisialdiatik, ikasketengatik edo lanagatik), ordea, ez da areagotu eta gazte elebidunek gehienbat gaztelania hautatzen dute irakurtzeko garaian. Euskaraz gehien irakurtzen dutenak 20 urtetik beherakoak eta ikasleak dira.

Urte hauetan gora egin du euskararen ezagutza-mailak, bai ahozko ulermen eta idazmenean, bai idatzitako ulermen eta idazmenean. Euskaraz ongi ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten duten gazteen ehunekoak askoz handiagoa da EAeko biztanleria orokorrarena baino; hala ere, lagunekin jarduteko euskara hautatzen duten gazte elebidunak gutxitu egin dira azken urte hauetan eta biztanleria orokorraren ehunekoak baino txikiagoa dagokie.

Laburbiltzeko zera esango dugu, gazteek aisialdian Internet eta gizarte-sareekin loturiko jarduerak aukeratzen dituztela lehen baino hein handiagoan, hau da, gailu eta euskarri informatikoak erabiltzea ezinbestekoa duten jarduerak. Halaber, kontzertuetara ere gehiago joaten dira. Horrek guztiak diru-kostu handia dakar baina, antza, krisia krisi, gazteen aisialdia ez da ahuldu, aldatu baizik.




**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

## 6. Berdintasunik eza eta sexismoa





# 6

## Berdintasunik eza eta sexismoa

### 6.1. SARRERA

Azken hamarkadetan, gizonak eta emakumeek gizartean bete izan dituzten eginkizunak aldatzen ari dira baina, hala ere, alde handiak daude oraindik eskubide, baliabide, botere eta onura sozial eta ekonomikoetarako sarbidea, kontrola eta baliatzeari dagokienez; gizon eta emakumeen garapen pertsonalari dagokienez; ongizateari eta indarkeriarik gabeko bizimoduari dagokienez; erabakiak hartzeari dagokienez... Gizon eta emakumeen arteko berdintasunik eza modu askotara gauzatzen da. Bikotearen elkarbizitzan etxeko lanak banatzeko garaian, adibidez, edo emakumeen aurkako indarkeria moduan adierazita.

Gazteak berdintasun falta horretaz jabetzen dira eta gazte gehienek diote EAEko emakumeen egoera gizonena baino txarragoa dela soldatari, familia eta lana bateragarri egiteko aukerari, enpresetan erantzukizun-maila handiko postuak lortzeari eta lanbidean aurreratzeko itxaropenei dagokienez.<sup>50</sup>

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik ezeko egoera horien adibideak ematearren, zera aipatuko dugu, Eustatek egindako Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko Inkestari jarraiki, EAEko emakume landunek egunean 2,2 ordu ematen dituztela etxeko lanak egiten eta gizon landunek, aldiz, 1,4 ordu; emakumeek 4,6 ordu ematen dituzte seme-alaba adingabeak zaintzen eta gizonak 2,9 ordu; eta emakumeek gizonen denbora bikoitza ematen dute mendeko pertsonak zaintzen (2,9 eta 1,4 ordu, hurrenez hurren). Kasu guztietan landunei buruz ari gara, hau da, etxetik kanpo lan egiten duten gizon eta emakumei buruz.<sup>51</sup>

---

<sup>50</sup> Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: 47. *Euskal soziometroa: ezberdintasun sozialak (2011ko abendua)* [linean] [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/sociometro\\_vasco\\_47/eu\\_soc47/adjuntos/11sv47\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/sociometro_vasco_47/eu_soc47/adjuntos/11sv47_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/10/17] (62. or.)

<sup>51</sup> Eustat. Estatistika-etaulak: EAEko landunak, egunean etxeko lanetan emandako ordu kopuruari jarraiki, ezaugarri soziodemografikoen arabera (batez bestekoa). 2012 [linean] [http://eu.eustat.es/ci\\_ci/elementos/ele0007500/ti\\_Euskal\\_AEko\\_landunak\\_egunean\\_etxeko\\_lanetan\\_emandako\\_ordu\\_kopuruari\\_jarraiki\\_ezaugarri\\_soziodemografikoen\\_arabera\\_batez\\_bestekoa\\_2012/tbl0007580\\_e.html#axzz2149AEKt8](http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0007500/ti_Euskal_AEko_landunak_egunean_etxeko_lanetan_emandako_ordu_kopuruari_jarraiki_ezaugarri_soziodemografikoen_arabera_batez_bestekoa_2012/tbl0007580_e.html#axzz2149AEKt8) [Kontsulta: 2013/10/17]

Laneko berdintasunik ezari dagokionez, mutilen eta nesken arteko aldeen adibideak ikusteko Gazteen Euskal Behatokiak gazteen enpleguari buruz egindako 2011ko azterlan bati erreparatuko diogu<sup>52</sup>. Ikerketa horren arabera, EAEko emakume gazteek gizonen baino langabezia-maila txikiagoa dute, baina lan-baldintza txarragoak: kontraturik gabe eta lanaldi partzialean gehiago egiten dute lan; horren arrazoiak aipatzen dituztenean, familiarekiko betebeharrak aipatzen dituzte gizonen baino gehiago, enplegu bideratuaren maila txikiagoa dute eta soldata txikiagoa jasotzen dute.

Genero-indarkeriari dagokionez, 16-29 urteko taldearen % 12k esan du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuren bat ezagutu duela ingurune hurbilean.<sup>53</sup>

Eta arrazoi horrek eraginda jarritako salaketei dagokienez, 2011. urtean EAEko 15-29 urteko 1.070 emakumek erasoak jasan zituzten gizonen aldetik; horrek esan nahi du adin-tarte horretako 1.000 emakumetatik 7k tratu txarren gertaera bat edo batzuk jasan zituztela<sup>54</sup>.

## 6.2. BERDINTASUNIK EZA LANA LORTZEAN

Lanpostu bat lortzeko prozesuan daudenean gizonen eta emakumeek berdintasunik eza nola hautematen duten aztertzeko, honako galdera hau aurkeztu diegu: zure ikasketa eta prestakuntzari dagokion lan baterako hautaketa-prozesu batean bazeunde, eta zure adin, prestakuntza eta esperientzia berbera dituen lehiakidea mutila edo neska balitz (inkesta egitean beste sexukoa dela esan zaio), uste duzu lanpostua lortzeko berak aukera handiagoak dituela mutila/neska delako, zuk aukera handiagoak dituzula neska/mutila zarelako edo neska ala mutila izateak ez duela inolako eraginik?

Neska-mutil gehienek ustez hautagaien sexuak ez du eraginik baina mutilek gehiago aipatu dute aukera hori (% 64) neskek baino (% 57).

Alabaina, nesken % 28k uste du gizonen lehiakideak aukera handiagok dituela mutila delako eta mutilen % 19 ere bat dator ideia horrekin.

Nesken % 9k eta mutilen % 9k esan du emakumeak aukera gehiago izango lituzkeela emakume izateagatik.

---

<sup>52</sup> Gazteen Euskal Behatokia: *Gazteen enpleguaren azterketa* [linean]. [Bilbo]: Gazteen Euskal Behatokia, 2012 [http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/ikerketak/eu\\_def/index.shtml](http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/ikerketak/eu_def/index.shtml) [Kontsulta: 2013/10/17]

<sup>53</sup> Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna = Violencia machista contra las mujeres en la CAPV : percepción, incidencia y seguridad / [egileak: EDE Fundazioa, Ikerketa Sozialeko Zerbitzua.Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2012 (84. or.).

<sup>54</sup> Eusko Jaurlaritzaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak emandako datuak dira.

## 99. taula

SEXUAREN ERAGINA LANA LORTZEAN, SEXUAREN ARABERA (%)

ZURE IKASKETA ETA PRESTAKUNTZARI DAGOKION LAN BATERAKO HAUTAKETA-PROZESU BATEAN BAZEUNDE, ETA ZURE ADIN, PRESTAKUNTZA ETA ESPERIENTZIA BERBERA DITUEN LEHIAKIDEA MUTILA/NESKA BALITZ, USTE DUZU LANPOSTUA LORTZEKO, BERAK AUKERA HANDIAGOAK DITUELA MUTILA/NESKA DELAKO, ZUK AUKERA HANDIAGOAK DITUZULA NESKA/MUTILA ZARELAKO EDO NESKA ALA MUTILA IZATEAK EZ DUELA INOLAKO ERAGINIK?			
(%)	GUZTIRA	SEXUA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK
Mutilak aukera gehiago ditu	23	19	28
Neskak aukera gehiago ditu	9	9	9
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	61	64	57
Ed/Ee	7	8	6
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>


Emakume gazteek lana lortzean sexuak eragindako diskriminazioa gero eta gehiago sentitzen dute: 2008tik 2012ra bost puntu handitu da pertzepzio hori, 2008an % 23k uste baitzuen gizonek aukera handiagoak zituztela, eta 2012an % 28 dira.

Aitzitik, gizon gazteek euren aldeko berdintasunik eza gutxiago sumatzen dute orain (% 19), lehen baino (% 23), eta 2012an duela lau urte baino gizon gehiagok uste du emakumeek gizonen baino aukera handiagoak dituztela (% 9 eta % 6, hurrenez hurren).



## 44. grafikoa

GIZON ETA EMAKUME GAZTEEN IRITZIAREN BILAKAERA,  
LANA LORTZEAN SEXUAK DUEN ERAGINARI BURUZ (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Bitxia da nesken eta mutilen arteko pertzepzioan dagoen alde hori: mutilentzat gizonen aldeko diskriminazioa murriztu egin da eta neskentzat, aldiz, areagotu.

Prestakuntza- eta esperientzia-maila berdina duten bi hautagaien kasuan, hautagaien sexuak lanpostua lortzeko eraginik ez duelako ideia nagusi da adin-talde guztietan, baina mutilen artean zabalduago dago nesken artean baino, adin-talde bakoitzaren barruan.

Nolanahi ere, adin guztietan gehiago dira gizonak aukera handiagoak dituztela uste dutenak, emakumeek aukera handiagoak dituztela uste dutenak baino.

## 100. taula

SEXUAREN ERAGINA LANA LORTZEAN, SEXU BAKOITZEKO ADIN-TALDEEN ARABERA (%)

ZURE IKASKETA ETA PRESTAKUNTZARI DAGOKION LAN BATERAKO HAUTAKETA-PROZESU BATEAN BAZEUNDE, ETA ZURE ADIN, PRESTAKUNTZA ETA ESPERIENTZIA BERBERA DITUEN LEHIAKIDEA MUTILA/NESKA BALITZ, USTE DUZU LANPOSTUA LORTZEKO, BERAK AUKERA HANDIAGOAK DITUELA MUTILA/NESKA DELAKO, ZUK AUKERA HANDIAGOAK DITUZULA NESKA/MUTILA ZARELAKO EDO NESKA ALA MUTILA IZATEAK EZ DUELA INOLAKO ERAGINIK?								
(%)	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	GUZTIRA	ADIN-TALDEAK			GUZTIRA	ADIN-TALDEAK		
		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Mutilak aukera gehiago ditu	28	29	28	28	19	19	15	22
Neskak aukera gehiago ditu	9	8	7	11	9	7	10	9
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	57	58	61	53	64	69	64	62
Ed/Ee	6	5	4	8	8	5	11	7
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>750</b>	<b>225</b>	<b>225</b>	<b>300</b>	<b>750</b>	<b>225</b>	<b>225</b>	<b>300</b>

Beste sexuko hautagaiak aukera handiagoak dituztela gehien uste dutenak langabeak (gizon nahiz emakume) dira.

Lan egiten duten gizonak aipatu dute gehien haiek lehentasuna izango luketela gizon izateagatik eta, aldiz, hautaketa-prozesuan emakumeek lehentasuna izango luketela gutxien defendatzen dute.

## 101. taula

SEXUAREN ERAGINA LANA LORTZEAN SEXU BAKOITZEKO OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

ZURE IKASKETA ETA PRESTAKUNTZARI DAGOKION LAN BATERAKO HAUTAKETA-PROZESU BATEAN BAZEUNDE, ETA ZURE ADIN, PRESTAKUNTZA ETA ESPERIENTZIA BERBERA DITUEN LEHIAKIDEA MUTILA/NESKA BALITZ, USTE DUZU LANPOSTUA LORTZEKO, BERAK AUKERA HANDIAGOAK DITUELA MUTILA/NESKA DELAKO, ZUK AUKERA HANDIAGOAK DITUZULA NESKA/MUTILA ZARELAKO EDO NESKA ALA MUTILA IZATEAK EZ DUELA INOLAKO ERAGINIK?										
(%)	EMAKUMEAK					GIZONAK				
	GUZTIRA	JARDUN NAGUSIA				GUZTIRA	JARDUN NAGUSIA			
		IKASTEA	IKASTE ETA LAN EGITEA	LAN EGITEA	LANGA- BEZIAN		IKASTEA	IKASTE ETA LAN EGITEA	LAN EGITEA	LANGA- BEZIAN
Mutilak aukera gehiago ditu	28	32	22	23	37	19	18	19	23	18
Neskek aukera gehiago ditu	9	6	14	11	7	9	7	11	2	17
Neska edo mutila izateak ez du inolako eraginik	57	58	60	59	47	64	67	61	67	57
Ed/Ee	6	4	4	8	9	8	8	10	8	8
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>750</b>	<b>313</b>	<b>87</b>	<b>216</b>	<b>97</b>	<b>750</b>	<b>334</b>	<b>63</b>	<b>176</b>	<b>160</b>

## 6.3. BERDINTASUNIK EZA ETXEKO LANAK BANATZEAN

Gure gizartean aldaketa handiak gertatu diren arren, lana oraindik ere sexuaren arabera banatzen da, hau da, emakumeei etxeko lanak eta mendekoen zaintza esleitzen zaie. Horren adierazgarri, *EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. planean* funtsezkotzat jotzen da erantzunkidetasuna eta zainketaren etika sustatzea eta honako helburu operatibo hauek zehaztu dira: «Generoen arteko desoreka murriztea, gizonek eta emakumeek etxeko eta zainketa lanetan emandako denborari dagokionez» eta «Neskek eta mutilek etxeko eta zainketa lanaren erantzunkidetasunari eskaintzen dioten denbora areagotzea, bereziki mutilen gainean eraginda»<sup>55</sup>.

Etxeko lanen erantzukizunean eta gauzatzean genero-eten hori hautemateko asmoz, etxeko lanak (hau da, garbitzea, sukaldean aritzea, erosketak egitea...) nola banatzen dituzten deskribatzeko eskatu diegu bikotekidearekin bizi diren gazteei (guztizkoaren % 13 dira).

<sup>55</sup> Emakunde. *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana: IX. legealdirako jarraibideak* [linean]. Vitoria-Gasteiz: Emakunde = Instituto Vasco de la Mujer, 2010 (143. or.) [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/u72\\_iv\\_plan/eu\\_emakunde/adjuntos/V\\_Plan\\_eu.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/u72_iv_plan/eu_emakunde/adjuntos/V_Plan_eu.pdf) [Kontsulta:2013/10/17]

Bikotekidearekin bizi diren emakume gazteen % 40k dio haiek egiten dituztela etxeko lan guztiak edo gehienak. % 45ek esan du erdi bana egiten dituztela eta % 1ek baino ez du esan bikotekideak egiten dituela lan horiek.

Bikotekidearekin bizi diren mutil gazteen kasuan, % 26k onartu du bikotekideak egiten dituela etxeko lan guztiak edo gehienak, % 51k erdi bana egiten dituztela dio eta % 8k esan du haiek egiten dituztela etxeko lan guztiak edo gehienak.

### 102. taula

ETXEKO LANEN BANAKETA BIKOTEKIDEAREKIN BIZI DIREN GIZON  
ETA EMAKUME GAZTEEN ARTEAN, SEXUAREN ARABERA (%)

PENTSA EZAZU ETXEAN EGIN BEHARREKO LANETAN, ESATE BATERAKO, EROSKETAK, OTORDUAK ETA GARBIKETA. LAN HORIEK ZENBATERAINO BANATZEN DITUZU ZURE BIKOTEKIDEAREKIN?*			
(%)	GUZTIRA	SEXUA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK
Neskak egiten ditu etxeko lan guztiak edo gehienak	36	26	40
Etxeko lanak erdi bana egiten dituzte	47	51	45
Mutilak egiten ditu etxeko lan guztiak edo gehienak	3	8	1
Ed/Ee	15	15	15
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>190</b>	<b>53</b>	<b>137</b>


\* Bikotekidearekin bizi direnei bakarrik egin zaie galdera hau (gazteen % 13ri)

Nolanahi ere, bikotekidearekin bizi diren gazteak oso gutxi direnez, datuak ere oso eskasak dira. Hala eta guztiz ere, mutilek eta neskek onartu dute neskek lan gehiago egiten dutela etxe barruan.

2008an ere horixe bera gertatu zen. Datu horiek duela lau urtekoekin alderatuz gero, zera ikusiko dugu, etxeko lanen ardura neskengan geratzen dela dioten mutilen ehunekoa ere handitu egin dela.

## 45. grafikoa

ETXEKO LANEN BANAKETAREN BILAKAERA BIKOTEKIDEAREKIN BIZI  
DIREN GIZON ETA EMAKUME GAZTEEN ARTEAN (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

## 6.4. ZAINZA-LANARI BURUZKO IRITZIA ORDAINDUTAKO LANAREN ALDEAN

Produkzioaren alorreko lana enpleguaren kontzeptuarekin lotzen da oraindik ere, eta horregatik, ordaindutako lana izango da; etxeko eta zainketa lanetan jarduten diren pertsonak, ordea, inaktibotzat eta mendekotzat hartzen dira. «Ikuspegi horren ondorioz, etxeko eta zainketa lana baliorik eta identitate-terik gabeko lantzat hartu izan da (...) Etxeko eta zainketa lanen balorazio eskasak edo baloraziorik ezak eragin dituen ondorio garrantzitsuenetako bat lan horiek ikusezin bilakatu izana da.»<sup>56</sup>

Horregatik, erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berriak sustatu behar direla salatu du Emakunde eta *EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planaren* arabera, «Etxeko eta zainketa lanak behar diren neurrian baloratzea funtsezkoa da gure gizartearen funtzionamendurako eta erreproduktorako, baita haiei eusteko ere. Gainera, produkzio-lanei bezain beste garrantzi aitortu behar zaie, edo gehiago»<sup>57</sup>.

EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren zirriborroan Emakunde honako hau adierazi du: «Zainketak eta sostenguak, ugalketak eta ekoizpenak balio bera, gizarte-aintzatespen bera eta berdintasunezko banaketa bera izateko ahalegin ugari egin badira ere, desoreka-egoerak dauka bi esparruen artean, eta, horregatik, emakumeek ezin dituzte beren bizitzak eta autonomia erabat

<sup>56</sup> Ibidem (130. or.)

<sup>57</sup> Ibidem (131. or.)

garatu. Denboraren kontzeptu eta erabilera ezberdinak eta emakume eta gizonen horiei buruz dituzten sinesmenak aintzat hartuta, beharrezkoa da aurrerapausoak ematen jarraitzea benetako berdintasuna lortzeko eta emakumeek eta gizonen bizitzako arlo guztietan erabateko partaidetza baliokidea izateko. Azken helburua pertsonen eta bizitzaren zainketa sostenguari toki berean egotea, eta hura baliioestea eta garatzea dela ziur jakinik, beste urrats bat eman beharra dago.»<sup>58</sup>

Horren ildo beretik, eta norberaren okupazio-egoera eta familiaren egoera alde batera utzita, honako galdera hau egin diegu gazteei: zure egungo egoera edozein izanda ere, eta soldata albo batera utzita, zuk zein uste duzu dela gustukoagoa: etxetik kanpo egindako lana edo seme-alabak eta beste senideak zaintzea?

Gazteen erdiak baino gehiagok (% 59) etxetik kanpoko lana gustukoago duela erantzun du eta % 16k nahiago du zainketa-lanetan jardun. Beste % 15ek esan du bi lanak direla gustura egitekoak eta % 1ek ez du bat bera ere gustuko.

Seme-alabak dituztenen kasuan, zainketa-lanak gustukoagotzat jotzen dituztenen ehunekoak batez bestekoaren ia bikoitzak dira (% 29); halaber, kolektibo horretan gainerako gazteen artean baino hedatuago dago bi lan motak (etxe barrukoa eta kanpoko) hein berean direla gustura egitekoak (% 28). Datu horrek izango du loturarik seme-alabadun gazteen % 15ak etxeko lanak egitearekin (gazteen guttizkoaren kasuan, % 1 dira).

Zainketako lanak etxetik kanpo lan egitea bezain atseginak edo atseginaoak direlako ideia zabalduagoa dago nesken artean, mutilen artean baino (% 33 eta % 28), baina ez dira alde handiak.

---

<sup>58</sup> Emakunde. *EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren zirriborroa*. [s.l.]: AIC, [2013] <http://factoria-aic.com/emakunde/wp-content/uploads/2013/09/Berdintasunerako-VI-planaren-zirriborroa.pdf> (78. or.) [Kontsulta:2013/10/17]

## 103. taula

ZAINTZA-LANARI BURUZKO IRITZIA ORDAINDUTAKO LANAREN ALDEAN,  
SEXUAREN ETA SEME-ALABAK IZATEAREN ARABERA (%)

ZURE EGUNGO EGOERA EDOZEIN IZANDA ERE, ETA SOLDATA ALBO BATERA UTZITA, ZUK ZEIN USTE DUZU DELA GUSTUKOAGOA: ETXETIK KANPO EGINDAKO LANA EDO SEME-ALABAT ETA BESTE SENIDEAK ZAINTEA?	GUZTIRA	SEXUA		SEME-ALABARIK BADUZU?	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	BAI	EZ
				(%)	(%)
Etiket kanpo egindako lana	59	60	57	37	60
Seme-alabak eta senideak zaintzea	16	14	18	29	15
Biak berdin*	15	14	15	28	14
Bat ere ez da gustukoa*	1	1	1	0	1
Ed/Ee	10	11	9	6	10
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>103</b>	<b>1397</b>

\* Erantzuteko aukera hauek ez zitzaizkien inkestatuei erantzun, baina bat-batean eman zituztenen erantzunak jaso ziren.

Emaitzak ikusita, gazteek oraindik ere ordaindutako produkzio-lanari lehentasuna ematen dietela esan dezakegu.

Hori logikoa ere bada; izan ere, inkesta erantzun duten gazteen ia heren batek goi-mailako ikasketak ditu (eta beste heren batek derrigorrezko ikasketen ondoko bigarren mailakoak) eta, beraz, ikasi dutenarekin lotura duen zerbaitetan lan egin nahi izango dutela pentsa dezakegu.

## 6.5. AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ IBILTZEKO BELDURRA

Ohiko moduan, hiri-segurtasunaren pertzepzioa herritar guztiengan homogeneoa zela pentsatu izan da. Alabaina, azken hamarkadatan agerian geratu da gizonak eta emakumeak ez dutela berdin bizitzen egoera hori. Hiri-indarkeriaren adierazpen guztien (sexu-erasoak, ahozko erasoak, lapurretak, mehatxuak...) beldur izaten dira emakumeak (gizonak baino hein handiagoan), adina, etnia, sexu-orientazioa, trebetasun fisikoak eta abar edozein izanik ere.

Horrela, bada, *EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Planean* Emakundeek honako hau adierazi zuen: «beharrezkoa da emakumeen segurtasuna handitzea, bai hiri diseinuari dagokionez, beren diseinuatik edo argi ezagatik edo isolatuta daudelako arriskutsuak diren edo segurtasun-faltaren sentazioa sortzen duten tokiak kenduz, bai prebentzio prozedurak edo protokoloak ezarriz»<sup>59</sup>.

<sup>59</sup> Emakunde: *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako jarraibideak*. Op. Cit (151. or.)


Segurtasun-faltaren sentrazio hori adieraztearren, eguneroko ekintza arrunt bat, hau da, gauez kalean ibiltzea nola hautematen duten galdetu diegu gazteei.

Gazteen % 19k beldur dela dio gauez auzoan edo herrian oinez ibiltzen denean. Ehuneko hori % 32raino iristen da nesken kasuan (% 7 mutilen kasuan).

Gauez herrian edo auzoan barrena oinez ibiltzearen beldur diren nesken ehunekoak gora egin du aurreko urteekin alderatuta.

#### 46. grafikoa

AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ IBILTZEKO BELDURRAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Beldurra handiagoa al da neska gazteenen artean? Ezin dugu horrelakorik esan, adinaren araberrako aldeak txikiak direlako. Baina bizi diren herriaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta beldur handiagoa izaten dute emakume gazteek gauez auzoan edo herrian barrena ibiltzen direnean.

Mutilen artean, ordea, gazteenek beldur handiagoa dutela bai ikusten da (nesken kasuan baino askoz ere gutxiago, nolahi ere), baina ez dago alde handirik herriaren tamainaren arabera.



## 104. taula


AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ IBILTZEKO BELDURRA, SEXUAREN ETA SEXU BAKOITZEKO ADIN-TALDEEN ETA BIZI DEN HERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

ZURE HERRI EDO AUZOTIK GAUEZ IBILTZEKO BELDURRIK BA AL DUZU?														
(%)	EMAKUMEAK							GIZONAK						
	GUZ-TIRA	ADIN-TALDEAK			UDALERRIAREN TAMAINA			GUZ-TIRA	ADIN-TALDEAK			UDALERRIAREN TAMAINA		
		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	TXIKIA	ERTAINA	HIRI-BURUA		15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	TXIKIA	ERTAINA	HIRI-BURUA
Bai	32	34	33	31	23	33	35	7	11	6	5	6	6	9
Ez	67	64	66	69	76	66	63	92	88	93	95	94	93	91
Ed/Ee	1	2	1	0	1	1	1	1	1	1	0	0	1	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>750</b>	<b>225</b>	<b>225</b>	<b>300</b>	<b>120</b>	<b>330</b>	<b>300</b>	<b>750</b>	<b>225</b>	<b>225</b>	<b>300</b>	<b>120</b>	<b>330</b>	<b>300</b>

2008-2012 aldian emakumeen taldean izan den bilakaerari erreparatuz gero, konturatuko gara gauez ibiltzeko beldurra zabalduago zegoela duela lau urte 20 urtetik beherakoen taldean, baina orain adin-talde guztietara zabaldu dela; beraz, 2012. urtean ia ez dago alderik taldeen artean.

## 47. grafikoa

AUZOAN EDO HERRIAN GAUEZ IBILTZEKO BELDUR DIREN EMAKUMEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Auzoan edo herrian gauez ibiltzeko beldurrik handiena 10.000 biztanletik gorako herrietan edo hiriburuetan bizi diren emakume gazteek izaten dute eta 2008an eta 2012an agerian geratu da hori.

## 6.6. EMAKUMEEN AURKAKO HAINBAT INDARKERIA MOTAREN LARRITASUNA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezaren adierazpen larrienetako bat da emakumeen aurkako indarkeria.

Emakumeen aurkako indarkeriak adin guztietako emakumeak, kultura eta egoera ekonomiko guztietako emakumeak hartzen ditu eraginpean eta eraso fisikoa ez ezik, indarkeria sinbolikoaren edozein adierazpen ere biltzen du.

Emakunderen *EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planak* hiru jardun-ardatz ditu eta, zalantzarik gabe, emakumeen aurkako indarkeria ardatz horietako bat da: «Garrantzi berezia du jarduera horiek herritar gazteenei zuzentzeak, ondorioz generoarekin lotutako estereotipoak eta rolak ezagutarazteko, horien inguruan hausnartzeko eta haiek aldatzeko. Hala, harreman berdintsuagoak sortuko dira, eta indarkeria motak hasieratik identifikatu ahalko dira. Alde batetik arazoa gainditzen eta biderka dadin saihesten lagunduko duelako, eta bestetik, datuek erakusten dutelako arazoa berdinean ematen dela adin guztietan»<sup>60</sup>.

Ikerketa honetan, gazteek tratu txarrekin loturiko jarrerak (tratu txar fisiko nahiz psikologikoak, errespetu faltak eta abar) larritzat zenbateraino hartzen dituzten balioesten saiatu gara.

Oro har, EAEko gazte gehienek gaitzesten dituzte, oro har, ikerketa honetan aztertu ditugun indarkeria mota guztiak. Hala ere, indarkeria mota «ez-fisikoak» direnean, badirudi beste modu batera ikusten ditugula. Mespretxuak egitea, gauzak erabakitzen ez uztea eta iraintzea, hau da, pertsonaren autoestimua txikitzen duten ekintzak ez dira hain larritzat hartzen. Eta gazteen ehuneko txiki batek ekintza horiek ez ditu tratu txartzat ere hartzen.

---

<sup>60</sup> Ibidem (155. or.)

**105. taula**

HAINBAT TRATU TXAR MOTAREN LARRITASUNA BALIOESTEA (%)

<b>AZKEN URTEOTAN ASKO HITZ EGIN DA BIKOTEAREN BARRUKO TRATU TXARREI BURUZ. ORAIN IRAKURRIKO DIZKIZUDAN AUKERA BAKOITZETIK, ESADAZU, MESEDEZ, ZURE USTEZ TRATU TXARRA DEN ALA EZ, ETA, BAIEZKOAN, ZURETZAT OSO LARRIA DEN, NAHIKO LARRIA DEN EDO EZ DEN OSO LARRIA</b>						
<b>(% HORIZONTALAK)</b>	<b>OSO LARRIA</b>	<b>NAHIKO LARRIA</b>	<b>EZ OSO LARRIA</b>	<b>EZ DA TRATU TXARRA</b>	<b>ED/EE</b>	<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>
Bere borondatearen kontra sexu harremanak izatera behartzea	93	6	1	0	1	<b>100</b>
Etzetik irtetea debekatzea	79	16	3	1	1	<b>100</b>
Mehatxatzea	79	18	2	0	1	<b>100</b>
Mespretxuak egitea	62	32	4	1	1	<b>100</b>
Gauzak erabakitzen ez uztea	49	38	10	3	1	<b>100</b>
Iraintzea	45	39	12	3	1	<b>100</b>


Galdera horiek berak egin zitzaizkion duela hamabost urte EAEko 18-29 urteko gazteen lagin adierazgarri bati, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako honako azterlan honetan: «Tratu txarrak bikote barruan»<sup>61</sup>.

Proposatutako tratu txar moten larritasuna nola hautematen duten aztertzeko, 2012. urtean adin hori dutenak (18-29 urte) baino ez ditugu hartuko.

<sup>61</sup> Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Tratu txarrak bikote barruan. 1998ko otsaila* [linean] [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe\\_estudio/o\\_t982/es\\_t982/adjuntos/t982.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_t982/es_t982/adjuntos/t982.pdf) [Kontsulta: 2013/10/17]

## 48. grafikoa

18-29 URTEKO GAZTEEN ARTEAN, PROPOSATUTAKO TRATU TXAR MOTA BAKOITZA OSO LARRITZAT HARTZEN DUTENEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (%)



\* Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Tratu txarrak bikote barruan)

Datuen argitara, proposatutako tratu txar mota bakoitza oso larrizat hartzen dutenak azken hamabost urteotan gero eta gehiago direla ikus dezakegu; horrek esan nahi du bilakaera positiboa gertatu dela tratu txar mota oro oso larrizat hartzeari dagokionez, eta EAEko gazteek jarrera horiek gaitzesten dituztela.

Proposatutako egoera bakoitza oso larrizat hartzen dutenak gero eta gehiago diren heinean, gero eta gutxiago dira (nabarmen, gainera) egoera hori tratu txartzat hartzen ez duten gazteak. 1997. urtean %9k ez zuen tratu txartzat hartzen mespretxuak egitea edo gauzak erabakitzen ez uztea (2012. urtean, %1 eta %2 dira, hurrenez hurren), eta %8k etxetik ateratzea debekatzea edo iraintzea ere ez zuen tratu txartzat jotzen (2012an %1ek eta %3k).

Beraz, Emakundek eta gainerako administrazio publikoek egindako sentsibilizazio-kanpainak emaitza onak izan dituzten arren, berdintasunaren aldeko politikak ezartzen jarraitzea ezinbestekoa da, tolerantzian eta errespetuan oinarritutako harremanak gara ditzagun.

### 6.6.1. Sexu-harremanak izatera behartzea

Norbait bere borondatearen aurka sexu-harremanak izatera behartzea tratu txar oso larria da EAEko gazteen %93ren ustez. Nahiko larria dela uste dutenak ere gehitzen baditugu, gazteen %99 osatuko dugu. Mutilek eta neskek antzeko iritzia dute horri dagokionez eta oso larritzat jotzen dutenak %90etik gora dira adin-talde guztietan.

Alde handien eragiten duen aldagaia jatorria da. EAEn jaio diren gazteen %95ek dio sexu-harremanak izatera behartzea tratu txar oso larria dela baina atzerrian jaiotako gazteen kasuan, %77 baino ez dira. Egia da, halaber, oso larritzat eta nahiko larritzat hartzen dutenen ehunekoak batuta bi taldeak antzeko mailara iristen direla, baina larritasun-mailarekin loturiko ñabardura hori esanguratsua da, zailantzarik gabe.

106. taula

SEXU-HARREMANAK IZATERA BEHARTZEAREN LARRITASUN-MAILA BALIOESTEA,  
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, ZURE USTEZ PERTSONA BATEN BORONDATEAREN KONTRA SEXU-HARREMANAK IZATERA BEHARTZEA TRATU TXARRA DEN ALA EZ, ETA, BAI EZKOAN, ZURETZAT OSO LARRIA DEN, NAHIKO LARRIA DEN EDO EZ DEN OSO LARRIA								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso larria	93	92	94	90	95	92	95	77
Nahiko larria	6	7	5	8	4	7	4	19
Ez oso larria	1	1	1	1	1	0	0	2
Ez da tratu txarra	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	1	0	1	1	0	1	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

### 6.6.2. Etxetik irtetea debekatzea

Bikotekideari etxetik irtetea debekatzea oso larria da EAEko gazteen %79ren ustez, nahiko larria %16ren ustez, ez oso larria %3ren ustez eta %1en ustez ez da tratu txarra. Sexu-harremanak izatera behartzearen kasuan bezalaxe, oso larritzat eta nahiko larritzat hartzen dutenen ehunekoak batuta ia erabateko adostasunera iristen gara (%95).

Alabaina, larritasun-maila aldatu egiten da aztergai ditugun aldagaien arabera: sexua, adin-taldeak eta jatorria.

Gizon gazteen % 76k oso larritzat jotzen du jarrera hori baina emakume gazteen artean % 82 ere badira.

Adin-taldearen arabera ere alde adierazgarriak eta kezkatzeko modukoak ateratzen dira: 15-19 urteko gazteen artean % 5ek esan du ez dela oso larria eta % 2k ez du tratatu txartzat ere hartzen. Aitzitik, oso larritzat jotzen dute 20 urtetik beherakoen % 70ek eta 24 urtetik gorakoen % 85ek, hau da, gazte gehiagok uste dute oso larria dela adinean gora egin ahal.

Elkarrizketatutako pertsonaren jatorriari dagokionez, EAEn jaio direnen % 81ek oso larritzat jotzen du jarrera hori; atzerrian jaiotakoaren artean, ordea, % 63ra jaisten da, hau da, bi taldeen artean ia 20 puntuko aldea dago.

### 107. taula

ETXETIK IRTETEA DEBEKATZEAREN LARRITASUN-MAILA BALIOESTEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, ZURE USTEZ ETXETIK IRTETEA DEBEKATZEA TRATU TXARRA DEN ALA EZ, ETA, BAI EZKOAN, ZURETZAT OSO LARRIA DEN, NAHIKO LARRIA DEN EDO EZ DEN OSO LARRIA								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso larria	79	76	82	70	79	85	81	63
Nahiko larria	16	19	14	22	16	13	15	27
Ez oso larria	3	3	2	5	4	1	2	6
Ez da tratatu txarra	1	1	1	2	1	0	1	3
Ed/Ee	1	1	1	2	0	1	1	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

### 6.6.3. Mehatxatzea

Etiketatik irtetea debekatzearen kasuan bezalaxe, gazteen % 79ren ustez mehatxatzea oso larria da. Beste % 18k dio nahiko larria dela eta % 2ren ustez ez da oso larria.

Nesken % 83k oso larria dela dio baina mutilen artean % 76k pentsatzen du hori.

Mehatxatzea tratatu txar oso larria dela uste dutenak gero eta gehiago dira adinean gora egin ahal: 15-19 urtekoen artean % 75 eta 25-29 urtekoen artean % 81.

Elkarrizketatuaren jatorriaren arabera ehunekoak aztertzean ere beste horrenbeste ikusiko dugu. Jarrera hori oso larritzat jotzen dutenei dagokienez, EAEn jaiotakoen artean % 81ek adierazi du hori eta atzerrian jaiotakoen artean, berriz, % 65ek.

108. taula

MEHATXATZEAREN LARRITASUN-MAILA BALIOESTEA, SEXUAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, ZURE USTEZ MEHATXATZEA TRATU TXARRA DEN ALA EZ, ETA, BAI EZKOAN, ZURETZAT OSO LARRIA DEN, NAHIKO LARRIA DEN EDO EZ DEN OSO LARRIA								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso larria	79	76	83	75	80	81	81	65
Nahiko larria	18	21	15	19	18	18	17	27
Ez oso larria	2	2	2	3	2	1	1	5
Ez da tratatu txarra	0	1	0	1	0	0	0	1
Ed/Ee	1	1	1	1	0	1	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

#### 6.6.4. Mespretxuak egitea

Bikotekideari mespretxuak egitearen larritasun-maila balioesteko garaian aurreko portaerekiko bereizketa bat dagoela konturatu gara; izan ere, gazteen % 62k oso larritzat hartzen du item hori eta nahiko larritzat, aldiz, % 33k.

Aztertu ditugun gainerako jarrera sexisten kasuan bezalaxe, mutilek hein txikiagoan gaitzesten dituzte horrelako jarrerak, neskekin alderatuta. Mutilen % 58ren ustez oso larria da bikotekideari mespretxuak egitea baina nesken artean % 67ra iristen dira horrela pentsatzen dutenak. Alabaina, bai mutilen artean, bai nesken artean, % 4k ez du oso larritzat jotzen.

Adin-taldearen arabera, fenomeno bitxi bat gertatzen da berriz ere eta horren gainean hausnarketa egin beharko genuke; izan ere, 15-19 urtekoen artean bikotekideari mespretxuak egitearen larritasun-maila txikiagoa da 20 urtetik gorakoen artean baino.

Elkarrizketatuaren jatorriaren arabera aldeak kasu honetan ez dira hain handiak, aurreko itemekin alderatuz gero.

**109. taula**

MESPRETUAK EGITEAREN LARRITASUN-MAILA BALIOESTEA, SEXUAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, ZURE USTEZ MESPRETUAK EGITEA TRATU TXARRA DEN ALA EZ, ETA, BAI EZKOAN, ZURETZAT OSO LARRIA DEN, NAHIKO LARRIA DEN EDO EZ DEN OSO LARRIA								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso larria	62	58	67	58	63	64	63	59
Nahiko larria	32	36	29	35	31	32	32	31
Ez oso larria	4	4	4	4	5	2	4	5
Ez da tratatu txarra	1	1	0	1	1	0	0	3
Ed/Ee	1	1	1	1	0	1	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

**6.6.5. Gauzak erabakitzen ez uztea**

Galdera sorta honetan lehen aldiz, ekintza sexista bat (kasu honetan, bikotekideari gauzak erabakitzen ez uztea) oso larritzat hartzen dutenek ez dute gazteen erdia ere osatzen (% 49). Gainera, item honetan jarrera hori ez oso larritzat hartzen dutenen ehunekoak (% 10) garrantzitsua izatera iritsi da eta EAEko gazteen % 3k ere ez du tratatu txartzat hartzen.

Aztertu ditugun gainerako jarrera eta jokabide sexisten kasuetan egiaztatu dugunez, neskek larriagotzat jotzen dute bikotekideari gauzak erabakitzen ez uztea: nesken % 52k oso larria dela uste du eta mutilen artean, % 45ek.

Gazteenen kasuan, soilik % 44k esan du oso larria dela. Zorionez, ehunekoak handitu egiten dira (% 51) 24 urtetik gorakoan artean.

Elkarriketatutako gazteen jatorria kontuan hartzen badugu, berriz ere aldeak sortuko dira; EAEn jaio diren gazteen % 50ek dio jarrera hori oso larria dela eta atzerrian jaiotakoan kasuan, % 42k. Azken talde horretan, % 13ren ustez gauzak erabakitzen ez uztea ez da oso larria eta tratatu txartzat hartzen ez dutenak % 7ra ere iristen dira.



**110. taula**

GAUZAK ERABAKITZEN EZ UZTEAREN LARRITASUN-MAILA BALIOESTEIA,  
SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, ZURE USTEZ GAUZAK ERABAKITZEN EZ UZTEA TRATU TXARRA DEN ALA EZ, ETA, BAI EZKOAN, ZURETZAT OSO LARRIA DEN, NAHIKO LARRIA DEN EDO EZ DEN OSO LARRIA								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso larria	49	45	52	44	49	51	50	42
Nahiko larria	38	41	36	39	39	37	38	36
Ez oso larria	10	10	9	11	9	9	9	13
Ez da tratu txarra	3	3	2	4	2	2	2	7
Ed/Ee	1	1	1	2	1	1	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

**6.6.6. Iraintzea**

Azkenik, bikotekidea iraintzea larria ote den aztertuko dugu. Eta azterketan azken galdera izan da, baina ez galdesortan azken postuan zegoelako, baizik eta EAEko gazteen ustez larritasun-maila txikiaren jarrera delako.

% 45ek oso larrizat jotzen du, % 39k nahiko larrizat, % 12k ez oso larrizat eta % 3k ez du tratu txartzat jotzen.

Kapitulu osoan bezalaxe, nesken eta mutilen arteko aldea sumatzen da: mutilek edozein jarrera sexista «normalizatu» egiten dute edo ez dute hain larrizat hartzen. Kasu honetan, nesken % 50ek oso larrizat hartzen du bikotekidea iraintzea baina mutilen artean, % 41 dira.

Antza, gazteenek tolerantzia handiagoa dute horrelako jokabideen aurrean, izan ere, 15-19 urtekoen % 39k baino ez du esan oso larria dela, 20-24 urtekoen artean % 45ek eta 25-29 urtekoen artean % 50ek. Berriz ere, gazteenek indarkeria (sinbolikoa bada ere) gehiago normalizatzen dutela ikusten da.

Atzerriko gazteek ematen diete garrantzi txikiena horrelako jokabideei: soilik % 38k dio oso larria dela, eta kontrako muturrean, % 8k ez du tratu txartzat ere jotzen (gazteen guztizkoaren batez beste-koaren % 3a gainditzen du).

## 111. taula

IRAINTEAREN LARRITASUN-MAILA BALIOESTE, SEXUAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, ZURE USTEZ IRAINTZEA TRATU TXARRA DEN ALA EZ, ETA, BAIETZKOAN, ZURETZAT OSO LARRIA DEN, NAHIKO LARRIA DEN EDO EZ DEN OSO LARRIA								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEA	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso larria	45	41	50	39	45	50	47	38
Nahiko larria	39	40	37	40	41	36	38	39
Ez oso larria	12	15	9	16	11	10	12	14
Ez da tratatu txarra	3	4	3	3	3	3	3	8
Ed/Ee	1	1	1	2	0	1	1	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

## 6.7. ONDORIOAK

Gure gizartean aurrerapauso handiak egin ditugu, zalantzarik gabe, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan baina, hala ere, alde handiak daude oraindik eta desagerrarazi egin behar ditugu. Egia da belaunaldi berriek bizi duten egoera honetan aurrekoek baino berdintasun handiagoa sumatzen dela, baina egia da, halaber, batzuetan lan guztiak eginak ditugula pentsatzen dugula eta, zenbait errealitate ikusita, gauza asko ditugu hobetzeko.

Ikerketa honetan aztertu ditugun zenbait adierazleren bilakaerari erreparatuta, arlo honetan lanean jarraitzea ezinbestekoa dela berresten da eta ikerketan atera diren zenbait iritzi ikusita ere, sentibilizazioko eta salaketako politikari eutsi egin behar zaiela pentsatzen dugu.

Emakume gazteek lana lortzeko garaian diskriminazioa pairatzen dutela sentitzen dute: nesken laurden batek baino gehiagok uste du gizonen haiek baino aukera handiagoak dituztela lanpostu bat lortzeko, prestakuntza- eta esperientzia-maila berdina izanik.

Arian-arian datuak hobetzen ari dira, baina bikotekidearekin bizi diren emakumeen %40k dio, oraindik ere, etxeko lan guztiak edo gehienak berak egiten dituela. Gizartean nolabaiteko berdintasun-giroa sumatzen den arren, egia esan, gizonen bikotekidearekin bizi direlarik, emakumeek etxeko lanen ardura beren gain hartzeko joera izaten dute.

Gauz kalean barrena ibiltzearen beldur diren nesken ehunekoa zertxobait handitu da: 2012an nesken heren bat da. Askotan, emakumeak beldurretan eta arduraren oinarrituta hezten dira, gizonen baino hein handiagoan, eta horren ondorioz, hain zuzen, deseroso senti daitezke guk proposatu ditugunen antzeko egoeretan; kontuak kontu, neskek mutilek baino askoz gehiago hautematen dute arriskua.

EAEko gazte gehien-gehienek oso larritzat edo nahiko larritzat hartzen dituzte proposatu ditugun tratu txar mota guztiak: bikotekidea bere borondatearen kontra sexu-harremanak izatera behartzea, etxetik irtetea debekatzea, mehatxatzea, mespretxuak egitea, gauzak erabakitzen ez uztea edo iraintzea. Alabaina, azterlan honetan kezkatzeko moduko alderdi bat ere azaleratu da; hain zuzen ere, ez oso larritzat hartzea edo tratu txartzat ere ez hartzea zenbait portaera biolento eta sexista, hala nola, iraintzea edo gauzak erabakitzen ez uztea.


Mutilek, oro har, neskek baino garrantzi txikiagoa ematen diete horrelako jokabide sexistei. Nesken artean, gehienek ustez oso larriak dira proposatu dizkiegun jokabide guzti-guztiak. Badirudi adina ere aldagai garrantzitsua dela; izan ere, gazteenek, hau da, 15-19 urtekoek garrantzi txikiena ematen diete horrelako jarrera horiei guztiei eta horrek esan nahi du oraindik ere txiki-txikitatik landu behar direla horrelako gaiak. Bukatzeko, atzerritar jatorriko gazteak nabarmendu behar ditugu, gainerako gazteek baino larritasun-maila txikiagoa ematen baitiete indarkeria matxistarekin loturiko jokabideei.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

7.  
**Osasuna**





# 7

## Osasuna

### 7.1. SARRERA

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, «*osasuna, gaixotasunik edo ondoezik eza ez ezik, erabateko ongizate fisikoa, mentala eta soziala ere bada*»<sup>62</sup>. Alegia, OMEren ustez osasuna egintza biologiko eta pertsonal bat ez ezik, soziala ere bada.

Inkesta zehatzagoak ere egin dira, hala nola, EAEko Osasun Inkesta (EAEOI<sup>63</sup>), eta horren birtartez EAEko pertsonen osasun «objektiboa» nolakoa den zehaztu nahi izan da, baina ikerketa honen helburu nagusia zera da, gazteen osasun-egoeraren pertzepzio subjektiboaren berri izatea; horretarako, gazteen artean garrantzitsuenak diren jokabide osasungarriak (ariketa fisikoa, kirola egitea, elikadura orekatua...) eta jokabide arriskutsuak (substantzia psikoaktiboak kontsumitzea edo horien eraginpean gidatzea) aztertuko ditugu.

### 7.2. OSASUN-EGOERA

Gazteen osasun-egoera aztertzeko garaian, oinarritzko hiru alderdi izango ditugu kontuan: gazteek beren osasunari buruz duten pertzepzio subjektiboa, gaixotasun kronikoak edo desgaitasunak zent-bateraino dauden zabaldua gazteen artean, eta gazteek arazo psikologikorik ote duten.

---

<sup>62</sup> Osasunaren Mundu Erakundea: *Konstituzioa* [linean]. (s.l.: Osasunaren Mundu Erakundea), [2005?]: <http://apps.who.int/gb/bd/PDF/bd47/SP/constitucion-sp.pdf> [Kontsulta: 2013/10/16] (1. or.).

<sup>63</sup> Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila: *EAEko Osasun Inkesta 2007* [linean]. [http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ckpubl02/eu/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/encuesta\\_salud/eu\\_eaeoi/osasun\\_inkesta.html](http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ckpubl02/eu/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/encuesta_salud/eu_eaeoi/osasun_inkesta.html) [Kontsulta: 2013/10/16]


## 7.2.1. Gaixotasun kronikoak edo desgaitasunak

Gure bizitzan gaixotasun fisikoren bat izan dezakegu une jakinen batean, baina egoera horiek alde batera utzita, bizimodu normala egitea eragozten dien gaixotasun kronikoren bat edo desgaitasunen bat ba ote duten galdetu diegu gazteei.

Gaixotasun kronikoak honako hauek dira Osasunaren Mundu Erakundearen arabera: «iraupen luzea eta, oro har, hasiera edo garapen mantsoa duten gaixotasunak»<sup>64</sup>. Bestalde, OMEk honela definitzen du desgaitasuna: «desgaitasuna termino orokorra da eta urritasunak, jarduteko mugak eta parte hartzeko murrizketak biltzen ditu. Desgaitasunek gorputzeko egitura edo eginkizun bati eragiten diote; jarduteko mugak ekintza edo zereginak gauzatzeko zailtasunak dira, eta parte hartzeko murrizketak, aldiz, bizi-egoeretan parte hartzeko arazoak dira. Horrenbestez, desgaitasuna fenomeno konplexua da eta giza gorputzaren ezaugarrien eta gizakia bizi den gizartearen ezaugarrien arteko elkarrenergina adierazten du.»<sup>65</sup>

49. grafikoa

GAZTEEN GAIXOTASUN KRONIKOEN ETA DESGAITASUNEN BILAKAERA (%)



2006ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteak eta osasuna)

EAEko gazteen % 9k dio gaixotasun kronikoren bat edo desgaitasunen bat duela. Ehuneko hori 2006. urtekoaren oso antzekoa da (% 10)<sup>66</sup>.

<sup>64</sup> Osasunaren Mundu Erakundea: *Osasun-gaiak: Gaixotasun kronikoak* [linean] [http://www.who.int/topics/chronic\\_diseases/es/](http://www.who.int/topics/chronic_diseases/es/) [Kontsulta: 2013/10/16]

<sup>65</sup> Osasunaren Mundu Erakundea: *Osasun-gaiak: Desgaitasunak* [linean] <http://www.who.int/topics/disabilities/es/> [Kontsulta: 2013/10/16]

<sup>66</sup> Gazteen Euskal Behatokia. *Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2008. Webgune honetan eskura daiteke: [http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteak\\_bilduma/eu\\_liburuak/adjuntos/Gazteak\\_Salud\\_e.pdf](http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Gazteak_Salud_e.pdf) [Kontsulta: 2013/10/16] (125. or.).

Gaixotasun kronikoak edo desgaitasunak dituzten gazteen presentzia handixeagoa da 25-29 urtekoan artean (% 11), gazteagoen artean baino: 15-19 urtekoen artean % 8 eta 20-24 urtekoen artean % 7.

Ez dago alderik sexuaren arabera, baina bai gizarte-klasearen arabera. Gazteek beren burua zenbat eta beheragoko gizarte-klasean kokatu, orduan eta handiagoa da gaixotasun kronikoren bat edo desgaitasunen bat dutela dioten gazteen ehunekoak; goi-mailako edo erdi-goi mailako gizarte-klaseko gazteen artean % 6k du gaixotasun kronikoren bat edo desgaitasunen bat, baina erdi-mailako gizarte-klasean % 9 dira eta behe-mailako edo erdi-behe mailako gizarte-klaseko gazteen artean, % 12ra iristen dira.

112. taula

GAIXOTASUN KRONIKOAK EDO DESGAITASUNAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA GIZARTE-KLASEAREN ARABERA (%)

BADUZU GAIXOTASUN KRONIKORIK EDO EZINTASUNIK?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			GIZARTE-KLASEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ALTUA EDO ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	BAXUA EDO ERTAIN-BAXUA
Bai	9	9	10	8	7	11	6	9	12
Ez	90	90	90	91	91	88	93	90	87
Ed/Ee	1	1	1	1	2	1	1	1	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>103</b>	<b>1060</b>	<b>314</b>

## 7.2.2. Arazo psikologikoak azken 12 hilabeteetan

Arazo psikologikoak osasun mentalaren barruan sartzen dira. Osasun mentala honela definitzen du OMEk: «ongizate-egoera bat da eta, egoera horretan, norbanakoa bere gaitasunez jabetzen da, bizitzan izaten diren ohiko tentsioei aurre egin diezaieke, lan produktiboa eta emankorra egin dezake eta komunitateari ekarpenak egiteko gai da.»<sup>67</sup>

EAEko gazteen % 16k arazo psikologikoren bat izan du azken 12 hilabeteetan: antsietatea, estresa, depresioa...


Aurreko definizioari jarraiki, arazo edo nahasmendu horien ondorioz pertsonak ezin dituzte eguneroko eginbeharrak normaltasunez bete eta, are gehiago, tentsioa eragiten duten egoeretan.

<sup>67</sup> Osasunaren Mundu Erakundea. *Osasun Mentala: ongizate-egoera* [linean] [http://www.who.int/features/factfiles/mental\\_health/es/](http://www.who.int/features/factfiles/mental_health/es/) [Kontsulta: 2013/10/16]



## 50. grafikoa

ARAZO PSIKOLOGIKOAK AZKEN 12 HILABETEETAN (%)



Gertakari horiek askoz ere maizago gertatzen dira nesken artean (% 21), mutilen artean baino (% 11) eta 25 urtetik gorakoen kasuan nabarmen areagotzen dira (% 20; 15-19 urtekoen artean % 13 eta 20-24 urtekoen artean % 12).

Behe-mailako gizarte-klasekoak direla diotenen ere goi-mailako edo erdi-mailako klasekoek baino arazo psikologiko gehiago izaten dituztela aipatu dute.

Okupazio nagusiari erreparatuta, langabezia dauden gazteek hein handiagoan izaten dituzte arazo psikologikoak (% 21), lanean edo ikasten ari direnek baino (% 17 eta % 11, hurrenez hurren).

## 113. taula


ARAZO PSIKOLOGIKOAK AZKEN 12 HILABETEETAN, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA GIZARTE-KLASEAREN ARABERA (%)

AZKEN HAMABI HILABETEETAN IZAN AL DUZU ARAZO PSIKOLOGIKORIK, HALA NOLA ANTSIETATEA, ESTRESA, DEPRESIOA EDO ANTZEKORIK?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			GIZARTE-KLASEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ALTUA EDO ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	BAXUA EDO ERTAIN-BAXUA
Bai	16	11	21	13	12	20	15	14	22
Ez	83	88	78	85	87	80	84	85	77
Ed/Ee	1	1	1	2	1	1	1	1	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>103</b>	<b>1060</b>	<b>314</b>

### 7.2.3. Osasunaren pertzepzio subjektiboa

Eritasun edo desgaitasun fisiko edo psikikoak ote dituzten ez ezik, beren osasunaren gaineko zer nolako pertzepzio subjektiboa ote duten ere galdetu diegu gazteei.

EAEko gazteen % 26k dio bere osasun pertsonala oso ona dela eta beste % 62k ona dela; beraz, gazteen % 88ren ustez bere osasun-egoera positiboa da. Beste % 10ek hala-holakoa dela esan du eta % 1ek txarra.




Ez dugu ahaztu behar gazteen % 11k esan duela osasuna bere kezka pertsonal nagusietako bat dela, ikerketa honen II. kapituluan aipatu dugunez. Ehuneko hori bat dator osasun-egoera txarra edo hala-holakoa dutenekin.

2006. urtetik<sup>68</sup> 2012. urtera bitarte ez da aldaketa garrantzitsurik izan norberaren osasunaren gaineko pertzepzio subjektiboan. Modu positiboan balioesten duten gazteak % 87 ziren duela sei urte eta orain % 88.

<sup>68</sup> Gazteen Euskal Behatokia: Op. Cit. (119. or.). Galdera bera ez zen berdin-berdina, baina emaitzak konparagarriak dira.

## 52. grafikoa

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOAREN BILAKAERA (%)



\* 2006ko datuen iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteak eta osasuna)

20 urtetik beherako gazteek gainerakoek baino balioespen hobea egiten dute beren osasun-egoerari dagokionez: osasun-egoera onean daudela diotenak % 36 dira 15-19 urtekoen artean, % 21 dira 20-24 urtekoen artean eta % 22 dira 25-29 urtekoen artean. Puntu hau aztertzean, gogoan izan behar dugu adinean gora egin ahala gero eta gazte gehiagok izaten dituela gaixotasun kronikoak edo desgaitasunak eta, bereziki, arazo psikologikoak azken urtean.

Sexuak ez du alde adierazgarriker eragiten: osasun-egoera onean daudela dioten gizonak (% 27) balioespen berdina egin duten emakumeak baino zertxobait gehiago dira (% 24).

Arazo psikologikoak izan dituzten nesken kopurua mutilen kopuruaren bikoitza den arren (% 21 eta % 11, hurrenez hurren), osasun pertsonala balioesteko garaian ez da horrelako alderik ikusten. An-tza, neskek eta mutilek ez dute berdin ulertzen osasuna zer den. Gazteen Euskal Behatokiaren *Osasuna eta gazteak* azterlanari jarraiki, «emakume gazteen osasunaren ikuskera (...) integral eta orokor horretan garrantzi handia du norberarekiko harremanaren dimentsioak, baina baita besteekeko harremanarenak ere. Gizonezkoen diskurtsoan, (...) maila emozional-psikologikoak ez du betetzen emakumeen diskurtsoan duen posizio nagusia; aitzitik, gizonak beren osasun-nozioa indarraren, ahalmen fisikoaren ideian oinarrituta eraten dute»<sup>69</sup>. Hortaz, nahasmendu psikologiko gehiago dituzten arren, nesken gizarte-bizitzak, sare afektiboak beren osasun-egoeraren balioespena arindu edo hobetu dezake.

Bestalde, 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi diren gazteek balioespen positiboa- goa egiten dute beren osasunari dagokionez, biztanle gehiagoko herrietan bizi direnek baino.

<sup>69</sup> Ibid. (48-49. or.).

**114. taula**

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, SEXUAREN,  
ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

ORO HAR, NOLAKOA DA ZURE OSASUNA: OSO ONA, ONA, HALA-HOLAKOA, TXARRA EDO OSO TXARRA?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			UDALERRIAREN TAMAINA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
Oso ona	26	27	24	36	21	22	34	25	23
Ona	62	60	65	53	69	64	57	64	62
Hala-holakoa	10	11	10	9	8	12	7	9	12
Txarra	1	1	1	1	1	1	2	1	1
Oso txarra	0	0	0	1	0	0	0	0	0
Ed/Ee	1	1	0	1	1	1	0	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>240</b>	<b>660</b>	<b>600</b>

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, osasunarekin loturik, berdintasunik ezaren kontzeptuak dimentsio moral eta etikoa hartzen du; betiere beharrezkoak eta bidezkoak ez diren eta saiheste daitezkeen desberdintasunak badira. Osasun-arloan berdintasuna lortuz gero, mundu guztiak osasun-egoera ezin hobea izateko bidezko aukera izango luke.

Gure inguruko gizarte-segurantzaren sistema unibertsala da, baina pertsonen osasuna (objektiboa nahiz subjektiboa) aldatu egiten da gizarte-klasearen arabera. Goi-mailako, erdi-goi mailako edo erdi-mailako gizarte-klasekoak direla dioten gazteek erdi-behe mailako edo behe-mailako gizarte-klasekoak direla dioteneke baino balioespen hobexeagoa egiten dute norberaren osasunari dagokionez.

**115. taula**

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, GIZARTE-KLASEAREN ARABERA (%)

ORO HAR, NOLAKOA DA ZURE OSASUNA: OSO ONA, ONA, HALA-HOLAKOA, TXARRA EDO OSO TXARRA?				
(%)	GUZTIRA	GIZARTE-KLASEA		
		ALTUA EDO ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	BAXUA EDO ERTAIN-BAXUA
Oso ona	26	26	27	21
Ona	62	61	63	59
Hala-holakoa	10	8	8	17
Txarra	1	2	1	2
Oso txarra	0	0	0	0
Ed/Ee	1	3	1	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>103</b>	<b>1060</b>	<b>314</b>

Gaixotasun kronikoa edo desgaitasuna duten gazte gehienen ustez beren osasun-egoera ona edo oso ona da (% 75); baina balioespen hori ez da gaixotasun kroniko edo desgaitasunik ez dutenena bezain positiboa (azken kasu horretan, % 90ek egiten du balioespen positiboa).

Beste horrenbeste gertatzen da azken urtean arazo psikologikoren bat (antsietatea, estresa, depresioa...) izan dutenekin ere: gehienen ustez euren osasun-egoera ona edo oso ona da (% 75), baina ehuneko hori txikiagoa da arazo psikologikorik izan ez dutenena baino (% 91).

**116. taula**

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, GAIXOTASUN KRONIKO EDO DESGAITASUNEN ARABERA ETA AZKEN URTEKO ARAZO PSIKOLOGIKOEN ARABERA (%)

ORO HAR, NOLAKOA DA ZURE OSASUNA: OSO ONA, ONA, HALA-HOLAKOA, TXARRA EDO OSO TXARRA?					
(%)	GUZTIRA	GAIXOTASUN KRONIKORIK EDO EZINTASUNIK DUZU?		AZKEN URTEAN ARAZO PSIKOLOGIKORIK IZAN DUZU?	
		BAI	EZ	BAI	EZ
Oso ona	26	13	27	17	27
Ona	62	62	63	58	64
Hala-holakoa	10	21	9	23	8
Txarra	1	3	1	2	1
Oso txarra	0	0	0	0	0
Ed/Ee	1	0	0	0	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>138</b>	<b>1346</b>	<b>226</b>	<b>1259</b>

Bizimodu osasungarria izatea lagungarri da norberaren osasunaren pertzepzioa positiboagoa izan dadin. Elikadura orekatua dutenek, bizimodu aktiboa dutenek, ohiko moduan kirola egiten dutenek eta inoiz erre ez dutenek norberaren osasunaren balioespen hobea egiten dute elikadura desorekatua dutenek, bizimodu sedentarioa dutenek, ohiko moduan kirol egiten ez dutenek eta erretzen dutenek edo erre dutenek baino.

Halaber, kirola maizago egiten dutenek norberaren osasunaren pertzepzio hobea izaten dute edo, bestela esateko, zenbat eta kirol gehiago egin, orduan eta gazte gehiagok uste du bere osasun-egoera ona dela.

117. taula

OSASUNAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOA, ELIKADURAREN, BIZIMODUAREN, KIROLA EGITEAREN ETA ERRETZEKO OHITURAREN ARABERA (%)

ORO HAR, NOLAKOA DA ZURE OSASUNA: OSO ONA, ONA, HALA-HOLAKOA, TXARRA EDO OSO TXARRA?													
Guztira (%)	ELIKADURA BIZIMODUA					KIROLA EGITEA					ERRETZEA		
	ORE-KATUA	DESORE-KATUA	AKTI-BOA	EGO-NEKOA	ASTEAN 3TAN EDO GEHIAGOTAN	ASTEAN BEHIN EDO BIRRITAN	NOIZEAN BEHIN	INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ	EGU-NERO	NOIZEAN BEHIN	LEHEN BAI, ORAIN EZ	INOIZ EZ	
Oso ona	26	29	12	29	12	31	27	20	17	17	20	20	37
Ona	62	63	62	61	69	62	61	64	66	64	69	67	58
Hala-holakoa	10	7	23	8	17	6	11	14	15	17	10	9	4
Txarra	1	1	2	1	1	1	1	1	2	2	0	2	0
Oso txarra	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0
Ed/Ee	1	1	2	1	0	1	1	1	0	0	1	2	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>1215</b>	<b>273</b>	<b>1217</b>	<b>266</b>	<b>616</b>	<b>379</b>	<b>213</b>	<b>287</b>	<b>572</b>	<b>160</b>	<b>145</b>	<b>611</b>


### 7.3. OHITURA OSASUNGARRIAK

Ohitura osasungarriak izatea oso garrantzitsua da osasunari begira, aurreko atalean egiaztatu dugunez, baina EAEko gazteen artean zenbateraino daude zabaldua ohitura horiek?

Ikerketa honetarako, elikadura orekatua, bizimodu aktiboa eta kirola egitea hartu ditugu ohitura osasungarritzat.

### 7.3.1. Elikadura orekatua

EAEko gazteen % 80k uste du bere elikadura gehienbat orekatua dela.



Elikatzeko moduari dagokionez, ez da alde handirik ikusten gizon gazteen eta emakume gazteen artean: mutilen % 81ek eta nesken % 80k modu orekatuan elikatzen direla diote.

20-24 urteko taldeak du, hein handiengan, elikadura desorekatua; izan ere, % 22k dio bere elikadura gehienbat desorekatua dela.


**118. taula**

ELIKADURA-OHITURAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

OHIKO ELIKADURA KONTUAN HARTUZ, ESANGO ZENUKE ZURE ELIKADURA GEHIENBAT OREKATUA DELA ALA GEHIENBAT DESOREKATUA?										
(%)	GUZ-TIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JARDUN NAGUSIA			
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	IKASTEA	IKASTEA ETA LAN EGITEA	LAN EGITEA	LANGABEZIAN
Gehienbat orekatua	80	81	80	83	77	81	84	78	81	72
Gehienbat desorekatua	19	18	19	16	22	18	15	20	18	27
Ed/Ee	1	1	1	1	1	1	1	2	1	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>647</b>	<b>150</b>	<b>392</b>	<b>257</b>

Langabezia daudenek dute elikadura desorekatuena eta, horien atzetik, lana eta ikasi batera egiten dutenak datoz (azken horiek, ziurrenik, eguneroko bizitzako erritmoaren eta ohituren ondorioz).

Alde handienak eragiten dituen aldagaia gizarte-klasea da berriro ere: goi-mailako edo erdi-goi mailako gizarte-klasekoak direla diotenen % 87k modu orekatuan elikatzen dela dio eta behe-mailako edo erdi-behe mailako gizarte-klasekoen artean, % 69k.




### 7.3.2. Bizimodu aktiboa

Bizimoduari dagokionez, gazteen gehiengoak (%81) bizimodu gehienbat aktiboa du, baina % 18k gehienbat sedentarioa.



## 55. grafikoa

GAZTEEN BIZIMODUA (%)



Ikerketa askotan egiaztatu dute 12 urtetik aurrera nerabeen bizimodua aldatu egiten dela; ohiko moduan aktibo izatetik ia geldirik egotera igarotzen dira. Utzikeria hori askotariko arrazoiek eragin dezakete, baina garrantzitsuenak honako hauek izan daitezke: arian-arian motibazioa galtzea, ez dutela hainbeste gozatzen, denbora-falta... Gainera, mutilen eta nesken artean alde nabarmena gertatzen da, neskek askoz hein handiagoan uzten baitute alde batera ariketa fisikoa, mutilen aldean.

Eta badirudi datuek berretsi egiten dutela kirola egiteari uzteko errealitate hori; hurrengo taulan ikus daitekeenez, norberaren bizimodua aktibotzat hartzen dutenen kopurua gero eta txikiagoa da adinaren gora egin ahala. 15-19 urteko gazteen % 86k bizimodu gehienbat aktiboa duela dio baina ehuneko % 80ra jaisten da 20-24 urteko taldean eta % 79ra 25-29 urteko taldean.

Nesken eta mutilen arteko aldea garrantzitsua da hemen ere: mutilen % 84k dio bizimodu gehienbat aktiboa duela eta nesken artean, % 78k.

Gizarte-klaseak ere aldeak eragiten ditu; kolektibo guztietan gehiengoak bizimodu aktiboa duela dio, baina sedentarismoa gehiago agertzen da erdi-behe mailako edo behe-mailako gizarte-klasekoen artean.

**119. taula**

BIZIMODUA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA GIZARTE-KLASEAREN ARABERA (%)

ZURE OHIKO JARDUERAK KONTUAN HARTUZ, NOLAKOA DA ZURE BIZIMODUA: GEHIENBAT AKTIBOA ALA GEHIENBAT EGONEKOA?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			GIZARTE-KLASEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ALTUA EDO ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	BAXUA EDO ERTAIN-BAXUA
Gehienbat aktiboa	81	84	78	86	80	79	82	84	71
Gehienbat egonekoa	18	15	21	12	20	20	15	15	28
Ed/Ee	1	1	1	2	0	1	2	1	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>103</b>	<b>1060</b>	<b>314</b>

Bitxia den arren, gazteen okupazioaren arabera ere desberdintasunak sortzen dira: langabezia daudenean teoriarik denbora libre gehiago badute ere, haien bizimodua ez da hain aktiboa (% 71).

**120. taula**

BIZIMODUA, OKUPAZIO NAGUSIAREN, GAIXOTASUN KRONIKO EDO DESGAITASUNEN ARABERA ETA AZKEN URTEKO ARAZO PSIKOLOGIKOEN ARABERA (%)

ZURE OHIKO JARDUERAK KONTUAN HARTUZ, NOLAKOA DA ZURE BIZIMODUA: GEHIENBAT AKTIBOA ALA GEHIENBAT EGONEKOA?									
(%)	GUZTIRA	JARDUN NAGUSIA				GAIXOTASUN KRONIKORIK EDO EZINTASUNIK DUZU?		AZKEN URTEAN ARAZO PSIKOLOGIKORIK IZAN DUZU?	
		IKASTEIA	IKASTEIA ETA LAN EGITEA	LAN EGITEA	LANGA-BEZIAN	BAI	EZ	BAI	EZ
Gehienbat aktiboa	81	85	83	83	71	75	81	73	82
Gehienbat egonekoa	18	14	16	16	28	22	18	25	17
Ed/Ee	1	1	1	1	1	3	1	2	1
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>647</b>	<b>150</b>	<b>392</b>	<b>257</b>	<b>138</b>	<b>1346</b>	<b>226</b>	<b>1259</b>

Bestalde, gaixotasun kronikoren bat edo desgaitasunaren bat dutenen artean, %75ek bizimodu aktiboa duela esan du, eragozpenak eragozpen. Ehuneko hori gaixotasun kronikorik edo desgaitasunik ez duten gazteen ehunekoak (% 81) baino apur bat txikiagoa da, baina hala ere, gehiago dira.

Azken urtean arazo psikologikoren bat izan dutenek ere ez dute bizimodu hain aktiboa, gainerakoekin alderatuta (% 73 eta % 82, hurrenez hurren).

### 7.3.3. Kirola egitea

EAEko gazteek ariketa fisikoa egiteko dituzten ohiturak aztertuta, bost gaztetatik batek (% 20) ez du kirola egiten inoiz edo ia inoiz. Noizbehinka edo oporretan bakarrik egiten dutenak gehituz gero, heren batera iristen dira (% 34) ohiko moduan kirol-jarduerarik egiten ez duten gazteak.

Nesken kasuan handixeagoa da ehuneko hori (% 43), mutilen kasuan baino (% 26) eta adinarekin gora egiten du, hau da, 15-19 urtekoen artean % 24k ez du kirola egiten inoiz edo ia inoiz, edo noizbehinka edo oporretan bakarrik; 20-24 urtekoen artean % 36 dira eta 25-29 urtekoen artean % 40.

25-29 urteko taldean, gutxienez astean behin ohiko moduan kirol-jarduerarik egiten ez dutenen % 40 horretan alde handia dago nesken eta mutilen artean. 25-29 urteko mutilen % 32k ez du kirol-jarduerarik egiten inoiz edo ia inoiz, edo noizbehinka edo oporretan bakarrik egiten du baina nesken kasuan, % 48 dira, hau da, adin horretako bi neskatatik ia batek.

Aitzitik, gazteen % 8k kirola egiten du astean behin, % 17k astean bitan eta % 40k astean hiru aldiz edo gehiagotan. Alegia, gazte gehienek kirola egiten dute gutxienez astean behin (% 65), mutilen kasuan % 73k eta nesken kasuan % 57k.

Astean hiru aldiz edo gehiagotan kirola egiten dutenen artean mutilak dira nagusi eta adinean behera egin ahala, gero eta gehiago dira.

Gizarte-klasearen arabera aldeak sumatu ditugu berriro ere: erdi-mailako gizarte-klasekoak direla diotenen egiten dute kirol gehien (% 69k astean behin, gutxienez), eta behe-mailako edo erdi-behe mailako gizarte-klasekoen artean, aldiz, % 29k ez du inoiz edo ia inoiz kirol-jarduerarik egiten.

## 121. taula

KIROLA EGITEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA GIZARTE-KLASEAREN ARABERA (%)

(%)	ZENBATERO EGITEN DUZU KIROLA?								
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			GIZARTE-KLASEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ALTUA EDO ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	BAXUA EDO ERTAIN-BAXUA
Astean hirutan baino gehiagotan	40	50	30	49	39	35	39	42	34
Astean birritan	17	16	18	18	17	17	13	19	13
Astean behin	8	7	9	8	7	8	9	8	9
Noizean behin	13	11	15	9	14	15	17	13	13
Oporretan bakarrik	1	1	2	1	2	1	1	1	3
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20	14	26	14	20	24	19	18	29
Ed/Ee	0	0	0	1	1	0	1	0	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>103</b>	<b>1060</b>	<b>314</b>

Inkestatua bizi den lurralde historikoaren arabera badira aldeak: Gipuzkoan gazteen % 72k dio gutxienez astean behin kirol-jardueraren bat egiten duela, Araban % 67k eta Bizkaian % 61ek. Izan ere, Bizkaian gazteen ia laurden batek (% 24) ez du kirol-jarduerarik egiten inoiz edo ia inoiz.

Gipuzkoan gazteek kirol gehiago egitearen arrazoia Gipuzkoako Foru Aldundiak oinarritzko kirola eta eskola-kirola sustatzeko egiten duen ahalegina izan daiteke, gazteen artean kirola bultzatzeko plan berezien bitartez; Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien diru-partidak txikiagoak dira.

Azkenik, gaixotasun kronikoren bat edo desgaitasunen bat dutenen artean ere gehiago dira (% 58) astean behin kirola egiten dutenak. % 29k astean hiru aldiz edo gehiagotan egiten du.

## 122. taula

KIROLA EGITEA, BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA  
ETA GAIXOTASUN KRONIKO EDO DESGAITASUNEN ARABERA (%)

ZENBATERO EGITEN DUZU KIROLA?						
(%)	GUZTIRA	LURRALDEA			GAIXOTASUN KRONIKORIK EDO EZINTASUNIK DUZU?	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BAI	EZ
Astean hirutan baino gehiagotan	40	41	36	47	29	41
Astean birritan	17	16	17	18	21	16
Astean behin	8	10	8	7	8	8
Noizean behin	13	13	14	12	20	12
Oporretan bakarrik	1	1	2	1	1	2
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20	19	24	14	20	20
Ed/Ee	0	0	0	1	0	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>	<b>138</b>	<b>1346</b>

Orain arte, kirola zenbateko maiztasunarekin egiten den aztertu dugu, baina gazteek zer kirol egiten dute?

Zalantzarik gabe, futbola da jaun eta jabe (% 27). Korrika (% 14), igeriketa (% 13), muskulazioa (% 12) edo txirrindularitza (% 11) askoz gutxiagok egiten dute. Gainerako kirolak gazteen % 10ak baino gutxiagok aipatu ditu, kasuan kasu: aerobica, gimnastika erritmikoa, gorputz-adierazpena, gym-jazza edo dantza (% 9), ibiltzea (% 8), mendizaletasuna, mendi-ibiliak, trekkinga (% 7), saskibaloia (% 5), pilota edo pala (% 4), mantentze-gimnastika edo pilatesa (% 4), spinninga edo aqua-spinninga (% 3), atletismoa (% 2), tenisa, padela, squasha (% 2), eskubaloia (% 2), areto-futbola edo futbitoia (% 2), patinajea (% 2), boxeoa edo kick boxinga (% 2), surfa, windsurfa eta antzekoak (% 2), arte martzialak (% 1), eskalada (% 1), elur-kirolak (% 1), errugbia (% 1), yoga, tai-xia edo erlaxazioa (% 1), piraguismoa, arrauna, bela (% 1) eta beste kirol batzuk ez dira % 1era ere iristen.

EAEko gazteek gehien egiten dituzten kirolak aztertzean, sexuaren araberako azterketa egitea ezinbestekoa da. Nola ez, futboleant daude neska eta mutilen arteko alderik handienak: % 6 eta % 44, hurrenez hurren. Izan ere, mutilen artean futbola da kirol nagusia baina nesken artean hamargarrena da.


Nesken artean ez da atera kirol-diziplina nagusi bat, mutilen kasuan futbola atera den bezala. Neskek honako kirol hauek egiten dituzte gehien: korrika egitea (footinga, jogginga...) ehuneko 18k aipatu du, eta atzetik datoz ibiltzea (% 16), igeriketa (% 16) eta aerobica edo antzeko kirolak (% 15). Lau kirol mota horiek nesken kirol-zerrendako goiko postuetan daude eta, gainera, neskek mutilek baino gehiago egiten dituzte jarduera horiek.

Neskek futbola baino hein handiagoan egiten dituzte honako kirol hauek ere: muskulazioa (% 12), txirrindularitza edo bizikleta (% 10), trekkinga (% 7), mantentze-gimnastika edo pilatesa (% 7) eta spinninga edo aqua-spinninga (% 6). Pilatesaren eta spinningaren kasuan, sexuaren arabera aldeak daude, neskak gehiago baitira kirol-jarduera horietan.

Aitzitik, gizon gazteek neskek baino gehiago jarduten dute pilotan eta palaz edo erraketaz jokatzen diren kirolean, bai eta futbitoan eta boxeoa ere.

### 56. grafikoa

GEHIEN EGITEN DIREN KIROLAK, SEXUAREN ARABERA (%)\*



\* Portzentajeen baturak ez du % 100 egiten, gazte bakoitzak gehienez bi erantzun eman baititzakeen.

Adinak ere aldeak sorrarazten ditu kirol-jardueretan. Adinean gora egin ahala, behera egiten du lehiarekin loturik dauden taldeko kiroletan (futbola, saskibaloia eta eskubaloia) jarduten duten gazteen ehunekoak, baina futbitoan jokatzeko duten gazteak gehixeago dira. Adinarekin ere gora egiten du korrika egitera edo ibiltzera joaten diren eta trekkinga, bizikleta eta/edo igeriketa egiten duten gazteen kopuruak.

Futbola da EAeko hiru lurraldeetan gehien praktikatzen den kirola. Baina kirol jakin batzuetan goi-mailako taldeak izatearen ondorioz lurralde horietan kirol mota jakin horrek zale gehiago izaten ditu; horixe gertatzen da Araban saskibaloiarekin edo Gipuzkoan eskubaloiarekin.

Bestalde, txirrindularitza Araban eta Gipuzkoan egiten da, Bizkaian baino gehiago; tenisa, padela eta squasha ere Araban praktikatzen dira gehien.

## 123. taula

GEHIEN EGITEN DIREN KIROLAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA BIZI DEN LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

ZEIN KIROL EGITEN DUZU SARRIEN?*									
(%)	GUZ-TIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			LURRALDEA		
		GIZONAK	EMAKU-MEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Futbola	27	44	6	37	26	20	25	29	24
Korrika egitea, footinga, jogginga	14	11	18	12	13	17	14	13	16
Igeriketa	13	10	16	9	13	15	10	14	11
Muskulazioa	12	12	12	7	16	13	10	14	10
Txirrindularitza, bizikleta, mendi-bizikleta, ziklokrossa	11	11	10	5	12	13	16	7	14
Aerobika, gimnasia erritmikoa, gorputz-adierazpena, gym-jazza, dantza	9	4	15	10	6	10	6	11	7
Ibiltzea	8	1	16	3	10	10	9	7	9
Mendizaletasuna, mendi-ibiliak, trekkinga	7	6	7	2	5	11	7	6	7
Saskibaloia	5	6	4	7	6	2	9	4	5
Pilota, pala, frontoia	4	7	2	5	6	3	5	4	5
Mantentze-gimnasia, pilatesa	4	3	7	7	3	4	4	5	4
Spinninga, aqua-spinninga	3	1	6	2	5	3	3	3	4
Atletismoa	2	3	2	4	2	2	1	2	3
Tenisa, squasha, padela, badmintona	2	3	1	2	2	3	6	1	2
Balonmano	2	2	2	3	2	1	0	1	4
Areto-futbola, futbol 7	2	3	0	1	2	3	2	2	1
Patinajea	2	2	2	2	2	2	3	1	2
Boxeoa, kick boxinga	2	3	0	2	2	1	2	2	1
Surfa, windsurfa, padelsurfa	2	2	1	1	1	2	0	1	3
Borroka-arteak (judoa, karatea, taekwondo)	1	2	0	1	1	1	2	2	0
Eskalada	1	2	0	1	2	1	2	0	2
Elur-kirolak (eskia, snowboarda)	1	1	1	0	1	1	1	1	1
Rugbya	1	1	0	2	0	0	0	0	2
Yoga, tai-chia, erlaxazioa	1	0	1	0	1	1	2	1	0
Piraguismoa, arraunketa, bela...	1	1	0	1	0	1	0	0	2
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>400</b>	<b>600</b>	<b>500</b>

\* Galdera irekia. Portzentajeen baturak ez du %100 egiten, gazte bakoitzak gehienez ere bi erantzun eman baitzitezakeen.



Kirola noizbehinka edo oporretan bakarrik egiten dutenak gainerakoak baino hein handiagoan joaten dira ibiltzera, mendira, bizikletan ibiltzera edo elur-kirolak egitera.

Kirola astean hiru aldiz edo gehiagotan egiten dutenen kasuan, ordea, taldeko kirolak dira nagusi (futbola, saskibaloia, eskubaloia), kirol mota horietan, ohiko moduan, entrenamenduz gain partidak ere jokatu behar izaten dira, beraz, kirol-saio gehiago izaten dituzte; bai eta muskulazio-ehuneko handiagoak ere.

## 7.4. JOKABIDE ARRISKUTSUAK

Ohitura osasungarriak alde batera utzi, eta orain osasunarentzat kaltegarri diren jokabide arriskutsuei helduko diegu: tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzea.

### 7.4.1. Tabakoa

EAEko 15-29 urteko hamar gaztetatik ia lauk (% 39) egunero erretzen dute. Noizean behin erretzen dutenak (% 11) ere gehituta, gazteen erdia erretzaile dela esan dezakegu.

Gainera, beste % 10ek dio orain ez duela erretzen baina lehen erretzen zuela; beraz, hamar gaztetatik seik tabakoa kontsumitzen du edo kontsumitzen zuen.

Biztanleria orokorrean, tabakoa egunero erretzen dutenak askoz gutxiago dira (% 26, eta gazteen artean % 39)<sup>70</sup>.

Mutilen artean, egunero erretzen dutenen ehunekoa handiagoa da nesken artean baino (% 42 eta % 36, hurrenez hurren). Halaber, egunero erretzen dutenak adinaren arabera aztertzen baditugu, zenbat eta urte gehiago izan orduan eta jende gehiagok erretzen duela ikusiko dugu (15-19 urtekoen artean % 30, 20-24 urtekoen artean % 39 eta 25-29 urtekoen artean % 45), eta, aldi berean, inoiz erre ez dutenak gero eta gutxiago dira.

Kirola maiz egiten duten hiru gaztetatik batek (% 34) egunero erretzen duela onartu du. Nolanahi ere, ohiko moduan erretzen dutenen artean gutxiengo dira, zeren zenbat eta kirol gehiago egin, orduan eta txikiagoa baita tabakoaren eguneroko kontsumoa. Hortaz, badirudi kirola egitea, hein batean, tabakoren kontsumoa murrizten (baina ez eragozten) duen faktorea dela.

---

<sup>70</sup> *Euskadi eta drogak 2012*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Osasun Saila, [2013] [linean] [https://www.euskadi.net/contenidos/informacion/publicaciones\\_ovd\\_euskadi\\_drog/eu\\_9060/adjuntos/Euskadi%20eta%20drogak%202012.pdf](https://www.euskadi.net/contenidos/informacion/publicaciones_ovd_euskadi_drog/eu_9060/adjuntos/Euskadi%20eta%20drogak%202012.pdf) [Kontsulta: 2013/10/16] (53. or.).

## 124. taula

TABAKOAREN KONTSUMOA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA KIROLA EGITEAREN ARABERA (%)

ERRETZEN DUZU EDO ERRE AL DUZU INOIZ?										
Guztira (%)	SEXUA		ADIN-TALDEAK			KIROLA EGITEA				
	Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Astean 3tan edo gehiagotan	Astean behin edo birritan	Noizean behin	Inoiz ez edo ia inoiz ez	
Egunero	39	42	36	30	39	45	34	37	44	48
Noizean behin	11	12	10	9	11	13	10	12	17	8
Orain ez, lehen bai	10	9	11	5	11	13	11	9	7	12
Inoiz ez du erre	39	37	42	56	39	29	45	42	31	32
Ed/Ee	1	1	1	0	1	1	1	1	1	0
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>616</b>	<b>379</b>	<b>213</b>	<b>287</b>

Azkenik, tabakoa kontsumitzeko ohiturak aldatu egiten dira gizarte-klase batetik bestera: eguneroko erretzaile gehiago dago erdi-behe mailako edo behe-mailako gizarte-klasekoak direla diotenen artean (% 46).

## 7.4.2. Alkohola

Alkohola kontsumitzeari dagokionez, datuen argitara zera esan dezakegu, gazteen ia erdia (% 48) gutxienez behin mozkortu zela inkesta egin aurreko hilabetean, eta ehuneko hori handiagoa dela mutilen artean (% 54), nesken artean baino (% 41); beraz, mutilek edozein motatako jokabide arriskutsuak egiteko joera askoz handiagoa dutela berretsi egiten da.

Alkoholaren kontsumoa eta, zehazki, inkesta egin aurreko 30 egunetan mozkortu izana adin-taldearen arabera aztertzen badugu, baliorik handiena 20-24 urteko taldean aterako zaigu (% 54).

Kasu horretan, kirola egiteak ez du aipatzeko moduko alderik eragiten eta kirola ohiko moduan egiten dutenak eta inoiz egiten ez dutenak antzeko mailan mozkortu dira azken hilean.

Alabaina, gizarte-klaseari erreparatuz gero, goi-mailako edo erdi-goi mailako gizarte-klaseko gazteek onartu dute, hein handiengan (% 64), gutxienez behin mozkortu direla inkesta egin aurreko hilabetean.

## 125. taula

AZKEN HILABETEAN MOZKORTU DA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA GIZARTE-KLASEAREN ARABERA (%)

AZKEN HILABETEAN, GUTXIENEZ BEHIN MOZKORTU ZARA?									
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			GIZARTE-KLASEA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	ALTUA EDO ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	BAXUA EDO ERTAIN-BAXUA
Bai	48	54	41	45	54	45	64	46	49
Ez	50	43	58	53	44	53	34	52	49
Ed/Ee	2	3	1	2	2	2	2	2	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>103</b>	<b>1060</b>	<b>314</b>

Alkohola kontsumitzearekin loturik, bada beste jokabide arriskutsu bat: gidatzea edo norbaitek kotxean eramatea legez onartzen dena baino alkohol-tasa handiagorekin.

Gazteen artean ez da oso ohikoa izaten jokabide hori, baina hala ere, hamar gaztetatik batek (% 9) bizitzen duen arriskua aipatu egin behar dugu, behar baino gehiago edan duen gidari batekin kotxez ibiltzen denean.

Osasunarentzat kaltegarriak diren jarduera guztietan bezalaxe, genero-alde nabarmena dago kasu honetan ere: mutilen % 12k dio horrelako egoeraren bat bizi izan duela eta nesken kasuan erdira murrizten da (% 6).

Oraingoan ere 20-24 urteko taldean gertatzen da gehien egoera hori.

## 126. taula

AZKEN HILABETEAN ONARTUTAKOA BAINO ALKOHOL-TASA HANDIAGOAREKIN GIDATZEA EDO NORBAITEK KOTXEZ ERAMATEA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

AZKEN HILABETEAN, GUTXIENEZ BEHIN GIDATU AL DUZU EDO ERAMAN ZAITU KOTXEAN GIDARI BATEK ONARTZEN DENA BAINO ALKOHOL-TASA HANDIAGOAREKIN?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Bai	9	12	6	7	11	9
Ez	88	84	92	91	86	87
Ed/Ee	3	4	2	2	3	4
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

### 7.4.3. Legez kanpoko drogak

Bukatzeko, bost gaztetatik batek (gazteen % 20k) inkesta egin aurreko hilabetean legez kanpoko drogaren bat (haxixa, kokaina, pilulak eta abar) kontsumitu duela onartu du.

Mutilen artean % 27ra igotzen da ehunekoak, nesken kontsumo-ehunekoak (% 13) bikoizten dituztela.

Eta alkoholaren gehiegizko kontsumoaren kasuan bezalaxe, legez kanpoko drogen kontsumo handiena 20-24 urteko taldean gertatzen da; talde horretan, % 23k dio inkesta egin aurreko hilabetean legez kanpoko drogaren bat kontsumitu duela.

Kirola egiteak badirudi ez duela eraginik legez kanpoko drogen kontsumoan, ez eta gizarte-klaseak ere.

#### 127. taula

AZKEN HILABETEAN LEGEZ KANPOKO DROGAK KONTSUMITZEA,  
SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

AZKEN HILABETEAN, GUTXIENEZ BEHIN HARTU AL DUZU DROGA ILEGALIK, HALA NOLA HAXIXA, KOKAINA, PILULAK ETA ABAR?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Bai	20	27	13	20	23	19
Ez	76	67	85	77	73	77
Ed/Ee	4	6	2	3	4	5
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

## 7.5. ONDORIOAK

Gazte gehienek modu positiboan balioesten dute beren osasun-egoera. Hamar gaztetatik batek (% 9) gaixotasun kronikoren bat edo desgaitasunen bat duela dio eta azken urtean arazo psikologikoren bat (antsietatea, estresa edo depresioa) izan dutenak gehixeago dira (% 16). Hala eta guztiz ere, bi kolektiboetan gehiagoak dio osasun-egoera onean dagoela.

Elikadura orekatua eta bizimodu aktiboa duten gazteak ere gehiago dira eta hiru gaztetatik bik kirola egiten du astean behin, gutxienez.

Mutilak futbolean aritzen dira gehien eta gainerako kirol motekin alde handia dute; nesken artean, ordea, hamargarren postuan dago futbola, neskek nahiago baitute korrika egitea, ibiltzea, igeriketa eta aerobic edo antzeko kirolak egitea. Horretaz gain, mutilen presentzia handiagoa da taldeko kirolean eta neskek, kasu gehienetan, bakarka egin daitezkeen kirolak aukeratzen dituzte.

EAEko gazte gehienek esan dute kirola egiten dutela, hein handiagoan edo txikiagoan, baina, hala ere, bada gazte asko (% 20) inoiz kirola egiten ez duena eta % 13k noizean behin egiten du. Bizimodu sedentarioa izateko joera hori areagotu egiten da adinean gora egin ahala eta 20 urtetik gora kirol-jarduera nabarmen murrizten da, ziurrenik eskola-arloko kirola amaitzen delako. Emakumeek gizonek baino gutxiago egiten dute kirola.

Kirol-jarduerarik ez egiteari dagokionez, bost gaztetatik batek uste du bere bizimodua gehienbat sedentarioa dela eta norberaren pertzepzio hori ere areagotu egiten da adinarekin; gainera, emakumeen artean handiagoa da.

Osasunarentzat kaltegarriak diren jokabideei erreparatuta, hamar gaztetatik lau erretzaile da eta EAEko biztanleria orokorraren proportzioa gaintitzen du horrek. Gazteen ia erdiak inkesta egin aurreko hilabetean gutxienez behin mozkortu dela onartu du eta % 20k legez kanpoko drogaren bat hartu du (haxixa, kokaina, pilulak eta abar) aldi berean.

Sexuaren araberako aldeak oso handiak dira jokabide arriskutsuei dagokienez: mutilek gehiago erretzen dute eta azken hilabetean mozkortu direla edo legez kanpoko drogak kontsumitu dituztela adierazi dute, neskek baino hein handiagoan.


Baina gazte zarenean uste duzu ez zaizula ezer gertatuko, bizi-energia handiko etapa baita gartzaroa eta, beraz, ohitura eta jokabide arriskutsuak gorabehera, norberaren osasun-egoera ona dela uste dute gazte gehienek.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

## 8. Sexualitatea





# 8

## Sexualitatea

### 8.1. SARRERA

Nerabezaroaren amaiera eta gaztaroa garai oso garrantzitsuak dira nortasuna garatzeko eta gizakia osatzen duten maila guztiak integratzeko; beraz, guztiz logikoa da gazteen bizitzan elementu nagusietako bat honako hau izatea: sexualitatea emakumearen edo gizonaren nortasunean integratzea.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, «*sexualitatea gizakiaren funtsezko alderdia da eta bizitza osoan presente egoten da*»<sup>71</sup>. Alabaina, bizitzaren beste ezein garaitan ez da gaztaroan bezain garrantzitsua.

OMEk egindako sexualitatearen definizioari jarraiki, «*sexualitatean sexua, genero-nortasunak eta -paperak, erotismoa, plazerra, intimitatea, ugalketa eta sexu-orientazioa sartzen dira*».

Horregatik, kapitulu honetan sexualitatearekin loturiko hainbat alderdi aztertuko ditugu, hala nola, gazteek sexualitateari ematen dioten garrantzia, gaiari buruz informazioa lortzeko erabiltzen dituzten bide nagusiak, sexualitatearen alderdi jakin batzuei buruz zer ideia dituzten, orain arte izan duten esperientzia sexuala eta egin ahal izan dituzten praktika arriskutsuak.


---

<sup>71</sup> Osasunaren Mundu Erakunde. *Defining sexual Health: A report of a technical consultation on sexual health. 28-31 January 2002* [linean]. Geneva: OME, 2006. (Sexual health document series) [http://www.who.int/reproductivehealth/publications/sexual\\_health/defining\\_sexual\\_health.pdf](http://www.who.int/reproductivehealth/publications/sexual_health/defining_sexual_health.pdf) [Kontsulta: 2013/10/17]



## 8.2. SEXUALITATEAREN GARRANTZIA

EAEko gazteek gero eta gehiago onartzen dute sexualitateak beren bizitzan duen garrantzia. 2000. urtean gazteen % 24k esan zuen oso garrantzitsua zela baina 2012an % 34ra iritsi dira.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

Elkarrizketari erantzun dioten pertsonen sexuari erreparatuta, ez dago alde handirik: gizonen % 84k dio sexualitatea oso edo nahikoa garrantzitsua dela eta emakumeen artean % 82k.

Sexualitatea oso edo nahikoa garrantzitsua dela diotenak multzo batean sartuz gero, adin-taldean artean ere ez da alde handirik sortzen. Baina garrantzi handia ematen diotenak soilik hartzen baditugu, adinean gora egin ahala horien ehunekoa gero eta handiagoa dela ikusiko dugu: 15-19 urtekoen taldean % 23 dira, 20-24 urtekoen taldean % 34 eta 25-29 urtekoen taldean % 40.

128. taula


SEXUALITATEARI EMANDAKO GARRANTZIA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

(%)	GAUR EGUN ZURETZAT SEXUALITATEA...					
	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Oso garrantzitsua da	34	35	32	23	34	40
Nahikoa garrantzitsua da	50	49	50	47	52	50
Garrantzi gutxikoa da	11	10	13	19	10	7
Garrantzirik gabekoa da	3	3	3	8	2	1
Ed/Ee	2	2	2	4	1	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

EAEko gazteen eta Espainiako gazteen datuak alderatuz gero<sup>72</sup>, sexualitateari garrantzi handia ematen dioten gazteen ehunekoa Espainiako gazteen ehunekoaren bikoitza dela konturatuko gara (% 34 eta % 16, hurrenez hurren).

58. grafikoa

SEXUALITATEARI EMANDAKO GARRANTZIA. EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Iturria: Injuve (Jóvenes y diversidad sexual. 2010)

<sup>72</sup> Espainiako Gazteriaren Institutua. *Jóvenes y diversidad sexual: Estudio EJ149* [linean], Madril: Injuve, [2011] (Cifras jóvenes. Sondeo de opinión; 2010.2) [http://www.injuve.es/sites/default/files/Sondeo2010\\_2b.pdf](http://www.injuve.es/sites/default/files/Sondeo2010_2b.pdf) [kontsulta: 2013/10/17]

### 8.3. SEXUALITATEARI BURUZKO INFORMAZIO-ITURRIA

Gazteek sexualitateari buruzko informazioa bilatzeko erabiltzen dituzten informazio-iturriak funtsezko erreferente izaten dira eraldaketa sakoneko garai honi aurre egiteko modua bilatzean.


Gazteei honako hau galdetu diegu: orain arte, zein izan da sexualitateari buruzko gaietz informatzeko zure iturburu nagusia? Eta % 27k ama izan dela erantzun du, % 24k lagunak aipatu ditu, % 19k irakasleak edo ikastetxeko langileak eta beste % 10ek bikotekidea. Gainerakoek beste informazio-iturri batzuk aipatu dituzte baina ez dira % 5era ere iristen: aita (% 4); anai-arrebak (% 3); telebista, irratia, liburuak eta aldizkariak (% 3); Internet (% 2); osasun-arloko profesionalak (beste % 2) eta beste senide batzuk (% 1). Gainera, % 4k esan du ez duela informazio-ituririk izan.

Lehen begiratuan, amaren eta aitaren arteko aldea nabarmendu behar dugu, gazteen % 27k amarengana jotzen baitu sexuari buruzko galderak egiteko eta soilik % 4k aitarengana.

Amarengana eta aitarengana jotzen dutenen arteko aldea areagotu egiten da nesken kasuan, % 35ek galdetzen baitio amari eta soilik % 2k aitari.

59. grafikoa

SEXUALITATEARI BURUZKO INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIAK (%)




Aitzitik, gurasoen arteko aldeak murriztu egiten dira mutilen artean: % 19k, batik bat, amarengandik jaso du sexualitateari buruzko informazioa eta % 6k aitarengandik. Hau da, aita eta semeen artean nolabaiteko konplizitatea egon daitekeela pentsa dezakegu *a priori*, baina datuen argitara, mutilek sexuari buruzko informazio gehiago jasotzen dute amarengandik, aitarengandik baino.

Nolanahi ere, mutilentzat gurasoak ez dira gai honi buruzko informazioa lortzeko iturburu nagusia; bai, ordea, neskontzat (ama). Mutilek lagunengana gurasoengana (ama edota aitarengana) beste jotzen baitute.

### 60. grafikoa

SEXUALITATEARI BURUZKO INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIAK, SEXUAREN ARABERA (%)



Adinaren araberako aldeei dagokienez, adinean gora egin ahala gero eta gazte gehiagok aipatzen dute bikotekidea dela informazio-iturri nagusia: 15-19 urtekoen artean % 4k eta 25-29 urtekoen artean % 15ek. Era berean, 24 urtetik gorakoen artean ama jada ez da informazio-iturri aipatuena eta talde horretan lagunak amaren pareko erreferente dira. 20 urtetik aurrera, irakaslearen figurak garrantzia galtzen du sexualitateari buruzko informazioaren iturburu nagusitzat.

129. taula


SEXUALITATEARI BURUZKO INFORMAZIO-ITURRIAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

ORAIN ARTE, ZEIN IZAN DA SEXUALITATEARI BURUZKO GAI EZ INFORMATZEKO ZURE ITURBURURIK NAGUSIENA?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Ama	27	19	35	30	30	22
Lagunak eta ikaskideak/lankideak	24	25	23	25	24	23
Irakasleak edo ikastetxeko langileak	19	21	18	23	17	18
Bikotekidea	10	10	9	4	9	15
Aita	4	6	2	5	4	4
Neba-arrebak	3	3	3	2	2	5
Telebista, irratia, liburuak, aldizkariak	3	5	2	3	4	4
Internet	2	2	1	2	2	2
Osasungintzaren arloko profesionalak	2	1	2	2	1	2
Beste senide batzuk	1	1	1	2	1	1
Inor ez	4	5	2	2	5	4
Ed/Ee	1	2	2	1	2	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

EAEko gazteek eta Espainiako gazteek sexualitateari buruzko informazioa lortzeko norengana jotzen duten konparatzen badugu, alde garrantzitsuak daudela ikusiko dugu. EAEko gazteen artean informazio-iturri nagusia ama da baina Espainiako gazteen artean hirugarren postuan dago (gazteen % 20k aipatzen du), eta aurretik lagun eta ikaskideak (% 24) eta irakasleak edo ikastetxeko langileak (% 24) agertzen dira. Espainiako gazteen artean, sexualitateari buruzko informazioaren iturburutzat aita gehiago agertzen da EAEko gazteen artean baino (% 7 eta % 4, hurrenez hurren).

## 61. grafikoa

SEXUALITATEARI BURUZKO INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIAK.  
EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Iturria: Injuve (Jovenes y diversidad sexual, 2010)

Nolanahi ere, Espainia osoan ere amari galdetzeak garrantzi handiagoa du aitari galdetzeak baino (13 puntuko aldea dago bien artean).

## 8.4. SEXUALITATEARI BURUZKO IDEIAK

Sexualitateari buruzko hainbat alderdiri buruz gazteek zer nolako irudia duten aztertzeo asmoz, elkarrizketatuei hainbat baieztapen esan genizkien eta haiek baieztapen horiekiko adostasun-maila edo desadostasun-maila adierazi behar ziguten.

Horretaz gain, kasu bakoitzean EAeko eta Espainiako gazteen iritzia alderatu ditugu, EAEn eta Espainiako gainerako tokietan gai honi buruz pentsatzen dutena bat ote datorren edo ez ikusteko<sup>73</sup>.

### 8.4.1. Sexualitatea eta norberaren oreka

Osasunaren Mundu Erakundeak emandako definizioan sexualitatea pertsonen bizitzan funtsezko alderdizat hartzen da eta ideia horri jarraiki, sexualitatea norberaren oreka izateko ezinbestekoa ote den galdetu diegu gazteei.

Gazte gehienak (% 79) oso edo nahikoa ados daude esaldi horrekin, hau da, sexualitatea funtsezko alderdia da, haien ustez, norberaren oreka lortzeko. Aitzitik, % 8 ez dago ados ideia horrekin (ez oso ados edo batere ados ez).

Baieztapen horrekiko adostasun-maila areagotu egiten da adinean gora egin ahala, eta 20 urte-tik beherakoen arteko % 67tik 20-24 urtekoen arteko % 82ra eta 25-29 urtekoen arteko % 85era igotzen da.

Alabaina, ez da alde handirik ikusten nesken eta mutilen iritziaren artean. Eta aldeak ere txikiak dira elkarrizketatuen jatorriari erreparatuta ere, baina Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoen adostasun-maila atzerrian jaiotakoena baino handiagoa da (% 80 eta % 76, hurrenez hurren), norberaren orekarako sexualitatea beharrezkoa den ideari dagokionez.

---

<sup>73</sup> Horretarako, Injuveren ikerketaren emaitzak kontsultatu ditugu. Ibidem.

## 130. taula

«SEXUALITATEA BEHARREZKOA DA NORBERAREN OREKARAKO»  
BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, «SEXUALITATEA BEHARREZKOA DA NORBERAREN OREKARAKO» ESALDIAREKIN OSO ADOS ZAUDEN, NAHIKO ADOS ZAUDEN, EZ ZAUDEN OSO ADOS EDO EZ ZAUDEN BATERE ADOS								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso ados	39	39	39	33	41	41	39	38
Nahiko ados	40	41	39	34	41	44	41	38
<b>ADOS*</b>	<b>79</b>	<b>80</b>	<b>78</b>	<b>67</b>	<b>82</b>	<b>85</b>	<b>80</b>	<b>76</b>
Ez ados ez desados	9	9	8	13	8	6	9	8
Ez oso ados	5	4	6	8	6	3	5	5
Batere ados ez	3	3	4	6	2	2	3	4
<b>DESADOS**</b>	<b>8</b>	<b>7</b>	<b>10</b>	<b>14</b>	<b>8</b>	<b>5</b>	<b>8</b>	<b>9</b>
Ed/Ee	4	4	4	6	2	3	3	7
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

\* ADOS = Oso ados + Nahiko ados

\*\* DESADOS = Ez oso ados + Batere ados ez


Gazteen jarrera ideologikoaren arabera ere badira aldeak: sexualitatea norberaren orekarako beharrezkoa den ideari dagokionez, ezkerrekoak direla dioten adostasun-maila zertxobait handiagoa da zentroko edo eskuinekoak direla diotenena baino (% 85 eta % 79, hurrenez hurren, oso ados edo nahikoa ados dago ideia horrekin).

Kasu honetan ez dago alde garrantzitsurik EAEko eta Espainiako gazteen artean. Espainiako gazteen % 80 ados dago ideia horrekin eta % 11 ez dago ados.



## 62. grafikoa

«SEXUALITATEA BEHARREZKO DA NORBERAREN OREKARAKO» BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA. EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Iturria: Injuve (Jóvenes y diversidad sexual, 2010)

## 8.4.2. Maitasuna eta sexua

Duela lau urte, gazteei zera eskatu genien, «sexua» hitza entzuten zutenean burura etortzen zitzaizkien bi hitz, adjektibo edo esapideak esateko, eta gehien errepikatu ziren erantzunak honako hauek izan ziren: bikotea (% 27k aipatu zuen), desioa (% 20k) eta maitasuna (% 18k)<sup>74</sup>. Bikotea eta maitasuna aipatu zituztela ikusita, sexu-harremanak izateko bestearekin maiteminduta egon behar ote den galdetu behar genien gazteei.

Gazteen erdiak baino gehiagok ez ditu sexu-harremanak maitasunarekin lotzen; izan ere, % 59 ez dago oso ados edo batere ados sexu-harremanak izateko maiteminduta egon behar den baietzapenarekin.

Alabaina, gazteen ia heren batek (% 29) bai uste du maiteminduta egon behar dela sexu-harremanak izateko.

<sup>74</sup> *Euskal gazteak 2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2008 (276-277. or.). Webgune honetan eskura daiteke: [http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/euskadiko\\_gazteak/eu\\_liburuak/adjuntos/Juventud\\_vasca\\_2008\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2008_e.pdf) [Kontsulta: 2013/10/17]

Baieztapen horrekiko desadostasuna kolektibo guztietan nagusi den arren, badira alde adierazgarriak sexuaren arabera: mutilen artean % 23 ados dago sexu-harremanak izateko maiteminduta egon behar den ideiarekin eta ehuneko hori % 36ra ere igotzen da nesken kasuan.

Baieztapen horrekiko adostasun-maila txikiagoa da adinean gora egin ahala; horrela, bada, 20 urtetik beherakoen artean maiteminduta egon behar den ideia horrekin oso ados edo nahikoa ados daudenek % 38 osatzen dute, 20-24 urtekoen artean % 28 eta 25-29 urtekoen artean % 25.

### 131. taula

«HARREMAN SEXUALAK IZATEKO MAITEMINDUTA EGON BEHAR DA» BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, «HARREMAN SEXUALAK IZATEKO MAITEMINDUTA EGON BEHAR DA» ESALDIAREKIN OSO ADOS ZAUDEN, NAHIKO ADOS ZAUDEN, EZ ZAUDEN OSO ADOS EDO EZ ZAUDEN BATERE ADOS								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso ados	13	11	15	19	12	10	12	25
Nahiko ados	16	12	21	19	16	15	16	19
<b>ADOS*</b>	<b>29</b>	<b>23</b>	<b>36</b>	<b>38</b>	<b>28</b>	<b>25</b>	<b>28</b>	<b>44</b>
Ez ados ez desados	11	10	11	12	11	10	11	8
Ez oso ados	27	30	23	24	30	26	27	23
Batere ados ez	32	36	28	24	31	38	33	20
<b>DESADOS**</b>	<b>59</b>	<b>66</b>	<b>51</b>	<b>48</b>	<b>61</b>	<b>64</b>	<b>60</b>	<b>43</b>
Ed/Ee	2	1	2	3	1	1	1	4
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

\* ADOS = Oso ados + Nahiko ados

\*\* DESADOS = Ez oso ados + Batere ados ez


Kasu horretan jatorriak bai eragiten ditu aldeak: atzerrian jaiotako gazteen % 44 ados dago baieztapen horrekin eta EAEn jaiotako gazteen artean adostasun-maila % 28koa.

Kasu horretan, zentroko edo eskuinekoak direla dioten gazteek ezkerrekoak direla dioten gazteek baino adostasun-maila handiagoa dute: zentroko edo eskuinekoen artean % 35 oso ados edo nahikoa ados dago baieztapenarekin eta ezkerreko ideologia dutenen artean % 22.

Espainiako gazteei dagokionez, % 37 bat dator baieztapen horrekin eta % 54 ez, hau da, sexu-harremanak izateko maitasuna egotea nahitaezkoa den ideari dagokionez, Espainiako gazteen adostasun-maila handiagoa da EAeko gazteena baino.

## 63. grafikoa

«HARREMAN SEXUALAK IZATEKO MAITEMINDUTA EGON BEHAR DA» BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA. EAEKO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Iturria: Injuve (Jóvenes y diversidad sexual, 2010)

### 8.4.3. Aukera sexuala aldatzea bizitzan zehar

Sexualitateari buruzko kapitulu honetan ezin ditugu alde batera utzi sexu-aniztasuna eta aukera sexualak. Gai horri dagokionez, gure gazteak sexu-aniztasunaren aurrean tolerantetia eta irekiak ote diren jakin nahi izan dugu.

EAEko gazteen bi herenek (% 65) zera uste du, pertsona batek bizitzan zehar aukera sexuala alda dezakeela eta gizonekin edo emakumeekin izan ditzakeela sexu-harremanak. Ehuneko horretan sartzen dira baietzapen horrekin oso ados dauden % 32ak eta nahikoa ados dauden % 33ak. Aitzitik, % 18 ez dago ados horrekin.

Mutilen eta nesken artean alde handia dago baietzapen horren kasuan. Mutilen % 58 ados dago baietzapenarekin baina nesken artean % 73 dira.

## 132. taula

«BIZITZAN ZEHAR PERTSONA BATEK ALDATU AHAL DU BERE AUKERA SEXUALA ETA HARREMAN SEXUALAK IZAN GIZONEKIN EDO EMAKUMEEKIN» BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, «BIZITZAN ZEHAR PERTSONA BATEK ALDATU AHAL DU BERE AUKERA SEXUALA ETA HARREMAN SEXUALAK IZAN GIZONEKIN EDO EMAKUMEEKIN» ESALDIAREKIN OSO ADOS ZAUDEN, NAHIKO ADOS ZAUDEN, EZ ZAUDEN OSO ADOS EDO EZ ZAUDEN BATERE ADOS								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEEK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso ados	32	28	37	35	32	31	33	26
Nahiko ados	33	30	36	29	32	35	33	28
<b>ADOS*</b>	<b>65</b>	<b>58</b>	<b>73</b>	<b>64</b>	<b>64</b>	<b>66</b>	<b>66</b>	<b>54</b>
Ez ados ez desados	11	14	8	11	13	11	12	9
Ez oso ados	9	10	7	8	8	10	9	11
Batere ados ez	9	12	6	9	10	8	7	18
<b>DESADOS**</b>	<b>18</b>	<b>22</b>	<b>13</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>18</b>	<b>16</b>	<b>29</b>
Ed/Ee	6	6	6	8	6	5	6	8
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

\* ADOS = Oso ados + Nahiko ados

\*\* DESADOS = Ez oso ados + Batere ados ez

Elkarrizketatuen adinari erreparatuz gero, ez dago alde handirik: hiru adin-taldetan adostasun-maila % 64tik % 66ra bitartekoa da.


Baina jatorriak eragiten du alderik eta bi taldeetan baieztapenarekin ados daudenak gehien-go diren arren, EAEn jaiotako gazteen artean adostasuna % 66koa da eta atzerrian jaiotakoaren artean % 54koa.

Bizitzan zehar pertsona batek aukera sexuala alda dezakeen ideiarekin ados daudenak askoz gehiago dira ezkerrekoak direla diotenen artean (% 73), zentroko edo eskuinekoak direla diotenen artean baino (% 56).

Espainiako gazteen kasuan, baieztapenarekiko adostasun-maila % 65era iristen da, hau da, EAeko gazteen maila berean dago. Alabaina, ideia horrekin oso ados daudenak soilik hartzen baditugu, EAeko gazteak gehiago dira Espainiakoak baino (% 32 eta % 24, hurrenez hurren).

## 64. grafikoa

«BIZITZAN ZEHAR PERTSONA BATEK ALDATU AHAL DU BERE AUKERA SEXUALA ETA HARREMAN SEXUALAK IZAN GIZONEKIN EDO EMAKUMEEKIN» BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA. EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Iturria: Injuve (Jóvenes y diversidad sexual, 2010)

#### 8.4.4. Gizonek emakumeez baino desio sexual gehiago al dute?

Jarraian, gizonek desio sexual handiagoa izaten dutela dioten topikoa gazteen artean zenbateraino dagoen zabaldua aztertuko dugu; izan ere, topiko horrek emakumeen sexu-desioa zapaldu eta ikusezin bihurtu baino ez du egiten.

EAEko gazteen % 44 ados dago proposatutako baieztapenarekin. Beste % 38 ez dago ados eta % 14 ez da alde batean ez bestean ere kokatu.

Nesken eta mutilen iritzia ikusita, ez dago alde handirik baina adinaren arabera baieztapenarekiko adostasun-maila aldatu egiten da. Adinean gora egin ahala gero eta gazte gutxiagok uste du gizonek emakumeez baino desio sexual gehiago dutela: 15-19 urtekoen artean % 49k eta 25-29 urtekoen artean % 39k.

Atzerrian jaiotakoan artean ideia hori zabalduago dago (% 51) bertakoan artean baino (% 44).

## 133. taula

«GIZONEK EMAKUMEEK BAINO DESIO SEXUAL GEHIAGO DITUZTE» BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, «GIZONEK EMAKUMEEK BAINO DESIO SEXUAL GEHIAGO DITUZTE» ESALDIAREKIN OSO ADOS ZAUDEN, NAHIKO ADOS ZAUDEN, EZ ZAUDEN OSO ADOS EDO EZ ZAUDEN BATERE ADOS								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEEK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso ados	20	20	19	24	20	16	20	22
Nahiko ados	24	24	25	25	26	23	24	29
<b>ADOS*</b>	<b>44</b>	<b>44</b>	<b>44</b>	<b>49</b>	<b>46</b>	<b>39</b>	<b>44</b>	<b>51</b>
Ez ados ez desados	14	16	13	15	10	17	15	13
Ez oso ados	17	18	17	13	20	18	18	11
Batere ados ez	21	19	23	19	20	23	21	16
<b>DESADOS**</b>	<b>38</b>	<b>37</b>	<b>40</b>	<b>32</b>	<b>40</b>	<b>41</b>	<b>39</b>	<b>27</b>
Ed/Ee	4	4	3	4	4	3	3	8
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

\* ADOS = Oso ados + Nahiko ados


\*\* DESADOS = Ez oso ados + Batere ados ez

Gizonek emakumee baina desio sexual handiagoa duten ideia zabalduago dago eskuineko edo zentrokoak direla dioten gazteen artean (% 42), ezkerrekoak direla diotenen artean baina (% 36).

Espainiako gazteekin konparatuz gero, gazte espainiarrek adostasun-maila handiagoa dute baietzapen horrekin, zeren erdia baino gehiago (% 56) oso ados edo nahikoa ados baitago gizonek emakumee baina sexu-desio handiagoa izatearekin, baina, lehen ikusi dugunez, EAEko gazteen artean balio hori ez da gehiengora iristen (% 44).

## 65. grafikoa

«GIZONEK EMAKUMEEK BAINO DESIO SEXUAL GEHIAGO DITUZTE» BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA. EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Iturria: Injuve (Jóvenes y diversidad sexual, 2010)

### 8.4.5. Homosexualitatea gaixotasuntzat hartzea

1973. urtean, Amerikako Psikiatria Elkarteak bere Diagnosi eta Estatistika Eskuliburuko buru-nahasmenduen zerrendatik kendu zuen homosexualitatea. Gerora, 1990. urtean, Osasunaren Mundu Erakundeak gaixotasunen munduko sailkapenen eskuliburutik ere kendu zuen homosexualitatea. Beraz, esan gabe doa homosexualitatea ez dela gaixotasuna, ez fisikoa, ez mentala, baina hala ere, oraindik ere zenbait jendek gaixotasuntzat hartzen du. Heterosexualitatea ez den beste orientazio sexual oro patologiatzat hartzen jarraitzeko ahalegin horiek pertsonen oinarri-oinarrizko eskubideak urratzen dituzte. Ikerketa honetan, EAEko gazteek homosexualitatearen ikuspegi oker eta intolerante hori zenbateraino partekatzen duten jakin nahi izan dugu.

Hamar gaztetatik bederatzik (% 88) baztertu egiten du homosexualitatea gaixotasuna dela eta horrela tratatu behar dela. Gutxiengoa diren arren, % 6 ideia horrekin ados dago eta mutilen artean ehunekoa handiagoa da nesken artean baino (% 8 eta % 5, hurrenez hurren).

Elkarrizketatuaren jatorriak eragiten ditu alde handienak; izan ere, EAEn jaiotako gazteen artean baietzapen horrekiko adostasun-maila % 6 da baina atzerrian jaiotakoen artean, % 17ra ere iristen da.

## 134. taula

«FUNTSEAN HOMOSEXUALITATEA GAIXOTASUN BAT DA ETA HORRELA TRATATU BEHAR DA»  
BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA, SEXUAREN, ADIN-TALDEAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (%)

ESADAZU, MESEDEZ, «FUNTSEAN HOMOSEXUALITATEA GAIXOTASUN BAT DA ETA HORRELA TRATATU BEHAR DA» ESALDIAREKIN OSO ADOS ZAUDEN, NAHIKO ADOS ZAUDEN, EZ ZAUDEN OSO ADOS EDO EZ ZAUDEN BATERE ADOS								
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK			JATORRIA	
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE	EAE	ATZERRIA
Oso ados	5	6	4	6	4	5	4	12
Nahiko ados	1	2	1	1	2	1	1	5
<b>ADOS*</b>	<b>6</b>	<b>8</b>	<b>5</b>	<b>7</b>	<b>6</b>	<b>6</b>	<b>5</b>	<b>17</b>
Ez ados ez desados	3	4	2	4	3	3	3	7
Ez oso ados	12	14	10	13	12	11	11	15
Batere ados ez	76	71	81	73	77	77	79	53
<b>DESADOS**</b>	<b>88</b>	<b>85</b>	<b>81</b>	<b>86</b>	<b>89</b>	<b>88</b>	<b>90</b>	<b>68</b>
Ed/Ee	3	3	3	4	2	3	2	8
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>	<b>1226</b>	<b>192</b>

\* ADOS = Oso ados + Nahiko ados

\*\* DESADOS = Ez oso ados + Batere ados ez


Homosexualitatea gaixotasuna dela eta horrela tratatu behar dela uste dutenak gutxiengo dira bai ezkerrekoak direla diotenen artean, bai zentroko edo eskuineko direla diotenen artean; nolahi ere, baieztapenarekin batere ados ez daudenen ehunekoa hamar puntu handiagoa da ezkerrekoak direla diotenen kasuan (% 83), eskuineko edo zentrokoak direla diotenen kasuan baino (% 73).

Estatu osoari dagokionez, gazte gehienak ez daude ados homosexualitatea gaixotasuna den ideiarekin (% 86), baina ideia horrekin batere ados ez daudenen ehunekoa handiagoa da EAEn (% 76), Espainia osoan baino (% 69).



## 66. grafikoa

«FUNTSEAN HOMOSEXUALITATEA GAIXOTASUN BAT DA ETA HORRELA TRATATU BEHAR DA» BAI EZTAPENAREKIKO ADOSTASUN-MAILA. EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Iturria: Injuve (Jóvenes y diversidad sexual, 2010)


## 8.5. ESPERIENTZIA SEXUALA

Jarraian, gazteen esperientzia sexuala aztertuko dugu; horretarako, mutilen eta nesken artean, adin-taldeen artean... egon daitezkeen aldeei erreparatuko diegu eta Espainiako gazteekin ere konparatuko ditugu.

EAEko lau gaztetatik hiruk (% 78) sexu-harremanak izan dituela esan du, % 75ek penetrazioarekin eta gainerako % 3ak penetraziorik gabe.

## 67. grafikoa

ESPERIENTZIA SEXUALA (%)



Mutil eta neska gazteen artean ez da alde adierazgarrikerik atera esperientzia sexualari dagokionez.

Baina adin-taldean arabera oso handiak dira. 15-19 urteko gazteen % 51k esan du sexu-harremanak izan dituela, penetrazioarekin edo gabe; ehuneko hori % 85era igotzen da 20-24 urtekoen kasuan eta % 90era 25-29 urtekoen kasuan. Adinean gora egin ahala, sexu-harremanen bat izan duten gazteen zenbateko orokorrak ere gora egiten du eta, horrekin batera, penetrazioarekin harremanak izan dituztenenak ere bai; beraz, 25 urtetik gora, esperientzia sexuala duten pertsona guztiek penetrazioarekin izan dituzte harremanak.

## 135. taula


ESPERIENTZIA SEXUALA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

IZAN AL DUZU INOIZ HARREMAN SEXUALIK PENETRAZIOAREKIN? ETA PENETRAZIORIK GABE?						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
		Harreman sexualak penetrazioarekin	75	75	75	42
Harreman sexualak penetraziorik gabe	3	3	4	9	3	0
Inolako harreman sexualik ez	15	16	15	40	8	5
Ez du erantzun	7	6	7	9	7	5
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1500</b>	<b>750</b>	<b>750</b>	<b>450</b>	<b>450</b>	<b>600</b>

15-19 urteko taldea 18 urtetik gorakoetan eta 18 urtetik beherakoetan banatzen badugu, argi ikusten da 18 urteko muga horretan hasten dela gazteen esperientzia sexuala nabarmen handitzen; izan ere, 15-17 urteko neska-mutilen erdiak baino gutxiagok (% 40) izan ditu sexu-harremanak baina 18 eta 19 urteko gazteen kasuan, ordea, gehienek izan dituzte (% 67).

## 68. grafikoa


15-19 URTEKO KOLEKTIBOAREN ESPERIENTZIA SEXUALA, ADIN-AZPITALDEEN ARABERA (%)



Bestalde, Espainiako gazteekin alderatuz gero, Estatu osoko 15-29 urteko gazte gehiagok (% 88) izan dituzte harreman sexualak (% 82k penetrazioarekin eta gainerako % 6ak penetrazioarik gabe), EAE-ko gazteen artean % 78k izan baitu mota bateko edo besteko esperientzia sexualik.

## 69. grafikoa

ESPERIENTZIA SEXUALA. EAE-KO ETA ESPAINIAKO GAZTEEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



\* Iturria: Injuve (Juventud en España 2012)

## 8.6. HARREMAN SEXUAL ARRISKUTSUAK

Harreman sexual arriskutsua diogunean zera esan nahi dugu, sexuaren bidez transmititzen den gaixotasunen bat kutsatzeko arriskua eta/edo nahi izan gabe haurdun geratzeko arriskua dakarren jokatibide sexuala.


Hori jakiteko, inkesta egin aurreko urtean arrisku horietakoren bat dakarren harreman sexualik izan ote duten galdetu diegu harreman sexualak (penetrazioarekin edo gabe) izan dituzten gazteei.

Sexuan esperientzia duten lau gaztetatik hiruk esan dute ez dutela haurdun geratzeko eta sexu-transmisioko gaixotasunen bat harrapatzeko arriskurik izan azken urtean izan dituzten sexu-harremanetan (% 74).

Alabaina, harreman sexualetan esperientzia duten lau gaztetatik batek arriskuren bat izan du azken urtean, edo haurdun geratzeko arriskua (% 16), edo sexu-transmisioko gaixotasunen bat harrapatzeko arriskua (% 2) edo biak (% 6).

70. grafikoa

ESPERIENTZIA SEXUALA DUTEN GAZTEEN HARREMAN SEXUAL ARRISKUTSUAK (%)



Oinarria: Harreman sexualak izan dituzten gazteak (gazte guztien %78)

EAEko gazte guztiak aintzat hartzen baditugu (harreman sexualak izan dituen edo ez alde batera utzita), harreman sexual arriskutsuak izan dituztenak zenbat diren jakin nahi izan dugu eta % 18 direla esan behar dugu, hau da, EAEko bost gaztetatik ia batek harreman sexual arriskutsuren bat izan du azken urtean.

## 136. taula

HARREMAN SEXUAL ARRISKUTSUAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA (%)

AZKEN URTEAN IZAN AL DUZU HAURDUN GERATZEKO EDO SEXU-TRANSMISIOKO GAIXOTASUNEN BAT HARTZEKO ARRISKUA DAKARREN HARREMAN SEXUALIK?*						
(%)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN-TALDEAK		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
Bai, haurdun geratzeko arriskua	16	17	15	16	16	16
Bai, sexu-transmisioko gaixotasun bat hartzeko arriskua	2	2	1	2	2	1
Bai, bi arriskuak	6	6	5	5	5	7
Arriskurik ez	74	73	76	74	75	74
Ez du erantzun	2	2	3	3	2	2
<b>PORTZENTAJEA GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Maiztasun absolutuak</b>	<b>1169</b>	<b>586</b>	<b>583</b>	<b>233</b>	<b>386</b>	<b>550</b>

\* Galdera hau sexu-harremanen bat izan dutenei bakarrik egin zaie (gazteen % 78)

Egoera arriskutsuen proportzioa antzekoa da nesken eta mutilen artean eta adinean gora eginda ere antzeko mailari eusten zaio; horrek zera esan nahi du, urteak betetzen dituzten heinean, teoriar, heldutasun-maila handiagoa izan beharko luketen arren, EAEko gazteek ez dutela neurri gehiago hartzen arriskuei aurrea hartzeko.

## 8.7. ONDORIOAK

Azken urteotan, gazteek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote sexualitateari: 2000. urtean gazteen % 24rentzat oso garrantzitsua zen eta 2012. urtean % 34ra iritsi gara. EAEko gazteek Espainiakoe baino garrantzi handiagoa ematen diote sexualitateari.

EAEko gazteen artean sexualitateari buruzko informazio-iturri nagusia ama da (% 27). Amaren atzetik, bigarren informazio-iturria lagunak (% 24) dira eta hirugarrena irakasleak edo ikastetxeko langileak (% 19). Sexualitateari buruzko informazio bila aitarengana jotzen dutenak % 4 baino ez dira.

Sexualitateari ematen dioten garrantziarekin jarraituta, EAEko gazteen % 79k uste du sexualitatea beharrezkoa dela norberaren orekarako.

Gazteen % 65ek ere esan du pertsona batek bizitzan zehar aukera sexuala alda dezakeela eta gizonekin edo emakumeekin izan ditzakeela sexu-harremanak.

Aitzitik, gazteen erdia baino gehiago (% 59) ez dago ados harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela dioen ideiarekin eta desadostasun-maila are handiagoa da (% 88) homosexualitatea, funtsean, gaixotasun bat dela eta horrela tratatu behar dela aipatu dugunean.

Azkenik, «gizonek emakumeek baino desio sexual gehiago dituzte» baieztapenaren aurrean jarrerak ez daude hain garbi: % 44 ados dago ideia horrekin eta % 38 ez.

Baieztapen horiekiko adostasunaren eta desadostasunaren mailari erreparatuta, gazteak, oro har, progresistak edo aurrerazaleak direla esan dezakegu, baina gazteen ehuneko txiki batek lehengo jarrerai eusten die gizarte osoaren balioetan gertatzen diren aldaketan aurrean. Bereziki aipatu nahi dugu EAEko gazteen % 29k esan duela harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela, eta % 18 ez dagoela ados bizitzan zehar pertsona batek bere hautu sexuala aldatzeko aukera izatearekin. Aspaldiko garaietara itzuli garelako pentsa dezakegu batzuetan; izan ere, gazteen % 44 ados dago gizonek emakumeek baino desio sexual gehiago izatearekin eta, bereziki, % 6k homosexualitatea gaixotasun-tzat hartzen duelako.

Mutilen eta nesken arteko alde garrantzitsuena maitasunak eragiten du, neska gehiagok uste baitu harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela eta, bestalde, bizitzan zehar pertsona batek aukera sexuala aldatzearekiko tolerantzia handiagoa dute neskek.

Gazteek urteak betetzen dituzten heinean, orduan eta garrantzi handiagoa ematen diote sexualitateari eta gero eta gazte gutxiago dago ados hainbat topikorekin, hala nola, sexu-harremanak izateko maiteminduta egon behar dela edo gizonek emakumeen baino desio sexual gehiago dituztela.

Ideologia aldetik zentroko edo eskuinekoak direla dioten gazteak eta jatorriz atzerritarrak diren gazteak kontserbadoreagoak direla ere egiaztatu ahal izan dugu, betiere sexualitateari dagokionez.

Praktika sexualei erreparatuta, EAEko gazteen % 78k harreman sexualak izan ditu (bizitza osoan gutxienez behin) eta horietatik % 75k penetrazioarekin; alderdi horretan ez dago alderik nesken eta mutilen artean. EAEko gazteen sexu-jarduna Espainiako gazteen batez bestekoaren azpitik dago (10 puntu).

18 urtetik beherakoen artean, % 40k sexu-harremanak izan ditu, % 29k penetrazioarekin eta gainerako % 11k penetrazioarik gabe. Adinez nagusi bihurtzea inflexio-puntutzat har dezakegu eta, hortik aurrera, gazte gehienak harreman sexualak izaten hasten dira. 15-17 urteko gazteen artean % 54k ez du harreman sexualik izan baina ehuneko hori % 19ra murrizten da 18 eta 19 urtekoen kasuan, eta are gehiago murrizten da adinean aurrera egin ahala.

Esperientzia sexuala dutenen artean, lau gaztetatik batek (% 24) azken urtean praktika arrisku-tsuren bat egin duela aitortu du (haurdun geratzeko arriskua edo sexu-transmisioko gaixotasunen bat harrapatzeko arriskua). Urte gehiago izateak ez du esan nahi praktika arriskutsuak gutxitzen direnik eta praktika horiek antzeko maila izaten dute nesken eta mutilen artean.

Gazte guztiekin alderatuta, harreman sexual arriskutsuak izan dituztenak zenbat diren kalkulatu dugu eta EAEko gazteen % 18k praktika sexual arriskutsuak izan dituztela esan dezakegu.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

Ondorioak







# Ondorioak

Liburuaren azken atal honetan, EAEko gazteen egoeraren ikuspegi sintetikoa eman nahi izan dugu, ikertutako arlo guztiei dagokienez. Horretarako, azterketan bildutako adierazle nagusiak jasotzen dira, eta azken urteetako bilakaera erakusten da, horretarako aukera ematen duen daturik badago, zer aldaketa egon diren mahai gainean jartzeko, batetik, eta zer joera ikusten diren adierazteko, bestetik.

## FAMILIA-EGOERA ETA JARDUNA

- *Euskadiko gazteak ongi prestatuta daude.*

15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen heren batek goi-mailako ikasketak ditu (dela goi-mailako heziketa-zikloa, dela unibertsitate-ikasketak), eta antzeko proportzio batek amaituta ditu bigarren mailako ikasketak (batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloa).

25 urtetik 29 urtera bitartekoen erdiak baino gehiagok goi-mailako ikasketak ditu (% 52k, hain zuzen), eta neskek mutilek baino heziketa-maila altuagoa dute.

- *Ikasketak dira gazteen jardun nagusia, eta ikasten ari diren gazteen ehunekoak egonkor dirau.*

Gazteen % 41entzat ikastea da jardun nagusia, eta % 10ek ikasi eta lan egiten dute. Ehuneko horietan ez dago aldaketa handirik 2000. urtetik.

- *Zenbat eta ikasketa-maila altuagoa, orduan eta laneratze handiagoa.*

Goi-mailako ikasketak dituzten 25 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen % 62k lan egiten du. Portzenta-jea % 56koa da, berriz, derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo bigarren mailako ikasketak dituzten artean, eta % 37koa derrigorrezko ikasketak soilik dituzten artean.

- *Handitu egin da langabezian daudela adierazten duten gazteen ehunekoa: krisia hasi aurreko kopuruaren halako bi da.*

Gazteen % 18k langabezian dagoela adierazten du, eta % 8 ziren 2008. urtean. Lana baduten gazteen ehunekoak behera egin du.

- *Behera egin du ahalmen ekonomikoak.*

Gazteak erosteko ahalmena galtzen ari dira 2008. urtetik, eta 2012. urtean gazteen erdiak baino gehiagok hilean 300 euro baino gutxiago dituzte, eta % 17k soilik dituzte 900 euro baino gehiago.

Lanak ez du nahikoa diru-sarrera bermatzen: lan egiten dutenen % 45ek hilean 900 euro baino gutxiago ditu.

- *Lehen baino gehixeago dira gazte emantzipatuak, baina ez dira laurdenera iristen.*

Gazte emantzipatuak ez dira gazteen laurdenera ere iristen (% 22, hain zuzen), baina haien pisu erlatiboa 2008koa baino handiagoa da: urte hartan gazteen % 19k adierazi zuten gurasoen etxetik kanpo bizi zirela.

Nesken emantzipazio-maila (% 28) handiagoa da mutilena baino (% 17).

25 urte eta 29 urte bitartean dituztenen artean, % 43 daude emantzipatuta.

- *% 13 bikotekidearekin bizi da, eta gehiago dira ezkondu gabe elkarrekin bizi direnak ezkondu direnak baino.*

Gazteen % 13 bikoterekin bizi da. 2008. urteko ehuneko bera da, baina 2000koa eta 2004koa baino askoz handiagoa. % 5 dago ezkondua, eta gainerako % 8a ez dago ezkondua.

- *% 7k soilik ditu seme-alabak.*

30 urtetik beherako gazteen % 7k dute seme-alabaren bat, 2000. urteko ehunekoaren halako bik (% 3 ziren).

Gazte seme-alabadunen eta emantzipatuen kopuruak gora egiteko arrazoia izan daiteke gazte atzerritar gehiago egotea. Izan ere, atzerritarren artean bi aldagai horiek (emantzipatuta egotea eta ondorengoak izatea) tasa altuagoak dituzte EAEn jaio diren gazteen artean baino.

## EGOERA PERTSONALA ETA SOZIALA NOLA IKUSTEN DUTEN

- *Lana aurkitzeko zailtasuna eta lanaren egonkortasun eza dira gazteen arazo nagusiak.*

Gazteen % 72k adierazten du, bere kasa, langabezia eta lanaren egonkortasun eza direla bere kezka nagusiak; 2008. urtean baino 10 puntu altuagoa da ehunekoak.

Bada lan-merkatuarekin lotutako arazoen nagusitasunak erakarri duen datu bat: etxebizitza, 2008. urtean gazteek zuten arazo nagusia, % 67k aipatzen zuen duela lau urte eta % 18k aipatzen du 2012. urtean.

- *Euskadiko egoera orokorra lehen baino okerrago ikusten dute.*

Gazteen % 28k uste du Euskadiko egoera orokorra txarra dela; % 16k, ona dela; eta % 53k, erdipurdikoa dela. Balioespena guztiz aldatu da lau urtean: lehen gehiago ziren Euskadiko egoera ona zela uste zutenak, txarra zela uste zutenak baino.

- *Gazteen egoeraren balioespena Euskadiko egoera orokorrarena baino are okerragoa da.*

Gazteen % 48k uste du oro har gazteen egoera erdipurdikoa dela, eta % 38k, berriz, txarra dela. Iritzi txarra dutenen ehunekoak 17 puntu egin du gora 2008. urtetik.

- *Erkidegoko eremuko administrazioen artean, udalek soilik lortzen dute nahikoa kalifikazioa gazteen alorreko lanari dagokionez, eta 2008. urtean izandako balioespena hobetzen dute.*

Euskadiko gazteak ez daude oso gustura administrazioek gazteen alorrean egiten dituzten jarduerekin. Udalen lanari soilik ematen diote nahikoa: 10etik 5 puntu ematen dizkiote. Foru-aldundiek 4,6 lortzen dute, eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, 4,5.

- *Gazteek sentitzen dute instituzioek ez dietela jaramonik egiten.*

Gazteen % 73k uste du erakundeek ez dituztela aintzat hartzen gazteen iritziak. Gazteen iritzia aintzat hartzen dutela uste dutenen ehunekoak (% 17) sei puntu egin du behera 2000. urtetik, % 23koa zen eta.

- *Gazteen erdiak baino gehiagok gizarte-ereduaren funtsezko aldaketa eskatzen dute.*

Euskadiko gazteen % 47k uste du gure gizarteak aldaketa handiak behar dituela, eta % 18k uste du gizartea errotik aldatu behar dela.

- *Gazte gehienak gustura daude beren egoerarekin.*

Aurreko guztia adierazita ere, gazteen % 73 gustura dago bere egoerarekin. Errealitatearekiko ikuspegi baikor hori gazteak bere egoera pertsonalari ematen dion puntuazioak berresten du: 10etik 7,2koa da.

## PARTAIDETZA ETA JARRERA POLITIKOAK

- *Pixka bat gora egin du politikarekiko interesak, baina lau gaztetik bati soilik interesatzen zaio.*

Gazteen % 23ri asko edo nahiko interesatzen zaio politika. Ehuneko hori 2009koa baino bost puntu handiagoa da; izan ere, une hartantxe izan zen politikarekiko interes txikiena, 2000. urtean hasitako serieari dagokionez.

Euskadiko gazteei gutxiago interesatzen zaie politika, biztanleria osoarekin alderatzen badugu, eta baita Espainiako gazteekin alderatzen badugu ere.

- *Handitu egin da gai publikoetan parte hartzeko gogoia.*

Gazteen % 42k parte-hartze aktiboagoa izan nahi du gai publikoetan, eta 2008. urtean baino hamabost puntu gehiago da hori.

Politikarekiko interes ezak ez du esan nahi alderdi publikoa interesatzen ez zaienik, politika egiteko modua arbuiatzen dutela baizik: politika gutxi interesatzen zaien edo batere interesatzen ez zaien gazteen % 35ek parte-hartze aktiboagoa izan nahi dute gai publikoetan.

- *Gazteek uste dute ez dagoela ongi ordezkutzen dituen alderdi politikorik.*

Gazteen % 53k ez du bat egiten inolako alderdi politikoren ideiekin. Alderdietatik urruntzeko joera handituz joan da 2000. urtetik, urte hartan % 38k adierazten baitzuen ez zegoela alderdi politikoren batetik hurbil.

Alderdi politikoetatik urrun egoteko joera askoz nabarmenagoa da gazteen artean, Euskadiko biztanleria osoaren artean baino. Ezein alderdirekin bat egiten ez dutenak bi aldiz gehiago dira gazteen artean, biztanleria osoaren artean baino.

- *Gazteen erdiak gogoko ditu M-15 mugimenduaren ideiak.*

M-15eko mobilizazioak hasi zirenetik urtebete igaro dela, Euskadiko gazteen % 50ek adierazten du gogoko dituela edo oso gogoko dituela mugimendu horren ideiak. Gizarteak aldaketak edo, are gehiago, errotiko aldaketak behar dituela uste dutenen artean handiagoa da ehuneko hori.

Gazteen % 14k parte hartu zuen M-15 mugimenduak deitutako mobilizazioen batean edo batean baino gehiagotan.

- *Behera egin du elkartegintzak.*

Gazteen % 34 elkarteren bateko kide da gaur egun, eta % 21 elkarteren bateko kide izan da.

Elkarteren bateko kide diren gazteen ehunekoak zazpi puntu egin du behera 2008. urtetik. Euskadiko gazteen asoziazionismo-maila handiagoa da Espainiako gazteena baino, han % 22koa baita.

Kirol-elkarteak eta mendi-elkarteak dira gehienak (% 15), txokoak eta jolas-elkarteak daude atzetik (% 8), eta musikarekin lotutakoak ondoren (% 5).

- *Lau gaztetik batek esperientzia du boluntario-jardueretan.*

Gazteen % 23k boluntario-jarduerak egiten ditu edo egin ditu, astean gutxienez ordubetez, edo epe labur batez denbora osoz, hala nola auzolandegietan parte hartuz edo atzerrian boluntario-esperientziaren bat biziz.

Ehunekoak zertxobait gora egin du 2008. urtetik, % 20k baitzuen horrelako esperientziaren bat urte hartan.

## GIZARTE BALIOAK ETA PORTAERAK

- *Gora egin du beren burua ateo edo agnostikotzat duten gazteen kopuruak, eta gazteen erdia baino gehiago dira jada.*

Beren burua katolikotzat duten gazteen ehunekoak behera egin du: % 46 ziren 2008. urtean, eta % 34 dira, berriz, 2012an. Eta, aldiz, beren burua ateotzat edo agnostikotzat dutenak edo erlijioa axola ez zaienak gehiago dira: % 43 ziren duela lau urte, eta % 54 dira gaur egun.

Gazteen % 5 soilik joaten da aldizka (gutxienez astean behin) elizara edo otoitz-lekura.

Euskadiko gazteen sekularizazioa handiagoa da Espainiako gazteena baino: Espainian gazteen % 56k adierazten du katolikoa dela, eta Euskadin, berriz, % 34k.

- *Hamar gaztetik zortzi abortu libre eta borondatezkoaren aldekoak dira.*

Gazteen % 79 abortu libre eta borondatezkoaren aldekoa da, eta 2008. urtean baino zortzi puntu gehiago dira. Abortuaren aldeko jarrera zabalduago dago Euskadiko gazteen artean, Espainiakoen artean baino (% 57 dira).

- *Gazte gehienak daude eutanasiaren alde, baina 2008. urtean baino gutxiago dira.*

Gazteen % 73 gaixotasun sendaezina duen eta hiltzen laguntzeko eskatzen duen pertsona bati laguntzearen aldekoa da. Ehuneko hori 2008. urtekoa baino 9 puntu txikiagoa da.

Espainiako gazteen artean handiagoa da eutanasiaren aldekoak direnen ehunekoak (% 77).

- *Heriotza-zigorraren aurka daudenak gehiengoaren diren arren, haren aldekoen ehunekoak gora egin du pixka bat.*

Gazteen % 77 heriotza-zigorraren aurka dago. Heriotza-zigorraren aldekoak direnen ehunekoak zazpi puntu egin du gora azken lau urteotan: % 9tik % 16ra igo da.

- *Gora egin du ideia politiko edo erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzearen alde daudenen kopuruak.*

Gehienak (% 62) ideia politiko edo erlijiosoak indarkeriaren bidez defendatzearen aurkakoak badira ere, laurden bat (% 26) horren aldekoa da. 2008. urtean, berriz, Euskadiko gazteen % 15 zen horren aldekoa.

- *Erdia baino gehiago etxebizitza hutsak okupatzearen aldekoa da, baina ehunekoak behera egin du.*

Gazteen % 57 horren aldekoa da, eta % 64 ziren, berriz, 2008. urtean. Etxebizitzak okupatzearen alde daudenen ehunekoak handiagoa da Euskadiko gazteen artean Espainiakoen artean baino (% 41 dira).

- *Hamar gaztetik sei kanabisa legeztatzearen alde daude.*

Gazteen % 61 kanabisa legeztatzearen alde dago, eta % 26, berriz, aurka.

- *Sexu-aniztasunaren alde daude gazte gehienak eta errespetatu egiten dute.*

Gazteen % 87 sexu bereko bikoteak ezkondu ahal izatearen alde daude, eta 2008. urtean jaso zen ehunekoaren antzekoa da. Ehuneko hori Espainiako gazteen artean 2012. urtean jasotakoa (% 78) baino handiagoa da.

Gazteen % 81 legezko sexu-aldaketaren alde dago, eta 2008. urtean baino pixka bat gehiago dira (% 78 ziren).

Beren burua ezkertiarizat dutenen artean handiagoa da aurreko bi ideiekin bat egiten dutenen ehunekoak.

- *Zenbait gizarte-talderekiko intolerantzia handitu egin da.*

Gazte gehienek (% 62k) adierazten dute ez luketela nahi eskuin muturrekorik izan auzotar.

Droga-arazoak dituzten pertsonak eta ijitoak arbuiatzen dituztenak ere % 40tik gora dira.

Haien atzetik, prostituzioan jarduten duten pertsonak, militarrek eta espetxean egon direnak arbuiatzen dituztenak daude, % 35 eta % 30 bitarteko ehunekoekin. Gazteen laurden batek inguruk adierazten du ez lukeela nahi ezker muturrekoak eta poliziak auzotar izan, % 16k berriz ez lukeela immigranteen ondoan bizi nahi eta % 11k ez lukeela homosexualen ondoan bizi nahi.

Gizarte-talde gehienekiko arbuioak gora egin du 2008. urteko datuekin alderatzen badugu, drogazale, ijito eta militarrenak izan ezik.

- *Gora egin du intolerantzia ideologikoak ere.*

Gazteen % 17k adierazten du ez dagoela gustura bere ideia, sinesmen eta balioez bestelakoak dituen jendearekin. 2008. urtean baino bost puntu gehiago da hori, eta 2004. eta 2000. urteetan baino zazpi gehiago.

- *Gazten ia erdiak uste du immigrante gehiegi dagoela, eta hamarretik bat immigranteak herrialdean sartzea debekatzearen alde dago.*

Euskadiko gazteen % 45ek uste du immigrante gehiegi daudela Euskadin; % 47k uste du asko daudela baina ez gehiegi, eta % 4k adierazten du gutxi direla.

Azken hamabi urteetan, etengabe egin du gora Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla dioten gazteen ehunekoak: % 12 ziren 2000. urtean eta % 45 dira gaur egun.



Orobat, gora egin du langile immigranteak sartzeari debekatzearen alde dauden gazteen ehunekoak: % 3 ziren 2000. urtean; % 6, 2008an, eta % 10, 2012an.

- *Gazte gehienek iraunkortasunari begirako gutxieneko kontsumo-ereduak dituzte.*

Gazteen % 64k birziklatu egiten du, eta % 57k garraio publikoa erabiltzen du edo autoan ez da bakarrik ibiltzen joan-etorrietan.

Horrez gain, bizikletaren erabilera duela lau urtekoaren halako bi da: 2012. urtean % 10ek erabiltzen dute, egunero, garraibide moduan, eta kopuru hori % 5koa zen 2008. urtean.

## AISIA, KULTURA ETA EUSKARA

- *Handitu egin da Internetekin lotutako aisia, baina lagunekin egotea da, oraindik ere, aisialdian egiten den jardueraren nagusietako bat, asteburuetan, batez ere.*

Lanegunetan egiten diren aisia-jardueraren ohikoenak serieak eta filmak ikustea (% 48), lagunekin edo bikotearekin egotea (% 46) eta musika entzutea (% 41). Laugarren lekuan sartu da, indarrez, ordenagailuarekin Interneten ibiltzea, sare sozialetan ibiltzea eta abar: % 24 ziren 2008. urtean, eta % 35 dira gaur egun.

Asteburuan, lagunekin egoteak gora egiten du: % 60 dira jardueraren hori egiten dutela diotenak (2008. urteko ia ehuneko bera) eta gazteen aisiako jardueraren nagusia da. Tabernetara joatea da jaiegunetan egiten diren jardueretan bigarrena (% 31).

- *Hamar gaztetik lauk jardueraren artistikoren bat egiten dute.*

Gazteen % 43k, 2008. urtean baino zertxobait gehiagok (% 40 ziren), esaten du jardueraren artistikoren bat egin duela *amateur* moduan.

Argazkilaritza dago lehen lekuan (% 19); ondoren, idaztea (% 16), pintatzea (% 13) eta musika-tresnaren bat jotzea (% 10).

- *Behera egin du zinemara joaten direnen ehunekoak, baina gora kontzertuetara joaten direnenak.*

Gazteen erdia baino pixka bat gehiago (% 53) behin gutxienez joan da zinemara inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan, eta jaitsiera handia da 2008. urtearekin alderatuta (% 72 ziren).

Konzertuetara joan zirenen ehunekoak, berriz, gora egin du: % 30etik % 42ra.

% 20 museoren batera joan da, eta % 13, antzerkira.

- *Euskadiko gazteek duela lau urte baino gehiago irakurtzen dute, baina liburu gutxi irakurtzen dira euskaraz.*

Gazteen % 54k libururen bat irakurri du, denbora-pasa moduan, inkesta egin aurreko hilabetean. Ehuneko hori handiagoa da 2008. urtekoa baino, % 45ekoa izan baitzen.

Alde handia dago gizonen eta emakumeen artean: nesken % 65ek irakurri du libururen bat azken hilabetean eta mutilen artean % 43k besterik ez.

Euskaraz askoz liburu gutxiago irakurri dira —dela plazerez, dela ikasketak eta lanak eraginda—: % 29k soilik irakurri du libururen bat euskaraz azken hiru hiletan.

Euskaraz irakurtzeko ohitura oso lotuta dago eskola-sistemak ezartzen dituen betebeharrekin; eta horren adierazle da irakurketa-indize handiagoak izatea hogei urte bete ez dituztenen artean (% 49) eta ikasten ari direnen artean (% 44).

- *Internet ia erabat sartuta dago gazteen bizitzan, eta hamar gazetetik zortzik profila dute sare sozial batean gutxienez.*

Gazteen % 98k erabiltzen du Internet, duela hamar urte baino bi aldiz gehiago dira. Astean horretan ematen duten denbora ere esponentzialki handitzen da: gazteen % 29k astean 15 orduz baino gehiagoz erabiltzen du Internet, eta 2000. urtean % 3 besterik ez ziren.

Gazteen % 83k profila du sare sozial batean gutxienez; eta hogei urtetik behera dituztenen artean, portzentajea % 92koa da.

- *Gora egin du euskararen ezagutzak gazteen artean, baina ez erabilerak.*

Hona hemen horri buruzko datu adierazgarriena: euskara ongi edo oso ongi hitz egiten dutela adierazi dutenen ehunekoak hamalau puntu egin du gora 2000. urtetik 2012. urtera (% 48tik % 62ra).

Baina gazte euskaldunen laurden batek soilik erabiltzen du lehentasunez euskara etxean eta lagunekin.

## BERDINTASUN EZA ETA SEXISMOA

- *Lana eskuratzeko orduan berdintasun eza dagoela uste duten emakume gazteak lehen baino gehiago dira.*

Gazte gehienek (% 61) uste dute ez dagoela sexuaren ziozko diskriminaziorik lana eskuratzeko; baina, dena den, emakume gazteen % 28k uste du gizonetakoek beraiek baino aukera gehiago dituztela gizonetakoak izateagatik. Ehuneko hori duela lau urte baino bost puntu handiagoa da.

- *Gauzez oinez ibiltzeko beldurra pixka bat handitu da emakume gazteen artean.*

15 urtetik 29 urtera bitarteko emakumeen ia heren bati (% 32ri) beldurra ematen dio bere herritik edo auzotik gauzez oinez ibiltzeak, eta gizonen artean, berriz, % 7ri.

Gauzez oinez ibiltzeko beldurra duten nesken ehunekoak hiru puntu egin du gora 2008. urtetik (% 29 ziren).

- *Larriagozat jotzen dira indarkeria sexistaren inguruko zenbait adierazpen.*

Gazte gehienei (% 93ri) oso larria iruditzen zaie bikotea gogoz kontra sexu-harremanak izatera behar-tzea, etxetik ateratzea debekatzea (% 79), mehatzatzea (% 79) eta gutxiestea (% 62). Gazteen erdiari edo gutxiagori oso larria iruditzen zaio erabakitzeak aukerarik ez uztea (% 49ri) eta iraintzea (% 45i). Ehuneko horiek guztiak duela hamabost urte baino askoz handiagoak dira.

Adin-talderik gazteenak, 15 urtetik 19 urtera bitartekoenak, gainerakoek baino arinagozat jotzen ditu jarrera horiek.

## OSASUNA

- *Gaixotasun kronikoek edo gutxitasunak hamar gaztetik bati eragiten diote.*

Euskadiko gazteen % 9k gaixotasun kronikoren bat edo gutxitasunen bat duela adierazten du. 2006. urtean izandako ehunekoaren atzekoa da (% 10 zen orduan).

- *Gazteen % 16k adierazten du arazo psikologikoren bat izan duela azken urtean.*

Arazo psikologikoak (estresa, antsietatea, depresioa...) ugariagoak dira nesken artean (% 21) eta lan-gabezia daudenen artean (% 21).

- *Dena den, gazte gehienek uste dute osasun ona dutela.*

Hamar gaztetik bederatzik (%88k) uste du osasun ona edo oso ona duela. Kopuru horrek iraunkor dirau 2006. urtetik.

Bizitza-estiloak zerikusi handia du osasunaren pertzepzio subjektiboan: elikadura orekatua eta bizitza aktiboa izan, kirola egin eta, batez ere, erretzen ez dutenek beren osasunari buruzko iritzi hobea dute.

- *Hamar gaztetik zortzik bizitza aktiboa eta elikadura orekatua dutela uste dute.*

Gazteen % 80k dio elikadura orekatu samarra duela eta % 81ek bizitza aktibo samarra.

Beren burua gizarte-klase baxukotzat dutenak daude kopuru horietatik urrunen: bizitza aktiboa dutenen ehunekoa % 71ra arte jaisten da, eta elikadura orekatua dutela uste dutenena, berriz, % 69ra.

- *Hamar gaztetik lauk kirola egiten dute astean hirutan edo gehiagotan.*

Euskadiko gazteen % 8k kirola egiten du astean behin, % 17k astean bitan, eta % 40k astean hirutan edo gehiagotan. Hau da, gazte gehienek kirola egiten dute astean behin gutxienez (% 65ek, hain zuzen).

Aldian-aldian kirola egitea ohikoagoa da mutilen artean (% 73), nesken artean baino (% 57). Mutilek nahiago dituzte taldeko kirolak, eta neskek, berriz, banakako kirolak.

- *Egunero erretzen duten gazteen ehunekoa % 39koa da.*

Mutilek gehiago erretzen dute neskek baino: % 42 eta % 36, hurrenez hurren. Eta kontsumoak gora egiten du, argi eta garbi, adinean gora egin ahala: 15 eta 19 urte bitartekoen % 30ek erretzen du egunero, 20 eta 24 urte bitartekoen % 39k eta 25 eta 29 urte bitartekoen % 45ek.

- *Gazteen ia erdiak adierazi du mozkortu egin dela eta hamarretik bik legez kanpoko drogaren bat kontsumitu dutela azken hilabeteen.*

% 48 gutxienez behin mozkortu da azken hilean, eta gehiago dira mutilak (% 54) neskek baino (% 41).

Hamar gaztetik bik adierazi dute legez kanpoko drogaren bat kontsumitu dutela elkarriketa egin aurreko azken hilabeteen. Mutilen ehunekoa neskena halako bi da: % 27 eta % 13, hurrenez hurren.

Kontsumo-ehuneko handiena, bai alkoholarena, bai beste droga batzuen, 20 eta 24 urte arteko taldeko gazteena da.

- *Inkesta egin aurreko hilabetean, gazteen %9k baimendutako alkohol-tasa baino tasa handiagoz gidatu du edo tasa hori gainditzen duen norbaitekin joan da.*

Mutilen artean handiagoa da ehuneko hori (% 12, hain zuzen) nesken artean baino (% 6). 20 urtetik 24 urtera bitarteko adin-taldeak du ibilgailua alkohola edan eta gero erabiltzeko arrisku handiena (% 11k).

## SEXUALITATEA

- *Gazteen heren batek garrantzi handia ematen dio sexualitateari bere bizitzan.*

Gazteen % 34k uste du sexualitatea oso garrantzitsua dela. Ehuneko hori 2000. urtekoa baino hamar puntu handiagoa da, eta Espainiako gazteena baino askoz handiagoa (% 16k uste dute hori).

- *Ama eta lagunak dira sexuari buruzko informazioaren iturri nagusiak.*

Gazteen % 27k ama du sexualitateari buruzko informazioaren iturri nagusia, eta % 24k, berriz, lagunak. % 2k soilik aipatzen du Internet.

- *Lau gaztetik hiruk sexu-harremanak izan dituzte.*

Gazteen % 78k izan ditu sexu-harremanak, eta Espainian baino hamar puntu gutxiago da hori.

Ehunekoa berdina da nesken eta mutilen artean, baina asko aldatzen da adin-taldeeireparatzen badiegu. 15 eta 17 urte bitarteko gazteen % 40k sexu-harremanak izan ditu; 18 eta 19 urte bitartekoen % 67k, 20 eta 24 urte bitartekoen % 85ek, eta 25 eta 29 urte bitartekoen % 90ek. Horrenbestez, badirudi sexu-harremanak izaten hasteko adina 17 eta 18 urteren artean dagoela.

- *Sexu-esperientzia duten lau gaztetik batek haurdun geratzeko arriskua edo sexu-transmisiozko gaitasuna izateko arriskua dakarren sexu-harremanen bat izan du.*

Nahiz eta gazte gehienek (% 74k) ez duen inolako arriskurik izan azken urtean izandako sexu-harremanetan, % 16k adierazi du haurdun geratzeko arriskua izan duela, % 2k sexu-transmisiozko gaitasuna harrapatzeko arriskua izan duela, eta % 6k bi arriskuak zekartzan sexu-harremanen bat izan duela.

Aurreko datuak ikusita, adieraz dezakegu Euskadiko gazteak prestatuta edo prestatze-prozesuan daudela. Eta hori lana aurkitzen laguntzen duen faktorea da, krisi gogorreko eta gazteen langabezia-tasa handiko egoera honetan.

Azken lau urteetan, behera egin du gazteen erosteko ahalmenak, eta lana izateak ere ez du bermatzen diru-sarrera nahikoa gazteen emantzipazio-proiektuak gauzatzeko.

Egoera honetan, langabezia eta lan-prekarietatea dira gazteen kezka nagusiak, eta duela lau urte gazteentzat lehenengo zen kezka, etxebizitza bat eskuratzea, kendu dute lehen lekutik.


Gazteek kritikatzten dute administrazio publikoek ez dutela nahikoa lan egiten gazteen gaitan eta ez dituztela aintzat hartzen beren iritziak. Gazteek parte hartu nahi dute gai publikoetan eta beren ahotsa entzun dadila nahi dute, baina ez dute uste alderdi politikoek ordezkatzten dituztenik.

Krisi-egoera izan arren, badirudi gazteen aisian ez duela eragin handirik izan: gehiago joaten dira kontzertuetara eta, zinemara gutxiago joaten diren arren, badirudi zinema beste modu batean kontsumitzen delako dela (*on line* ikustea, filmak jaistea...), Internet gazteen artean guztiz sartuta egotearakin lotuta, eta ez gutxiago kontsumitzen delako.

2012an tolerantziarik ezak zertxobait gora egin duela ikusten da, lehen baino gehiago arbuiatzen baitira immigranteak, lehen baino ehuneko handiagoa ez dago gustura beren sinesmenak eta balioak ez dituzten pertsonekin, lehen baino gehiago dira heriotza-zigorraren aldekoak... Horrek, ordea, badu kontrako aldea ere, gazte gehienek ideia progresistak baitituzte, batetik (sexu bereko bikoteen arteko ezkontzaren, sexuaren legezko aldatetaren, abortu libre eta borondatezkoaren, eutanasiaren eta kanabisaren legalizazioaren aldekoak dira), eta lehen baino larriago ikusten baitituzte indarkeria sexistaren adierazpenak, bestetik.

Sekularizazioak asko egin du gora, eta gazte gehienak ez dira erlijiozaleak; hau da, erdiak baino gehiagok ateotzat edo agnostikotzat du bere burua. Sekularizazio horrek bereizi egiten ditu Euskadiko gazteak gainerako biztanleetatik, Euskadiko biztanleriaren gehiengoak katolikotzat baitu bere burua.

Lau urte barru berriro aztertuko dugu nolakoak diren Euskadiko gazteak, nolako bilakaera duten, eta nola ari diren urruntzen edo hurbiltzen biztanleria orokorretik, ohituretan eta iritzietan. Gazteak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu gazte izateak, berez, zer dakarren: anbizio handiko pertsona izatea, bizia, idealak dituen, ingurunearekin kritikoa, gauza berriak bizi nahi dituen eta bizitzaz gozatzen badakiena.



**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

**Metodologia**







# Metodologia

Gazteen iritzia banakako inkesten bidez jaso da. Etxez etxe egin zaizkio inkestak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzeko 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen lagin adierazkor bati.

Lagina EAeko 1500 gaztek osatzen dute, eta honela banatuta daude lurraldeetan: Arabako 400 gazte, Bizkaiko 600 eta Gipuzkoako 500.

Elkarrizketatu beharreko gazteak laginketa anizkoitz eta egituratu baten bidez hautatu ziren, 20 inkestako ausazko ibilbideei jarraituz, laginketa hasteko 75 puntutan oinarrituta. Lurralde bakoitzean elkarrizketatu beharreko gazteak hautatzerakoan, aintzat hartu ziren sexu-kuotak eta adin-taldeak (15-19 urte, 20-24 urte eta 25-29 urte) eta lan-egoera (langabezian dauden bost pertsona, gehienez, ibilbide bakoitzeko).

Ondoren, bildutako datuak lurralde bakoitzeko 15 urtetik 29 urtera bitarteko benetako biztanleria kontuan hartuta haztatu dira, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) argitaratutako datu ofiziale-tan oinarrituta.

1500 gazteren lagin horri dagokion laginketa-errorea, lagina erabat ausazkoa izanaren kasu teorikoan egozgarria,  $\pm 2,6\%$ koa da EAE osorako, eta konfiantza-maila  $95,5\%$ koa,  $p=q=0,5$  suposizioa oinarri hartuta.

Inkestak 2012. urteko martxoaren 19tik 24ra bitartera egin ziren, galdesorta egituratu batean oinarrituta. Gehienetan erantzunak itxiak ziren, baina bat-batean eta elkarrizketagileek aukerarik eskaini gabe erantzun beharreko galdera irekiak ere egin ziren. Ondoren, bat-bateko erantzun horiek zenbait kategoriatan bildu dira, lortutako informazioa modu ulergarriagoan tratatu ahal izateko. Horrez gain, kasu batzuetan, erantzun bat baino gehiago hautatzeko aukera eman da. Lanerako erabili den galdesorta atzealdeko eranskinean jaso da.

Etxez etxe joaterakoan, inkestagileek behar bezala erakutsi zuten nor ziren, eta elkarrizketatu zituzten pertsona guztiei aurkezpen-gutun bat eman zitzaion. Hartan, adierazten zen inkesta Gazteen Euskal Behatokiarentzat zela, erantzunak anonimoak izango zirela bermatzen zela, eta doan deitzeko telefono-zenbaki bat zutela zalantzarik izanez gero deitzeko. Eskerrak ematen zitzaizkien parte hartzea-

gatik. Elkarrizketatutako pertsoneri inkestak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera eman zitzaien, eta ahaleginak egin ziren elkarrizketa egiten ari zirenean inkestagilea eta elkarrizketatua bakarrik egon zitezten, erantzunak baldintzatu zitzakeen inor egon ez zedin (gurasoak, bikotekidea...).

Ikerketaren diseinua, galde-sortako galderak egitea, landa-lana egiteko jarraibideak ematea, emaitzen azterketa eta txostena egitea, horiek guztiak, Gazteen Euskal Behatokiaren ardura dira oso-osorik. Behatokia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren menpeko erakundea da.


Bai landa-lana egiteko ardura, hots, inkesta egitea eta ondoren grabatu eta fitxategien kontrol eta arazte informatikoa egitea; bai inkestak egiteko herriak aukeratzeko lana eta ibilbideak zehaztea (barrutiak, kaleak, atalondoak eta abar) Ikertalde Grupo Consultor enpresak egin du. Hartarako kontratatu da, hari esleitu baitzaio landa-lana. Enpresak Gazteen Euskal Behatokiak ezarritako jarraibideak espresuki betez egin ditu lan guztiak.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

**Bibliografia**





# Bibliografia

Arellano Yanguas, Javier. *M15M Bilbon: Bilboko M15M mobilizazioen inguruko gizarte-dinamikei buruzko azterlana = 15-M Bilbao : estudio de dinámicas sociales en torno a las movilizaciones del 15-M en Bilbao*. Iziar Basterretxea Moreno y Cristina de la Cruz Ayuso (coaut.). 1. argit. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2012. (Gazteak; 5). Web gunean eskuragarria: [http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteak\\_bilduma/eu\\_liburuak/adjuntos/15M\\_Bilbao\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/15M_Bilbao_e.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]

*EAE-ko gazte-elkartegintzaren liburu zuria 2003*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003. 130 p. (Gazte plana; 10). Web gunean eskuragarria: [http://www.gazteukera.euskadi.net/contenidos/informacion/gazte\\_plana\\_argitalpenak/eu\\_5560/adjuntos/AsociacionismojuvenilE.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.net/contenidos/informacion/gazte_plana_argitalpenak/eu_5560/adjuntos/AsociacionismojuvenilE.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]

*Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna = Violencia machista contra las mujeres en la CAPV: percepción, incidencia y seguridad* / [egileak, EDE Fundazioa, Gizarte Ikerketarako Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2012

Emakunde. *Borrador del VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE* [on line]. [s.l.]: AIC, [2013] <http://factoria-aic.com/emakunde/wp-content/uploads/2013/09/Borrador-VI-Plan-de-Igualdad.pdf> [Kontsulta: 2013/11/06]

Emakunde. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako *V. Plana: IX. legealdirako jarraibideak* [on line]. Gasteiz: Emakunde, 2010 [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/u72\\_iv\\_plan/eu\\_emakunde/adjuntos/V\\_Plan\\_eu.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/u72_iv_plan/eu_emakunde/adjuntos/V_Plan_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]

Espainia. Constitución Española de 1978, *Boletín Oficial del Estado*, 1978ko abenduaren 29an, 311. zk. [testu kontsolidatua *linean*]. <http://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1978-31229> [Kontsulta: 2013/11/06]

Espainia. Ley 3/2007, de 15 de marzo, reguladora de la rectificación registral de la mención relativa al sexo de las personas, *Boletín Oficial del Estado*, 2007ko martxoaren 16an, 65. zk., 11251. or. [on line]. <http://www.boe.es/boe/dias/2007/03/16/pdfs/A11251-11253.pdf> [Kontsulta: 2013/11/06]

Estébanez, Janire; Vázquez, Norma. *Genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2013. 110 or. (Gazteak; 7). Web gunean eskuragarria: [http://www.gazteukera.euskadi.net/contenidos/informacion/gazteak\\_bilduma/eu\\_liburuak/adjuntos/sexismoa\\_gizarte\\_sareetan\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.net/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/sexismoa_gizarte_sareetan_e.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]

- Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Saila. *Encuesta sobre oferta inmobiliaria: Viviendas en oferta por trimestre y año según tipo. 2012* [en línea]. [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse01/es/contenidos/estadistica/ovv\\_v\\_oi\\_te\\_2012\\_1/es\\_ovv\\_sevi/adjuntos/Oferta\\_inmobiliaria\\_1trim\\_2012\\_es.xls#T1!A1](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse01/es/contenidos/estadistica/ovv_v_oi_te_2012_1/es_ovv_sevi/adjuntos/Oferta_inmobiliaria_1trim_2012_es.xls#T1!A1) [Kontsulta: 2013/11/06]
- Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Saila. Estatistikarako Organo Berezia. *2011ko etxebizitza hutsei buruzko inkesta: Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren % 8,4 hutsik zeuden 2011n* [on line]. (2012/7/19ko prentsa-oharra) [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse03/eu/contenidos/nota\\_prensa/ovv\\_v\\_vv\\_np\\_2011/eu\\_v\\_sd\\_sv/adjuntos/NP-EVV-2011-eu.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse03/eu/contenidos/nota_prensa/ovv_v_vv_np_2011/eu_v_sd_sv/adjuntos/NP-EVV-2011-eu.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]
- Etxebizitzako Behatokia = Observatorio Vasco de la Vivienda. *Eskaintza Inmobiliarioaren txostenak: 2012ko 1 hiruhileko* [on line]. [https://www.euskadi.net/r41-ovse01/eu/contenidos/informe\\_estudio/ovv\\_sectorvivienda\\_oi\\_2012/eu\\_ovv\\_sevi/adjuntos/Informe\\_Oferta\\_Inmobiliara\\_I\\_Trimestre\\_2012\\_eu.pdf](https://www.euskadi.net/r41-ovse01/eu/contenidos/informe_estudio/ovv_sectorvivienda_oi_2012/eu_ovv_sevi/adjuntos/Informe_Oferta_Inmobiliara_I_Trimestre_2012_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]
- Etxebizitzako Behatokia = Observatorio Vasco de la Vivienda. *Etxebizitzaren merkatuko adierazleak. EAE. (2012. urtea)*, [on line] [https://www.euskadi.net/contenidos/informacion/ovv\\_sv\\_cm12/eu\\_ovv\\_sevi/adjuntos/CUADRO%20DE%20MANDO\\_Cuarto%20Trimestre%202012\\_eusk.pdf](https://www.euskadi.net/contenidos/informacion/ovv_sv_cm12/eu_ovv_sevi/adjuntos/CUADRO%20DE%20MANDO_Cuarto%20Trimestre%202012_eusk.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]
- Etxebizitzako Behatokia = Observatorio Vasco de la Vivienda: *EAEko etxebizitzaren behar eta eskariari buruzko inkesta 2011. Eraitzen txostena* [on line]. [https://euskadi.net/r41-ovpe01/eu/contenidos/informe\\_estudio/ovv\\_personas\\_endv11/eu\\_ovv\\_info/adjuntos/Informe\\_Necesidades\\_Vivienda\\_2011\\_eu.pdf](https://euskadi.net/r41-ovpe01/eu/contenidos/informe_estudio/ovv_personas_endv11/eu_ovv_info/adjuntos/Informe_Necesidades_Vivienda_2011_eu.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]
- Euskadi eta drogak 2012*. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco. Departamento de Salud, [2013] [on line] [http://www.euskadi.net/contenidos/informacion/publicaciones\\_ovd\\_euskadi\\_drog/eu\\_9060/adjuntos/Euskadi%20eta%20drogak%202012.pdf](http://www.euskadi.net/contenidos/informacion/publicaciones_ovd_euskadi_drog/eu_9060/adjuntos/Euskadi%20eta%20drogak%202012.pdf) [Kontsulta: 2013/11/06]
- Euskadiko gazteak* [on line]. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2000- [Kontsulta: 2013/11/06]. Laurtekaria. Web gunean eskuragarria: [http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/euskadiko\\_gazteak/eu\\_liburuak/liburuak.html](http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/liburuak.html)
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: *2007ko Euskal Osasun inkesta* [on line]. [http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ck-publ02/eu/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/encuesta\\_salud/eu\\_eaeoi/osasun\\_inkesta.html](http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ck-publ02/eu/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/encuesta_salud/eu_eaeoi/osasun_inkesta.html) [Kontsulta: 2013/11/06]
